

EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN LIBURU ZURIA 2024



Hirugarren Sektore Sozialaren
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Egilea: Hirugarren Sektorre Sozialeko Euskal Behatokiko lantaldea.

Parte hartu duen Behatokiko lantaldea: Iker Fernández, Lucía Merino, Claudia Calderón, Roberto Folgueira eta Iskandar Cabezas.

EAEko administrazio orokorraren tresna tekniko bat da Behatokia, gizarte-zerbitzuen inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren mendekoa. Informazioa eta ezagutza biltzea, sistematizatzea, eguneratzea eta sortzea da Behatokiaren ardura, baita informazio eta ezagutza hori Hirugarren Sektorre Sozialarekin lotutako eremuetan eta bertako erakunde eta sareetan hedatzea ere (Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 25.1 artikulua).



Argitalpen-data: maiatza 2025

Behatokiaren argitalpen guztiak kontsultatzeko eta dohainik deskargatzeko aukera dago Behatokiaren webgunean (www.3seuskadi.eus) eta <https://ikusmirak.eus/> webgunean.

Argitalpen horien bidez, hirugarren sektorre soziala hobetzen lagundu nahi dugu. Horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta haiek banatzea, kopiazea eta berrerabiltzea baimentzen dugu, baldin eta diru-irabazi asmorik gabe egiten bada eta egileak aitortzen badira.



Aurkibidea

1.	SARRERA.....	1
2.	IKERGAIAREN DEFINIZIOA ETA MUGATZEA	4
3.	METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA	7
	A. AZTERTUKO DEN UNIBERTSOA IDENTIFIKATZEA	7
	B. KONTSULTA KUANTITATIBOA ERAKUNDEEN LAGIN BATI	8
	C. DATU KUANTITATIBOEN TRATAMENDUA ETA AZTERKETA.....	10
	D. KONTSULTA KUALITATIBOA.....	11
4.	NORTASUNA ETA KOPURU NAGUSIAK.....	13
	4.1. ZIFRA NAGUSIAK.....	13
	4.2. ZER BEREZKO EZAUGARRI DITU EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAK?	15
	4.3. 2019-2023 ALDIKO AZTERKETA KONPARATIBOA	21
5.	JARDUERA.....	23
	5.1. ZER ARLOTAN EGITEN DUTE LAN?	23
	5.2. ZENBAT DENBORA DARAMATE LANEAN?	25
	5.3. ZER KONTINGENTZIA ARTATZEN DITUZTE?	28
	5.4. ZER KOLEKTIBORI ZUZENDUTA DAUDE?.....	29
	5.5. ZER JARDUERA GARATZEN DUTE?	33
	5.6. 2019-2023 ALDIKO AZTERKETA KONPARATIBOA	46
6.	PERTSONAK	48
	6.1. LANTALDEAK: BOLUNTARIOAK ETA SOLDATAPEKO LANGILEAK	48
	6.2. GOBERNU ORGANOAK	72
	6.3. BAZKIDEAK ETA DOHAINTZA-EMAIKAK	76
	6.4. 2019-2023 ALDIKO AZTERKETA KONPARATIBOA	77
7.	BALIABIDE EKONOMIKOAK.....	81
	7.1. ZER BALIABIDE EKONOMIKO DITUZTE?	81
	7.2. NONDIK DATOR FINANTZAKETA?	87
	7.3. ZERTARA BIDERATZEN DITUZTE BALIABIDE EKONOMIKOAK?	100
	7.4. LIKIDETIA, KREDITUEN ESKURAGARRITASUNA ETA ONDAREA	103
	7.5. 2019-2023 ALDIKO AZTERKETA KONPARATIBOA	105
8.	KUDEAKETA- ETA KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK	108
	8.1. ZER KUDEAKETA TRESNA ERABILTZEN DITUZTE?	108
	8.2. ZER BESTE KUDEAKETA PRAKTIKA BARNERATU DITUZTE? KUDEAKETA PRAKTIKA HORIEK BAT DATOZ HAIEN MISIOAREKIN ETA BALIOEKIN?	116
	8.3. ZER KOMUNIKAZIO MEKANISMO ERABILTZEN DITUZTE? ZER INFORMAZIO HELARAZTEN DIETE INTERES TALDEEI?	122
	8.4. ERALDAKETA DIGITALEKO ZER PRAKTIKA ARI DIRA TXERTATZEN?.....	127
	8.5. 2019-2023 ALDIKO AZTERKETA KONPARATIBOA	128

9. KANPO HARREMANAK	131
9.1. NOLAKOA DA BESTE ERAGILE SOZIAL BATZUEKIKO HARREMANA?	131
9.2. NOLA JASOTZEN DA BESTE ERAGILE SOZIAL BATZUEN LAGUNTZA?	133
9.3. 2019-2023 ALDIKO AZTERKETA KONPARATIBOA	134
10. HARREMANAK ETA SEKTOREAREN EGOERA	136
10.1. NOLAKOAK DIRA EHSS-KO HARREMANAK?	136
10.2. NOLA BALORATZEN DA BIGARREN MAILAKO EDO GORAGOKO ERAKUNDEEN ROLA?	137
10.3. ZER KEZKA DITUZTE EHSS-KO ERAKUNDEEK?	139
10.4. NOLA BALORATZEN DITUZTE EHSS-REN EGOERA ETA ETORKIZUNA?	142
10.5. 2019-2023 ALDIKO AZTERKETA KONPARATIBOA	144
11. SEKTOREAREN HAUSNARKETAK ETA ERRONKAK	146
12. BIBLIOGRAFIA	177
13. GRAFIKOEN ETA TAULEN AURKIBIDEA	179

1. SARRERA

Ekimen eta esku-hartze sozialeko erakundeak eta sareak indartzea da Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2012 Legearen helburua, eta lege horren lehentasunen artean dago sektorea eta haren bilakaera ezagutzearen garrantzia. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko Estrategiak¹—egungo araudi-esparrua sendotzen duena—33. jarduketan, informazioa eguneratuta izatearen garrantzia nabarmendu zuen, eta honakoa zehaztu zuen: “Sektorearen, haren ezaugarrien eta haren ekarpenen gaineko datu sistematikoak eta aldian behingo datuak eskuragarri izatea oinarritzeko da diagnostikoak, plangintzak eta ebaluazioak egiteko, eta lagungarria izan da eta izango da sektorea egituratzeko, erakundeak sektorearekin identifikatzeko eta sektorea aintzat hartzeko”. Helburu horretarako, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren egoerari buruzko ikerketa eta ebaluazioa egiteko aldizkako zikloa jarri du abian, legeak jasotzen dituen aurreikuspenen arabera. Aipatutako zikloak bi urtez behingo txosten bat (barometroa) eta lau urtez behingo txosten bat (liburu zuria) hartzen ditu barne; liburu zuriak dagokion bi urtez behingo txostena jasoko du.

Barometroaren eta Liburu Zuriaren helburua da erakundearen ezaugarriei eta egiten dituzten jardueri buruzko aldizkako informazioa eta informazio adierazgarria jasotzea, haien ekarpen sozialaren eta errealitate anitzaren berri ematea, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko kide izatearen sentimendua eta aitortze soziala bultzatzea, baita sustapen eta garapenerako orientazioak ezartzea ere. Aldizkako ikerketa-zikloarekin bat etorriz, Liburu Zuriaren edizio honek Barometroa du barnean. Liburu Zuriaren esparruan egin denez, Barometroa datu kuantitatibo nagusien separata bat da.

2023ko Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroa produktu arin eta erabilgarria da, eta Euskadin ekimen eta esku-hartze sozialerako dauden erakundeak eta sareak jasotzen ditu, laburtuta. Alabaina, **2024ko Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria** txosten luzeagoa, sakonagoa eta xeheagoa da eta Barometroaren datuak zabaltzen ditu; horretarako, datu orokor gehiago eskaintzen ditu, baita datu banakatuak ere, gai bakoitza aldagai independenteen arabera ulertzea ahalbidetzen dutenak.

2024ko Liburu Zuriaren edizioa hirugarren txostena da. Lehenengoa 2015ean egin zen eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko lehen Liburu Zuria izan zen. Orduko hartan, sektoreko erakundearen ezaugarri nagusien funtsezko azterketa izan zen eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak erronkei aurre egiteko zituen galdera eta orientazio nagusien gaineko gogoeta ekarri zuen. Ordutik, sektoreak funtsezko mugarrak izan ditu finkatze- eta egituratze-bidean, baina pandemiak inpaktu handia izan zuen erakundeengan. 2023an jasotako Liburu Zuriaren datuek erakusten digute Euskadiko Sektore Soziala pandemia osteko egoeran dagoela eta rol aitortua duela eraldaketa sozialerako eragile sozial gisa. Sektorearen jardueren irismena, harremanak eta ekarpena handitu egin dira, hain zuzen ere rol hori finkatu egin delako.

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala osatzen duten erakundeak eta sareak herritarren ekimen libretik sortuak dira, eta antolatutako elkartasuna eta herritar guztien (bereziki, egoera, arazo edo behar sozialek kaltetutako pertsona, familia, talde edo komunitateena) parte-hartze soziala bideratzen dute. Jardueraren garapenean, erakundeek behar sozialen erantzuna intzidentzia sozialarekin uztartzen dute zerbitzuen bitartez, eta beraien jarduerarekin funtsezko ekarpena soziala egiten dute. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko legeak dioen moduan,

¹ EUSKO JAURLARITZA (2018). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia*. https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/xiileg_planes_departamentales/eu_def/EUSKADIKO-HIRUGARREN-SEKTORE-SOZIALA-SUSTATZEKO-ESTRATEGIA.pdf

kapital sozial, erlazional eta giza kapital handia bideratzen dute erakundeek. Eta euskal gizarteko funtsezko aktiboak dira, gizarte justu, berdinazale, solidario, kohesionatu, parte-hartzaile eta demokratiko gisa egituratzeko.

Euskal gizarteak, sektoreak berak eta interesa duten beste eragile batzuek edo dagoeneko sektorea sustatzen duten eragileek Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren errealitatearen argazki bat izatea ahalbidetzen du Liburu Zuriak:

- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legean jasotako definizioan oinarrituta eskuratua.
- Lehen mailako iturrietatik jasotako datuetan oinarritua, erakundeei eurei egindako kontsulta zuzenaren bidez.
- Eta Estatuan egiten diren antzeko azterlanetako argazkiarekin alderatzeko modukoa.

Eta Hirugarren Sektore Sozialaren ezaugarri nagusien (jarduera, baliabideak, kudeaketa, etab.), haren ekarpen sozialaren funtsezko elementu batzuen eta haren barne-egituraren gaineko informazio kuantitatibo eta kualitatiboa sistematizatzeko modu bat da.

Honako helburuek gidatu dute ikerketa-lana:



IDENTIFIKAZIOA ETA EGUNERATZEA

Euskadin jardunean dauden Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen multzoa identifikatzea eta Behatokiaren webgunearen bidez eskuragarri dagoen erakundeen direktorioa eguneratzea.



SEKTOREAREN DIMENTSIONA

Sektorearen dimentsioa kalkulatzeko erakunde kopuruari, pertsona kopuruari (boluntarioak, ordainduak...), ekarpen sozioekonomikoari eta abarri dagokienez.



DESKRIBAPEN Kuantitatiboa

Sektoreko erakundeek beren jarduerari, pertsonari, baliabide ekonomikoari, kudeaketari eta harremanari (kanpokoak eta barrukoak) dagokienez dituzten ezaugarriak kuantitatiboki deskribatzea.



ERRONKAK ETA ORIENTABIDEAK

Erronka eta orientabide batzuk identifikatzea, horiek lortzen saiatzeko, sektorearen bilakaerari eta egungo errealitateari buruzko hausnarketa parte-hartzailea eginez erakundeekin eta sareekin.

Kapitulutan multzokatuta, txosten honen emaitzak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren ezaugarri nagusiak ematen ditu aditzera, identitateari, jarduerari, sektorea osatzen duten pertsonari, baliabide ekonomikoari, erabiltzen dituen kudeaketa- eta komunikazio-tresnei eta barne- eta kanpo-harremanari dagokienez. Gainera, kapitulu bakoitzak ondorioen atal bat du, datuak 2019ko Liburu Zuriko datuekin alderatzeko. Hala, azken lau urteetan hainbat gaitan izandako bilakaera ikus daiteke.

Halaber, txostenak amaierako atal bat jasotzen du ondorioekin eta aurreko ataletan aztertutako datuetatik eratorritako ideien gaineko gogoeta nagusiak jasotzen ditu. Gogoeta horiek Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeekin eta sareekin partekatu dira eta sektorearen egungo eta etorkizuneko erronkak irudikatzeko aukera ematen dute.

2024ko Liburu Zuria egiterik ez genukeen izango galdetegiari erantzun dioten 438 erakunde eta eztabaida-taldeetan parte hartu duten 46 erakunde baino gehiagoren parte-hartze eskuzabalagatik izan ez balitz. Gure eskerrik onenak guztiei.

Lan hau sektorearentzat lagungarria izatea espero dugu, haren nortasun partekatuaren, errealitate anitzaren, ekarpen sozialaren eta sektore gisa dituen erronka nagusien gaineko kontzientzia hartzeko. Era berean, espero dugu sektorearen gaineko ezagutza zabaltzea (ezaugarriak, jarduera...), eta gizarteak eta beste sektore (sektore publikoa eta enpresak) eta eragile sozial batzuek (alderdi politikoak, sindikatuak, mugimendu sozialak, elkartasuneko egitasmo ez-formalak, etab.) haren ekarpen bereizgarriaren garrantzia onartzea.

2. IKERGAIAREN DEFINIZIOA ETA MUGATZEA

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak jasotzen duen Hirugarren Sektore Sozialaren definizioan oinarritu gara txosten honetan:

- legezko egitura eta izaera juridikoa duten erakundeak, haien figura juridikoari dagokion erregistroan inskribatuak;
- ekintza boluntariokoak, irabazi-asmorik gabekoak, pribatuak, autogobernatuak eta autogestionatuak;
- egoitza edo ordezkari-tza eta jarduera Euskadin dituztenak;
- honakoak sustatzea dute helburu nagusi: inklusio soziala, garapenerako lankidetzeta eta zaurgarritasun-, bazterkeria-, babesgabeketasun- eta mendekotasun-egoeretan dauden pertsonen, familien, kolektiboen edo komunitateen eskubideak modu eraginkorrean egikaritzea;
- esku-hartze sozialeko jardueren bidez, hala nola gizarte-zerbitzuak, enplegurako sarbidearen sustapena eta gizarteratzea sustatzeko beste edozein jarduera, esaterako, arloen, politiken eta sistemen arteko interakzio-espazioetan (gizartea eta lan arloa, gizartea eta bizitoki arloa, gizartea eta hezkuntza arloa, gizartea eta osasun arloa, gizartea eta arlo judiziala, gizartea eta kultur arloa, edo beste batzuk) helburu horrekin garatutako jarduerak.

Gainera, aipatutako legeak jasotzen duen definizioak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko saretzat jotzen ditu beste erakunde batzuk ordezkatzeko dituzten bigarren mailako eta goragoko mailako erakundeak, baita kolektibo zehatz bat ordezkatzeko duten Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko esku-hartze zuzeneko erakundeak ere, dagokion lurraldean edo geografia eremuan kolektibo hori ordezkatzeko duen sarerik ez dagoenean.

Ikerketa-proiektu honen testuinguruan, eta legeak jasotako definizioarekin bat etorritik, baldintza hauek betetzen dituzten erakundeak hartuko ditugu Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundetzat²:

1. **Egitasmo formalizatua** da: legezko egitura eta egitura juridikoa dituzten entitateak dira. Ez dira barne hartzen elkartasunarekin, elkarlanarekin eta elkarri laguntzearekin lotutako adierazpen informalak.
2. **Aktibo** dago: kontsultaren aurreko urtean jarduera izan duten entitateak.
3. **Gizarte zibiletik sortu** da: izaera eta jatorri pribatua duten entitateak, sortu diren gizarte-erantzunak ematea helburu duten pertsonen, familien, taldeen eta komunitateen ekimen asketik sortuak.
4. **Kudeaketa-autonomia eta independentzia** mantentzen du administrazio publiko-erakunde (versus sektore pribatua) eta enpresekiko (versus irabazi-asmorik gabekoak), baita Hirugarren Sektorekotzat hartzen ez diren beste entitateekiko ere (banku-fundazioak, alderdi politikoak eta sindikatuak): entitate hauen gobernu-organismoetan parte hartzen dutenen % 50 baino gutxiago dira hirugarren sektorekoak ez diren entitateen ordezkariak³.

² Informazio gehiago jasotzeko, [Definizio Teorikoari](#) eta [Definizio Operatiboari](#) buruzko dokumentuak kontsulta daitezke. Behatokiaren webgunean eskura daitezke.

³ Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak jasotzen duen moduan, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak barne hartzen ditu hauek ere: gaur egun existitzen diren eta EAEn berrogeita hamar urtetik gorako ibilbidea duten fundazio edo entitate historikoak, betiere hirugarren sektore sozialeko sareren baten barruan badaude eta definizioan zehaztutako eskakizunak betetzen badituzte, nahiz eta horien jatorriko estatutuen arabera gobernu-organismoetan instituzio publikoko ordezkariak

5. **Ez du irabazi-asmorik:** entitate hauen izateko arrazoia ez da irabaziak eskuratzea, eta, irabazirik balego, ezin dira kideen artean banatu; aitzitik, entitatearen helburu soziala betetzera bideratu behar dira irabazi horiek.

Irabazi-asmorik gabeko sektorearen figura juridiko propioa dute: fundazioa, elkarte edo ekimen sozialeko kooperatiba⁴. Era berean, barne hartu ditugu irabazi-asmorik gabeko entitateek sustatutako eta osatutako (gehiengo) lan-munduratzeko enpresak eta Enplegurako Zentro Bereziak, entitate horien helburu soziala betetzeko sortuak; eta barne hartu ditugu entitate erlijioso batzuk ere⁵.

6. Nolabaiteko **parte-hartze boluntarioa** du: orokorrean, boluntarioek osatutako (guztiz edo partzialki) oinarri soziala duten entitateak izaten dira (bazkideak, gobernu-organoetako pertsonak⁶ edo modu boluntarioan entitateari laguntzen dioten beste pertsona batzuk). Gainera, kideen parte-hartzea haien borondatearen arabera da, eta ez kanpoko inposizioen arabera.

izan ordezkaritza nagusia edo bakarra. Gainera, salbuespen gisa, ikergaiaren parte izango dira Enplegu Zentro Bereziak, gobernu-organoetako ordezkari gehienak edo guztiak instituzio publikoetakoak direnean, betiere definizioan zehaztutako gainerako eskakizunak betetzen badituzte eta Hirugarren Sektore Sozialeko sare baten barnean badaude.

Salbuespen gisa, barne hartzen dira entitate singular hauek: ONCE, Gurutze Gorria eta Caritas. Gurutze Gorria eta ONCE bi entitate singular dira, haien jardura Estatuaren (Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa) babespean garatzen duten tutoretzapeko entitateak (ikus martxoaren 1eko 415/1996 Errege Dekretua eta martxoaren 15eko 358/1991 Errege Dekretua). Ez dute 4. irizpidea betetzen, eta, horregatik, horiek barne hartzeak hainbat zailtza sortzen ditu. Dena den, kanpoan ez uztea erabaki dugu, haien jarduerak ekintza sozialaren sektorean duen inaktuagatik, eta erreferentziazko beste ikerketa-lan batzuek barne hartu dituztelako.

⁴ Kanpoan utzi ditugu *Elkartzeko Eskubidea Arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak* arautzen ez dituen elkarteak; lege horren aplikazio eremua irabazi-asmorik gabeko elkarteetara mugatzen da, eta kanpoan uzten ditu: elkarte zibilak, merkataritza-elkarteak, elkarte industriak eta lan arlokoak (lan-munduratzeko enpresak izan ezik), kooperatibak (ekimen sozialekoak izan ezik) eta mutualitateak, enpresen aldi baterako elkarteak, interes ekonomikoko multzoak eta ondasunen edo jabeen komunitateak, haien helburuak eta izaera ez badatoz bat elkarteen ohiko oinarri onartuarekin. Halaber, kanpoan utzi dira izaera "berezia" izateagatik erregimen asoziatibo espezifiko bat dutenak, hala nola alderdi politikoak, sindikatuak, enpresa-erakundeak, elizak, kirol-federazioak eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak.

⁵ Ekimen sozialekoa izateak esan nahi du kooperatibak, edozein motatakoa izanik ere, ez duela irabazi-asmorik, eta honakoa dela haren helburu soziala: laguntza-zerbitzuak eskaintzea osasun, hezkuntza, kultur edo gizarte arloko jarduerak egitearen bidez; edo nolanahiko gizarte-bazterkeria jasaten duten pertsonak lan-munduratzeko eta, orokorrean, merkatuak aintzat hartzen ez dituen behar sozialak asetzea helburu duten edonolako jardura ekonomikoak garatzea (*Ekimen Sozialeko Kooperatibak arautzen dituen apirilaren 4ko 61/2000 Dekretua*).

Lan-munduratzeko enpresek figura juridiko ezberdinak izan ditzakete (merkataritza-sozietateak, ekonomia sozialeko sozietateak, etab), baina irabazi-asmorik gabeko entitateek sustatzen eta osatzen dituzte (gutxienez, % 33ko parte-hartzea), bazterkeria-egoeran dauden kolektiboak lan-merkatuan txertatzea dute helburu (lan-munduratzeko tresnak dira, aldi baterakoak eta finalistak ez direnak) eta ezin dituzte irabaziak banatu (*abenduaren 26ko 305/2000 Dekretua, laneratzeko-enpresen kalifikazioa arautzen duena*). Entitate erlijioso batzuek (adibidez, kongregazio batzuek), haien misioaren baitan, ekintza sozialeko lan handia egiten dute pertsona behartsuen alde, eta irabazi-asmorik gabeko fundazioentzat eta elkarteentzat aurreikusitako onura fiskalak jasotzen dituzte (*Fundazioei eta Interes Orokorreko Jardueretako parte-hartze pribatuarentzako Pizgarri Fiskalei buruzko azaroaren 24ko 30/1994 Legeak* aurreikusten duen *765/1995 Errege Dekretua, maiatzaren Sekoa, interes orokorreko jardueretan parte-hartze pribaturako zerga-pizgarrien araubideko zenbait gai arautzen dituena*).

Enplegu Zentro Berezien helburu nagusia desgaitasuna duten langileei lan emankorra eta ordaindua egiteko aukera ematea da, haien ezaugarri pertsonalei egokitutako lana, eta lan-merkatu arruntan barneratzea erraztuko diona. Zentroak irabazi-asmorik gabeak izango dira edo ez, irabazi posible horien aplikazioaren arabera: irabazi guztiak instituzioan bertan erabiltzen dituen, edo irabazien zati bat irabazien titularrak den entitatearena ez den beste helburu baterako erabiltzen dituen (*abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretua, Enplegu Zentro Bereziei buruzko erregelamendua onartzen duena; minusbaliatuen gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 42. artikulua definitzen ditu Enplegu Zentro Bereziak*).

Onartzen dugu eztabaida dagoela Enplegu Zentro Berezien izaera finalista posiblearen inguruan, baina lan normalizaturako zubiak direla ulertuta, lan-munduratzeko enpresei ematen diegun tratamendu bera ematea erabaki dugu (bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboan lan-munduratzeko tresnak, non irabaziek jarduerari eragiten dioten), eta Enplegu Zentro Bereziak ikergai gisa aintzat hartzea erabaki dugu, irabazi-asmorik gabeko entitateen menpekoak badira eta, salbuespen gisa, gobernu-organoetako ordezkari gehienak edo guztiak instituzio publikoetakoak badira ere bai, betiere definizioan zehaztutako gainerako eskakizunak betetzen badituzte eta Hirugarren Sektore Sozialeko sare baten barruan badaude.

⁶ Irabazi-asmorik gabeko sektoreko figura juridiko nagusiei aplika dakiekeen araudiak ezartzen duenez, orokorrean, fundazioetako eta elkarteetako gobernu-organoetako karguek dohainik jardun beharko dute. Salbuespen gisa, elkarte bateko Zuzendaritza Taldeko kideek haien karguaren arabera ordainsariak jaso ahal izan ditzaten, berariaz aurreikusi beharko litzateke estatutuetan eta Batzar Orokorrean adostu beharko litzateke (EAEko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 14. eta 15. artikulua, eta *Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 19. artikulua*).

7. Orokorrean, **parte-hartze demokratikoa** izaten du: irabazi-asmorik gabeko sektoreko figura juridiko gehien ezaugarria da, horiei aplikatu dakiekeen araudiak ezartzen duenaren arabera.
8. Pertsonen, familien, kolektiboen edo komunitateen **inklusio soziala eta eskubideen egikaritze eraginkorra sustatzea da haren helburu nagusia**. Zaurgarritasun edo bazterkeria, babesgabetasun, desgaitasun eta/edo mendekotasun egoerak dituztenak.

Onura sozialeko helburua duten entitateak dira, arlo, sistema edo politika sozialekin lotutako jarduerak garatzen dituztenak, eskubideen egikaritze eraginkorra eta pertsonen ongizate soziala erraztera bideratuak. Eta haien kideen helburuetatik harago doaz, hau da, pertsonen kolektibo mugagabeei zuzenduta daude, eta ez pertsona zehatzei zuzenduta⁷.

9. **EAEn eta EAEtik** garatzen du jarduera: haien jarduera edo jardueraren zati bat EAEn mugen barruan garatzen duten entitateak dira, eta gutxienez egoitza, zentro edo ordezkaritza bat dute EAEn.

⁷ Orokorrean, arlo hauek hartzen dituzte barne: Gizarte Zerbitzuak, Osasuna, Enplegua eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak. Eta arlo hauen zati bat: Aisialdia (aisialdi hezitzaileko taldeak), Sozial-transbertsala (emakumeak, etorkinak, adinekoak, gutxiengo etnikoak, familiak eta beste batzuk) eta Giza Eskubideak (zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboekin lotutako erakundeak, hala nola presoekin).

Orokorrean, kanpoan uzten dituzte arlo hauek: kirola, kultura eta ingurumena. Eta arlo hauen zati bat: aisialdia (gazte-taldeak), eremu zibikoa (bizilagunen elkartek) eta giza eskubideak (zaurgarritasun-, bazterkeria-, mendekotasun-, babesgabetasun- eta/edo desgaitasun-egoeran dauden kolektiboek espezifikoki zuzenduta ez dauden egitasmoak).

Kanpoan uzten dituzte, halaber, honako hauek ere: ikastetxeak; osasun-arretako zentroak (ospitaleak, klinikak, erietxeak...); konfesioak, komunitate erlijiosoak eta berariaz helburu erlijiosoetarako eratutako elkartek; profesionalen elkartek, guraso-elkartek, ikasleenak, etxebizitza-sustapenerako elkartek, biktimenak...

Salbuespen gisa, barne hartzen dira honako jardueren bidez Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeei laguntzen dieten irabazi-asmorik gako entitateak: aholkularitza soziala, prestakuntza edo ikerketa.

3. METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA

Ikerketa egiteko metodologia kuantitatiboaren eta kualitatiboaren teknikak uztartu dira eta hainbat fasetan garatu da. Jarraian, lan honen emaitzak testuinguruan kokatzea ahalbidetzen duten gako metodologiko nagusiak azalduko ditugu:



A. AZTERTUKO DEN UNIBERTSOA IDENTIFIKATZEA

2024ko Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuriak lan honen beraren aurreko edizioetan⁸ unibertsoa identifikatzeko egindako lana hartu du abiapuntutzat.

2024ko Liburu Zuriaren lan esparruan, 2021eko urtarrilaz geroztik (EHSSeko 2021eko Barometroa egiteko datuak data horretan jaso ziren) izandako erakundeen alten eta baje (EAEn eta Estatuan) zerrenda eskatu diegu Hirugarren Sektore Sozialari⁹ lotutako figura juridiko nagusien **erregistro ofizialei**. Lehen iragazkia egin da ikerketan aztertuko ez diren horiek baztertzeko, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Legearen definizioa aintzat hartuta. Ekintza horren bidez, datu-basea eguneratzea lortu dugu, erregistroetatik eskuratutako altak eta bajak identifikatuta.

Datu-baseko erakunde askoren kasuan ez dugu harremanetarako informaziorik. Hori kontuan hartuta, weba arakatu dugu berriro ere, harremanetarako datuak bilatzeko. Ekintza hori bat etorri da denboran hurrengo fasearekin, hau da, kontsulta kuantitatiboarekin. Halaber,

⁸ Zehazki, 2015eko Liburu Zuriaren kasuan, Hirugarren Sektore Sozialarekin lotutako figura juridiko nagusien erregistro ofizialean eskuragarri zegoen informazioa kontsultatzeaz gain, sektorearen jarduerarekin lotura duten eta estrategikoak diren zerrenda batzuk ere kontsultatu ziren, hala nola 10.000 biztanletik gorako EAEko udal guztietako erakundeen zerrendak; EAEko Hirugarren Sektore Sozialarekin lotutako bigarren mailako edo maila handiagoko (sareak) erakundeen zerrendak; intereseko gidetan eta argitalpenetan jasotzen diren zerrendak (Emakunde, Boluntariotza Agentziak, etab.); Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen jarduerarekin lotutako 2014ko deialdi nagusietako dirulaguntza publikoen ebazpenetan ageri diren erakundeen zerrendak. Zerrenda hauetako batzuetan inskribatzea ez da derrigorrezkoa, hortaz, askotan zerrenda “partzialak” izaten dira, baina, erabilera praktikoa dutenez, harremanetarako datuen eguneratze maila altua izaten da.

Gainera, aipatutako txostenaren landa-lanean zehar eta ondoren, hainbat momentutan, weba arakatu genuen zerrenden kontsulta-lana osatzeko. Horri esker, beste “espazio” batzuetako erakundeen gaineko informazioa eskuratu ahal izan genuen. Prozesu hori ere “sakona” izan zen, eta zalantzak sortzen dituzten erakunde guztiak bilatu behar izan ziren. Web aarakatzeko bilaketa-motora erabili genuen, hitz gakoak eta entitatearen izena erabiliz hainbat kontsulta egiteko, eta kontsulten datuak iturri anitzetan berrikusi/ikertu ahal izateko: entitateen euren, administrazio publikoen eta beste entitate batzuen webguneak edo sare sozialetako profilak (elkartek, federazioak...); hedabideetako albisteak (prentsa, irratia...); argitalpenak (artikuluak, monografiak...) eta beste batzuk (kartelak eta/edo jardueren eskuorriak). Informazioaren gaurkotasuna egiaztatu genuen, argitaratutako data kontuan izanda, eta hainbat iturritan kontrastatu genuen eskuratutako informazioa. Lan honek aukera eman zigun erakunde batzuen gaineko zalantzak argitzeko, ikerketaren helburuarekin bat datozen edo ez argitzeko; aktibo zeuden, aktibo ez zeuden eta baja eman zuten erakundeak identifikatzeko; eta eskuragarri ez zeuden edo nahikoa eguneratuta ez zeuden telefono berriak eta posta elektronikoko berriak lortzeko.

⁹ Formalki eratzeko, derrigorrezkoa da inskribatzea, hortaz, figura juridiko bakoitzeko erakundeen zerrenda “osoak” dira. Dena den, baja ematea ere derrigorrezkoa den arren, erakunde askok ez dute baja ematen, hortaz, erregistratuta jarraitzen dute aktibo ez dauden erakunde dezentek. Gainera, harremanetarako datuen eguneratze maila baxua izaten da.

konsulta horretan zehar, datu-baseko erakundeen baheketa bat egin dugu, 2014-2023 aldian (lehen Liburu Zuriaren eta egngoaren arteko aldia) aktibo egoteari utzi ziotenak hautemateko.

Hala, **datu-basea** eguneratu dugu: sortu berriak diren erakundeak gehitu ditugu eta aktibo ez daudenak edo baja emandakoak baztertu ditugu. Hortaz, aktibo dauden erakundeak baino ez daude orain datu-basean. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko **4.259 erakunde aktibok** osatzen dute azterlan honek aintzat hartutako unibertsoa (informazio gehiago eskura daiteke hurrengo kapituluan).

B. KONTSULTA KUANTITATIBOA ERAKUNDEEN LAGIN BATI

Erakunde bakoitzaren datu kuantitatiboak jasotzeko erabilitako **galdetegia diseinatzeko**, 2020ko Liburu Zurian erabilitako tresna hartu genuen oinarritzat. Hark, aldi berean, 2015eko Liburu Zurian erabilitako tresna hartu zuen oinarri. Galdetegi hura diseinatzeko orduan, erreferentziatzeko beste ikerketa batzuetan erabilitako tresnak hartu ziren kontuan, eta sektoreko sareekin kontrastatu zen edukia. Kasu honetan ere kontrastatu ditugu erreferentziatzeko beste ikerketa batzuetan erabilitako tresnak, galdetegiko itemak eguneratzeko edo item berriak gehitzeko. Halaber, Sareen Sarearekin kontrastatu dugu diseinua, itemak egokiak diren egiaztatzeko.

Entitateen parte-hartzea, informazioaren bilketa eta biltegiatzea errazteko, datuak eguneratzea eta datuetarako sarbidea errazteko bereziki diseinatutako **online plataforma** bat eraiki genuen. Plataforma 2019an sortu zen 2020ko Liburu Zuriko informazioa jasotzeko. Hala, erakunde bakoitzak bere datuetara sartzeko eta galdetegia osatzeko aukera izan zuen. Bestalde, plataformari esker parte hartu duen erakunde bakoitzak galdetegira gehitutako datuak biltegira ditzake. Hala, datu horiek ikerketaren hurrengo edizioetan berreskuratzeke aukera egongo da, erakundeen parte hartzea eta eguneratzea erraztuta.

Ahalik eta erantzun gehien jasotzea ziurtatzeko, galdetegia unibertsoa osatzen zuten entitate guztiei **zabaltzea** erabaki genuen landa-lanaren estrategian. Hala, **hainbat bidalketa** egin genituen 2023ko maiatzaren 7tik ekainaren 28ra:

- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen posta elektronikoaren bidez; erakundeen unibertsoaren datu-base eguneratuan ageri ziren haien harremanetarako datuak.
- Sareen bidez, eta bereziki Sareen Sarearen bidez; galdetegia hedatzen eta entitate kideak motibatzen lagundu zuten.
- Behatokiaren komunikazio-kanalen bidez: webgunea, berrien buletina, X, Facebook, etab.

Gainera, telefono bidezko jarraipen sakona egin genuen. Behatokiaren datu-basean agertzen ziren erakundeen telefono-zenbakietara deitu genuen, eta ahaleginak dibertsifikatu genituen hiru lurralde historikoetara, hainbat jarduera arlotara eta hainbat figura juridikotara iristeko. Azkenean, unibertsoa entitate askorengana iritsi ginen.

Fase horretan zehar hainbat helburu eta ekintza konbinatu genituen:

- Erakundeen jardueraren datuak edo harremanetarako datuak eguneratzea.
- Aktibo ez dauden erakundeak identifikatzea.
- Behatokia, Liburu Zuriaren ikerketa-proiektua eta entitateen web-direktoria ezagutzera ematea.
- Online galdetegia erantzuteko motibatzea.
- Galdetegia betetzeko beste bide batzuk erraztea (telefonoz...).
- Galdetegiko edukiei buruzko zalantzak argitzea (galderen ulermena...).
- Aplikazio informatikoarekin lotutako zalantzak argitzea (sarbide-gakoak...).
- Erakunde bakoitzaren erantzunaren jarraipena egitea, galdetegia ongi bete duela egiaztatzeko (osatuta dago, datuak eguneratu dira, kongruenteak dira...).

Azkenik, 438 erakunderen gaineko datuak lortu ditugu. Ikerketaren unibertsoaren lagun adierazgarria da estatistikoki.

Hortaz, azterlanaren emaitzak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakunde guztietara estrapola daitezke %95eko konfiantza mailarekin eta +/- %4,4ko errore-marjinarekin. Hau da, laginetik eskuratutako datuek ehuneko 4,4 puntuko gorabeherak izan ditzakete, goitik edo behetik, biztanleria osoaren datuekin alderatuta.

FITXA TEKNIKOA

IKERKETAREN UNIBERTSOA

Euskadiko Hirugarren Sektore
sozialeko erakundeak

4.259

LAGINA

438

erakundek hartu dute parte ikerketan

KONFIANTZA ETA ERRORE MAILA

konfiantzaren

%95

eta

%4,4

errore marjina

DATUAK JASOTZEKO TEKNIKAK

onlineko galdetegia

DATUAK JASOTZEKO EGUTEGIA

2023ko maiatzaren 8tik uztailaren 7ra
egindako landa-lana

OHAR METODOLOGIKOAK

konsultatu ohar metodologikoen
inguruko dokumentua informazio
gehiago izateko

C. DATU KUANTITATIBOEN TRATAMENDUA ETA AZTERKETA

Txostenean zehar, galdetegiak jasotzen dituen aldagai guztien maiztasunen banaketari buruzko taulak eta grafikoak eskaintzen dira, eta, aldagai kuantitatiboen kasuan, gainera, joera zentraleko datu estatistikoak eskaintzen dira (batezbestekoa, moda, mediana...).

Azterketa osatzeko, kontingentzia-aulak (bi aldagaiko azterketa) txertatu ditugu. Datuak banakatuta erakusten dituzte taula horiek, sektorearen osaeran funtsezkotzat jotzen diren aldagaietan oinarrituta: figura juridikoa, lurralde historikoa, jarduera arloa edo tamaina dira ohikoenetako batzuk.

Datuen banakapenari dagokionez, garrantzitsua da honakoak kontuan izatea:

- Aztertutako laginak sektoreko erakunde guztiak ordezkatzeko, +/-% 4,4ko errore-marjinarekin¹⁰.
- Dena den, estratu bakoitzeko laginaren tamaina ez da nahikoa azterketaren zorrozatasuna eta fidagarritasuna bermatzeko, azterketak ez baditu erakunde guztien datuak kontuan hartzen, bereziki, kasu batzuetan¹¹.

Hortaz, banakapenen emaitzek pista orientagarriak eskain ditzakete, baina kontuz hartu behar dira.

Jarraian, datuen tratamenduarekin eta azterketarekin lotutako kontu metodologiko jakin batzuen xehetasunak emango ditugu:

- Haztapenak egin ditugu, erakunde mota batzuek laginean duten pisua eta erakunde horiek erakundeen unibertsoan duten pisu erreala bat datozela bermatzeko¹².
- Kasu bakoitzean “outlier” erakundetzat hartu diren erakundeak identifikatu eta kanpoan utzi ditugu azterketaren zati batzuetan (azterketan zehar zehazten joango gara). Datuak desitxuratzen dituzten erakundeak dira “outlier”-ak, eta haien balioek modu esanguratsuan areagotzen dute laginaren bariantza (kanpoan utzita, estatistikoen distortsioa murrizten da).
- “Bolumen ekonomikoa” aldagaiaren balio galduen (informazio ez) tratamendu bat egin da, datu multzo osoa eta sendoa lortzeko, ondoren multzo horri teknika estatistiko arruntak aplikatu ahal izateko. Zehazki, datuak inputatzea erabaki dugu: prozedura

¹⁰ Lagina adierazgarria da estatistikoki EAE osoari dagokionez. Lurralde historikoen arabera datuak tentuz hartu behar dira. Izan ere, Bizkaian errore-marjina +/-% 6,2koa da, Gipuzkoan +/-% 8,3koa eta Araban +/-% 9,6koa. Horrez gain, txostenaren lurralde historikoarenak ez diren beste alderdi batzuekin lotuta, errore-marjina handitu egiten da laginarekin alderatuta, aztertutako kasuen lagina txikitu egiten baita. Hori gertatzen denean, oin-oharrak sartzen dira, datuak arretaz aztertzeko.

¹¹ Aldagai batzuen kasuan, erantzunik gabeko kasuen kopurua adierazgarria da. Hori dela eta, laginaren tamaina asko murrizten denean, oharrak gehitu ditugu, emaitzak tentuz hartzeko. Datuak banakatzeko, kontuz ibili behar da aldagai batzuen estratu jakin batzuen kasuan, hala nola: “jarduera arloa” aldagaiaren “beste batzuk” estratua; “artatutako kontingentzia” aldagaiaren “mendekotasuna” estratua; 12.000 €-ra arteko diru-sarrerak eta ordainpeko langileak dituzten erakundeak; eta “kolektiboa”-ren arabera banakapenak.

¹² Landa-lanean zehar saiatu ginen lurralde historikoen, jarduera arloen eta figura juridikoen arabera bidezko hurbilketa egiten. Hala, arreta berezia jarri genien aldagai horiei, bai jarraipenean, bai erantzunen motibazioan. Baina amaitzean, laginak honakoak zituela egiaztatu genuen: a) Hauen ordezkaritza apur bat handiagoa zen: Arabako erakundeak; Osasunaren, Enpleguaren eta Gizarte Zerbitzuen arloko erakundeak; eta elkarrearen figura juridikoa ez duten entitateak; b) Hauen ordezkaritza apur bat txikiagoa zen: Gipuzkoako entitateak eta Aisialdiaren eta Sozial-transbertsalaren arloetako entitateak (*Ohar metodologikoak* dokumentua kontsulta daiteke informazio gehiagorako). Hori dela eta, haztapeneko faktore zuzentzaileak aplikatu ditugu analisian, eta hiru aldagai horien arabera oreka berreskuratzea lortu dugu.

horren bidez, lagineko informazioa erabiltzen da informaziorik gabeko erregistroak dituzten aldagaiei balio bat esleitzeko; hau da, lagineko datu onargarri ezagunez ordezkatzeko dira zurian dauden datuak, eta kasu bakoitzean erregistro horrekiko gertuen egon daitekeen balioa esleitzen da¹³.

- Hurrengo kapituluan eskaintzen diren zifra nagusiak (sektore osoaren bolumen ekonomikoa, ordainpeko langileen kopurua eta boluntarioen kopurua) kalkulatzeko, laginerako jasotako datuak estrapolatu ditugu. Zehatzago esanda, kalkulu partzialak bateratzearen metodoa erabili dugu (hiru aldagai gakoren estratuak kontuan hartuta: jarduera arloa, figura juridikoa eta diru-sarreraren bolumena). Estimatzailerearen kalitatea eta zehaztasuna handiagoak izatea bermatzen du horrek; izan ere, gutxitu egiten da hainbat balioren bariantza edo dispersioa¹⁴.

D. KONTSULTA KUALITATIBOA

Datu kuantitatiboen azterketa aberasteko, 2024ko urtarrila eta otsaila artean landa-lana egin da informazio kualitatiboa jasotzeko eta, horretarako, eztabaida-taldeak jarri dira martxan Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko oinarritzko erakundeekin eta sareekin. Helburua izan da ahalik eta erakunde gehienek hartzea parte azterketan, diagnostikoaren datuetatik abiatuta, eta horretarako, datu horiek kontrastatu dira, ñabardurak gehituz eta sektoreak datozen urteetarako dituen erronken gaineko gogoeta kolektiboa egiteko espazio bat sortuz.

5 eztabaida-talde egin dira (4 aurrez aurrekoak eta 1 online) eta guztira Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko 46 erakunde eta saretako 50 pertsonak hartu dute parte. Aurrez aurreko eztabaida taldeei dagokienez, bat Sareen Sareko sareekin egin zen eta besteak lurralde historiko bakoitzean egin ziren. Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako ahalik eta erakunde gehien biltzen ahalegindu ziren bakoitzean. Online eztabaida taldea ez zegoen aurreikusita hasieran, baina lurralde historiko bakoitzean zegokien aurrez aurreko eztabaida-taldean parte hartu ezin zuten erakundeen interesa ikusita, eztabaida-talde gehigarri bat egitea erabaki zen hiru lurralde historikoetako askotariko erakundeentzat.

Aurrez aurreko saio bakoitzak 3 orduko iraupena izan zuen eta online saioak 2 ordukoa. Guztietan datu kuantitatiboen aurrerapen bat aurkeztu zen eta hausnarketa bat egin zen helburu hauekin: a) adostasun-puntuak eta adostasunik gabeko puntuak identifikatzea; b) diagnostiko kuantitatiboa hobetzeko, zabaltzeko, ñabartzeko eta zuzentzeko ekarpenak jasotzea; c) hausnarketa eragin eta ideiak aberastea; d) eta erronkak eta orientabideak identifikatzea.

Kontsulta kualitatiboa egiteko, lagin arrazoitu bat aukeratu zen (ez probabilistikoa). Halako lagin motetan, talde ikerlariak informatzailerik onenak identifikatzen ditu, ikertu beharreko gaiaren gainean duten ezagutza handiagatik edo garrantziagatik. Teknika kualitatiboekin lan egiteko modu ideala da hori, eta pertsonen/erakundearen kopuru txiki bat kontsultatu behar da horretarako. Baina, nolanahi ere, erakunde eta pertsona parte-hartzaileak aukeratzeko garaian, jarduerari dagokionez ahalik eta talderik heterogeneoena lortzea lehenetsi zen, jarduerari, jarduketa-arloari lantaldeen konposizioari edo tamainari dagokionez (kudeatutako bolumen ekonomikoa). Hala, azterketa kualitatiboari eta erronkak eta jarraibideak ezartzeari dagokionez,

¹³ Inputaziorako “jarduera arloa” eta “ordainpeko pertsona kopurua” aldagaiak izan ditugu kontuan, eta, hainbat probaren ondoren, estimatzaile sendoena *trimediaren* estatistikoa dela ondorioztatu dugu: joera zentralerako indizea, hiru neurrien batezbesteko aritmetiko haztatuta kalkulatzeko datzana (mediana –pisu bikoitzarekin– eta lehen eta hirugarren kuartilak).

¹⁴ Kasu honetan, bolumen ekonomikoa kalkulatzeko egokiena iruditu zaigun estimatzailea *trimediaren* estatistikoa izan da; boluntarioen kopurua eta ordainpeko langileen kopurua kalkulatzeko, berriz, batesbestekoaren estatistikoa.

Liburu Zuria eraikuntza-prozesu kolektibo baten emaitza da, erakunde askoren eta askotarikoen ekarpenekin elikatu baita.

4. NORTASUNA ETA KOPURU NAGUSIAK


4.1. ZIFRA NAGUSIAK

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren (aurrerantzean, EHSS) zifra nagusiek sektorearen dimentsioaren gaineko informazio orokorra eskaintzen dute: sektorea osatzen duten erakundearen kopurua, BPGari egiten dioten ekarpena, langile kopurua eta horrek dakarren lan boluntarioa.

EHSS 4.259 erakundez osatuta dagoela kalkulatzen da, hau da, 1.000 biztanleko 1,94 erakundekoa da tasa¹⁵. Erakunde horiek 168.291 boluntarioen parte-hartze soziala bideratzen dute, hau da, Euskadiko hirugarren sektoreko boluntarioen % 52,4rena¹⁶.

Gainera, gutxi gorabehera, 45.624 langile dituzte, hau da, Euskadiko biztanleria okupatuaren % 4,8¹⁷. Eta 2022an, 2.044 milioi euroko bolumen ekonomikoa kudeatu zuten, euskal BPGaren % 2,4¹⁸.

1. GRAFIKOA. EHSS-REN ZIFRA NAGUSIAK.



¹⁵ 2023ko urrian, 2.196.067 pertsona bizi ziren Euskadin: Bizkaian 1.144.019, Gipuzkoan 717.197 eta Araban 332.851. Iturria: EUSTAT. Biztanleen udal estatistika.

¹⁶ 2023ko Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk EAEn azterlanaren arabera, 320.872 boluntariok lan egin zuten boluntario gisa Euskadiko Hirugarren Sektoreko erakunderen batean **urte hartan**. Lurraldeka, boluntarioen % 50,1 Bizkaian daude, % 35,4 Gipuzkoan eta % 14,5 Araban.

¹⁷ 2023ko hirugarren hiru hilekoan 16 urteko edo gehiagoko 945.900 pertsona okupatu zeuden Euskadin: Bizkaian 505.100 pertsona, Gipuzkoan 324.400 eta Araban 146.400. Iturria: EUSTAT: Herritarren inkesta-jarduerarekin lotuta.

¹⁸ 2022an, Euskadiko BPGa 86.266.450.000 €-koa izan zen: Bizkaiko BPGa 44.615.525.000 €-koa; Gipuzkoakoa, 28.303.136.000 €-koa; eta Arabakoa, 13.347.789.000 €-koa. Iturria: EUSTAT. Hiru hileroko Kontu Ekonomikoak.

EHSS osatzen duten 4.259 erakundeak honela banatuta daude lurralde historikoen arabera: 2.395 Bizkaian daude, 1.231 Gipuzkoan eta 633 Araban. Hortaz:

- Erakundeen % 56,2 **Bizkaian** daude, eta mila biztanleko 2,1 erakundekoa da hango tasa. Erakunde horiek 94.670 boluntario biltzen dituzte, Bizkaiko boluntarioen % 58,9. Era berean, 26.325 ordainpeko langile dituzte, biztanleria okupatuaren % 5,2. Erakunde horien bolumen ekonomikoa lurraldeko BPGaren % 2,9koa izan zen 2022an.
- Erakundeen % 28,9 **Gipuzkoan** daude, eta mila biztanleko 1,7 erakundekoa da hango tasa. Erakunde horiek 48.595 boluntario biltzen dituzte, Gipuzkoako boluntarioen % 42,8. Era berean, 12.958 ordainpeko langile dituzte, biztanleria okupatuaren % 4,0. Erakunde horien bolumen ekonomikoa lurraldeko BPGaren % 1,7koa izan zen 2022an.
- Erakundeen % 14,9 **Araban** daude, eta mila biztanleko 2,0 erakundekoa da hango tasa. Erakunde horiek 25.026 boluntario biltzen dituzte, Arabako boluntarioen % 53,8. Era berean, 6.341 ordainpeko langile dituzte, biztanleria okupatuaren % 4,3. Erakunde horien bolumen ekonomikoa lurraldeko BPGaren % 2,0koa izan zen 2022an.

2. GRAFIKOA. EHSS-REN ZIFRA NAGUSIAK LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA¹⁹.



¹⁹ Kudeatutako bolumen ekonomikoak adierazten duen BPGarekiko ehunekoa Lurralde Historiko bakoitzaren BPGarekiko kalkulatu dago eta 2022ko prezio arruntetan. Halaber, 1.000 biztanleko erakundeen tasa Lurralde Historiko bakoitzeko biztanleria oinarri hartuta kalkulatu da, eta, biztanleria okupatuaren tasa, Lurralde Historiko bakoitzeko biztanleria okupatua oinarri hartuta.

4.2. ZER BEREZKO EZAUGARRI DITU EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAK?

Sare plurala eta anitza da EHSS, oinarritzko balioak partekatzen dituzten ekimen eta esku-hartze sozialeko erakundeek osatua. Eraldaketa sozialera bideratuta egotea da ezaugarri nagusia, eta gizarte justu, berdinazale, parte-hartzaile eta solidarioago baten alde egitea.

Formalki eratutako erakunde pribatu horien bereizgarria da gobernu-organo autonomoak dituztela. Ez daude irabazi asmoekin lotuta, ez dira etekinak lortzeko existitzen eta ez dituzte irizpide komertzialak jarraitzen. Gizarte zibiletik sortuak dira eta ingurune sozialean hobekuntza handiak lortzeko interes orokorrari ekarpena egitea dute xede.


Eguneroko lanean, EHSSko erakundeek egiten dituzten jardueren helburua inklusio soziala eta eskubideen egikaritzea sustatzea da, arreta berezia emanik zaurgarritasun-, bazterkeria-, babesgabetasun-, desgaitasun- eta/edo mendekotasun-egoeretan dauden pertsonen, familiei eta kolektiboek. Eta, horretarako, intzidentziarekin, sentsibilizazioarekin edo salaketarekin lotutako zerbitzuak (erantzukizun publikokoak, edo ez) edo jarduerak eskaintzen dituzte.

Haien bereizgarrietako bat da haiengana jotzen duten pertsonetara zein gizartearekiko duten konpromisoa. Arreta-eredu komunitarioa dute, pertsonak erdigunean jarritik, eta, aldi berean, lotura dute lurraldearekin, espazioekin eta bertan bizi diren pertsonekin.

Herritarren elkartasunaren adierazpen antolatua dira, eta pertsonen borondatezko parte-hartze askea bideratzen dute. Gainera, parte-hartze demokratikoaren mailaren bat ere hartzen dute, eta barneko (bazkideak, boluntarioak, ordainpeko langileak) eta/edo kanpoko (erabiltzaileak eta hartzaileak, administrazioak...) interes-taldeen sare anitza dute.

Erakundeek garatzen duten jardueran eta erakunde horien egiturazko elementuetan ikus daitezke EHSSren aniztasuna eta pluraltasuna. Erakundeek arlo ezberdinetan lan egiten dute pertsona, familia, kolektibo eta komunitate hartzaileak artatzeko eta haien jarduera garatzeko: Osasuna, Enplegua, Gizarte Zerbitzuak, Hezkuntza eta Aisialdia, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak, Sozial-transbertsala (edo zibikoa) eta beste batzuk²⁰.

EHSSko erakundeek hainbat **figura juridiko** dituzte, baina figura juridiko horiek haien irabazi-asmorik gabeko izaera zehazten dute. EHSSeko 6/2016 Legearen arabera EHSSk har ditzaketen figura juridikoen artean, gehienak elkarteak dira. Erakundeen % 90,9 elkarteak dira²¹, % 6,2 fundazioak eta gainerako % 2,9ek beste figura juridiko bat dute.



²⁰ Txostenaren Jarduera kapituluak topa daiteke ikerketan erabilitako arloko sailkapenaren gaineko informazio zehatzagoa.

²¹Figura juridikoaren arabera erakundeen banaketa unibertsoa (Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakunde guztizkoa) oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta.

Osasunaren arloan (% 99,5), arlo Sozial-transbertsalean (% 98,8) eta Hezkuntza eta Aisialdian (% 97,8) dute elkarrekin presentziarik handiena. Fundazioak dira sektoreko bigarren figura juridiko ohikoena, baina elkarrekin oso urrun. Enpleguaren arloan (% 27,9) Gizarte Zerbitzuen arloan (% 13,4) eta beste arlo batzuetan (% 39,2) dira ohikoena. Gainerako figura juridikoek (ekimen sozialeko kooperatibak, merkataritza-sozietateak, kongregazio erlijiosoak eta beste batzuk) sektoreko erakunde % 2,9 ordezkatzen dute, eta Enpleguaren arloarekin (% 33) lotuta egon ohi dira.


Elkarrekin proportzioa handiagoa da Araban (% 93,4) eta Gipuzkoan (% 92,3), Bizkaian baino. Azken lurralde horretan, berriz, fundazioek (% 7,3) pisu handiagoa dute beste bi lurralde historikoetan baino.

1. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FIGURA JURIDIKOAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Elkarrekin	% 89,5	% 92,3	% 93,4	% 90,9
Fundazioak	% 7,3	% 6,5	% 1,6	% 6,2
Beste figura juridiko batzuk	% 3,2	% 1,2	% 5,1	% 2,9
Guztira	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0

Erakunde batzuek ordainpeko langileak dituzte, eta, beste batzuek, boluntarioak baino ez dituzte haien lantaldeetan. Erakunde % 85etan boluntarioen presentzia esanguratsua da, erakundea osatzen dutenen erdia edo gehiago baitira. Egiaz, erakunde % 38,9 oso-osorik boluntarioz osatuta daude.

4. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEAN BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



Hori bereziki adierazgarria da arlo Sozial-transbertsalean, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan, Osasun arloan eta Hezkuntza eta Aisialdi arloan. Izan ere, arlo horietako erakunde % 90 baino gehiagotan boluntarioak dira lantaldearen erdia edo gehiago.


2. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEETAN BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
<% 25	% 5,0	% 50,5	% 19,4	% 7,4	% 0,8	% 1,2	% 32,8
% 25, edo % 25-50 artean	% 5,0	% 15,3	% 18,4	% 0,0	% 0,8	% 2,9	% 17,0
% 50, edo % 50-75 artean	% 5,6	% 0,0	% 19,7	% 16,8	% 9,4	% 6,8	% 0,0
% 75 edo >	% 84,4	% 34,2	% 42,5	% 75,8	% 89,0	% 89,2	% 50,2
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

EHSSren barruan, erakundeen % 75,4 txikiak edo ertainak dira. Hau da, horien diru-sarreraren bolumena ez da 300.000 €-koa baino handiagoa. Egiaz, erakunde horien % 50 inguruk administratzen duten aurrekontua 65.052 € baino txikiagoa da.

Bestetik, EHSSko erakundeen % 24,6 handiak edo oso handiak dira. Hortaz, bolumen ekonomiko oso ezberdinak dituzten erakundeak biltzen ditu EHSSk. Erakundeen % 10,6k milioi eta erdi euro baino gehiagoko aurrekontuak kudeatzen dituzte. Aldiz, sektoreko entitateen % 20,6ren diru-sarrerak 12.000 €-tik beherakoak dira.

5. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ARABERA. (%)



Ekimen sozialeko erakundeez hitz egitean, gizarte zibiletik sortutako erakundeez ari gara. Gizarteari erantzun bat eman nahi dioten pertsonen, familien, taldeen eta komunitateen ekimen asketik sortutako erakundeak dira. Alde horretatik, sektore honetako erakundeez bide ematen diote herritarren parte-hartze sozial antolatuari.

Sektoreko entitate guztiak gizarte zibilaren parte dira, eta gizarte horretatik eta horrentzat sortzen dira. Hori dela eta, lotura egonkorra dute haien jardueraren hartzailerak diren pertsona eta kolektiboekin. Gainera, erakunde asko (% 46,4) **pertsona eta familia hartzaileek eurek eratu dituzte, zuzenean**. Ehuneko hori bereziki altua da Osasun arloan (% 79) eta arlo Sozial-transbertsalean (% 66,1). Eta, kontingentziari dagokionez, ehunekoa altuagoa da haien jardura desgaitasuna duten pertsonen zuzentzen dieten erakundeetan (% 80,2).

6. GRAFIKOA.

Zure erakundea zuzenean pertsonen edota familia hartzaileek osatzen dute?



Elkarteez EHSSn duten helburua da ingurune soziala hobetzea. Interes orokorrean jartzen dute arreta, eta erakundearekin lotura formala duten pertsonen zein komunitate osoaren bizi-baldintzak hobetzea dute xede. Haien helburua pertsona jakin batzuei onurak eskaintzetik harago doa; ongizate orokorra eta parekidetasuna lortzeko egiten dute lan.

10 erakundetik ia 4k **onura publikoaren adierazpena** dute. Adierazpen horrek gizarteak lan hori aitortzen duela adierazten du, eta berekin dakar erakundearen xedeek interes orokorra sustatzeko joera izatea eta jarduera bazkidetutako pertsonen mesede egitera soilik ez mugatuta egotea.

Lurralde historikoen artean, Araba nabarmentzen da, bertako erakundeek % 53,8k baitute onura publikoaren adierazpena. Gipuzkoan erakundeek % 37,4k dute adierazpen hori, eta Bizkaian % 34,2k.

Arloka, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren (% 56,1) eta Gizarte Zerbitzuen (% 52,6), Osasunaren (% 41,7) arloko erakundeek artean handiagoa da onura publikoaren deklarazioa duten erakundeek ehunekoa, gainerako arloetan baino. Halaber, kontingentzia aintzat hartuz gero, ehunekoak handiagoak dira desgaitasuna duten pertsonekin (% 54,6) eta mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin (% 46,9) lan egiten duten erakundeek artean.

EHSSk modu esanguratsuan sendotu du haren egituratze-prozesua azken urteetan. Erakundeek arteko lankidetzari esker, lan partekatu eta kolaboratiboari esker, edo sinergiak sortu izanari esker, EHSSren antolaketa sendotu egin da, sareetan parte hartzearen bidez.

Entitateen % 97,9 baino gehiago oinarritzko erakundeak dira, eta **bigarren edo hirugarren mailako sareek edo entitateek** sektoreko erakunde guztien % 2,1 osatzen dute, gutxi gorabehera²². Kontsultatutako sareen erdiak gutxienez 11 erakunde biltzen dituzten entitateak dira, eta beste erdiak 11 erakunde baino gehiagoz osatuta daude. Batez beste, sareetako bakoitzak 31 erakunde inguru biltzen ditu.

85 sare edo erakunde (bigarren mailakoak eta goragokoak, beste batzuk ordezkatzeko dituztenak) ditu EHSSk. Pertsona eta/edo familia hartzaileek eurek zuzenean osatzen dituzte sareetako 23. Lurralde historikoen arabera, Bizkaian dauden sareen % 58,6, hau da, 46 sare. Sareen % 25,2 Gipuzkoan daude, hau da, 23 sare. Azkenik, Araban daude sareen gainerako % 16,1 (16 sare).

3. TAULA. SAREEN BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. GUZTIZKOA ETA LURRALDE HISTORIKOA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Sare kopurua	46	23	16	85
Guztizkoaren gaineko %	% 54,1	% 27,1	% 18,8	% 100

Gizarte Zerbitzuen arloan eta arlo Sozial-transbertsalean biltzen dira sare gehien. Banaketa hori bat dator bi arlo horiek sektoreko erakundeek guztizkoaren gainean duten pisuarekin.

7. GRAFIKOA.

Zure erakundeak erabilgarritasun publikoko aitorpena al du?



8. GRAFIKOA

Zure erakundeak beste erakunde batzuk biltzen dituen sarea al da?



²² Erakundeek banaketa (oinarritzko erakundeak edo sareak izatearen arabera), unibertsoa oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta.

4. TAULA. SAREEN BANAKETA, JARDUERA ARLOAREN ARABERA. GUZTIRA ETA JARDUKETA ARLOA (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Sare kopurua	12	2	27	12	4	23	5
Guztizkoaren gaineko %	% 14,1	% 2,4	% 31,8	% 14,1	% 4,7	% 27,1	% 5,9

Lurraldearekin lotura zuzena izatea ezinbesteko balioa da EHSSko erakundeentzat. Lotura horrek pertsonetikiko eta tokiko komunitateetikiko gertutasuna bermatzen du eta erakundeek beharrak identifikatu, erantzunak egokitu eta harreman solidoak eraiki ditzakete komunitatean. Lurraldearekiko errotze horrek sektorearen ekintzen eraginkortasuna eta garrantzia finkatzen du, ongizate komunitarioarekiko konpromisoan.

Jarduera-eremu geografikoari dagokionez, erakundeen % 85,9ren jarduera ez da EAEtik ateratzen. % 14,1ek, aldiz, eremu geografiko handiagoan jarduten dute. Lehengo kasuan, % 41,2k bere lurralde historikoan jarduten du, % 24,8 lurralde batean baino gehiagotan aritzen da eta % 19,9k tokiko (eskualdea, udalerria edo txikiagoa) arloan jarduten du.

9. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERA. (%)



Erakundeen jarduera eremu geografikoari dagokionez, aldeak ikusten dira lurralde historikoaren arabera. Tokiko mailan lan egiten dutenen ehunekoa handiagoa da Bizkaian eta Gipuzkoan; Euskadi mailan edo lurralde historikoan lan egiten dutenen ehunekoa handiagoa da Araban; eta EAEz gaindiko eremu batean lan egiten duten erakundeen ehunekoa, berriz, Gipuzkoan eta Bizkaian da handiagoa.

5. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA EREMU GEOGRAFIKOAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
EAEz gaindiko eremua	% 14,2	% 14,7	% 12,5	% 14,1
Lurralde historikoa edo Euskadi	% 63,1	% 65,6	% 77,6	% 66,0
Tokiko eremua	% 22,7	% 19,7	% 9,9	% 19,9
Guztira	% 14,2	% 14,7	% 12,5	% 14,1

Jarduera arloaren arabera, logikoki, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko erakunde gehienek egiten dute lan EAEz gaindiko eremu batean (% 69,4). Bestetik, tokiko mailan lan egiten duten erakundeen ehunekoa handiagoa da arlo Sozial-transbertsalean (% 39,4) eta Hezkuntzaren eta Aisialdiaren arloan (% 17,6).

6. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA EREMU GEOGRAFIKOAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Lankidetz Nazioarteko garapena	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
EAz gaindiko eremua	% 12,7	% 0,0	% 4,5	% 3,7	% 69,4	% 5,3	% 19,7
Lurralde historikoa edo Euskadi	% 84,0	% 100,0	% 83,0	% 78,7	% 30,6	% 55,3	% 80,3
Tokiko eremua	% 3,3	% 0,0	% 12,5	% 17,6	% 0,0	% 39,4	% 0,0
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

EHSSko erakundeek % 73,8k **egoitza edo ordezkari** bakarrik dute Euskadin. Gainerako % 26,2k egoitza edo ordezkari bat baino gehiago dituzte. Hori agerikoagoa da erakundeek tamainak gora egin ahala.


7. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA EREMU GEOGRAFIKOAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 € eta 60.000 € artean	60.001 € eta 300.000 € artean	300.001 € eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago	EUSKADI
1 egoitza	% 97,6	% 90,6	% 70,3	% 54,6	% 45,7	% 73,8
1 egoitza baino gehiago	% 2,4	% 9,4	% 29,7	% 45,4	% 54,3	% 26,2
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Bestetik, erakundeek % 5,9k egoitza edo ordezkari bat dute Euskaditik kanpo, Euskadin dutenaz gain. Erakundeek % 61,3k lurralde historikotako hiru hiriburuak batean kokatuta dute egoitza edo ordezkari nagusia; hiriburuak bizi dira Euskadiko biztanleen % 35,3²³. Ehuneko ezberdina da lurralde historiko bakoitzean.

Hala, egoitza edo ordezkari nagusia Araban duten erakundeek % 73,3 Gasteizen daude. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, erakundeak ez daude hiri nagusian hain kontzentratuta. Egoitza edo ordezkari nagusia Bizkaian duten erakundeek % 49,3 daude Bilbon, eta egoitza edo ordezkari nagusia Gipuzkoan duten erakundeek % 40,7 daude Donostian.

10. GRAFIKOA HIRIBURUAN KOKATUTAKO ERAKUNDEEN PROPORTZIOA, LURRALDE BAKOITZEKO ERAKUNDEEN GUZTIZKOAREKIKO. %



²³ 2023ko urtarrilean, 2.196.745 biztanle zituen Euskadik, eta horietatik 775.225 lurralde historikotako hiru hiriburuak batean bizi ziren. Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udak Estatistika.

4.3. 2019-2023 ALDIKO AZTERKETA KONPARATIBOA

Azken urteotan, EHSSk aldaketa handiak izan ditu; 300 erakunde baino gehiago sartu dira eta guztira 4.259 dira. Etengabeko eta funtsezko hazkunde horrek erakusten du euskal gizartean ehundura sozialak izan duen zabalpena. Aldi horretan zehar, alten eta bajen arteko emaitzak 700 erakunde baino gehiagoko saldo positiboa erakusten du, eta sektorea etengabe garatzen ari dela frogatzen du horrek. Biztanle bakoitzeko erakundeen tasa pixka bat hazi da, eta orain 1.000 biztanleko 1,9 erakundekoa da tasa.

Kalkulatutako zifrek iradokitzen dutenez, nabarmen hazi da EHSSn soldatapean nahiz modu boluntarioan parte hartzen duten pertsonen guztizko kopurua. Gainera, erakundeen jarduera gogor astidun zuen pandemiaren ondoren, nabarmendu beharrekoa da hazkunde absolutu handia izan duela —308 milioi €— EHSSko erakundeek kudeatutako bolumen ekonomikoak. Hazkunde ekonomikoa funtsezkoa izan den arren, mantendu egin da termino erlatiboetan eta ez du hazkunde proportzionalik ekarri BPGren ekarpenean. Izan ere, gainerako sektoreek jaitziera nabarmena izan zuten pandemiaren urteetan, baina EHSSk pandemiaren aurreko antzeko bolumen ekonomikoa mantentzea lortu zuen; hala, errebote-efektua izatea saihestu zuen, eta epe ertainean eta luzean jasan zituen ondorioak.

2022an, EHSSk kudeatutako bolumen ekonomikoa 2.000 milioi eurotik gorakoa izan zen, eta % 2,4ko ekarpena egin zion BPGri. 2019arekin alderatuta, 9.700 pertsona boluntario gehiago daude eta horrek agerian uzten du EHSSk parte-hartze soziala kanalizatzeko eta herritarrek misio horretan konprometitzeko duen gaitasuna. Boluntarioen kopurua handitzeaz gain, 2023an soldatapeko 7.098 pertsona gehiago zeuden, eta horiek lotura estua dute erakundeekin. Gainera, haien misioarekin eta balioekin identifikatzen dira.

8. TAULA. EHSS-REN 2019-2023 ALDIKO ZIFRA NAGUSIEN DATU KONPARATIBOAK

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdintasun a 2023-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Erakunde kopurua	3.500	3.938	4.259	321
Erakunde kopurua 1.000 biztanleko	1,6	1,8	1,9	0,1
Boluntarioak	125.203	158.599	168.291	9.692
Soldatapeko langileak	35.907	38.525	45.624	7.098
Kudeatutako bolumen ekonomikoaren %, erreferentziatzeko lurraldearen BPGarekiko	2,2	2,3	2,4	0,1
Sektoreko erakundeek esku artean ibilitako bolumen ekonomikoa (milioi euro)	1.451	1.736	2.045	308,5

Erakunde berriak sartu direnez, pertsona eta familia hartzailerek eurek osatutako erakundeen proportzioa apur bat jaitzi da.

Nagusiki boluntarioz osatutako erakundeen ehunekoa jaitsi egin da apur bat, ehuneko 2,9 puntu. Horrek esan nahi du balizko aldagetak izan direla erakunde horien parte hartzeko dinamikan eta lantaldeak profesionalizatzerara jo dutela.

Horrez gain, azken urteetan behera egin du 12.000 euro edo gutxiago kudeatzen dituzten erakunde oso txikien ehunekoak, eta orain bost erakundetik bat bakarrik dira.

Bestalde, Erabilgarritasun Publikoaren adierazpena duten erakundeen ehunekoa % 8,9 handitu da. Horrek esan nahi du aitortza sozial erantsia duten erakunde gehiago daudela. Joera horrek iradokitzen du aitortza instituzional handiagoa eta erakunde horiek egiten dituzten

jarduerentzako babes handiagoa dagoela. Hala, haien inpaktua eta gizarteari egiten dioten ekarpena indartzen da.

9. TAULA. NORTASUN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK.

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdintasuna 2023-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Batez ere boluntarioz osatutako (langileen % 50 edo gehiago) erakundeen %	87,0	87,9	85,0	-2.9
1 milioi eta erdi euro baino gehiago kudeatzen dituzten erakundeen %	9,0	7,6	10,6	3,0
12.000 euro edo gutxiago kudeatzen dituzten erakundeen %	32,0	31,7	20,6	-11.1
Elkarteen %, sektoreko erakundeen guztizkoarekiko	89,6	89,9	90,9	1,0
Pertsona eta familia hartzaileek zuzenean eratutako erakundeen %	49,3	47,6	46,4	-1.2
Onura publikoaren deklarazioa duten erakundeen %	27,0	29,1	38,0	8,9
Bigarren edo hirugarren mailako erakundeen (sareak) kopurua	85	87	85	-2
Autonomia-erkidegoaren esparrua gaingitzen duten (estatukoa edo nazioartekoa) erakundeen %	15,2	15,5	14,1	-1.4
Lurraldean (Euskadin eta lurralde historikoetan) lan egiten duten erakundeen %	58,1	63,4	66,0	2,6
Tokiko mailan (eskualdea, udalerria edo esparru txikiagokoa) lan egiten duten erakundeen %	26,7	21,1	19,9	-1.2

5. JARDUERA

5.1. ZER ARLOTAN EGITEN DUTE LAN?

EHSSko erakundeek hainbat arlotan lan egiten dute pertsona, familia eta kolektibo hartzaileak artatzeko: Osasuna, Enplegua, Gizarte Zerbitzuak, Hezkuntza eta Aisialdia, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak, Sozial-transbertsala (edo zibikoa) eta Beste batzuk. Erakundeek jarduerak nagusia eremu zehatz batean kokatzea ahalbidetzen du ikerketa honetan erabilitako sailkapenak.

11. GRAFIKOA. JARDUERA ARLOEN DEFINIZIOA ETA ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA ARLO NAGUSIAREN ARABERA. (%)



Entitate gehien biltzen dituzten jarduera arloak Sozial-transbertsala eta Gizarte Zerbitzuak dira. Erakundeek % 37,5en jarduera nagusia adinekoen, migratzaileen, emakumeen eta abarren eskubideen sustapenarekin lotuta dago. Erakundeek beste % 22,2k gizarte-zerbitzuak ematearekin lotutako jardueraren bat dute²⁴.

Entitateen jarduera arloaren arabera banaketa ezberdina da lurralde historiko bakoitzean, baina aldeak ez dira oso handiak. Euskadiko datuei dagokienez, Bizkaian pisu apur bat handiagoa dute enpleguaren arloko erakundeek (% 4,2), baita beste arlo batzuetako erakundeek ere (% 2,1). Araban pisu handiagoa dute haien jarduera, batez ere, Osasun arloan (% 11,7) eta Gizarte Zerbitzuen arloan (% 24) garatzen duten erakundeek. Gipuzkoan arlo Hezkuntza eta Aisialdiko (% 12,4) erakundeek pisu handiagoa dute Euskadiko datuarekin alderatuta.

10. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA ARLOAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Osasuna	% 9,2	% 9,3	% 11,7	% 9,6
Enplegua	% 4,2	% 3,1	% 3,6	% 3,8
Gizarte Zerbitzuak	% 21,8	% 21,9	% 24,0	% 22,2
Hezkuntza eta Aisialdia	% 11,4	% 12,4	% 10,9	% 11,6
Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	% 13,8	% 14,1	% 12,2	% 13,6
Sozial-transbertsala	% 37,5	% 37,9	% 36,2	% 37,5
Beste batzuk	% 2,1	% 1,2	% 1,4	% 1,7
Guztira	% 9,2	% 9,3	% 11,7	% 9,6

Jarduera arloa eta erakundeek kudeatzen duten bolumen ekonomikoa lotuta egon ohi dira. Hala, 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeek pisua batezbestekoa baino handiagoa da Gizarte Zerbitzuen arloan (% 31,2) eta Enplegu arloan (% 27,7). Kontrara, 12.000 € baino gutxiagoko aurrekontua duten erakundeek pisuak batezbestekoa gaititu du Hezkuntza eta Aisialdia (% 54,4), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak (% 44,1) eta Sozial-transbertsala (% 23,8) arloetan. Arlo horietan pilatzen dira bolumen ekonomikoa oso txikia duten erakunde gehien.

11. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA ARLOAREN ETA BOLUMEN EKONOMIKOAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 € eta 60.000 €	60.001 € eta 300.000 €	300.001 € eta 1.500.000 €	1.500.000 € baino gehiago	GUZTI RA
Osasuna	% 14,8	% 38,5	% 26,7	% 14,9	% 5,1	% 100
Enplegua	% 5,7	% 13,0	% 17,5	% 36,0	% 27,7	% 100
Gizarte Zerbitzuak	% 10,4	% 8,8	% 32,9	% 16,7	% 31,2	% 100
Hezkuntza eta Aisialdia	% 34,9	% 29,5	% 21,9	% 13,7	% 0,0	% 100
Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	% 25,3	% 12,5	% 20,0	% 29,7	% 12,6	% 100
Sozial-transbertsala	% 23,8	% 43,2	% 26,8	% 4,5	% 1,6	% 100
Beste batzuk	% 12,2	% 13,2	% 41,9	% 13,0	% 19,7	% 100
Guztira	% 20,6	% 27,7	% 26,6	% 14,0	% 11,1	% 100

Halaber, lantaldeetan ordainpeko langileek duten presentzia eta boluntarioen pisua ere lotuta egoten dira jarduera arloarekin. Kasu honetan ere, ordainpeko langileak dituzten erakundeek pisua nabarmen handiagoa da Gizarte Zerbitzuen arloan (% 82,8), Enplegu arloan (% 77,7) eta Osasun arloan (% 75,3). Boluntario askoz (lantaldearen erdia baino gehiago) osatutako lantaldeak dituzten erakundeek presentzia handiagoa dute Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan (% 98,4), arlo Sozial-transbertsalean (% 96), Hezkuntza eta Aisialdiaren arloan (% 92,6) eta Osasun arloan (% 90).

²⁴ Jarduera arloaren arabera erakundeek banaketa kalkulatzeko, unibertsoa (EHSSko erakunde guztiak) hartu dugu oinarri, ez lagina.

12. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA ARLOAREN ARABERA ETA LANTALDEETAN ORDAINPEKO LANGILEEK DUTEN PRESENTZIAREN ETA BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)

	Soldatapeko langileak ditu	Ez du soldatapeko langilerik	<25 boluntarioak dira	% 25 eta % 50 artean boluntarioak dira	% 50 eta % 75 artean boluntarioak dira	% 75 edo gehiago boluntarioak dira
Osasuna	% 75,3	% 24,7	% 5,0	% 5,0	% 5,6	% 84,4
Enplegua	% 77,7	% 22,3	% 50,5	% 15,3	% 0,0	% 34,2
Gizarte Zerbitzuak	% 85,6	% 14,4	% 19,4	% 18,4	% 19,7	% 42,5
Hezkuntza eta Aisialdia	% 53,7	% 46,3	% 7,4	% 0,0	% 16,8	% 75,8
Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	% 62,0	% 38,0	% 0,8	% 0,8	% 9,4	% 89,0
Sozial-transbertsala	% 48,7	% 51,3	% 1,2	% 2,9	% 6,8	% 89,2
Beste batzuk	% 87,0	% 13,0	% 32,8	% 17,0	% 0,0	% 50,2
Guztira	% 63,9	% 36,1	% 8,4	% 6,6	% 10,7	% 74,3

Haien jardura nagusia ez izan arren, erakundeek %63,8k adierazi dute arlo Sozial-transbertsalean parte hartzen dutela, neurriren batean. Eta sektoreko entitateen erdiek baino gehiagok (%56,5) jardura dute Gizarte Zerbitzuen arloan. Arlo nagusiez gain, %49,8 Hezkuntzaren eta Aisialdiaren inguruan ari dira lanean, eta %40,5ek Osasunaren arloan garatzen du lana neurri batean.

12. GRAFIKOA. JARDUERA ARLO BAKOITZEAN LAN EGITEN DUTEN ERAKUNDEAK (%)



5.2. ZENBAT DENBORA DARAMATE LANEAN?

Sektoreko 3 erakundetik gutxi gorabehera 1ek 20 urte edo gehiagoko ibilbidea du (%2 inguruk 50 urte edo gehiago ditu), eta erakundeek %18,2 gazteak dira, 5 urtez azpikoak²⁵. Batez besteko antzintasuna 25 urte ingurukoa da eta erakundeek erdiek, dagoeneko, 24 urte baino gehiago dituzte.

²⁵ Eraketa-urtearen arabera erakundeek banaketa kalkulatzeko, unibertsoa (EHSSko erakunde guztiak) hartu da oinarri, ez lagina. Unibertsoa erakundeek %6,5en eraketa-data ezin izan da egiaztatatu.

13. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, ERAKETA URTEAREN ARABERA. (%)



Lurralde historikoen arabera, 50 urtetik gorako ibilbidea duten erakundeek pisua apur bat handiagoa da Bizkaian. Erakunde gazteenen pisua, berriz, apur bat handiagoa da Gipuzkoan eta Araban.

13. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ANTZINATASUNAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
50 urte baino gehiago	% 1,6	% 1,0	% 1,2	% 2,0
20 eta 50 urte artean	% 37,0	% 34,1	% 38,1	% 34,2
10 eta 20 urte artean	% 28,7	% 26,8	% 24,1	% 25,0
5 eta 10 urte artean	% 21,2	% 24,9	% 23,9	% 20,6
2 eta 5 urte artean	% 6,8	% 6,4	% 6,6	% 9,9
1 eta 2 urte artean	% 4,7	% 6,7	% 6,3	% 6,1
Urtebete baino gutxiago	% 0,0	% 0,1	% 0,0	% 2,2
Guztira	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0

Arloaren arabera erakundeek duten batez besteko antzintasunak erakusten dutenez, Gizarte Zerbitzuen arloko erakundeek, batez beste, 33 urte dituzte, eta Hezkuntza eta Aisialdi arloko erakundeek, batez beste, 27 urte inguru. Aldiz, 22 urtez azpikoa da arlo Sozial-transbertsaleko (21,4) eta Enplegu arloko (20,8) erakundeek batez besteko adina.

14. TAULA. ERAKUNDEEN ANTZINATASUNA ARLOAREN ARABERA. BATEZBESTEKOAK (URTEAK)

Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
22,9	20,8	33,2	27,1	23,0	21,4	20,1

50 urtetik gorako ibilbidea duten erakundeek pisua apur bat handiagoa da Gizarte Zerbitzuen arloan (% 3,8).

15. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ANTZINATASUNAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
50 urte baino gehiago	% 1,5	% 0,0	% 3,8	% 0,6	% 1,1	% 0,4	% 1,4
20 eta 50 urte artean	% 39,9	% 24,3	% 37,6	% 51,2	% 28,1	% 35,3	% 15,3
10 eta 20 urte artean	% 20,9	% 41,9	% 25,4	% 24,6	% 34,8	% 27,0	% 34,7
5 eta 10 urte artean	% 25,9	% 22,8	% 22,8	% 15,8	% 23,0	% 23,3	% 29,2
2 eta 5 urte artean	% 4,5	% 5,1	% 5,5	% 4,1	% 7,6	% 8,2	% 12,5
1 eta 2 urte artean	% 7,3	% 5,9	% 4,8	% 3,5	% 5,4	% 5,8	% 6,9
Urtebete baino gutxiago	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,2	% 0,0	% 0,0	% 0,0
Guztira	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0

Erakunde berriak, batez ere, Bizkaian sortu dira; izan ere, erakunde berrien erdia baino gehiago han kokatuta daude, EHSSko guztizkoarekiko Bizkaiko erakundeek duten pisuarekiko koherentziaz (% 56). Hala ere, erakunderik gazteenen kasuan, Bizkaia duen pisua nabarmen jaitsi da Arabaren mesederako eta, batez ere, Gipuzkoako erakundearen mesederako. Azken horiek dira azken bi urteetan sortutako 3 erakundetik 1.

16. TAULA. ERAKUNDE GAZTEEN BANAKETA, ANTZINATASUNAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
5 urte baino gehiago	% 58,5	% 26,3	% 15,2	% 100,0
2 eta 5 urte artean	% 59,3	% 25,5	% 15,2	% 100,0
2 urte edo gutxiago	% 49,5	% 32,9	% 17,6	% 100,0

Arloaren arabera, 5 urtetik beherako ibilbidea duten erakundearen % 40 baino apur bat gehiago arlo Sozial-transbertsalekoak dira. Erakunde berri gehien dituzten hurrengo arloak dira Gizarte Zerbitzuak (% 18,4) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak (% 15). Aisialdiko erakundeak dira erakunderik gazteenen artean presentziarik handiena galdu dutenak.

17. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ANTZINATASUNAREN ETA ARLOAREN ARABERA

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
5 urte baino gehiago	% 10,1	% 3,5	% 22,1	% 12,3	% 13,8	% 36,5	% 1,7
5 urte edo gutxiago	% 9,8	% 3,1	% 18,4	% 7,5	% 15,0	% 43,2	% 2,9

5 urtetik beherako ibilbidea duten erakundearen % 40 baino gehiagok 12.000 € euro edo gutxiagoko aurrekontua kudeatzen du. 5 urte edo gutxiago dituzten 10 erakundetik ia 8k 60.000 € eurotik beherako aurrekontua du.

18. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ANTZINATASUNAREN ETA BOLUMEN EKONOMIKOAREN ARABERA

	12.000 € edo gutxiago	12.001 € eta 60.000 € artean	60.001 € eta 300.000 € artean	300.001 € eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
5 urte baino gehiago	% 15,6	% 26,1	% 29,3	% 16,0	% 13,0
5 urte edo gutxiago	% 43,9	% 35,2	% 13,4	% 5,2	% 2,3

Izatez, 10 erakunde gaztetik ia 9k ez du soldatapeko langilerik bere lantaldean, hau da, soilik boluntarioz osatuta dago. Kontrara, 5 urtetik gorako erakundearen % 70,9k soldatapeko langileak ditu lantaldean.

19. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ANTZINATASUNAREN ETA ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUAREN ARABERA.

	5 urte edo gutxiago	5 urte baino gehiago
Soldatapeko langileak ditu	% 9,9	% 70,9
Ez du soldatapeko langilerik	% 90,1	% 29,1

Lurralde historikoaren arabera erakunde gazteen azterketa xeheak erakusten du Gipuzkoan gehiago ugaritu direla Osasun arloko erakundeak, Bizkaian bereziki Enpleguaren eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arlokoak eta, azkenik, Araban, Hezkuntzako eta Aisialdiko erakundeak, arlo Sozial-transbertsalekoekin batera.

20. TAULA. ERAKUNDE GAZTEEN BANAKETA ARLOAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Osasuna	% 8,7	% 12,3	% 9,0	% 9,8
Enplegua	% 3,8	% 2,9	% 1,3	% 3,1
Gizarte Zerbitzuak	% 19,4	% 17,4	% 16,7	% 18,4
Hezkuntza eta Aisialdia	% 6,5	% 8,7	% 9,0	% 7,5
Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	% 16,3	% 13,8	% 12,8	% 15,0
Sozial-transbertsala	% 42,2	% 42,0	% 48,7	% 43,2
Beste batzuk	% 3,0	% 2,9	% 2,6	% 2,9
Guztira	% 54,9	% 28,8	% 16,3	% 100,0

5.3. ZER KONTINGENTZIA ARTATZEN DITUZTE?

Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek % 20,9k bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzte; % 15,2k, desgaitasuna duten pertsonak; % 7,8k, babesgabetasun-egoeran daudenak; eta % 3,9k, mendekotasun-egoeran daudenak edo mendekotasunean egoteko arriskuan daudenak.

Gainerakoek jardueraren, hau da, erakundeek erdian baino gehiagoren jardueraren hartzaile nagusiak beste zaurgarritasun- edo desberdintasun-egoera batzuk bizi dituzten pertsonak eta abar dira.

14. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, ARTATZEN DUTEN KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)



Arloka, Gizarte Zerbitzuetako erakundeek artatzen dituzte kontingentzia mota gehien; bereziki, desgaitasuna duten pertsonak (% 37,1) eta bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak (% 32) artatzen dituzte. Aitzitik, beste kolektibo zaurgarri batzuek (emakumeak, adinekoak...) pisu nabarmena dute arlo hauetan: Hezkuntza eta Aisialdia (% 91,5), Sozial-transbertsala (% 82,3) eta Beste batzuk (% 93,5).

Era berean, nabarmentzekoa da Enplegu arloko erakundeek (% 71,2) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arlokoek (% 52) lotura estua dutela bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin.

21. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ARTATZEN DUTEN KONTINGENTZIAREN ETA ARLOAREN ARABERA(%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	% 3,9	% 0,0	% 11,2	% 0,0	% 0,0	% 2,8	% 0,0
Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	% 6,9	% 71,2	% 32,0	% 0,2	% 52,0	% 8,7	% 6,5
Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	% 0,0	% 0,0	% 13,4	% 0,0	% 23,7	% 4,3	% 0,0
Desgaitasuna duten pertsonak	% 45,4	% 20,2	% 37,1	% 8,3	% 1,5	% 1,8	% 0,0
Beste kolektibo zaurgarri batzuk	% 43,7	% 8,7	% 6,4	% 91,5	% 22,8	% 82,3	% 93,5
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Desberdintasun handiak daude erakundeek artatzen dituzten kontingentzietan bolumen ekonomikoaren arabera. Erakunderik txikienen artean (60.000 €tik beherako aurrekontua dutenak), gehienek, hots erdiak baino gehiagok, beste kolektibo zaurgarri batzuk artatzen dituzte.

Bolumen ekonomikoa handitu ahala, aldatu egiten dira artatutako kontingentziak. 60.001 € eta 300.000 € arteko tartean, gehiago dira desgaitasuna duten pertsonak eta bazterkeria-egoeran edo -arriskuan daudenak artatzen dituzten erakundeak, % 20 gutxi gorabehera bietan. Azkenik, 1.500.000 €-tik gorako erakundeen taldean, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak (% 38,6) eta desgaitasuna dutenak (% 21,7) artatzen dituzte batik bat. Mendekotasuna artatzen duten erakunde gehienak ere bolumen ekonomikorik handiena duten erakundeetan daude (% 15).


22. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ARTATZEN DUTEN KONTINGENTZIAREN ETA BOLUMEN EKONOMIKOAREN ARABERA (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 € eta 60.000 € artean	60.001 € eta 300.000 € artean	300.001 € eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	% 0,8	% 2,5	% 4,5	% 2,0	% 15,0
Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	% 17,6	% 10,0	% 20,7	% 34,5	% 38,6
Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	% 12,7	% 6,2	% 4,1	% 11,4	% 7,4
Desgaitasuna duten pertsonak	% 11,3	% 10,5	% 20,6	% 14,7	% 21,7
Beste kolektibo zaurgarri batzuk	% 57,6	% 70,8	% 50,2	% 37,4	% 17,4
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

5.4. ZER KOLEKTIBORI ZUZENDUTA DAUDE?

EHSSko erakundeek kolektibo oso anitzak artatzen dituzte. Erakunde bakar batek arta ditzakeen guztiak kontuan hartuz gero, erakundeen erdiek baino gehiagok emakumeak eta gazteak artatzen dituztela erreparatu dugu, neurri handiagoan edo txikiagoan. Guztizkoaren % 47,2k egiten du lan haurrekin eta nerabeekin. Era berean, oso ugariak dira etorkinekin (% 40,7), adinekoekin (% 38,9) edo pobrezia-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin (% 38,4) lan egiten duten erakundeak.


15. GRAFIKOA KOLEKTIBO BAKOITZA JOMUGA DUTEN ERAKUNDEAK. (%)



Erakunde bakoitzak haren jardura zer kolektibo nagusiri zuzentzen dion behatuz gero, honako hartzaileak nabarmentzen direla ikus daiteke:

- Haurrak eta nerabeak (kontsultatutako erakundearen % 19,4ren kolektibo nagusia da).
- Adinekoak (% 14,5en kolektibo nagusia);
- Desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak (% 12,9ren kolektibo nagusia).
- Pobrezia dauden edo pobrezia egoteko arriskuan dauden pertsonak (% 10,9ren kolektibo nagusia).
- Emakumeak (% 10,8ren kolektibo nagusia).


16. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, HAIEN JARDURA ZUZENDUTA DAGOEN KOLEKTIBO NAGUSIAREN ARABERA. (%)



Jarduera arlo bakoitzeko kolektibo nagusia aintzat hartuta, arlo batzuek kolektibo ugari artatzen dituztela ikus daiteke. Beste arlo batzuek, berriz, kolektibo zehatz batzuetan zentratzen dute haien jarduerak:


- Hala, arlo Sozial-transbertsaleko erakundeek adineko pertsonengana (% 30,8), emakumeengana (% 24,9) eta, hein txikiagoan, etorkinengana (% 15,3) bideratzen dute jarduerak nagusia.
- Gizarte zerbitzuetan lan egiten duten erakundeek, aldiz, desgaitasuna duten pertsonekin eta beraiei familiarekin (% 30,7), pobrezia-egoeran edo -arriskuan daudenekin (% 17,3) eta haur, nerabe eta familiarekin (% 15,9) egiten dute lan batik bat.
- Hezkuntza eta Aisialdiaren arloan, haur, nerabe eta familiarekin (% 82,2) jarduten dute batik bat. Aitzitik, Gizarte Zerbitzuen arloak edo arlo Sozial-transbertsalak ez dute hainbesteko pisua duen kolektibo nagusirik.
- Osasunaren arloan, kolektibo nagusiak gaixotasunak dituzten pertsonak (kronikoak, arraroak...) eta desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak dira.
- Enpleguaren arloan lan egiten duten erakundeei dagokienez, pobrezia-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonekin eta desgaitasuna duten pertsonekin eta haien familiarekin egiten dute lan nagusiki.

17. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, ARLOAREN ARABERA ETA HAIEN JARDUERA ZUZENTZEN DIETEN HIRU KOLEKTIBO PNAGUSIEN ARABERA. (%)



Erakundeen erdiek baino gehiagok 20 urte baino gehiago daramatzate haien kolektibo nagusiarekin lanean, eremu geografiko berean, eta % 30ek 21 eta 30 urte artean²⁶. Batez beste, erakundeek 24 urte inguru daramatzate haien kolektibo nagusiarekin lanean. Horrek agerian uzten du erakundeek haien jardueraren hartzaileekin eta jarduera garatzen duten lurraldearekin duten lotura egonkorra dela.

18. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKO BEREAN HAIEN KOLEKTIBO NAGUSIAREKIN LANEAN DARAMATZEN URTEEN ARABERA. (%)



23. TAULA. ERAKUNDEAK, EREMU GEOGRAFIKO BEREAN HAIEN KOLEKTIBO NAGUSIAREKIN LANEAN DARAMATZEN URTEEN ARABERA. OINARRIZKO ESTATISTIKAK

Batezbestekoa	24,1
Mediana	23
Moda	20
Minimoa	1
Maximoa	249

Arloaren arabera, Gizarte Zerbitzuen arloan (% 65,9) handiagoa da kolektibo berarekin eremu geografiko berean lanean 20 urte baino gehiago daramatzaten erakundeen proportzioa. Hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuetako erakundeek, batez beste, 28,3 urte daramatzate lanean.

24. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKO BEREAN HAIEN KOLEKTIBO NAGUSIAREKIN LANEAN DARAMATZEN URTEEN ARABERA ETA ARLOAREN ARABERA. (%)²⁷

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala
5 urte edo gutxiago	% 14,9	% 11,6	% 5,7	% 17,4	% 6,5	% 8,3
6 eta 10 urte artean	% 12,2	% 13,5	% 5,7	% 6,7	% 10,7	% 14,3
11 eta 20 urte artean	% 19,4	% 20,8	% 23,1	% 17,6	% 39,6	% 20,6
21 eta 30 urte artean	% 24,6	% 38,2	% 29,4	% 20,2	% 27,6	% 38,2
31 eta 40 urte artean	% 17,4	% 11,6	% 24,1	% 24,8	% 8,4	% 10,6
40 urte baino gehiago	% 11,4	% 4,4	% 12,1	% 13,3	% 7,2	% 8,0
Guztira	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0

Erakundeak behar berriak identifikatzeko eta modu eraginkorrean erantzuteko gai izatea geroz eta garrantzitsuagoa da. EHSSko erakundeek jarduten duten ingurunea etengabe aldatzen da eta hartzaileen eskariak aldatuz doaz denborarekin. Horri dagokionez, egokitze eta erantzun berritzaileak eta egoeretara egokitutakoak emateko gaitasuna izatea funtsezkoa da arretaren garrantzia eta eraginkortasuna mantentzeko. Emaitzak aztertze eta garaian, desberdintasun handiak daude egoeren identifikazioaren eta erakundearen erantzunaren artean, alderdi askotan.


Hartzaileen eskarietan izandako aldaketei dagokionez, erakundeek % 52k hauteman dituzten aldaketa horiek, baina % 39,8k soilik egin dituzten jarduerak espezifikoak. Hartzaileen profil-aldaketei

²⁶ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 6,34ko errore-marjina baitu.

²⁷ Ez ditugu gehitu Beste batzuk arloko datuak, oso erantzun gutxi jaso genituelako arlo horretako erakundearen aldetik.

dagokienez, % 46,3k identifikatu ditu, baina soilik % 32k egin ditu horri erantzuteko jarduerak. Halaber, hartzaileen intersektionalitatea hauteman dute erakundeek % 45,7k, baina soilik % 32,1ek erantzun dio horri. Azkenik, behar berriak identifikatu dituzte % 53,9k eta jarduerekin erantzun du % 38,7k.

19. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA HAUTEMANDAKOAREN ARABERA ETA ERABILTZAILEEN ALDAKETEI EMANDAKO ERANTZUNA. (%)



Gainera, lotura dago erakundeek tamaina ekonomikoaren eta hautemandakoari erantzuteko gaitasunaren artean. Bolumen ekonomiko handiagoa duten erakundeek hartzaileen artean identifikatutako aldaketei erantzuteko gaitasun handiagoa dute. Hori bereziki identifikatzen da 300.000 €-tik gorako bolumen ekonomikoa duten erakundeetan eta Enplegua eta Gizarte Zerbitzuak arloekin lan egiten duten erakundeetan.

5.5. ZER JARDUERA GARATZEN DUTE?

EHSSko erakunde gehienek (% 82,9), zerbitzuak eskaintzeaz gain, sentsibilizazioarekin eta eskubideen defentsarekin lotutako beste funtzio sozial batzuk garatzen dituzte. Erakundeek % 5,8k zerbitzuak bakarrik eskaintzen dituzte, eta % 11,3k beste funtzio sozial batzuk bakarrik garatzen dituzte.

20. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ARABERA (%)



Arabian eta Bizkaian handiagoa da zerbitzuak bakarrik hornitzen dituzten erakundeek proportzioa (% 6,1 lurralde bakoitzean). Bizkaian, beste funtzio sozial batzuk bakarrik egiten dituzten erakundeek proportzio handiagoa dago (% 13,7). Ziur aski, horretan eragina du zerbitzuak bakarrik hornitzen dituztenen artean Enplegu arloko erakundeek duten pisua, eta beste funtzio sozial batzuk bakarrik egiten dituztenen artean sareek duten pisua. Gipuzkoan

(% 86,8) eta Araban (% 85,7) handiagoa da zerbitzuen hornikuntza beste funtzio sozial batzuk garatzearekin uztartzen duten erakundeen proportzioa.

25. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Zerbitzuak bakarrik ditu	% 6,1	% 4,7	% 6,8	% 5,8
Beste funtzio sozial batzuk bakarrik egiten ditu	% 13,7	% 8,6	% 7,5	% 11,3
Zerbitzuak eta beste funtzio batzuk uztartzen ditu	% 80,2	% 86,8	% 85,7	% 82,9
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100

Zerbitzuen hornikuntza eta beste funtzio sozial batzuk uztartzen dituzten erakundeek pisu handiagoa dute Osasunaren (% 90,5), Gizarte Zerbitzuen (% 86,5) eta Hezkuntza eta Aisialdiaren (% 86,1) arloetan. Horiek uztartzen ez dituzten erakundeen artean, zerbitzuak bakarrik eskaintzen dituztenen pisua handiagoa da Enplegu arloan (% 11,1) eta Beste batzuen arloan (% 13,0). Aldiz, beste funtzio sozial batzuk bakarrik egiten dituzten erakundeen pisua handiagoa da Beste batzuk arloan (% 32,4) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan (% 21,7).

26. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Aisialdia	Garapenerak o lankidetzaren	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Zerbitzuak bakarrik ditu	% 0,0	% 11,1	% 5,5	% 5,2	% 0,0	% 9,0	% 13,0
Beste funtzio sozial batzuk bakarrik egiten ditu	% 9,5	% 3,2	% 8,0	% 8,7	% 21,7	% 10,6	% 32,4
Zerbitzuak eta beste funtzio batzuk uztartzen ditu	% 90,5	% 85,7	% 86,5	% 86,1	% 78,3	% 80,4	% 54,6
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Artatzen duten kontingentziari dagokionez, zerbitzuen hornikuntza eta beste funtzio batzuk uztartzen dituzten erakundeen pisua handiagoa da honako pertsona hauek artatzen dituzten erakundeen artean: bazterkeria- edo mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak, edo desgaitasuna dutenak.

27. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ETA ARTATUTAKO KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)

	Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Desgaitasuna duten pertsonak	Beste kolektibo zaurgarri batzuk
Zerbitzuak bakarrik ditu	% 6,2	% 5,6	% 2,1	% 3,2	% 7,2
Beste funtzio sozial batzuk bakarrik egiten ditu	% 7,2	% 8,5	% 18,7	% 9,3	% 12,2
Zerbitzuak eta beste funtzio batzuk uztartzen ditu	% 86,5	% 85,9	% 79,2	% 87,5	% 80,6
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Orokorrean ikus daitekeenez, zerbitzuen hornikuntza beste funtzio sozial batzuekin (hala nola salaketa edo sentsibilizazioa) lotutako jarduerekin uztartzen duten erakundeen ehunekoa hazi egiten da erakundeen diru-sarreraren bolumena hazten den heinean, bereziki erakunde handienetan (1,5 milioi € baino gehiago). Zehazki, azken horietan, soilik beste funtzio sozial batzuk egitea izugarri jaitsi da.

28. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Zerbitzuak bakarrik ditu	% 5,1	% 11,8	% 1,7	% 4,7	% 3,4
Beste funtzio sozial batzuk bakarrik egiten ditu	% 16,3	% 5,8	% 13,3	% 17,5	% 3,4
Zerbitzuak eta beste funtzio batzuk uztartzen ditu	% 78,6	% 82,4	% 85,0	% 77,8	% 93,2
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Bigarren edo hirugarren mailako erakundeek kasuan, % 74,2k zerbitzuen eskaintza beste funtzio sozial batzuekin uztartzen du, eta % 2,4k soilik jarduten du bakarrik zerbitzuak hornitzen. % 23,4k beste funtzio sozial batzuetan soilik jarduten du. Bestalde, oinarritzko gizarte-erakundeetan, gehiengoak, % 83,8k, zerbitzuak zein beste funtzio sozial batzuk egiten ditu. Konparazioan, % 6,1ek zerbitzuak hornitzen ditu soilik eta % 10,1ek beste funtzio sozial batzuetan jarduten du.

29. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ETA OINARRIZKO ERAKUNDE EDO SAREEN ARABERA. (%)


	Bai, bigarren edo hirugarren mailako erakundea da	Ez, oinarriko erakundea da
Zerbitzuak bakarrik ditu	% 2,4	% 6,1
Beste funtzio sozial batzuk bakarrik egiten ditu	% 23,4	% 10,1
Zerbitzuak eta beste funtzio batzuk uztartzen ditu	% 74,2	% 83,8
Guztira	% 100,0	% 100,0

Zerbitzuen hornikuntza eta erabiltzaileak

Zerbitzuen hornikuntzaren bidez, erakundeek behar sozialei erantzuten diete eta baliabideak gerturatzan dizkiete beharrak dituzten herritarrei, baliabide horiek eskuratzea erraztuz.

Zehazki, % 88,6k zerbitzuren bat ematen dute (sarritan beste funtzio batzuk ere garatzen dituztela alde batera utzita), eta gainerako % 11,4ak intzidentziarekin, sentsibilizazioarekin, ikerketarekin, etab. lotutako jarduerak baino ez dituzte egiten.

21. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUAK HORNITZEN DITUZTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen erdiek 292 erabiltzaile baino gutxiago izaten dituzte urtean; erakundeen laurdeneak, berriz, 1000 erabiltzaile baino gehiago artatzen dituzte urtean²⁸. Batez beste, zerbitzuak hornitzen dituen erakunde bakoitzak 421 pertsona artatzen ditu urtean: % 59,5 emakumeak eta % 40,5 gizonak. Erabiltzaileen adinari dagokionez, erdiak baino gehiagok 35 urte edo gutxiago ditu (zehazki, % 24 adingabea da eta % 28,1ek 18 eta 35 urte bitarte ditu).

²⁸ Erabiltzaileen estatistikak kalkulatzeko, zerbitzu motaren bat hornitzen duten erakundeak hartu ditugu kontuan eta erabiltzaileen artean 30.000 pertsona edo gehiago dituzten erakundeak baztertu egin ditugu, erakunde desitxuratzailatzat hartu ditugulako. Azken erakunde horien balioek nabarmen handitzen dute laginaren bariantza. Erabiltzaileen batezbestekoa kalkulatzeko trimedia hartu dugu oinarritzat, estatistiko sendoagoa dela uste dugulako. Trimedia joera zentraleko indizea da, hiru neurrien batezbesteko aritmetiko haztatuta kalkulatzean datzana (mediana –pisu bikoitzarekin– eta lehen eta hirugarren kuartilak).

Erabiltzaileen % 31,6k 36 eta 64 urte artean ditu; % 9,7k, 64 eta 74 urte artean, eta % 6,5ek, 75 urtetik gora.

Erabiltzaileak zenbatzeko orduan honako zailtasuna izan dugu, beste batzuen artean: erakundeek % 44,7k erabiltzaileen erregistro nominala dutela esan dute; hortaz, zerbitzu edo jarduera batean baino gehiagotan parte hartzen duten pertsonak behin bakarrik kontatzen dituzkete.

22. grafikoa. ERAKUNDEEN BANAKETA, ERABILTZAILEEN ERREGISTRO NOMINALA IZATEAREN EDO EZ IZATEAREN ARABERA. (%)



Orokorrean, erakundeek % 65,3k baieztatu dute azken 3 urteetan hazi egin dela erabiltzaileen kolektiboa. Erakundeek % 24,6ren kasuan mantendu egin da erabiltzaileen kolektiboa, eta % 10,1en kasuan, murriztu. Erabiltzaile kopuruaren hazkundera, proportzioan, handiagoa izan da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko (% 71), Osasun arloko (% 69,5) eta Enplegu arloko (% 68,7) erakundeetan.

23. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ERABILTZAILEEN BILAKAERAREN ARABERA. (%)



Erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntza

Zerbitzuak ematen dituzten erakundeek % 29,8k erantzukizun publikoko zerbitzu-zorroetan aintzat hartutako zerbitzuak ematen dituzte²⁹ (gainera, gehiengoak zorro horietan aintzat hartu gabeko zerbitzuak ere ematen dituzte). Bestalde, beste % 70,2k erantzukizun publikoko zorroetan aintzat hartu gabeko zerbitzuak ematen dituzte.

24. GRAFIKOA. ZERBITZUAK HORNITZEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZUAK HORNITZEKO GARAIA DUTEN PARTE HARTZEAREN ARABERA. (%)



Erantzukizun publikoko zorroetako zerbitzuak hornitzen dituzten erakundeek artean % 40,7k esan du eskaintzen dituzten zerbitzu gehienak aldiarekin erantzukizunekoak direla. Beste % 36,3k esan du eskaintzen dituzten zerbitzu gehienak udalarenak direla eta beste % 23k esan du eskaintzen dituzten zerbitzu gehienak Eusko Jaurlaritzarenak direla.

²⁹ Zerbitzu bat erantzukizun publikokoa dela esaten da instituzio publikoek zerbitzu hori hartzaileentzat erabilgarria eta irisgarria izatea bermatu behar dutenean; instituzio horien eskumenekoak diren prestazioen eta zerbitzuen zorro edo katalogoek aurreikusten dituzte erantzukizun publikoko zerbitzuak.

Erantzukizun publikoko zerbitzurik ez duten erakundeen proportzioa handiagoa da Araban (% 80). Erantzukizun publikoko zerbitzuak bakarrik dituzten erakundeen proportzioa (% 5,1) edo zerbitzu horien hornikuntza beste zerbitzu batzuekin uztartzen duten erakundeen proportzioa (% 24,7), berriz, handiagoa da Gipuzkoan. Bizkaiko erakundeen datuak Euskadiko batezbestekoaren antzekoak dira. Dena den, erantzukizun publikoko zerbitzuak eta beste zerbitzu batzuk uztartzen dituzten erakundeen ehunekoa apur bat baxuagoa da.

30. TAULA. ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZURIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Bai, erantzukizun publikoko zerbitzuen zorroek jasotzen dituzten zerbitzuak bakarrik hornitzen ditu	% 3,3	% 5,1	% 1,8	% 3,6
Bai, erantzukizun publikoko zerbitzuen zorroek jasotzen dituzten zerbitzuak eta beste zerbitzu batzuk uztartzen ditu	% 29,2	% 24,7	% 18,2	% 26,2
Bai, zerbitzuak hornitzen ditu, baina bakar bat ere ez da erantzukizun publikoko zorrokoa	% 67,4	% 70,2	% 80,0	% 70,2
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100

Erantzukizun publikoko zerbitzurik ez duten erakundeen proportzioa handiagoa da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan (% 90,5), Hezkuntza eta Aisialdiaren arloan (% 88,1) eta arlo Sozial-transbertsalean (% 81,7). Kontrara, erantzukizun publikoko zerbitzuak bakarrik hornitzen dituzten edo zerbitzu horiek beste zerbitzu batzuekin uztartzen dituzten erakundeen proportzioa handiagoa Gizarte Zerbitzuen arloan (% 67,9), Enplegu arloan (% 51) eta Osasun arloan (% 24,7).

31. TAULA. ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZURIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA, ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasun a	Enplegua	Gizarte Zerbitzua k	Aisialdi a	Lank. Garapena	Sozial- transbertsa la
Bai, erantzukizun publikoko zerbitzuen zorroek jasotzen dituzten zerbitzuak bakarrik hornitzen ditu	% 2,5	% 0,0	% 9,0	% 0,0	% 1,0	% 3,0
Bai, erantzukizun publikoko zerbitzuen zorroek jasotzen dituzten zerbitzuak eta beste zerbitzu batzuk uztartzen ditu	% 22,2	% 51,0	% 58,9	% 11,9	% 8,5	% 15,3
Bai, zerbitzuak hornitzen ditu, baina bakar bat ere ez da erantzukizun publikoko zorrokoa	% 75,3	% 49,0	% 32,1	% 88,1	% 90,5	% 81,7
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Erantzukizun publikoko zerbitzuak bakarrik ematen dituzten edo erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntza beste zerbitzu batzuekin uztartzen dituzten erakundeen proportzioa handiagoa da 300.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeetan eta, bereziki, 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua dutenetan. Ildo beretik, erantzukizun publikoko zerbitzurik ez duten erakundeen proportzioa handiagoa da 60.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituzten erakundeetan.

Ikus daitekeenez, erakundeen diru-sarreraren bolumena zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da erantzukizun publikoko zerbitzuak (horiek bakarrik, edo beste zerbitzu batzuekin batera) ematen dituzten erakundeen ehunekoa.

32. TAULA. ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZURIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA, DIRU-SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € arte	60.001 eta 300.000 € arte	300.001 eta 1.500.000 € arte	1.500.000 € baino gehiago
Bai, erantzukizun publikoko zerbitzuen zorroek jasotzen dituzten zerbitzuak bakarrik hornitzen ditu	% 2,0	% 2,4	% 2,8	% 5,2	% 9,3
Bai, erantzukizun publikoko zerbitzuen zorroek jasotzen dituzten zerbitzuak eta beste zerbitzu batzuk uztartzen ditu	% 8,2	% 10,7	% 30,0	% 41,1	% 68,8
Bai, zerbitzuak hornitzen ditu, baina bakar bat ere ez da erantzukizun publikoko zorrokoa	% 89,8	% 86,9	% 67,2	% 53,7	% 21,9
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Laneratzeko enpresak eta Enplegurako Zentro Bereziak

Bazterkeria-prozesuak prebenitzea, arintzea edo zuzentzea da EHSSko erakundeen helburua, eta inklusio sozialeko prozesuak sustatzea. Helburu horren baitan, gizarte-zerbitzuen arloan eta beste espazio batzuetan lan egiten dute, hala nola gizarte eta hezkuntza arloan, gizarte eta osasun arloan edo gizarte eta lan arloan. Arlo horietan, esaterako, enplegurako sarbidea sustatzen dute.

Erakundeen ia % 1,2 **lan-munduratzeko enpresak** dira eta beste % 3,8 lan-munduratzeko enpresen sustatzaileak ³⁰. Horrenbestez, bazterkeria-egoeran dauden kolektiboak lan-merkatuan txertatzea dute helburu. Guztira, lan-munduratzeko 51 enpresa daude EHSSn: 37 Bizkaian, 8 Gipuzkoan eta 6 Araban. Erakundeen % 1,3 inguruk **Enplegu Zentro Berezia** dute. Zentro horiek desgaitasuna duten pertsonen laneratzea errazten dute³¹.

25. GRAFIKOA ERAKUNDEAK, BEREZKO EZAUGARRI BATZUEN ARABERA (%)




³⁰ Erakundeen banaketa (lan-munduratzeko enpresak izatearen edo ez izatearen arabera), unibertsoa oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta.

³¹ Erakundeen banaketa (Enplegu Zentro Berezia izatearen edo ez izatearen arabera) unibertsoa oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta.

5.5.1. EHSSko erakundeek ematen dituzten zerbitzuak

Sektoreko erakundeek ematen dituzten zerbitzuen artean, hauek dira azpimarragarrienak: informazio- eta orientazio-zerbitzuak (% 19,3ren jarduera nagusia da), aisialdiko jarduerak (% 17,9), prestakuntza eta hezkuntza (% 11,2), gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea (% 10,5) eta komunitatearen garapena (% 7,6).

26. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, EMATEN DUTEN ZERBITZU NAGUSIAREN ARABERA. (%)



Arloaren arabera, Hezkuntza eta Aisialdi arloko (% 54,5) eta, neurri txikiagoan, arlo Sozial-transbertsaleko (% 27,2) erakunde gehienek ematen duten zerbitzu nagusia aisialdi-zerbitzua da. Osasun arloko (% 36,2), arlo Sozial-transbertsaleko (% 27,8) eta Gizarte Zerbitzuak arloko (% 18,8) erakundeetan, baliabideen eta bitartekaritzaren gaineko informazio- eta orientazio-zerbitzuak dira nagusi.

27. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ARLOAREN ARABERA ETA ESKAINTZEN DITUZTEN HIRU ZERBITZU NAGUSIEN ARABERA. (%)



Entitate bakar batek eskain ditzakeen zerbitzu guztiak aztertuz gero, kontsultatutako entitateen % 64,9k aisialdi-zerbitzuak eskaintzen dituztela ikus daiteke. Halaber, erakundeen erdiek baino gehiagok prestakuntza- eta hezkuntza-eskaintza dute (% 61,6) eta baliabideei eta bitartekaritzari buruzko informazioa eta orientazioa eskaintzen dute (% 52,7). Erakundeen % 45 inguruk esku-hartze soziohezitzailea (% 46,6), laguntza soziala (% 44,9) eta aholkularitza edo orientazioa (% 44,9) eskaintzen du.

Hein txikiagoan baina 10 erakundetik 4 inguruk esku-hartze psikosoziala (% 40,9) eta garapen komunitarioa edo lokala (% 38) egiten du.

28. GRAFIKOA. ZERBITZUETAKO BAKOITZA EMATEN DUTEN ERAKUNDEAK (%)



Hartzaileei zuzeneko zerbitzuak ematen dizkieten erakundeak haien esku-hartzeko ereduak arreta-eredu komunitariora egokitzen joan dira, arreta osoa, jarraitua, pertsonalizatua, prebentiboa, gertukoa, pertsonen partaidetza duena eta abar emateko.

Hala:

- % 65,8k esku-hartze arlo batean baino gehiagotan lan egiten dute pertsonekin (arlo pertsonala, lan arloa, familia...).
- % 58,6k erabiltzaileen parte-hartzea bultzatzen dute zerbitzuen edo zentroen diseinuan eta ebaluazioan, baita jardueren diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan ere.
- % 54,6k pertsonekin eta haien testuinguruarekin egiten dute lan, erabiltzaileen parte-hartzea bultzatzen dute zerbitzuen eta jardueren diseinuan eta ebaluazioan, eta erabiltzaileek parte hartzeko programa indibidualak prestatzen dituzte.
- % 54,5ek arlo bateko baino gehiagoko zerbitzuak ematen dituzte (osasuna, enplegua, gizarte-zerbitzuak...)
- Eta erdiek programazio indibidualak prestatzen dituzte, erabiltzaileen parte-hartzearekin.

29. GRAFIKOA. HARTZAILEEI ZUZENENKO ZERBITZUAK EMATEN DIZKIETEN ETA ARRETA EREDU KOMUNITARIOKO ELEMENTU GUZTIAK DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%)



Arreta-eredu komunitarioaren elementuak garatzeko orduan aldeak ikusten dira jarduera-arloaren, artatutako kontingentziaren eta erakundearen antzinasunaren arabera:

33. TAULA. ERAKUNDEETAN GEHIEN IDENTIFIKATUTAKO ARRETA EREDU KOMUNITARIOKO ELEMENTUAK, ARLOAREN, KONTINGENTZIAREN ETA ANTZINATASUNAREN ARABERA

ARRETA EREDU KOMUNITARIOA	BATEZ ERE...
Pertsonen bizilekuan edo handik gertu ematen dira	• Hezkuntza eta Aisialdi arloko (% 60,6) eta Gizarte Zerbitzuen arloko (% 50,3) erakundeetan. • desgaitasuna duten (% 52,1), babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden (% 45) edo mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden (% 42,8) pertsonen arreta ematen dieten erakundeetan. • erantzukizun publikoko zerbitzuak dituzten erakundeetan (% 48).
Arlo bateko baino gehiagoko zerbitzuak eskaintzen dizkiegu pertsonen: gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, osasuna, enplegua...	• Gizarte Zerbitzuetako (% 68,7) eta Osasun arloko (% 64,3) erakundeetan. • bazterkeria-egoeran edo -arriskuan (% 68,6) dauden pertsonak eta desgaitasuna duten pertsonak (% 62,9) artatzen dituzten erakundeetan. • 10 urte baino gehiagoko erakundeetan. • erantzukizun publikoko zerbitzuak dituzten erakundeetan (% 64,4).
Prebentzio-jarduera espezifikoak egiten ditugu eta/edo arreta goiztiarreko zerbitzuak ditugu	• Osasun arloko (% 64,2), Gizarte Zerbitzuen arloko (% 58,12) eta Enplegu arloko (% 55,3) erakundeetan. • babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta ematen dietenak (% 44,5).
Pertsonen zerbitzu jarraituak eskaintzen dizkiegu denboran zehar	• Osasun arloko (% 64,2), Gizarte Zerbitzuen arloko (% 58,1) eta Enplegu arloko (% 55,3) erakundeetan.

	• desgaitasuna duten pertsonen arreta ematen dieten (% 65,3) erakundeen artean. • 5 urte baino gehiagoko ibilbidea duten erakundeen artean. • Erantzukizun publikoko zerbitzuak dituzten erakundeetan (% 53,1).
Elkarren artean koordinatutako edo lotutako hainbat zerbitzu (gizarte-zerbitzuak) eskaintzen dizkiegu pertsonen	• Gizarte Zerbitzuen arloan (% 36,1). • Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta ematen dieten erakundeetan (% 35,1). • Erantzukizun publikoko zerbitzuak dituzten erakundeetan (% 37,4).
Arlo batean baino gehiagotan lan egiten dugu pertsonarekin (arloan pertsonala, familia, osasuna, enplegua, prestakuntza, aisialdia...).	• Gizarte Zerbitzuen arloan (% 82,8), Enplegu arloan (% 78) eta Osasun arloan (% 74,6) erakundeetan; • desgaitasuna duten (% 84,8), bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden (% 75,1) edo babesgabekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden (% 66,3) pertsonen arreta ematen dieten erakundeetan. • Erantzukizun publikoko zerbitzuak dituzten erakundeetan (% 73,8).
Pertsonarekin eta haren testuinguruarekin lan egiten dugu (familia edo beste laguntza-sare batzuk, lan- edo prestakuntza-zentroa...)	• Osasun arloan (% 63,2) eta Gizarte Zerbitzuetako (% 75,8) erakundeen artean. • Desgaitasuna duten pertsonen arreta ematen dieten (% 79,9) erakundeen artean • Erantzukizun publikoko zerbitzuak dituzten erakundeetan (% 64,5).
Erabiltzaileen parte-hartzea bultzatzen dugu zerbitzuen edo zentrozen diseinuan eta ebaluazioan, baita jardueren diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan ere.	• Gizarte Zerbitzuetako (% 65,2) eta Hezkuntza eta Aisialdi arloan (% 62,7) erakundeen artean. • eta mendekotasun-egoeran edo -arriskuan (% 71,7) eta desgaitasuna duten pertsonak (% 71,7) artatzen dituzten erakundeen artean. • Erantzukizun publikoko zerbitzuak dituzten erakundeetan (% 66,3).
Programazio indibidualak prestatzen ditugu, erabiltzaileen parte-hartzearekin.	• Gizarte Zerbitzuetako (% 72) eta Enplegu arloan (% 68,2) erakundeetan. • desgaitasuna duten (% 67,4), bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden (% 60,9) eta mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden (% 57,5) pertsonen arreta ematen dieten erakundeetan. • 10 eta 50 urte arteko ibilbidea duten erakundeetan. • Erantzukizun publikoko zerbitzuak dituzten erakundeetan (% 64,9).
Balorazioan, diagnostikoan (beharren eta baliabideen ebaluazioa) eta esku-hartzearen jarraipenean parte hartzen dugu (erantzukizun publikoko zerbitzuetan).	• Gizarte Zerbitzuetako (% 55,6) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan (% 51,5) erakundeetan. • Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan (% 51,3) edo bazterkeria-egoeran edo -arriskuan (% 50,4) dauden pertsonak eta desgaitasuna duten pertsonak (% 47,8) artatzen dituzten erakundeetan. • Erantzukizun publikoko zerbitzuak dituzten erakundeetan (% 63,6).

5.5.2. EHSSko erakundeen beste funtzio sozial batzuekin lotutako jarduerak

Zerbitzuak emateaz gain, beste funtzio sozial batzuk dira EHSSko erakundeen jardueraren elementu bereizle garrantzitsuenak. Erakundeen % 95,4k funtzio horiekin lotutako jardueraren bat egiten dute, modu eksklusiboan edo zerbitzuen hornikuntzarekin uztartuta.

Entitateen gehiengo zabalak sentsibilizazio-ekintzak egiten ditu (% 86,4). 10 erakundetik 7 inguruk gizarte-partaidetza eta elkarrenganako laguntza sustatzearekin lotutako jarduerak

garatzen dituzte (% 70,6), eta 10 erakundetik 6k, salaketara eta eskubideen sustapenera bideratutako ekintzak (% 62,3).


30. GRAFIKOA. BESTE FUNTZIO SOZIALETAKO BAKOITZA EGITEN DUTEN ERAKUNDEAK. (%)



Beste funtzio sozial batzuekin lotutako jarduera nagusiari erreparatuz gero, nabarmentzekoa da erakundeen % 52,6ren kasuan sentsibilizazioa dela jarduera nagusia. Eta erakundeen % 18,1entzat, boluntariotza, elkarrenganako laguntza, partaidetza eta asoziazionismoa.

Erakundeen % 11,4ren kasuan salaketa eta eskubideen sustapena da jarduera nagusia.

31. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, EGITEN DUTEN BESTE FUNTZIO SOZIALAREN ARABERA. (%)



Jarduera arlo guztietako erakundeetan sentsibilizazioa da beste funtzio sozial batzuekin lotutako jarduera nagusia.

Orokorrean, % 50 inguruan edo hortik gora dago arlo ezberdinetako erakundeetan, Enplegu arloan lan egiten duten erakundeetan izan ezik, eta % 77,8ra iristen da Osasun arloko erakundeetan.

Bigarren jarduera nagusi gisa, boluntariotza, elkarri laguntzea, parte-hartze soziala eta asoziazionismoa sustatzea oso esanguratsua da batez ere Hezkuntza eta Aisialdiaren (% 39,4), Sozial-transbertsalekoaren (% 23,5) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren (% 15) arloan.

Eskubideak salatzea eta sustatzea ere nabarmentzen da hainbat arlotan, erakundeen % 10 inguruan.

32. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ARLOAREN ARABERA ETA EGITEN DITUZTEN BESTE FUNTZIO SOZIAL BATZUEKIN LOTUTAKO HIRU JARDUERA NAGUSIEN ARABERA. (%)



5.5.3. EHSSko sareen funtzioak

EHSSko bigarren edo hirugarren mailako entitateek, hau da, sareek, hainbat funtzio garatzen dituzte; hauek nabarmentzen dira: sektore publikoarekin eta beste eragile batzuekin elkarrizketak (sareen ia % 95ek betetzen dute funtzio hori), eskubideen ordezkaritza eta defentsa (10etik ia 9k garatzen dute funtzio hori), sentsibilizazioa (% 82,2) eta sareko entitateen arteko harremanak (sareen % 80,7k).

4 saretik 3 inguruk zerbitzuak eskaintzen dizkie erakundeei eta ezagutza sortu eta zabaltzen du (ikerketa, sistematizazioa...). Gainera, 3 saretik 2k baliabideak eskuratzen jarduten du.

10 saretik ia 6k praktikak balioztatzen eta/edo sustatzen ditu kideak diren erakundeetan, hainbat tresnaren bidez: kode etikoak, jardunbide egokien gidaliburuak, etab.

Ehunekorik baxuenak dituzten sareen funtzioak dira baliabideak birbanatzea (10 saretik 3k egiten du) eta hartzaileei zerbitzu zuzenak hornitzea (5etik 1ek bakarrik egiten du).

33. GRAFIKOA. FUNTZIOETAKO BAKOITZA EGITEN DUTEN BIGARREN EDO HIRUGARREN MAILAKO ERAKUNDEAK. (%)



5.6. 2019-2023 ALDIKO AZTERKETA KONPARATIBOA

Erakundeek jarduketa-eremuaren arabera duten banaketa aztertuta, egonkortasun jakin bat izan da azken bost urteetan, eta ez da desberdintasun handirik hauteman erakundeek beren arloan duten pisuan. Horrek adierazten du jarraipen jakin bat egon dela EHSSren erakundeetan aldi horretan zehar.

Azken urteetan erakunde berriak sartu diren arren, erakunde gazteek sektorean duten ehunekoa txikitu egin da apur bat. Beherakada horrekin batera, igo egin da 20 urtetik gorako ibilbidea duten erakundearen ehunekoa, eta horrek esan nahi du ziurrenik iraunkortasun eta

sendotasun handiagoa lortu dutela denboran erakunde egonkorrago horiek. Sektorearen konposizioan izandako aldaketa eta eraldaketa horiek agerian uzten dute erakunde gazteen dinamika espezifikoa ulertzeko eta jorratzeko beharra, haien iraunkortasuna eta hirugarren sektore sozialari etorkizunean egingo dioten ekarpena bermatzeko.

34. TAULA. JARDUERA ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (I).

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdintasuna 2023-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Arlo sozial-transbertsaleko (edo zibikoko) erakundeen %	33,7	36,5	37,5	1,0
Gizarte-zerbitzuen arloko erakundeen %	25,3	23,3	22,2	-1.1
Ibilbide zabaleko (20 urte baino gehiagokoa) erakundeen %	42,1	33,8	37,8	4,0
Erakunde gazteen (5 urte baino gutxiagoko ibilbidea) %	13,4	20	18,2	-1.8

Erakundeen jarduerari dagokionez, zerbitzuak ematen dituzten erakundeen ehunekoa nahiko egonkor mantendu dela azken 4 urteetan, beste funtzio sozial batzuk garatzen dituzten erakundeen ehunekoa bezalaxe.

Datu horiek erakusten dute jarduera batzuk, esaterako salaketak (etengabe handitzen ari dira) eta eskubideen sentibilizazioa, defentsa eta sustapena EHSSren lan eraldatzailearen ezinbesteko zatia direla. Elementu horiek identitarioak eta funtsezkoak dira sektorearentzat eta aldaketa sozial garrantzitsuak sustatzearekin duten etengabeko konpromisoa islatzen dute.

Gainera, nabarmena da beren jarduera, zati bat behintzat, emakumeei zuzentzen dieten erakundeen ehunekoaren hazkundea; ia ehuneko 10 puntu igo da. Hazkunde horrek erakusten du EHSSk gero eta konpromiso handiagoa duela, eta gero eta garrantzi handiagoa ematen diela emakumeen behar eta erronka espezifikoiei.

Adierazgarria da 2019an nabarmen igo ondoren, % 4 inguru egin duela gora berriro ere azken lau urteetan erabiltzaile gehiago izan dituzten erakundeen ehunekoak. Hori bat dator EHSSko erakunde kopuruaren, boluntarioen eta ordainpeko langileen hazkundearekin. Behar sozialei erantzuteko gaitasuna, halaber, erabiltzaile kopuruaren hazkundera islatzen da: egoera eta arazo sozial berriei erantzuteko, proposamen berriak egin dira, bai jarduera berriak sortuz, bai erakunde berriak sortuz.

35. TAULA. JARDUERA ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (II).

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdintasuna 2023-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Jarduera emakumeei (neurri batean gutxienez) zuzentzen dieten erakundeen %	47,6	49,3	59,2	9,9
Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen %	93,4	85,8	88,7	2,9
Zerbitzuak ematea ez den beste jardueraren batzuk (beste funtzio sozial batzuk) egiten dituzten erakundeen %	75,1	92,5	94,2	1,7
Aisialdiko zerbitzuak ematen dituzten erakundeen %	55	62,2	64,9	2,7
Salaketa-jarduerak egiten dituzten erakundeen %	45,1	57,9	62,3	4,4
Azken 3 urteetan erabiltzaile kopurua handitu duten erakundeen %	51,73	61,3	65,3	4,0

6. PERTSONAK

EHSSko erakundeak gizarte zibilaren ekimenez sortzen dira eta herritarrek parte hartzeko kanal bat dira. Ondorioz, oinarri soziala izatea baliabide bat izateaz gain, identitatearen oinarritzko osagarri bat ere bada. Gizartearekin lotzeko tresna bat eta legitimitate sozialerako ezinbesteko iturri bat da. Hain zuzen ere, gizarte horretatik sortu dira eta harentzat egiten dute lan.

Erakunde baten oinarri soziala haren barne-bizitzan eta haren misioaren garapenean parte hartzen duten talde ugari osatzen dute: boluntarioak, ordainpeko langileak, gobernu-organoetako kideak, bazkideak eta dohaintza-emaileak.

EHSSko erakundeek oinarri soziala osatzen duten profil guztien datu bereizgarri nagusiak xehatuko ditugu hurrengo ataletan.

6.1. LANTALDEAK: BOLUNTARIOAK ETA SOLDATAPEKO LANGILEAK

Boluntarioek eta erakundeko ordainpeko langileek (egongo balira) osatzen dituzte EHSSko erakundeetako lantaldeak.

Erakundeetako lantaldeek 49 pertsona izaten dituzte, batez beste (boluntarioak eta ordainpeko langileak)³², baina sektoreko erakundeek erdiek 21 pertsona baino gutxiagoko lantaldeak dituzte.

Elkarteek, batez beste, 46 pertsona dituzte haien lantaldeetan, eta fundazioek 70.

Arloaren arabera, Gizarte Zerbitzuetako, Hezkuntza eta Aisialdi arloko eta Beste arlo batzuetako lantaldeek, batez beste, 50 pertsona baino gehiago izaten dituzte. Enplegu arlokoek eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arlokoek, berriz, 40 pertsona baino gutxiago izaten dituzte, batez beste.

36. TAULA. LANTALDEETAKO PERTSONA KOPURUA. OINARRIZKO ESTATISTIKAK. GUZTIRA ETA ARLOKA

	GUZTIRA	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdi	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Batezbestekoa	49,2	46,2	28,9	68,5	55,1	39,2	42,9	52,5
Mediana	20,0	19,0	34,0	26,0	25,0	20,0	16,0	23,0
Moda	10	10	43	17	10	4	16	1

Oro har, aurrekonturik handiagoa duten erakundeek lantalde handiagoak izaten dituzte, boluntarioek eta soldatapeko langileek osatuta. 12.000 €-tik beherako diru-sarrerak izaten dituzten erakundeek 23 langile inguru izaten dituzte batez beste lantaldean, eta 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua dutenek 131 langile.


³² Lantaldeetako pertsonen estatistikak kalkulatzeko, kanpoan utzi ditugu 1.000 boluntario edo gehiago dituzten erakundeak, eta 250 ordainpeko langile edo gehiago dituzten erakundeak, "outlier" erakundetzat jo ditugulako,

37. TAULA. LANTALDEETAKO PERTSONA KOPURUA. OINARRIZKO ESTATISTIKAK. GUZTIRA ETA BALIABIDE EKONOMIKOEN ARABERA

	12.000 € edo gutxiago	12.001 € eta 60.000 € artean	60.001 € eta 300.000 € artean	300.001 € eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Batezbestekoa	22,5	21,6	57,7	67,6	131,4
Mediana	12,0	12,0	23,0	34,0	89,0
Moda	3	10	4	13	33

Datuek erakusten dute EHSSko erakundeek ehuneko altu baten kasuan, % 74,3ren kasuan zehazki, lantaldeko pertsonen % 75 edo gehiago boluntarioak direla. Bestalde, erakundeek % 10,7ren kasuan, lantaldeko pertsonen % 50 eta % 75 artean dira boluntarioak. Hala ere, garrantzitsua da nabarmentzea erakundeek % 8,4ren kasuan soilik direla lantaldeko langileen % 25 baino gutxiago boluntarioak.

34. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEAN BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



EHSSko erakundeek % 61,1ek soldatapeko langileak dituzte lantaldeetan; aldiz, erakundeek % 38,9 borondatezko pertsonekin osatuta daude oso-osorik.

35. GRAFIKOA. LANTALDEETAN ORDAINPEKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%)



Horren antzera, ohikoena da soldatapeko langileak lantaldea osatzen duten pertsonen laurdena baino gutxiago izatea. Soldatapeko langileak erakundeek % 15,2tan soilik dira gehiengoak.

36. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEETAN SOLDATAPEKO LANGILEEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



6.1.1. Lantaldeak, honakoen arabera: lurralde historikoa, arloa, kontingentzia, diru-sarreraren bolumena eta erakundeen antzinasuna

Soldatapeko langileek zein boluntarioek osatutako lantaldeak ohikoagoak dira erakunde jakin batzuetan eta aldatu egiten da, besteak beste, lurralde historikoaren, arloaren, kontingentziaren, diru-sarreraren bolumenaren eta erakundeen antzinasunaren arabera:

- Soldatapeko langileak dituzten erakunde gehien dauden lurraldea Bizkaia da; 3 erakundetik 2tan daude soldatapeko langileak lantaldean. Horren arrazoia izan daiteke, hein batean, Bizkaian daudelako erakunde handi gehienak eta sektorean ibilbide luzea dutenak.
- Fundazioak eta beste forma juridiko batzuk dira soldatapeko langile gehien dituzten erakundeak, alde handiarekin. Fundazioen % 95,1ek eta beste figura juridiko batzuen % 100ek (hala nola ekimen sozialeko kooperatibak edo kongregazio erlijiosoak) ordainpeko langileak dituzte haien lantaldeetan.
- Soldatapeko langileak dituzten erakunde gehien Gizarte Zerbitzuak (% 85,6), Enplegua (% 77,7) eta Osasuna (% 75,3) arloetan daude.
- Espero izatekoa den moduan, erakundeetan ordainpeko langileek duten presentzia lotuta dago erakundearen diru-sarreraren bolumenarekin. 300.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakunde guztiek dituzte soldatapeko langileak. 60.001 € eta 300.000 € bitarteko aurrekontua duten erakundeen kasuan, % 96,5ek soldatapeko langileak ditu.

38. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEETAN ORDAINPEKO LANGILEEK DUTEN PRESENTZIAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN, ARLOAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	Soldatapeko langileak ditu	Ez du soldatapeko langilerik	Guztira
EHSS	% 61,1	% 38,9	% 100,0
Lurralde historikoa			
Bizkaia	% 66,0	% 34,0	% 100
Gipuzkoa	% 60,7	% 39,3	% 100
Araba	% 62,0	% 38,0	% 100
Figura juridikoa			
Elkarteak	% 60,5	% 39,5	% 100
Fundazioak	% 95,1	% 4,9	% 100
Beste bat	% 100,0	% 0,0	% 100
Arloa			
Osasuna	% 75,3	% 24,7	% 100
Enplegua	% 77,7	% 22,3	% 100
Gizarte Zerbitzuak	% 85,6	% 14,4	% 100
Aisialdia	% 53,7	% 46,3	% 100
Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	% 62,0	% 38,0	% 100
Sozial-transbertsala	% 48,7	% 51,3	% 100
Beste batzuk	% 87,0	% 13,0	% 100
Diru-sarrera bolumena			
12.000 € edo gutxiago	% 9,0	% 91,0	% 100
12.001 € eta 60.000 € artean	% 46,1	% 53,9	% 100
60.001 € eta 300.000 € artean	% 96,5	% 3,5	% 100
300.001 € eta 1.500.000 € artean	% 100,0	% 0,0	% 100
1.500.000 € baino gehiago	% 100,0	% 0,0	% 100

Lantaldeen konposizioaz gain, hau da soldatapeko langileak dauden ala ez jakitea, garrantzitsua da boluntarioek zer pisu duten aztertzea:

- Lantaldearen erdia baino gehiago boluntarioek osatzen duten erakundeen proportzioa handiagoa da Gipuzkoan (% 87) eta Araban (% 86,7).
- Halaber, boluntarioek pisu handiagoa dute elkartetan, fundazioetan edo beste figura juridiko batzuetan baino. Izan ere, 10 elkartetatik 9tan, lantaldea osatzen duten pertsonen erdiak baino gehiago boluntarioak dira.
- Boluntarioek lantaldeetan duten pisua bereziki esanguratsua da arlo Sozial-transbertsanean, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan, Osasun arloan eta Hezkuntza eta Aisialdi arloan. Izan ere, arlo horietako erakundeen % 90 baino gehiagotan boluntarioak dira lantaldearen erdia edo gehiago.
- 12.000 €-ko aurrekontua edo txikiagoa duten erakunde ia guztiak boluntarioz osatuta daude, eta ehuneko hori orduan eta txikiagoa da aurrekontua handitzen den heinean.


39. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEETAN BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN, ARLOAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	<% 25	% 25, edo % 25-50 artean	% 50, edo % 50-75 artean	% 75 edo >	Gutira
EHSS	% 8,4	% 6,6	% 10,7	% 74,3	% 100
Lurralde historikoa					
Bizkaia	% 9,2	% 7,2	% 10,5	% 73,1	% 100
Gipuzkoa	% 7,2	% 5,8	% 11,0	% 76,0	% 100
Araba	% 7,6	% 5,7	% 10,8	% 75,8	% 100
Figura juridikoa					
Elkarteak	% 9,2	% 7,2	% 10,5	% 73,1	% 100
Fundazioak	% 7,2	% 5,8	% 11,0	% 76,0	% 100
Beste bat	% 7,6	% 5,7	% 10,8	% 75,8	% 100
Arloa					
Osasuna	% 5,0	% 5,0	% 5,6	% 84,4	% 100
Enplegua	% 50,5	% 15,3	% 0,0	% 34,2	% 100
Gizarte Zerbitzuak	% 19,4	% 18,4	% 19,7	% 42,5	% 100
Aisialdia	% 7,4	% 0,0	% 16,8	% 75,8	% 100
Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren	% 0,8	% 0,8	% 9,4	% 89,0	% 100
Sozial-transbertsala	% 1,2	% 2,9	% 6,8	% 89,2	% 100
Beste batzuk	% 32,8	% 17,0	% 0,0	% 50,2	% 100
Diru-sarrera bolumena					
12.000 € edo gutxiago	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 100,0	% 100
12.001 € eta 60.000 € artean	% 2,1	% 0,0	% 5,8	% 92,1	% 100
60.001 € eta 300.000 € artean	% 2,7	% 4,3	% 21,5	% 71,5	% 100
300.001 € eta 1.500.000 € artean	% 20,5	% 19,0	% 8,7	% 51,8	% 100
1.500.000 € baino gehiago	% 37,7	% 24,9	% 18,0	% 19,4	% 100

6.1.2. Boluntario kopurua

Erakunde bateko boluntario kopurua 10 eta 50 pertsona artekoa izatea da ohikoena. Hala da 2 erakundetik 1ean baino gehiagotan. Erakundeen % 31,7an 10 boluntario baino gutxiago dituzte, eta % 16,3an 50 baino gehiago.

37. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIO KOPURUAREN ARABERA. (%)



Boluntarioen kopurua oso lotuta dago erakundearen tamainarekin. Hau da, bolumen ekonomikoa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da boluntarioen kopurua. Erakunderik txikien artean, 12.000 €-ko diru-sarrerak edo txikiagoak dituzten artean, % 40,7k 10 boluntario baino gutxiago ditu eta % 49,6k 10 eta 50 boluntario artean ditu. Diru-sarreraren bolumena handitu ahala, jaitsi egiten da 10 boluntario baino gutxiago dituzten erakundearen proportzioa.

Bestalde, nabarmen igo da boluntarioen kopurua 300.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituzten erakundeetan. Izatez, 1.500.000 €-ko diru-sarrerak baino handiagoak dituzten erakundeak dira 500 boluntario baino gehiago dituzten bakarrak (% 5).

40. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIO KOPURUAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
10 boluntario baino gutxiago	% 40,7	% 40,3	% 28,8	% 21,3	% 8,2
10 eta 50 boluntario artean	% 49,6	% 54,0	% 52,7	% 48,6	% 54,0
51 eta 100 boluntario artean	% 4,6	% 4,3	% 3,4	% 15,1	% 19,1
101 eta 500 boluntario artean	% 5,2	% 1,2	% 15,2	% 15,0	% 13,7
500 boluntario baino gehiago	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 5,0
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Ohikoena 10 boluntario izatea bada ere, batezbestekoa 41,5koa da. Batezbestekoa handiagoa da Hezkuntza eta Aisialdi arloan (53) eta arlo Sozial-transbertslean (41,8).

41. TAULA. BOLUNTARIO KOPURUA OINARRIZKO ESTATISTIKAK. GUZTIRA ETA ARLOKA

	GUZTIRA	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Batezbestekoa	41,5	34,6	17,1	33,2	53,0	38,0	41,8	40,0
Mediana	17	15,0	14,0	16,0	20,0	20,0	12,0	17,0
Moda	10	10,0	20,0	5,0	20,0	20,0	6,0	17,0

Boluntarioen bilakaera azken hiru urteetan

Erakundeen % 44,4k adierazi dutenez, azken hiru urteetan mantendu egin da erakundeko boluntario kopurua. Boluntario kopurua hazi egin dela adierazi dute % 32,8k, eta jaitsi egin dela % 22,8k.

38. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIOEN BILAKAERAREN ARABERA. (%)



Batez ere, Bizkaiko erakundeetan hazi da boluntario kopurua azken 3 urteetan (erakundeen % 35,8k baieztatu dute). Boluntario kopurua Arabako erakundeetan hazi da gutxien (% 22,5).

42. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIOEN BILAKAERAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Igo egin da	% 35,8	% 32,2	% 22,5	% 32,8
Behera egin du	% 20,4	% 22,6	% 32,7	% 22,8
Mantendu egin da	% 43,9	% 45,2	% 44,8	% 44,4
Guztira	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0

Boluntario kopurua hazi zaien erakundeen proportzioa arlo hauetan da handiena: Sozial-transbertsala (% 34,6), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak (% 34,6), Gizarte Zerbitzuak (% 33,3) eta Osasuna (% 31,9). Boluntarioen bolumena egonkorrago mantendu da Enpleguaren arloan (ia 10 erakundetik 8).

43. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIOEN BILAKAERAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Igo egin da	% 31,9	% 11,1	% 33,3	% 28,5	% 34,6	% 34,6	% 57,9
Behera egin du	% 28,2	% 9,1	% 24,2	% 25,7	% 22,9	% 21,5	% 8,7
Mantendu egin da	% 39,9	% 79,8	% 42,5	% 45,8	% 42,5	% 44,0	% 33,5
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Boluntario kopuruaren hazkundea kasu hauetan izan da nabarmenena: bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak (% 34,7) edo babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak (% 34,1) eta desgaitasuna duten pertsonak (% 34,9) artatzen dituzten erakundeak. Boluntario kopuruaren jaitsiera, berriz, mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten erakundeetan (% 64,9) gertatu da gehien.

44. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIOEN BILAKAERAREN ETA KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)

	Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Desgaitasuna duten pertsonak	Beste kolektibo zaurgarri batzuk
Igo egin da	% 10,1	% 34,7	% 29,1	% 31,4	% 34,9
Behera egin du	% 64,9	% 16,9	% 15,5	% 20,9	% 24,0
Mantendu egin da	% 24,9	% 48,4	% 55,4	% 47,7	% 41,2
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

6.1.3. Ordainpeko langileen kopurua

Erakundeek ordainpeko langileak dituztenean, ordainpeko langileen batez besteko kopurua 17koa izaten da³³, baina ohikoena ordainpeko 1 langile izatea da. Ordainpeko langileen batez besteko kopurua handiagoa izaten da Gizarte Zerbitzuak (38,6 pertsona), Enplegu arloko (28,3 pertsona) eta beste arlo batzuetako (21,4 pertsona) erakundeetako lantaldeetan.

45. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUA OINARRIZKO ESTATISTIKAK. GUZTIRA ETA ARLOKA

	GUZTIRA	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Batezbestekoa	17,0	5,6	28,3	38,6	9,1	5,6	4,3	21,4
Mediana	4,0	2,0	23,0	10,0	3,0	3,0	2,0	4,0
Moda	1,0	1,0	23,0	2,0	1,0	1,0	1,0	1,0

Halaber, badirudi soldatapeko langileen kopuruak lotura handia duela diru-sarreraren bolumenarekin eta erakundearen antzintasunarekin. Bi faktore horiek oso lotuta daude. Soldatapeko pertsonen bolumena handitu egiten da erakundearen diru-sarreraren bolumena eta antzintasuna handitzen den heinean.

46. TAULA. SOLDATAPEKO PERTSONEN KOPURUA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. OINARRIZKO ESTATISTIKAK.


	12.000 € edo gutxiago	12.001 € eta 60.000 € artean	60.001 € eta 300.000 € artean	300.001 € eta 1.500.000 € artean	1.500.000 baino gehiago
Batezbestekoa	0,1	0,8	3,9	15,1	73,8
Mediana	0,0	0,0	3,0	14,0	57,0
Moda	0,0	0,0	2,0	7,0	62,0

47. TAULA. SOLDATAPEKO PERTSONEN KOPURUA ERAKUNDEAREN ANTZINTASUNAREN ARABERA. OINARRIZKO ESTATISTIKAK.

	50 urte baino gehiago	20 eta 50 urte artean	10 eta 20 urte artean	5 eta 10 urte artean	2 eta 5 urte artean	2 urte baino gutxiago
Batezbestekoa	64,0	14,0	7,5	3,7	4,8	0,5
Mediana	26,0	3,0	2,0	1,0	0,0	0,0
Moda	1,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0

Ordainpeko langileen kopurua 10 pertsonatik gorakoa ez izatea da ohikoena (10 erakundetik 7 ingurutan). Kasuen % 36,7an, 3 pertsona baino gutxiagok jasotzen dute ordainsaria. Erakundearen % 16,9k 11-50 ordainpeko langile dituzte, eta % 11,7k 50 baino gehiago.

39. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUAREN ARABERA. (%)



³³ Soldatapeko langileen estatistikak kalkulatzeko, soldatapeko langileak dituzten erakundeak hartu ditugu aintzat, eta baztertu egin ditugu soldatapeko 250 langile edo gehiago dituzten erakundeak, "outlier" erakundetzat jo ditugulako.

Figura juridikoari dagokionez, 50 ordainpeko langile baino gehiago dituzten erakundeek pisua handiagoa da fundazioen (% 28,9) eta beste figura juridiko batzuen kasuan (% 36,3), elkarrean kasuan baino (% 8,5). Horien % 78,3k ordainpeko 10 langile baino gutxiago dituzte.

48. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUAREN ETA FIGURA JURIDIKOAREN ARABERA. (%)

	Elkarrean	Fundazioak	Beste batzuk
3 pertsona baino gutxiago	% 40,9	% 14,7	% 4,9
3 eta 10 pertsona artean	% 37,5	% 19,2	% 16,0
11 eta 50 pertsona artean	% 13,2	% 37,3	% 42,8
51 eta 100 pertsona artean	% 5,4	% 12,3	% 11,8
100 pertsona baino gehiago	% 3,0	% 16,6	% 24,5
Guztira	% 100	% 100	% 100

Erakunderik handienak, 50 enplegatu baino gehiago dituztenak, Enpleguan, Gizarte Zerbitzuetan eta Beste arlo batzuetan pilatzen dira batik bat, soldatapeko langileen bolumen handiagoa duten erakunde gehiago baitaude. Hezkuntza eta Aisialdi arloko (% 44), arlo Sozial-transbertsaleko (% 50,4) eta Osasun arloko (% 53,4) erakundeetan, ohikoena, ordainpeko hiru langile baino gutxiago izatea da. Aldiz, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan (% 48) 3 eta 10 ordainpeko langile artean izatea da ohikoena.

49. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren	Sozial-transbertsalea	Beste batzuk
3 pertsona baino gutxiago	% 53,4	% 11,4	% 18,9	% 44,0	% 39,0	% 50,4	% 39,0
3 eta 10 pertsona artean	% 30,8	% 15,7	% 30,9	% 36,2	% 48,0	% 37,6	% 28,8
11 eta 50 pertsona artean	% 13,6	% 46,3	% 19,2	% 19,9	% 11,6	% 12,0	% 16,3
51 eta 100 pertsona artean	% 2,2	% 17,4	% 16,5	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 8,0
100 pertsona baino gehiago	% 0,0	% 9,2	% 14,5	% 0,0	% 1,3	% 0,0	% 8,0
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Kontingentziari dagokionez, 50 ordainpeko langile baino gehiago dituzten erakundeek proportzioa askoz ere handiagoa da mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten erakundeek artean (% 37,1). Ordainpeko 10 langile baino gutxiago dituzten erakundeek proportzioa, berriz, % 84,2koa da beste kolektibo zaurgarri batzuk artatzen dituzten erakundeek kasuan.

50. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUAREN ETA ARTATUTAKO KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)

	Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Desgaitasuna duten pertsonak	Beste kolektibo zaurgarri batzuk
3 pertsona baino gutxiago	% 15,2	% 29,1	% 17,0	% 33,8	% 48,2
3 eta 10 pertsona artean	% 28,3	% 26,8	% 56,1	% 35,5	% 36,0
11 eta 50 pertsona artean	% 19,3	% 24,5	% 13,9	% 12,4	% 14,8
51 eta 100 pertsona artean	% 17,9	% 15,3	% 4,6	% 6,9	% 0,0
100 pertsona baino gehiago	% 19,2	% 4,3	% 8,4	% 11,4	% 1,1
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Diru-sarrera gehien izaten dituzten erakundeek ordainpeko langile gehiago izaten dituzte. logikoa den moduan. 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeek % 61,3k baino gehiago dituzte. 300.001 eta 1.500.000 € arteko aurrekontua duten erakundeek erdiek 11 eta 50 artean dituzte, eta 60.001 eta 300.000 € arteko aurrekontua duten % 56k 3 eta 10 artean. 60.000 €-ko aurrekontua edo baxuagoa duten 3 erakundetatik 2k ordainpeko 3 langile baino gutxiago dituzte.

51. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
3 pertsona baino gutxiago	% 66,7	% 83,6	% 40,3	% 6,6	% 5,5
3 eta 10 pertsona artean	% 33,3	% 16,4	% 56,0	% 41,2	% 5,1
11 eta 50 pertsona artean	% 0,0	% 0,0	% 3,3	% 49,9	% 28,1
51 eta 100 pertsona artean	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 1,3	% 34,0
100 pertsona baino gehiago	% 0,0	% 0,0	% 0,5	% 1,0	% 27,3
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Gainera, 50 urtetik gorako ibilbidea duten erakundeek artean handiagoa da 50 ordainpeko langile baino gehiago dituzten erakundeek proportzioa (% 43,8).

52. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUAREN ETA ANTZINATASUNAREN ARABERA. (%)

	50 urte baino gehiago	20 eta 50 urte artean	10 eta 20 urte artean	5 eta 10 urte artean	2 eta 5 urte artean	2 urte baino gutxiago
3 pertsona baino gutxiago	% 22,4	% 29,6	% 37,5	% 55,3	% 61,1	% 69,0
3 eta 10 pertsona artean	% 19,2	% 35,4	% 38,2	% 36,8	% 27,3	% 17,5
11 eta 50 pertsona artean	% 14,5	% 19,7	% 20,2	% 4,6	% 3,8	% 13,5
51 eta 100 pertsona artean	% 10,7	% 9,2	% 2,5	% 3,3	% 4,2	% 0,0
100 pertsona baino gehiago	% 33,1	% 6,1	% 1,6	% 0,0	% 3,6	% 0,0
guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Ordainpeko langileen bilakaera azken hiru urteetan

Erakundeek erdiek baino gehixeagok (% 51,4) adierazi dute azken hiru urteetan mantendu egin dela ordainpeko langileen kopurua, handitu egin dela adierazi dute % 35,9k eta murriztu egin dela % 12,7k.

40. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN BILAKAERAREN ARABERA. (%)



Gipuzkoako erakundeek artean handiagoa da azken 3 urteetan ordainpeko langileen kopurua handitu duten entitateen proportzioa; 10 erakundetik 4 dira. Bizkaian (% 35,1) eta Araban (% 32,2) baxuagoa da ehuneko hori Gipuzkoan eta Euskadi osoan baino.

53. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN BILAKAERAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Igo egin da	% 35,1	% 39,7	% 32,2	% 35,9
Behera egin du	% 13,2	% 11,2	% 13,7	% 12,7
Mantendu egin da	% 51,7	% 49,1	% 54,1	% 51,4
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100

Ordainpeko langileen kopurua arlo hauetan hazi da gehien: Enplegua (erakundeen % 55,4), Gizarte Zerbitzuak (% 50,7) eta Beste batzuk (% 46,2). Bestalde, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloa da soldatapeko langileen kopurua murriztu duten erakundeen ehunekorik altuena duen arloa (% 24,8).

54. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN BILAKAERAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Igo egin da	% 35,5	% 55,4	% 50,7	% 29,2	% 16,7	% 29,3	% 46,2
Behera egin du	% 5,9	% 7,7	% 11,6	% 11,3	% 24,8	% 12,0	% 0,0
Mantendu egin da	% 58,6	% 36,9	% 37,7	% 59,5	% 58,6	% 58,7	% 53,8
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Halaber, soldatapeko langileen bolumenaren hazkundeak lotura du erakundeen aurrekontu ekonomikoarekin. Aurrekontua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da izango da soldatapeko langileen kopurua handitu dutela adierazi duten erakundeen ehunekoa. 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten 10 erakundetik ia 7k esan du handitu egin duela soldatapeko langileen kopurua bere lantaldeetan (% 68,8). Ildo horretatik, 300.001 eta 1.500.000€ bitarteko aurrekontua duten 2 erakundetik 1ek esan du hori (% 52,8). Halaber, azken horiek dira soldatapeko langileen bolumena murriztu dutenak ere (% 18,3 eta % 14, hurrenez hurren). 300.000 €-tik beherako aurrekontua duten erakundeetan gehiengoak egonkor mantendu du soldatapeko langileen bolumena.

55. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN BILAKAERAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Igo egin da	% 6,3	% 20,7	% 29,7	% 52,8	% 68,8
Behera egin du	% 9,3	% 9,3	% 12,5	% 14,0	% 18,3
Mantendu egin da	% 84,4	% 70,0	% 57,7	% 33,1	% 12,9
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

6.1.4. Zein dira EHSSko boluntarioen ezaugarriak?

Boluntarioen sexua

Emakumeak dira gehiengo EHSSko erakundeetako boluntarioen artean. Boluntarioen % 62,1 emakumeak dira, eta % 37,9 gizonak.

41. GRAFIKOA. BOLUNTARIOEN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. (%)



Hain zuzen ere, erakundeen % 69,7an emakumeak dira boluntario gehienak. Boluntarioen artean emakumerik ez duten erakundeak ez dira % 1era iristen.

42. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, EMAKUMEEK BOLUNTARIOEN ARTEAN DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



Emakumezko boluntarioen proportzioa altuxeagoa da Osasun arloan (% 64,9) eta Gizarte Zerbitzuen arloan (% 64,1) eta askoz baxuagoa da Enplegu arloan (% 50,9).

56. TAULA. BOLUNTARIOEN OSAERA, SEXUAREN ETA ARLOAREN ARABERA (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Emakumeak	% 64,9	% 50,9	% 64,1	% 54,6	% 62,5	% 62,9	% 50,2
Gizonak	% 35,1	% 49,1	% 35,9	% 45,4	% 37,5	% 37,1	% 49,8
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Kolektiboetara dagokienez, emakumezko boluntarioen presentzia handiagoa da batez ere mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak (% 67,7) artatzen dituzten erakundeetan. Gainerako erakundeak batez besteko mailatik gertu daude, guztietan dira emakumeak boluntarioen % 60 baino gehiago.


57. TAULA. BOLUNTARIOEN OSAERA, SEXUAREN ETA ARTATUTAKO KONTINGENTZIAREN ARABERA (%)

	Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Desgaitasuna duten pertsonak	Beste kolektibo zaurgarri batzuk
Emakumeak	% 67,7	% 63,1	% 62,7	% 61,4	% 61,3
Gizonak	% 32,3	% 36,9	% 37,3	% 38,6	% 38,7
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Boluntarioen adina

Gutxi gorabehera 10 boluntariotik 3k 30 urte baino gutxiago ditu (% 31,5) edo 65 urte baino gehiago (% 28,1). Gainerakoak 31 eta 50 urte bitartekoak (% 24,5) eta 50 eta 65 urte bitartekoak artean banatzen dira (% 15,9).

43. GRAFIKOA. BOLUNTARIOEN OSAERA, ADINAREN ARABERA. (%)




Boluntario gazteenek presentzia berezia dute Hezkuntza eta Aisialdi arloan (boluntarioen % 78,7k 30 urte baino gutxiago dituzte). 50 urtetik gorako boluntarioek presentzia zabala dute arlo Sozial-transbertsalean (gutzizkoaren % 61,3 dira); hain zuzen ere, arlo horretakoak dira adineko pertsonen elkarteak eta Osasun arlokoak (% 53).

Pertsona boluntarioen banaketan adinaren arabera hautemandako joerak lotura onargarria du pertsonen bizi zikloarekin. 30 urtetik beherako gazteek eta 65 urtetik gorakoek gainordezkaritza dute boluntariotzan, biztanleriaren piramidean duten pisuarekin alderatuta. Horrek esan nahi du boluntariotza-jardueretan gehiago hartzen dela parte bizitzaren hasierako eta amaierako etapetan.

Bestalde, 31 eta 65 urte bitartean, pertsonak laneko eta familiako erantzukizun handiagoak izaten dituzte maiz, eta parte-hartze boluntarioa murriztu egiten da. Fenomeno hori aldi baterako etenaldi bat da parte-hartze boluntarioan bizi-zikloaren tarteko etapetan, pertsonak erretiroa hartu arte. Ordutik aurrera boluntariotzarekiko duten konpromisoari berriz ekiten diote eta berrindartzen dute.

44. GRAFIKOA. BIZTANLERIAREN ETA BOLUNTARIOEN OSAERA, ADINAREN ARABERA. (%)



Boluntarioen ikasketa maila

Pertsona boluntarioen erdiek baino gehiagok unibertsitateko ikasketak edo baliokideak dituzte (% 56,8). 10etik 3k Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta derrigorrezkoaren ostekoa amaitu du (% 29,9) eta gainerakoek lehen mailako ikasketak edo baliokideak dituzte (% 11,5).

45. GRAFIKOA. BOLUNTARIOEN OSAERA, IKASKETA MAILAREN ARABERAPENDI. (%)



Boluntarioen antzinatasuna

3 boluntariotatik 1 berriak dira, hau da, duela 2 urte edo gutxiago sartu ziren erakundean. Aldiz, % 16,5ek, 10 urte baino gehiago daramatzate boluntario gisa. Boluntario gehienek 2 eta 10 urte artean daramatzate (% 51,2).

46. GRAFIKOA. BOLUNTARIOEN OSAERA, ANTZINATASUNAREN ARABERA.



Boluntario berriek (erakundean duela bi urte edo gutxiago sartuak) pisu handia dute Hezkuntza eta Aisialdiaren arloan (% 54,1), Gizarte Zerbitzuen arloan (% 44) eta Enplegu arloan (% 42,8). Erakundean 10 urte baino gehiago daramatzaten boluntarioek, berriz, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan (% 29,4) eta Osasun arloan (% 23,1) dute pisua batez ere.

Eskaintako denbora

Boluntarioek noizbehinka erakundeari laguntzea da ohikoena (2tik 1ek egiten du). Boluntarioen % 35,1ek modu erregularrean hartzen du parte, astean 10 ordu arte, eta % 14,3k astean 10 ordu baino gehiago egiten ditu boluntarioki.

47. GRAFIKOA. BOLUNTARIOEN OSAERA, ASTEAN ESKAINTZEN DUTEN DENBORAREN ARABERA. (%)




Aldizkako boluntariotzak pisu berezia du Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan (% 83,9) eta Osasunean (% 70,1). Bestetik, astean 10 ordu baino gehiago eskaintzen dituzten boluntarioek pisu berezia dute Hezkuntza eta Aisialdi arloan (% 45,3) eta arlo Sozial-transbertsean (% 10,5). Hain zuzen ere, arlo horietako lantaldeetan dute boluntarioek pisu handiena.

Boluntarioek egiten dituzten zeregin motak

Boluntario gehienek, zehazki 4tik 3k, erakundearen zerbitzuen eta jardueren erabiltzaileekiko zuzeneko esku-hartzearekin lotutako zereginak egiten dituzte. Boluntarioen % 15,2k administrazioko eta kudeaketako zereginak egiten dituzte, eta % 9,8k mantentze-lanak.

48. GRAFIKOA. BOLUNTARIOEN OSAERA, ZEREGIN MOTAREN ARABERA. (%)



Boluntarioek egiten dituzten zereginen banaketa apur bat aldatzen da erakundeetako lantaldeetan soldatapeko langileak daudenean. Soldatapeko langileak dituzten erakundeetan, boluntarioen % 76,4k jarduten du erabiltzaileekin esku hartzen edo arreta zuzena ematen, eta hori da gailentzen den zeregina. Aldiz, soldatapeko langilerik ez dagoen erakundeetan, esku-hartze zuzena adierazgarria den arren (% 67,1), boluntario gehiagok jarduten dute administrazioko eta kudeaketako zereginak egiten (% 24,3).

58. TAULA. BOLUNTARIOEK EGITEN DUTEN ZEREGIN MOTA, LANTALDEETAN SOLDATAPEKO PERTSONAK DAUDEN KONTUAN HARTUTA. (%)


	Soldatapekoekin	Soldatapekorik gabe
Administrazioa eta kudeaketa	% 13,5	% 24,3
Erabiltzaileekiko esku-hartze edo arreta zuzena	% 76,4	% 67,1
Mantentze-lanetako pertsonak	% 10,1	% 8,6
Guztira	% 100	% 100

Erabiltzaileak izan diren boluntarioak

3 erakundetik 2tan, boluntarioren bat erakundeko erabiltzailea izan da lehenago³⁴.

Lehendik erabiltzaileak izan diren pertsonak parte hartzen duten erakundeen artean ohikoena da boluntarioen hiru laurden baino gehiago izatea horiek. Hala gertatzen da erakundeen % 53,2ren kasuan.

49. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AURREZ ERABILTZAILEAK IZANDAKO BOLUNTARIOEN PISUAREN ARABERA. (%)




Batez ere, Osasun arloko (% 78,4), Hezkuntza eta Aisialdi arloko (% 63,4) eta arlo Sozial-transbertsaleko (% 56,2) erakundeetan izaten dute pisu handiena aurrez erabiltzaileak izan diren boluntarioek.

Desgaitasun-ziurtagiria duten boluntarioak

Gainera, erakundeen % 31,1ek ditu desgaitasun-ziurtagiria duten boluntarioak³⁵. Erakunde horiek desgaitasun-ziurtagiria duten 3,2 boluntario dituzte batez beste.

50. GRAFIKOA. DESGAITASUN ZIURTAGIRIA DUTEN BOLUNTARIOAK DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%)



³⁴ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 8,35eko errore-marjina baitu.

³⁵ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 6,56ko errore-marjina baitu.

Espainiako nazionalitatea ez duten boluntarioak

Erakundeek % 36,7k dituzte Espainiako ez den nazionalitate bateko boluntarioak³⁶. Batez beste, Espainiako ez den nazionalitate bateko 12,7 boluntario dituzte erakunde horiek.

51. GRAFIKOA. ESPAINIARRA EZ DEN NAZIONALITATEKO BOLUNTARIOAK DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%)



Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko (% 47,5) eta Gizarte Zerbitzuetako (% 43,5) erakundeek dute Espainiako ez den nazionalitateko boluntarioen proportzio handiena.

6.1.5. Zein dira EHSSko ordainpeko langileen ezaugarriak?**Ordainpeko langileen sexua**

Erakundeetako ordainpeko langile gehienak emakumeak dira. Ordainpeko langileen % 74,1 dira emakumeak. Euskadiko biztanleria okupatuaren % 48,4 emakumeak ziren 2023an, eta zerbitzuen sektore espezifikoan emakumeak ziren pertsona okupatuen % 57,9³⁷. Hortaz, sektorea argi eta garbi feminizatua dagoela adierazten dute EHSSko datuek.

52. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA SEXUAREN ARABERA. (%)



Ordainpeko langileak dituzten erakundeek % 84,5ean, gehienak emakumeak dira. Erakundeek % 6,2 baino ez dira ordainpeko langileen artean emakumerik ez dutenak.

53. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, EMAKUMEEK ORDAINPEKO LANGILEEN ARTEAN DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



Ordainpeko emakumeen ehunekoa Euskadiko batezbestekoa baino handiagoa da Gipuzkoan eta Araban: erakundeetako ordainpeko langileen % 80 inguru.

59. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA SEXUAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Emakumeak	% 71,5	% 79,3	% 79,1	% 74,1
Gizonak	% 28,5	% 20,7	% 20,9	% 25,9
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100

Ordainpeko langileen artean emakumeen tasa % 80 baino handiagoa da Osasun arloan eta arlo Sozial-transbertsalean. Emakumeek soldatapeko langileen artean duten presentzia txikiagoa da Enpleguaren (% 60,8), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren (% 64,3) eta Hezkuntzaren eta Aisialdiaren artean (% 66,8), nahiz eta emakumeak gehiengo izan arlo guztietan.

³⁶ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 7,59ko errore-marjina baitu.

³⁷ Iturria: EUSTAT. Biztanleria aktiboaren udal-estatistika.

60. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA SEXUAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Emakumeak	% 83,5	% 60,8	% 76,3	% 66,8	% 64,3	% 83,4	% 75,2
Gizonak	% 16,5	% 39,2	% 23,7	% 33,2	% 35,7	% 16,6	% 24,8
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten erakundeetan, batez ere, ia langile guztiak emakumezkoak dira (% 87,4). Gainera, ordainpeko langileen artean emakumeek duten presentzia batezbestekoa baino handiagoa da desgaitasuna duten pertsonak (% 76,3) eta beste kolektibo zaurgarri batzuk (% 76,1) artatzen dituzten erakundeetan.

61. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA SEXUAREN ETA ARTATUTAKO KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)

	Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Desgaitasuna duten pertsonak	Beste kolektibo zaurgarri batzuk
Emakumeak	% 87,4	% 65,9	% 70,7	% 76,3	% 76,1
Gizonak	% 12,6	% 34,1	% 29,3	% 23,7	% 23,9
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Erakundearen xede-hartzaile nagusiei dagokienez, soldatapeko emakumeen ehunekoa batez bestekoa baino txikiagoa da etxegabeekin (% 41,9), gazteekin (% 58,5), mendekotasun-arazoak edo drogazaleatasun-arazoak dituzten pertsonekin (% 65,6), errefuxiatuekin eta asilo-eskatzailerekin (% 66,1), haur, nerabe eta familiarekin (% 66,3), biztanleria orokorrarekin (% 66,5) eta pobrezia-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin (% 70,2) aritzen diren erakundeen kasuan.

Soldatapeko emakumeen ehunekoa handiagoa da erakunde txikietan, batez ere, 60.000 €-tik beherako bolumen ekonomikoa dutenetan.

62. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA SEXUAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Emakumeak	% 100,0	% 82,4	% 72,7	% 73,8	% 74,1
Gizonak	% 0,0	% 17,6	% 27,3	% 26,2	% 25,9
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Ordainpeko langileen adina

Soldatapeko pertsonen erdia baino apur bat gehiagok 50 urtetik gora ditu. 30 urtez azpiko ordainpeko langileak guztizkoaren % 16,7 dira, eta 30-50 urte artekoak % 30,1.

54. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA ADINAREN ARABERA. (%)



30 urtetik beherako soldatapeko pertsonen proportzioa handiagoa da Hezkuntzan eta Aisialdian (% 71,3) eta arlo Sozial-transbertsalean (% 36,4). Bestalde, datuek erakusten dute 50 urtetik

gorako soldatapeko langile gehiago daudela Enpleguaren (% 22,4), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren (% 22) eta Osasunaren (% 19,8) arloetan.

63. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA ADINAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
20 urte baino gutxiago	% 0,0	% 0,4	% 0,4	% 5,4	% 0,8	% 1,0	% 0,0
21 eta 24 urte artean	% 3,6	% 1,2	% 6,0	% 15,1	% 0,5	% 9,5	% 4,1
25 eta 30 urte artean	% 23,1	% 12,7	% 27,3	% 50,8	% 12,0	% 25,9	% 25,0
31 eta 50 urte artean	% 53,5	% 63,3	% 49,6	% 25,2	% 64,7	% 56,6	% 54,9
51 eta 65 urte artean	% 17,6	% 21,6	% 16,0	% 3,5	% 19,7	% 7,0	% 15,6
65 urte baino gehiago	% 2,2	% 0,7	% 0,6	% 0,0	% 2,3	% 0,0	% 0,5
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Halaber, 30 urtez azpiko ordainpeko langileen proportzioa ere handiagoa da babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak (% 40,3) eta beste kolektibo zaurgarri batzuk (% 40,2) artatzen dituzten erakundeetan. Bestetik, 50 urtetik gorako ordainpeko langileak dituzten erakundeen proportzioa bereziki handia da mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten erakundeen artean (% 34).


64. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA ADINAREN ETA ARTATUTAKO KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)

	Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Desgaitasuna duten pertsonak	Beste kolektibo zaurgarri batzuk
20 urte baino gutxiago	% 0,3	% 0,3	% 0,0	% 0,7	% 1,9
21 eta 24 urte artean	% 1,8	% 3,4	% 3,0	% 9,1	% 8,8
25 eta 30 urte artean	% 15,1	% 23,1	% 37,3	% 26,1	% 29,6
31 eta 50 urte artean	% 48,8	% 57,3	% 50,6	% 48,0	% 48,0
51 eta 65 urte artean	% 32,0	% 15,1	% 9,1	% 15,5	% 11,4
65 urte baino gehiago	% 2,0	% 0,8	% 0,0	% 0,6	% 0,3
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Ordainpeko langileen ikasketa maila

Soldatapeko pertsonen % 71,8k unibertsitateko ikasketak edo baliokideak ditu eta, aldiz, Euskadiko “Zerbitzuen” sektorean lanean ari ziren pertsonetatik % 62,2k zituen unibertsitateko ikasketak 2023an³⁸.

55. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA, IKASKETA MAILAREN ARABERA. (%)



³⁸ Iturria: Eustat. Hezkuntzako Udal Estatistika.

Arlo guztietan dituzte unibertsitateko ikasketak edo antzekoak ordainpeko langileek, baina Gizarte Zerbitzuen arloan batezbestekoak baino gehiagok dituzte ikasketa profesionalak edo baliokideak (% 26).

65. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA, IKASKETA MAILAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Lehen mailako ikasketak edo baliokideak	% 1,3	% 4,5	% 2,3	% 0,0	% 0,9	% 0,0	% 0,9
Derrigorrezko bigarren hezkuntza edo batxilergoa	% 2,1	% 3,5	% 4,5	% 9,0	% 2,8	% 4,3	% 0,9
Ikasketa profesionalak edo baliokideak	% 21,2	% 7,2	% 26,0	% 15,6	% 9,6	% 19,6	% 13,3
Unibertsitateko ikasketak edo baliokideak	% 75,3	% 84,8	% 67,3	% 75,4	% 86,8	% 76,0	% 84,9
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Ordainpeko langileen antzintasuna

Erakundeen barruan ibilbide ezberdineko pertsonak egoten dira. Ordainpeko langileen % 38,5ek 10 urte baino gehiago daramatza erakundearen, eta % 26,7k bi urte edo gutxiago.

56. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA ANTZINTASUNAREN ARABERA. (%)



Erakundearen 10 urte baino gehiago daramatzaten pertsonen proportzioa Gizarte Zerbitzuen arloan eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako arloan da handiena. Erakundearen 2 urte edo gutxiagoko ibilbidea duten ordainpeko langileen proportzioa, berriz, Enplegu arloan eta Hezkuntza eta Aisialdi arloan da handiena.

66. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA ANTZINTASUNAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
2 urte baino gutxiago	% 28,0	% 38,9	% 23,8	% 33,5	% 22,4	% 31,3	% 30,8
2 eta 10 urte artean	% 35,1	% 30,3	% 32,9	% 53,3	% 38,3	% 50,1	% 38,5
10 urte baino gehiago	% 36,9	% 30,9	% 43,3	% 13,1	% 39,4	% 18,6	% 30,8
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Ordainpeko langileek egiten dituzten zeregin motak

Langileen % 84,6k zuzeneko esku-hartzeak edo arreta egiten dituzte erabiltzaileekin. % 13,9k administrazioko edo kudeaketako lanak egiten dituzte, eta % 1,5k mantentze-lanak.

57. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA, ZEREGIN MOTAREN ARABERA. (%)



Arlo hauek ordainpeko langileen proportzio handiagoa dute administrazioko eta kudeaketako postuetan, batezbestekoa baino: Osasuna (% 24,6), arlo Sozial-transbertsala (% 32,1) eta, batez ere, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak (% 69,7).

67. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA, ZEREGIN MOTAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Administrazioa eta kudeaketa	% 24,6	% 16,8	% 8,6	% 20,2	% 59,7	% 32,1	% 51,4
Erabiltzaileekiko esku-hartze edo arreta zuzena	% 72,4	% 81,6	% 89,9	% 76,9	% 38,5	% 67,9	% 48,1
Mantentze-lanetako pertsonala	% 3,0	% 1,6	% 1,5	% 2,9	% 1,7	% 0,0	% 0,5
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Gainera, ikus daitekeenez, zenbat eta handiagoa izan erakundeen diru-sarreraren bolumena, orduan eta txikiagoa da administrazioko eta kudeaketako lanak eta mantentze-lanak egiten dituzten ordainpeko langileen proportzioa, eta orduan eta handiagoa esku-hartzearekin edo zuzeneko arretarekin zerikusia duten zereginak egiten dituzten ordainpeko langileen proportzioa.

68. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA, ZEREGIN MOTAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Administrazioa eta kudeaketa	% 77,5	% 40,2	% 35,4	% 16,8	% 11,0
Erabiltzaileekiko esku-hartze edo arreta zuzena	% 22,5	% 57,8	% 63,4	% 79,7	% 87,8
Mantentze-lanetako pertsonala	% 0,0	% 2,1	% 1,1	% 3,5	% 1,2
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Ordainpeko langileen lanaldi mota

Ordainpeko langileen % 29,2 lanaldi partzialean daude kontratatuta, eta % 69,6 lanaldi osoan. Soldatapeko langileen beste % 1,1ek beste lanaldi mota bat du.

58. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, LANALDI MOTAREN ARABERA (%)



Sektoreko ordainpeko emakumezko langileei dagokienez, datuen arabera, % 29,4k lanaldi partziala dute. Gizonei dagokienez, ordainpeko gizonen % 20,4k dute lanaldi partziala.

59. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, LANALDI MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. (%)



Lanaldi partzialean dauden soldatapeko langileen proportzioa askoz ere handiagoa da Hezkuntza eta Aisialdia (% 67,4), Sozial-transbertsala (% 52,9) eta Osasuna (% 42,6) arloetan.

69. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, LANALDI MOTAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Lanaldi osoa	% 56,9	% 90,0	% 68,9	% 32,6	% 90,4	% 41,3	% 79,1
Lanaldi partziala	% 42,6	% 10,0	% 30,0	% 67,4	% 9,2	% 52,9	% 20,9
Beste batzuk	% 0,5	% 0,0	% 1,2	% 0,0	% 0,4	% 5,8	% 0,0
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Halaber, lanaldi partzialean kontratatutako ordainpeko langileak dituzten erakundeek ehunekoa bereziki altua da erakunde txikien artean. Zenbat eta handiagoa izan erakundearen diru-sarreraren bolumena, orduan eta txikiagoa da lanaldi partzialean kontratatutako langileen proportzioa.

70. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, LANALDI MOTAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)


	12.000 € edo gutxiago ³⁹	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Lanaldi osoa	% 0,0	% 17,2	% 61,4	% 59,3	% 73,8
Lanaldi partziala	% 100,0	% 80,5	% 35,6	% 39,7	% 25,4
Beste batzuk	% 0,0	% 2,4	% 2,9	% 1,0	% 0,9
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Aipatu dugun moduan, ordainpeko langileak dituzten EHSSko erakundeetan, lanaldi partzialen % 80,3 emakumeenak dira. Ehunekoa handiagoa da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan (% 89,4) eta arlo Sozial-transbertsalean (% 84,5).

Ordainpeko langileen kontratu mota

Kontratu motari dagokionez, ordainpeko langileen % 76,6 kontratu mugagabea edo finkoa dute, eta gainerakoek beste kontratu motaren bat dute; aldi baterako kontratuak nabarmentzen dira, guztizkoaren % 23,4 baitira. Euskadiko biztanleria okupatuarekin alderatuz gero, 2023an horien % 82,9k kontratu mugagabea zuten⁴⁰.

60. GRAFIKOA. SOLDATAPEKO LANGILEEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ARABERA. (%)



Lurraldearen arabera, Araban ordainpeko langileen % 79k dute kontratu finkoa, Gipuzkoan % 76,2k eta Bizkaian % 69,1ek.

Arloka, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan (% 88,1) eta Osasun arloan (% 88,1) handiagoa da kontratu mugagabea edo finkoa duten ordainpeko langileen proportzioa.

³⁹ 12.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituzten erakundeek erantzun kopurua bereziki baxua izan da galdera honetan, hortaz, tentuz hartu behar dira datuak.

⁴⁰ Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Laneko Merkatuaren Errolda (Eskaintza). Hemen eskuragarri: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0000700/ti_poblacion-de-16-a-64-anos-ocupada-asalariada-de-la-ca-de-euskadi-por-comarcas-11-comarcas-tipo-de-contrato-y-sexo-2023/tbl0000793_e.html

71. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Kontratu mugagabea edo finkoa	% 88,1	% 70,1	% 76,2	% 76,5	% 88,9	% 71,2	% 85,9
Beste kontratu mota bat	% 11,9	% 29,9	% 23,8	% 23,5	% 11,1	% 28,8	% 14,1
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Gainera, zenbat eta handiagoa erakundeen aurrekontua, orduan eta handiagoa da kontratu finkoa duten ordainpeko langileen ehunekoa.

72. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Kontratu mugagabea edo finkoa	% 59,2	% 67,6	% 81,6	% 79,0	% 76,0
Beste kontratu mota bat	% 40,8	% 32,4	% 18,4	% 21,0	% 24,0
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Kontratu mugagabea edo finkoa duten ordainpeko langileen % 71,5 emakumeak dira. Hori bat dator emakumeek sektoreko ordainpeko langileen artean duten gehiengo zabalarekin.

61. GRAFIKOA. KONTRATU MUGAGABEA EDO FINKOA DUTEN ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. (%)



Halaber, datuen arabera, erakundeetako ordainpeko emakumeen % 69,1ek kontratu mugagabea edo finkoa dute. Gizonei dagokienez, ordainpeko gizonen % 78,5ek dute kontratu mugagabea edo finkoa.

62. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. (%)



Ardura-postuak ordainpeko langileen artean

Langileen % 12 inguruk ordaindutako ardura-posturen bat edo ardura motaren bat hartzen dute beren gain erakundearen. Gizonezkoen artean (% 13,6) pixka bat handiagoa da tasa hori, emakumezkoen artean (% 11,6) baino.

63. GRAFIKOA. ARDURA POSTU BAT DUTEN SOLDATAPEKO LANGILEAK, SEXUAREN ARABERA. (%)

Erantzukizun postua - ORDAINPEKO LANGILEAK

Kontuan izanda sektoreko ordainpeko langile gehienak emakumeak direla, erakundearen ordaindutako ardura-posturen bat edo ardura motaren bat hartzen duten pertsonen % 71 emakumeak dira.

Zuzendaritza- edo gerentzia-postua

Ordainpeko langileak dituzten erakundearen % 62tan, kudeaketako azken ardura duen zuzendaria edo gerentea emakumezkoa da; erakundearen % 37,8tan, berriz, gizonezkoa.

Eustaten datuen arabera, 2020an Euskadiko biztanleria okupatuaren artean, zuzendaritza-postuen % 33,7 emakumezkoenak ziren⁴¹.

64. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZUZENDARIAREN EDO GERENTEAREN SEXUAREN ARABERA. (%)



Zuzendaritza- edo gerentzia-postuetan emakume gehien dituen figura juridikoa elkarreana da: % 63,2an emakumezkoa da zuzendaria edo gerentea. Fundazioen kasuan % 48,5koa da ehuneko hori, eta beste figura juridiko batzuen kasuan % 55,6koa.

Zuzendaritza- edo gerentzia-postuetako emakumezkoen ehunekoa batezbestekoa baino handiagoa da Osasun arloan (% 71,5), arlo Sozial-transbertsalean (% 68) eta Gizarte Zerbitzuetan (% 66,2).

73. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZUZENDARIAREN EDO GERENTEAREN SEXUAREN ARABERA ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak ⁴²	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Emakumea	% 71,5	% 50,4	% 66,2	% 50,6	% 47,4	% 68,0	% 42,4
Gizona	% 28,5	% 49,6	% 33,0	% 49,4	% 52,6	% 32,0	% 57,6
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Hala ere, zuzendaritza-postuetan dauden emakumeen ehunekoak ez dirudi lotura adierazgarriarik duenik erakundearen diru-sarreraren bolumenarekin.

⁴¹ Iturria. Enplegu eta Lan Saila. Laneko Merkatuaren Errolda (Eskaria). Hemen eskuragarri: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0005800/ti_peso-relativo-del-empleo-femenino-en-la-ca-de-euskadi-por-categoria-profesional--sobre-el-empleo-total-2020/tbl0005895_e.html

⁴² Gainerako % 0,8a ez da identifikatzen ez sexu maskulinoarekin, ez femeninoarekin.

74. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZUZENDARIAREN EDO GERENTEAREN SEXUAREN ARABERA ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean ⁴³	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Emakumea	% 60,8	% 58,9	% 66,3	% 61,0	% 61,7
Gizona	% 39,2	% 41,1	% 33,0	% 39,0	% 38,3
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Boluntarioak izan diren ordainpeko langileak

Aurrez erakundean boluntarioak izan ziren ordainpeko langileak dituzte erakundeek % 54,5ek⁴⁴.

Aurren erakundean boluntarioak izan ziren ordainpeko langileen pisua anitza da. Erakundeek % 59,7an laurdena baino gutxiago dira (erakundeek % 45,5ek adierazi dute ez dutela aurrez boluntario izandako langile bakar bat ere), eta % 17,3an guztizkoaren hiru laurden edo gehiago.

65. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AURREZ BOLUNTARIOAK IZANDAKO ORDAINPEKO LANGILEEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



Hezkuntza eta Aisialdi arloan pisu handia dute. Erakundeek % 62,9k adierazi dute aurrez boluntarioak izandako ordainpeko langileen pisua % 50etik gorakoa dela.


75. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AURREZ BOLUNTARIOAK IZANDAKO ORDAINPEKO LANGILEEK DUTEN PISUAREN ARABERA ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial- transbertsala	Beste batzuk
<% 25	% 65,9	% 95,4	% 72,4	% 42,5	% 41,4	% 49,1	% 80,6
% 25, edo % 25-50 artean	% 8,3	% 0,0	% 14,0	% 12,7	% 10,3	% 11,8	% 9,5
% 50, edo % 50-75 artean	% 13,5	% 0,0	% 10,4	% 20,2	% 23,9	% 6,1	% 0,0
% 75 edo >	% 12,3	% 4,6	% 3,3	% 24,5	% 24,5	% 33,0	% 9,9
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Bekadunak edo praktiketako pertsonak

Ordainpeko langileak dituzten erakundeek % 36,2k dituzte bekadunak edo praktiketako pertsonak⁴⁵.

66. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, BEKADUNAK EDO PRAKTIKETAKO PERTSONAK IZATEAREN ARABERA



⁴³ Gainerako % 0,7a ez da identifikatzen ez sexu maskulinoarekin, ez femeninoarekin.

⁴⁴ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 6,82ko errore-marjina baitu.

⁴⁵ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 6,5eko errore-marjina baitu.

Erakunde hauek dute bekadunen edo praktiketako pertsonen proportzio handiena: Gizarte Zerbitzuen arlokoak (% 54,8), Beste arlo batzuetakoak (% 41,6) eta Enplegu arlokoak (% 40,9), eta 300.001 eta 1.500.000 € arteko aurrekontua (% 63,7) eta 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua dutenak (% 80,1).

Desgaitasun-ziurtagiria duten ordainpeko langileak

Gutxi gorabehera, erakundeen % 10,6 inguruk soldatapeko langileen artean desgaitasuna duten pertsonak dituztela kalkulatu da (enplegu-zentro bereziak kontuan izan gabe)⁴⁶.

67. GRAFIKOA. DESGAITASUN ZIURTAGIRIA DUTEN SOLDATAPEKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%)




Enplegu arloko erakundeek (% 33), Gizarte Zerbitzuetakoek (% 28,2) eta Beste arlo batzuetakoek (% 25,9) dituzte proportzio handiengan desgaitasun-ziurtagiria duten pertsonak ordainpeko langileen artean, baita 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeek ere (% 49).

Espainiarra ez den nazionalitatea duten ordainpeko langileak

Bestalde, erakundeen % 15,5 inguruk ordainpeko langileen artean espainiar nazionalitatea ez duten pertsonak dituzte (laneratze-prozesuan dauden datuak aintzat hartu gabe)⁴⁷.

68. GRAFIKOA. ESPAINIARRA EZ DEN NAZIONALITATEKO SOLDATAPEKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEAK (%)



Enplegu arloko erakundeek (% 27,4), Gizarte Zerbitzuetakoek (% 31) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arlokoak (% 22,8) dituzte proportzio handiengan espainiar nazionalitatea ez duten pertsonak ordainpeko langileen artean, baita 300.001 eta 1.500.000 € arteko aurrekontua (% 27,7) eta 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua (% 49) duten erakundeek ere.

Lan-munduratzeko prozesuan dauden pertsonak

Lan-munduratzeko enpresetan, batez beste, 13 pertsona egoten dira lan-munduratzeko prozesuan. Horietatik % 47,3 gizonak dira eta % 52,7 emakumeak.

69. GRAFIKOA. LAN MUNDURATZEKO PROZESUAN DAUDEN PERTSONEN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. (%)



⁴⁶ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 7,54ko errore-marjina baitu.

⁴⁷ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 7,64ko errore-marjina baitu.

Enplegu babestua duten pertsonak

Enplegu-zentro bereziek, batez beste, 321 pertsona dituzte enplegu babestuan. Horietatik % 33,1 emakumeak dira eta % 66,9 gizonak.

70. GRAFIKOA. ENPLEGU BABESTUA DUTEN PERTSONEN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. (%)



Lan-hitzarmena

Ordainpeko langileak dituzten erakundeek % 54,7k esku-hartze sozialeko hitzarmena aplikatzen dute: % 35k Bizkaikoa, % 14,3k Gipuzkoakoa eta % 5,5k Arabakoa. % 13,2k bulego eta despatxuen hitzarmena aplikatzen dute: % 8,5k Bizkaikoa eta % 4,7k Gipuzkoakoa. Erakundeek % 5,7k barne-akordioa dute, hitzarmenaren kategoria gabekoa.

71. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LAN HITZARMENAREN ARABERA. (%)



6.2. GOBERNU ORGANOAK

Gobernu-organoak (zuzendaritza-taldeak, patronatuen batzordeak...), orokorrean, haien kargua dohainik garatzen duten pertsonak osatzen dituzte⁴⁸, eta honakoekin lotutako zereginak hartzen dituzte haien gain: entitatearen norabidea, misioaren betetze mailaren ebaluazioa, baliabideen esleipenaren kontrola, etab.

Gobernu-organoak, batez beste, 6 edo 7 pertsonaz osatuta egoten dira. Dena den, 6 pertsona izatea da ohikoena, eta erakundeek erdian gobernu-organoak ez dira 6 pertsonaz baino gehiagoz osatuta egoten.

⁴⁸ EAEko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 14. eta 15. artikuluen arabera, fundazio guztiek izan behar dute Patronatua: akordioak gehiengoaren bidez hartuko dituen gobernu-organoa, Estatutuaren ezarritako baldintzetan. Patronoek dohainik gauzatu dute haien kargua, baina eskubidea izango dute haien funtzioa garatzeko orduan sortutako eta behar bezala arrazoitutako gastuak kobratzeko. Dena den, eta fundatzaileak bestelakorik ezarri ezean, Patronatuak ordainsari egoki bat finka dezake patronoentzat, baldin eta patrono horiek Patronatuko kideak izateagatik garatu behar dituzten funtzioez gain beste zerbitzu batzuk ere emate badizkiote fundazioari. Protektoratuak aurrez baimendu beharko du ordainsari hori.

Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen arabera, elkarteek gobernu-organo bat izan behar dute kasu guztietan. Elkarteko presidentea, Zuzendaritza Taldea izeneko organo kolegiatua edo antzekoak, edo Batzar Orokorra bera izan daitezke gobernu-organoak. 19. artikulua aurreikusten duenez, presidenteak edo, hala dagokionean, gobernu-organo kolegiatuko gainerako kideek haien karguaren arabera ordainsariak jaso ahal ditzaten, estatutuaren berariaz aurreikusi beharko da hori. Batzar Orokorrak adostuko ditu ordainsariaren zenbatekoa, iraupena eta gainerako kontuak, eta urteko kontuetan islatu beharko dira horiek.

Fundazioetan, patronatu-taldeak apur bat handiagoak izaten dira, eta, batez beste, 8 edo 9 pertsonaz osatuta egoten dira (8,5). Era berean, nabarmentzekoa da 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeek, batez beste, 7-8 pertsona inguru dituztela haien gobernu-organoetan.

Arloaren arabera, gobernu-organoetako batez besteko pertsona kopurura batezbesteko orokorra baino apur bat txikiagoa da Enplegu arloko (5,3), eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko (6,6) erakundeetan, eta, aldiz, handiagoa Beste arlo batzuetako erakundeetan (9,3).

76. TAULA. GOBERNU ORGANOETAKO PERTSONA KOPURUA. OINARRIZKO ESTATISTIKAK. GUZTIRA ETA ARLOKA

	GUZTIRA	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Batezbestekoa	6,7	6,6	5,3	7,2	6,6	6,4	6,6	9,3
Mediana	6,0	6,0	6,0	6,0	6,0	6,0	6,0	9,0
Moda	6,0	7,0	6,0	5,0	3,0	4,0	6,0	4,0

6.2.1. Gobernu-organoen osaera

Gobernu-organoak osatzen dituzten pertsonen % 59,4 emakumeak dira, eta % 40,6 gizonak. Emakumeen erakundeak –laginaren % 10,8– azterketatik kanpo utziz gero, gobernu-organoetan dauden emakumeen ehunekoa apur bat jaisten da (% 56). Gogoratu beharrekoa da emakumeak direla boluntarioen % 62,1 eta ordainpeko langileen % 74,1.

72. GRAFIKOA. GOBERNU ORGANOEN OSAERA SEXUAREN ARABERA. (%)



Emakumeek gobernu-organoetan duten presentzia txikiagoa da Enplegu arloan (% 45,9) eta Beste arlo batzuetan (% 49,6), baita 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeetan (% 53,4) eta fundazioetan ere (% 39,3)⁴⁹.

Erakundeek % 29k ez dute pertsona berri bakar bat ere sartu haien gobernu-organoa azkenengoz berritzean. Erakundeek % 44,6k haien gobernu-organoko kideen erdiak berritu dituzte, gutxienez. Eta, % 19k, kideen erdiak baino gehiago. Gobernu-organoetako karguen batez besteko berritze-tasa % 30,7koa da. Hau da, gobernu-organoetako 10 kidetik 3 azken berritzean sartu ziren, beste kide batzuen ordeaz.

73. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, KIDE BERRIEK GOBERNU ORGANOETAN DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



⁴⁹ Aldagai honen banakapenetan, lagina txikia da, hortaz, datuak tentuz hartu behar dira.

Badirudi gobernu-organoetan kide berriak sartzea bereziki zaila dela elkarteak eta fundazioak ez diren figura juridikoen kasuan (ekimen sozialeko kooperatibak, kongregazio erlijiosoak...); izan ere, % 41,4k ez zuten kide berri bakar bat ere sartu azken berritzean.

Erakundeek % 96,2k ez dute haien gobernu-organoetan instituzio publiko, enpresa, aurrezki-kutxa, alderdi politiko edo sindikatu bat ordezkatzeko duen inor. Erakundeek % 3,8k baino ez dituzte haien gobernu-organoetan hirugarren sektorekoak ez diren entitateak ordezkatzeko dituzten pertsonak⁵⁰.

Hirugarren sektorekoak ez diren entitateetako ordezkarien batez besteko indizea % 3,3koa da.

74. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, HIRUGARREN SEKTOREKOAK EZ DIREN ENTITATEETAKO ORDEZKARIEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



Hirugarren sektorekoak ez diren entitateen ordezkarien presentzia fundazioetan da handiena (% 24,1ek pertsonaren bat dute). 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeetan ere handiagoa da instituzio publikoetako, enpresetako, aurrezki-kutxetako, alderdi politikoetako eta sindikatu etako ordezkarien presentzia. % 11,5ek dute pertsonaren bat haien gobernu-organoetan.

Erakundeek % 22,9ren kasuan, gobernu-organoko kideren batek, gainera, ordaindutako funtzio bat garatzen du erakundearen barruan (entitateko teknikariak).

Batez beste, gobernu-organoetako kideen guztizkoaren % 11,5ek dute rol bikoitz hori.

75. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ERAKUNDEAREN BARRUAN ORDAINDUTAKO BESTE JARDUERA BAT EGITEN DUTEN KIDEEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



Entitateko teknikariak gobernu-organoean duten presentzia handiagoa da elkarteak eta fundazioak ez diren beste figura juridiko batzuetan (ekimen sozialeko kooperatibak...), % 65ek baitute baten bat, eta 300.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeetan. 300.001 eta 1.500.000 € arteko aurrekontua duten erakundeek % 36,8k eta 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten % 38,9k dute lantalde teknikoko pertsonaren bat gobernu-organoean.

⁵⁰ EHSSren definizio operatiboaren 4. irizpidean azaltzen den moduan, erakundeek kudeaketa-autonomia eta independentzia mantendu behar dituzte hirugarren sektorekoak ez diren entitateetako: administrazio publikoa, enpresak, aurrezki-kutxak, alderdi politikoak eta sindikatuak. Horrek esan nahi du gobernu-organoean osatzen duten kideen % 50ek baino gehiagok ezin dutela ordezkatu hirugarren sektorekoa ez den entitate bat, eta ezin dituztela izan organo horiek sortu edo kontrolatzen dituzten erakundeek helburu ezberdinak.

Dena den, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak jasotzen duen moduan, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak barne hartzen ditu hauek ere: gaur egun existitzen diren eta EAEn berrogeita hamar urtetik gorako ibilbidea duten fundazio edo entitate historikoak, betiere hirugarren sektore sozialeko sareren baten barruan badaude eta definizioan zehaztutako eskakizunak betetzen badituzte, nahiz eta horien jatorriko estatutuen arabera gobernu-organoetan instituzio publikoko ordezkariak izan ordezkari nagusia edo bakarra. Gainera, salbuespen gisa, ikergaiaren parte izango dira Enplegu Zentro Bereziak, gobernu-organoetako ordezkari gehienak edo guztiak instituzio publikoetakoak direnean, betiere definizioan zehaztutako gainerako eskakizunak betetzen badituzte eta Hirugarren Sektore Sozialeko sare baten barnean badaude.

6.2.2. Bileren maiztasuna

Erakundeen % 53,6ren kasuan, gobernu-organoa hilean behin edo gehiagotan biltzen da. Erakundeen % 29,7tan gobernu-organoa hiru hilean behin biltzen da, eta % 9,7tan sei hilean behin. Erakundeen % 7,1en gobernu-organoak baino ez dira biltzen urtean behin edo gutxiagotan.



Badirudi fundazioetan urriagoa dela bileren maiztasuna, % 23,1 hilean behin edo gehiagotan biltzen baitira, eta % 45,4 hiru hilean behin.

Batzarrari dagokionez, elkarteen % 69,7k urtean behin egiten dute batzarra. Elkarteen % 12,7k sei hilean behin egiten dute, % 6k hiru hilean behin, % 7,8k hilero edo maizago eta % 1ek urtean behin baino gutxiagotan.



Arloka, hiru hilean behingo edo gutxiagoko maiztasuna batezbestekoa baino altuagoa Hezkuntza eta Aisialdi arloko eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko erakundeetan. Halaber, urtean behingo maiztasuna batezbestekoa baino altuagoa da Osasun arloko, Gizarte Zerbitzuetako eta arlo Sozial-transbertsaleko erakundeetan.

77. TAULA. ELKARTEEN BANAKETA, BATZARREN MAIZTASUNAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetz	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Hilean behin edo gutxiagota	% 5,0	% 0,0	% 4,2	% 16,7	% 15,8	% 5,6	% 0,0
Hiru hilean behin	% 4,7	% 4,0	% 5,2	% 10,1	% 7,9	% 5,1	% 0,0
Sei hilean behin	% 8,7	% 25,4	% 15,8	% 13,3	% 6,2	% 12,8	% 38,5
Urtean behin	% 81,6	% 56,0	% 72,9	% 56,4	% 68,4	% 70,5	% 61,5
Urtean behin baino gutxiagotan	% 0,0	% 14,7	% 1,9	% 3,5	% 1,8	% 6,1	% 0,0
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

6.3. BAZKIDEAK ETA DOHAINTZA-EMAILEAK

6.3.1. Bazkideak

EHSSko elkarteek, batez beste, 310 bazkide dituzte, nahiz eta kontuan izan behar den elkarteen erdia, gutxi gorabehera, 106 bazkidez edo gutxiagoz osatuta daudela⁵¹. Gutxi gorabehera, 10 bazkidetik 6 emakumezkoak dira, eta 4 gizonezkoak⁵².

78. GRAFIKOA. BAZKIDEEEN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. % ETA BATEZBESTEKOA



Batez besteko bazkide kopurua txikiagoa da Hezkuntza eta Aisialdi arloko (85 bazkide, batez beste) eta Beste arlo batzuetako (143 bazkide, batez beste) elkarteetan⁵³.

Elkarteen % 41,5ek adierazi dutenez, azken hiru urteetan hazi egin da erakundeko bazkide kopurua. Erakundeen % 39k adierazi dute bazkide kopurua mantendu egin dela, eta % 19,5ek jaitsi egin dela.

79. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN BAZKIDE KOPURUAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ARABERA. (%)



Bazkide kopurua murriztu zaien elkarteen ehunekoa apur bat altuagoa da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan (% 45,2) eta Hezkuntza eta Aisialdi arloan (% 20,2), baita 12.000 €-tik beherako (% 25,1) eta 1.500.000 €-tik gorako (% 33,2) aurrekontua duten erakundeetan ere.

6.3.2. Dohaintza-emaileak

Kalkuluen arabera, sektoreko erakundeen % 51,5 inguruk dohaintza-emaileak ditu, batez ere, ohiko emaileak (10 kasutatik ia 8).

Dohaintza-emaileak dituzten erakundeen ehunekoak batezbestekoa gaitzen du Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren (% 86,4), Gizarte zerbitzuak (% 63,8), Beste batzuk (% 58,7) eta Osasuna (% 54) arloetan. Baita 1.500.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituzten erakundeetan ere.

⁵¹ Bazkideen estatistikak kalkulatzeko, elkartearen figura juridikoa duten erakundeak hartu dira kontuan (EHSSko erakundeen % 90 dira) eta 5.000 bazkide edo gehiago dituzten erakundeak baztertu dira, "outlier" erakundetzat jo ditugulako.

⁵² Bazkideen sexuaren arabera banakapena kalkulatzeko, elkartearen figura juridikoa duten erakundeak hartu dira aintzat.

⁵³ Ez ditugu gehitu Enplegu arloko eta Beste batzuk arloko datuak, oso erantzun gutxi jaso genituelako arlo horietako erakundeen aldetik.

Batez beste, erakunde bakoitzak ohikotasunez diru-ekarpenak egiten dituzten 56,7 pertsona ditu. Hala ere, gogoan izan behar da erakundeen erdiek ez dituztela ohiko 6 emaile baino gehiago⁵⁴.

80. GRAFIKOA. DOHAINTZA-EMAILEEN OSAERA, MOTAREN ARABERA. % ETA BATEZBESTEKOA



Erakundeen erdiek baino gehixeagok adierazi dute azken hiru urteetan mantendu egin dela erakundearen emaile kopurua. Erakundeen % 27,6tan hazi egin da emaile kopurua azken hiru urteetan, eta % 19,8tan murriztu.

81. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN DOHAINTZA EMAILE KOPURUAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ARABERA. (%)



Badirudi emaile kopuruaren hazkundea handiagoa dela Osasun arloko (erakundeen % 36,8k baieztatu dute dohaintza-emaile kopurua hazi dela) eta Gizarte Zerbitzuen arloko (% 32,9k baieztatu dute) erakundeetan. Bestalde, dohaintza-emaile kopurua murriztu zaien erakundeen ehunekoa handiagoa da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan (% 41,3).

77. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, DOHAINTZA EMAILE KOPURUAREN BILAKAERAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Igo egin da	% 36,8	% 19,5	% 26,6	% 11,7	% 20,7	% 17,5	% 61,8
Behera egin du	% 14,3	% 7,5	% 16,6	% 11,1	% 41,3	% 11,7	% 0,0
Mantendu egin da	% 49,0	% 73,1	% 56,8	% 77,2	% 38,0	% 70,9	% 38,2
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

6.4. 2019-2023 ALDIKO AZTERKETA KONPARATIBOA

2019 eta 2023 aldian zehar, ehuneko 4 puntu inguru handitu da lantaldera soldatapeko langileak gehitu dituzten enpresen ehunekoa, eta, hala, dagoeneko 2014tik hautematen zen goranzko joera finkatu da. Bestalde, ehuneko 8,3 puntuko beherakada adierazgarria izan da soilik boluntarioz osatutako erakundeen ehunekoan.

Illo beretik, beherakada txikia izan da nagusiki boluntarioz osatuta dauden erakundeetan, eta % 85 dira. Hala ere, erakundeen % 85ek soldatapeko langileak baino boluntario gehiago izateak erakusten du boluntarioek ordezkatzan dituzten balioak eta misioa zer errotuta dauden: elkartasuna, parte-hartzea eta eraldaketa sozialeko izpiritua.

⁵⁴ Ohiko emaileen estatistikak kalkulatzeko, 1.000 emaile edo gehiago dituzten erakundeak baztertu ditugu, "outlier" erakundetzat jo ditugulako.

Nabarmendu behar da erakundeetako lantaldeetako pertsonen batezbestekoa zein kopuru osoaren mediana asko handitu direla 2019tik, eta horrek esan nahi du boluntarioen parte-hartzea zein soldatapeko langileen kopurua handitu direla. Fenomeno horrek goranzko joera izan du 2014tik, eta agerian uzten du azken bost urteetan erakundeek beren lantaldeak indartzeko izan duten etengabeko konpromisoa.

78. TAULA. PERTSONEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (I)

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdinta suna 2023- 2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Batez ere boluntarioz osatutako (langileen % 50 edo gehiago) erakundeen %	87	87,9	85,0	-2.9
Oso-osorik boluntarioz osatutako erakundeen %	46	42,8	38,9	-3.9
Soldatapeko langileak dituzten erakundeen % (boluntarioak eta soldatapeko langileak dituzte)	54	57,2	61,1	3,9
Erakunde bakoitzeko batez besteko pertsona kopurua (boluntarioak + ordainpeko langileak)	43,0	45,0	49,2	4,2
Erakunde bakoitzeko pertsona kopuruaren (boluntarioak + ordainpeko langileak) mediana (erakundeen % 50en pertsona kopurua zifra hori baino baxuagoa da)	15,0	16,0	20,0	4,0

Badirudi erakundeetako boluntario kopuruak joera-aldaketa izan duela 2019-2023 aldian. Boluntarioen kopurua handitu duten erakundeen ehunekoa ehuneko 5 puntu inguru handitu da (% 32,8ra arte) eta boluntarioen kopurua murriztu duten erakundeen ehunekoa egonkor mantendu da (% 22,8), aurreko aldian igoera adierazgarria izan ondoren.

Noizean behingo boluntarioen ehunekoaren hazkunde nabarmena da boluntarioen artean ikus daitekeen beste aldaketa bat 2014az geroztik; egun 2 boluntariotik 1 da halakoa. Horrek pentsarazten digu boluntarioen kopurua handitzen ari den arren, aldizkako boluntarioena handitzen ari dela batez ere. Hala, 2019 eta 2023 artean % 13,4 hazi da erakundeei noizean behin laguntzen dieten boluntarioen kopurua. Halaber, azken 4 urteetan apur bat jaitsi da asteen 10 ordu baino gehiago eskaintzen dituzten boluntarioen ehunekoa.

Datu horien arabera, esan liteke aldatu egin dela boluntarioek erakundeetan parte hartzeko duten modua intentsitateari, eskaintako denborari edo konpromiso mailari dagokienez (ekintza puntualagoak edo aldizkakoak, lotura txikiagoa erakundearekin...). Azken urteetan ikusten ziren joera-aldaketa horiek.

79. TAULA. PERTSONEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (II)

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdintas una 2023- 2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Emakumeen batez besteko % boluntarioen artean	56,5	59,5	62,1	2,6
Azken 3 urteetan boluntario kopurua handitu duten erakundeen %	37,78	27,2	32,8	5,6
Azken 3 urteetan boluntario kopurua murriztu duten erakundeen %	9,41	21,6	22,8	1,2
Noizean behineko boluntarioen batez besteko %	18,07	37,2	50,6	13,4
30 urtetik beherako boluntario gazteen %	26	29,3	31,5	2,2
65 urtetik gorako boluntarioen %	22	21,8	28,1	6,3
Asteen 10 ordu baino gehiago egiten dituzten boluntarioen %	-	17,8	14,3	-3.5

Soldatapeko langileei dagokienez, ez dago aldaketa handirik errealitatean eta konposizioan azken 5 urteekin alderatuta. Erakunde txiki eta ertainak, soldatapeko 10 langilera artekoak, dira oraindik ere gehiengoa, eta 10 erakundetik gutxi gorabehera 7 izatera iritsi dira. Kopuru hori nahiko egonkor mantendu da azken urteetan.

2014 eta 2019 artean gorakada nabarmena izan ondoren soldatapeko langileen kopurua handitu zuten erakundeek ehunekoan, azken 4 urteetan apur bat jaitsi da kopuru hori eta erakundeek % 35,9koa da egun. Berriz ere 11 eta 50 ordainpeko langile artean dituzten erakundeetan hazi da, batez ere, ordainpeko langileen kopurua.

2014 eta 2019 artean % 3,5 baino apur bat gehiago hazi da emakumeen batez besteko kopurua ordainpeko langileen artean, eta % 3,2 igo da ordainpeko langileen artean gehienak emakumeak diren erakundeek ehunekoa. Ikusitako hazkundeaz harago, EHSS beti nabarmendu izan da sektore feminizatua izateagatik, non gehienak emakumeak diren, eta badirudi joera hori mantendu egin dela azken urteetan ordainpeko langileen artean.

Lanaldi partzialean eta aldi baterako kontratuekin dauden soldatapeko langileen ehunekoak gora egin zuen aldiaren ostean, azken urteetan ia 10 puntu jaitsi dira EHSSn egindako aldi baterako kontratuak. Horrek esan nahi du kontratazio-formula horiek dagoeneko ez daudela hain presente erakundeetan, legedi-aldaketen ondorioz batez ere.

Soldatapeko langileen antzintasunaren aniztasuna mantendu egin da 2023an, azken urteetan hautemandako datuen antzekoekin. 2 urte edo gehiagoko antzintasuna duten pertsonen ehunekoak goranzko joera izan du; % 5,3 2014tik. Hortaz, soldatapeko langilerik egonkorrenen edo erakundean ibilbiderik luzeena dutenen pisua egonkor mantendu da, eta igo egin da 2 urtetik beherako antzintasuna duten soldatapeko langileen datua.

80. TAULA. PERTSONEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (III)

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdinta suna 2023- 2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Kontratututako 50 pertsona baino gehiago dituzten erakundeek % (soldatapeko langileak dituzten erakundeek guztizkoarekiko)	10	9,4	11,7	2,3
Kontratututako 3 pertsona baino gutxiago dituzten erakundeek % (soldatapeko langileak dituzten erakundeek guztizkoarekiko)	38	35,7	36,7	1,0
Gehienez 10 soldatapeko langile dituzten erakunde txikiak eta ertainak % (soldatapeko langileak dituzten erakundeek guztizkoarekiko)	71,1	71,7	71,4	-0.3
Emakumeen batez besteko % soldatapeko langileen artean	68,2	70,5	74,0	3,5
Azken 3 urteetan ordainpeko langileen kopurua handitu duten erakundeek %	24,5	43,8	35,9	-7.9
Azken 3 urteetan ordainpeko langileen kopurua murriztu duten erakundeek %	18,0	11,3	12,7	1,4
Ordainpeko langile gehienak emakumeak diren erakundeek %	79,5	81,3	84,5	3,2
Lanaldi partziala duten ordainpeko langileen %	23,9	32	29,2	-2.8
Aldi baterako kontratua duten ordainpeko langileen %	20,1	31,2	21,7	-9.5
2 urteko edo gutxiagoko antzintasuna duten ordainpeko langileen batez besteko %	21,4	24,7	26,7	2,0
10 urteko baino gehiagoko antzintasuna duten ordainpeko langileen batez besteko %	31,6	39,2	38,5	-0.7

Gobernu-organoei dagokienez, datuek erakusten dute egoera nahiko egonkorra dela horiek osatzen dituzten pertsonen konposizioari dagokionez. 2019 eta 2023 artean, egonkor mantendu da azken berritzean kide berriak gehitu dituzten erakundeek ehunekoa, bai eta organo horietara

sartutako kideen batez besteko kopurua ere. Alabaina, % 14 jaitsi da gobernu-organoetako teknikarien presentzia 2019tik. Aldaketa horren arrazoia izan daiteke erakundeek gero eta joera handiagoa dutela kanpoko profilak bilatzeko, agian, erakundearen gobernua eta barne-dinamika argiago bereizteko, independenteagoak diren kanpo-langileak bilatuz.

Sektoreak feminizatzeko duen joera markatua agerikoa da halaber gobernu-organoetan dauden emakumeen batezbestekoan. 2019-2023 aldian, % 4 inguruko hazkundera izan da. Hazkunde hori tamaina ekonomikorik handiena duten erakundeetan ere izan da. Erakunde horietako gobernu-organoetan sektore osoan baino emakume gutxiago dauden arren, % 10eko hazkundera izan da azken 4 urteetan.

81. TAULA. PERTSONEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (IV)

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdintas una 2023- 2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Gobernu-organoaren azken berritzean kide berririk sartu ez zuten erakundeen %	43,3	28,1	28,7	0,6
Gobernu-organoetako kide berrien batez besteko %	25,8	31,4	30,7	-0.7
Gobernu-organoetan erakundean lan egiten duten teknikariak dituzten erakundeen %	19,3	25,6	11,5	-14.1
Gobernu-organoetan dauden emakumeen batez besteko %	52,9	55,2	59,4	4,2
1 milioi eta erdi euro baino gehiago kudeatzen dituzten entitateetako gobernu-organoetan dauden emakumeen batez besteko %	40,1	43,2	53,4	10,2


7. BALIABIDE EKONOMIKOAK

7.1. ZER BALIABIDE EKONOMIKO DITUZTE?

Bolumen ekonomiko oso ezberdinetako erakundeak daude EHSSn. Erakundeen % 10,6k milioi eta erdi euro baino gehiagoko aurrekontuak kudeatzen dituzte, eta sektoreko entitateen % 20,6ren diru-sarrerak 12.000 €-tik beherakoak dira.

EHSSko 4 erakundetatik 3 erakunde txikiak edo ertainak dira, eta 300.000 € baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzte. Egiaz, erakundeen erdiak kudeatzen duen diru kopurua 65.052 € baino gutxiagokoa da.

82. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ARABERA. (%)



Bizkaian erakunderik txikienen, 12.000 €-ko diru-sarrerak edo txikiagoak dituztenen, kontzentrazioa txikiagoa da (% 17,8). Aldiz, Araban eta Gipuzkoan, kategorია horrek ehuneko altuagoa du; % 23,7 eta % 24,9, hurrenez hurren. Horrek esan nahi du Bizkaian erakunde txikien proportzioa beste probintzietakoa baino txikiagoa dela.

60.001 € eta 300.000 € arteko diru-sarrerak dituzten erakundeen kasuan, hiru lurralde historikoek antzeko ehunekoak dituzte, eta Bizkaia gainera dago apur bat (% 26,6). Hala ere, 300.001 € eta 1.500.000 €-ko diru-sarreraren kategorian, Araba nabarmentzen da % 17,0ekin, Bizkaia (% 13,3) eta Gipuzkoa (% 14,0) gaindituz.

1.500.000 €-tik gorako erakundeek kasuan, Bizkaia erakunde gehiago kontzentratzen ditu (% 12,8), eta Gipuzkoan eta Araban ehunekoak neurritsuagoak dira (% 9,5 eta % 8,1, hurrenez hurren).

82. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ETA LURRALDEAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
12.000 € edo gutxiago	% 17,8	% 23,7	% 24,9	% 20,6
12.001 € eta 60.000 € artean	% 29,6	% 25,9	% 24,0	% 27,7
60.001 € eta 300.000 € artean	% 26,6	% 26,8	% 26,0	% 26,6
300.001 € eta 1.500.000 € artean	% 13,3	% 14,0	% 17,0	% 14,0
1.500.000 € baino gehiago	% 12,8	% 9,5	% 8,1	% 11,1
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100,0

Desberdintasun adierazgarriak daude bolumen ekonomikoaren banaketan EHSSko erakundeen artean, erakundeen izaera juridikoa aintzat hartuta. Elkartek dira nagusi diru-sarrerarik txikiak dituztenen artean, eta bereziki nabarmentzen dira 12.000 €-ko diru-sarrerak edo baxuagoak dituztenen artean, % 22,5. Izatez, elkarteen % 80k 300.000 €-tik beherako diru-sarreraren bolumena du. Fundazioek eta gainerako figura juridikoek bestalde, presentzia handiagoa dute diru-sarrera handiagoko tarteetan, eta parte-hartze nabarmena dute 1.500.000 €-tik gorako kategorian, % 38,2. Fundazioen % 72,6k eta beste figura juridikoen % 83,7k 300.000 €-tik gorako aurrekontua dute.

83. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ETA FIGURA JURIDIKOAREN ARABERA. (%)

	Elkartek	Fundazioak	Beste batzuk
12.000 € edo gutxiago	% 22,5	% 2,3	% 0,0
12.001 € eta 60.000 € artean	% 30,1	% 3,9	% 3,6
60.001 € eta 300.000 € artean	% 27,4	% 21,3	% 12,7
300.001 € eta 1.500.000 € artean	% 12,1	% 34,4	% 32,9
1.500.000 € baino gehiago	% 8,0	% 38,2	% 50,8
Guztira	% 100	% 100	% 100

Halaber, jarduera arloa lotuta dago erakundeen diru-sarreraren bolumenarekin ere. Arlo Sozial-transbertsaleko erakundeen % 93,8 eta Hezkuntza eta Aisialdi arloko erakundeen % 86,3 txikiak eta ertainak dira, eta haien aurrekontua 300.000 € baino baxuagoa da. Hain zuzen ere, arlo Sozial-transbertsaleko erakundeen % 23,8k eta Hezkuntza eta Aisialdi arloko erakundeen % 34,9k 12.000 €-ko aurrekontua edo baxuagoa dute.

Enplegu arloan eta Gizarte Zerbitzuen arloan daude erakunde handi gehien. Enplegu arloko erakundeen % 63,7k eta Gizarte Zerbitzuetako erakundeen % 47,9k 300.001 €-tik gorako diru-sarrerak dituzte.

84. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
12.000 € edo gutxiago	% 14,8	% 5,7	% 10,4	% 34,9	% 25,3	% 23,8	% 12,2
12.001 € eta 60.000 € artean	% 38,5	% 13,0	% 8,8	% 29,5	% 12,5	% 43,2	% 13,2
60.001 € eta 300.000 € artean	% 26,7	% 17,5	% 32,9	% 21,9	% 20,0	% 26,8	% 41,9
300.001 € eta 1.500.000 € artean	% 14,9	% 36,0	% 16,7	% 13,7	% 29,7	% 4,5	% 13,0
1.500.000 € baino gehiago	% 5,1	% 27,7	% 31,2	% 0,0	% 12,6	% 1,6	% 19,7
guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Pentsa daitekeen moduan, lantaldeetan ordainpeko langileak dituzten erakundeek diru-sarrera altuagoak izaten dituzte ordainpeko langilerik ez dute erakundeek baino. Hain zuzen ere, ordainpeko langilerik ez duten erakundeen % 100ek 300.000 €-tik beherako aurrekontua dute.

Ildo beretik, boluntarioek pisu handia duten erakundeetan (lantaldea osatzen duten pertsonen erdiak edo gehiago direnean) erakunde txiki eta ertainen proportzioa handiagoa dela ikus daiteke.

85. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ARABERA, ETA LANTALDEETAN ORDAINPEKO LANGILEEK DUTEN PRESENTZIAREN ETA BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)

	Soldatapeko langileak ditu	Ez du soldatapeko langilerik	< 25 boluntarioak dira	% 25 eta % 50 artean boluntarioak dira	% 50 eta % 75 artean boluntarioak dira	% 75 edo gehiago boluntarioak dira
12.000 € edo gutxiago	% 3,0	% 54,3	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 27,0
12.001 € eta 60.000 € artean	% 20,9	% 43,3	% 6,8	% 0,0	% 15,2	% 34,5
60.001 € eta 300.000 € artean	% 36,8	% 2,4	% 8,9	% 17,9	% 54,7	% 26,2
300.001 € eta 1.500.000 € artean	% 21,3	% 0,0	% 32,9	% 38,8	% 10,9	% 9,4
1.500.000 € baino gehiago	% 18,0	% 0,0	% 51,4	% 43,3	% 19,2	% 3,0
guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Badirudi erakundearen antzinatasuna ere lotuta dagoela diru-sarreraren bolumenarekin: zenbat eta ibilbide luzeagoa, orduan eta bolumen handiagoko aurrekontua. Hala, 50 urtetik gorako ibilbidea duten erakundeek % 60k 1.500.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituzte. Bestalde, 1 edo 2 urte dituzten erakundeek % 63,4k 12.000 €-ko aurrekontua edo baxuagoa dute.

86. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ETA ANTZINATASUNAREN ARABERA. (%)

	50 urte baino gehiago	20 eta 50 urte artean	10 eta 20 urte artean	5 eta 10 urte artean	2 eta 5 urte artean	2 urte edo gutxiago
12.000 € edo gutxiago	% 0,0	% 12,0	% 19,4	% 26,6	% 24,1	% 63,4
12.001 € eta 60.000 € artean	% 19,1	% 23,8	% 27,0	% 35,3	% 39,8	% 30,7
60.001 € eta 300.000 € artean	% 11,7	% 28,0	% 32,3	% 33,1	% 24,8	% 2,1
300.001 € eta 1.500.000 € artean	% 9,7	% 20,3	% 15,4	% 1,8	% 6,7	% 3,8
1.500.000 € baino gehiago	% 59,5	% 15,9	% 5,9	% 3,1	% 4,6	% 0,0
guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Artatutako kontingentziaren arabera ere ikusten dira aldeak aurrekontuan. Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten erakundeek % 40,4k 1.500.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituzte. Desgaitasuna duten pertsonak artatzen dituzten erakundeek % 86,4k eta babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten erakundeek % 71,3k 300.000 €-tik beherako aurrekontua dute.

87. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ETA KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)

	Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Desgaitasuna duten pertsonak	Beste batzuk
12.000 € edo gutxiago	% 4,3	% 17,3	% 33,4	% 15,4	% 22,7
12.001 € eta 60.000 € artean	% 17,3	% 13,3	% 22,0	% 19,2	% 37,6
60.001 € eta 300.000 € artean	% 30,8	% 25,9	% 9,7	% 36,7	% 26,1
300.001 € eta 1.500.000 € artean	% 7,3	% 25,2	% 24,8	% 12,6	% 8,9
1.500.000 € baino gehiago	% 40,4	% 18,4	% 10,1	% 16,1	% 4,7
guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Erakundeek emaitza ekonomikoa

2022an, erakundeek % 40k oreka ekonomikoa lortu du bere kontuetan. % 32,6k emaitza positiboa lortu du, baina ez dugu ahaztu behar hori ez dela erakundeek enpresa-irabazi gisa

pilatzen duten superabita. Are, erakunde horiek behar bezala funtzionatu ahal izateko beharrezko soberakina da, eta kontingentzia-sare gisa erabiltzen da edo erakunde barruan eta erabiltzaileei eskainitako zerbitzuetan hobekuntzak egiteko. Halaber, % 26,6k emaitza negatiboa izan du. Hortaz, erakunde batzuek jasangarritasuna lortzeko dituzten erronka ekonomikoak agerikoak dira.

83. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO EKITALDIKO EMAITZAREN ARABERA. (%)



Bizkaian erakunde gehienek emaitza positiboa izan zuten 2022an (erakundeen % 38,3k lortu du emaitza positiboa); aldiz, Gipuzkoan zein Araban gehien errepikatu den emaitza kontuen orekarena izan da (% 42,9 eta % 48,9, hurrenez hurren). Hiru lurralde historikoetan gailendu zen kontuen oreka, baina neurri handiagoan Araban (% 74,2). Emaitza positiboa izan zuten erakundeen ehunekoa handiagoa izan zen Bizkaian (% 31,5), eta, aldiz, emaitza negatiboa izan zuten erakundeena Gipuzkoan (% 34,1).

88. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO EKITALDIKO EMAITZAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Negatiboa	% 24,2	% 33,1	% 23,0	% 26,6
Oreka	% 37,5	% 42,9	% 48,9	% 40,8
Positiboa	% 38,3	% 24,1	% 28,1	% 32,6
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100

Badirudi diru-sarreraren bolumena lotuta dagoela erakundeen emaitza ekonomiko positiboarekin: zenbat eta handiagoa izan diru-sarreraren bolumena, orduan eta altuagoa da emaitza positiboa duten erakundeen ehunekoa. Hala ere, nabarmentzekoa da 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeen % 33ren emaitza negatiboa izan dela: 3 erakundetik 1. 12.000 €-tik beherako aurrekontua duten erakundeen % 63,2k orekatuta dituzte kontuak, baita 12.001 eta 60.000 € arteko aurrekontua duten erakundeen % 49,6k ere.

89. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO EKITALDIKO EMAITZAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Negatiboa	% 19,7	% 25,8	% 32,2	% 22,4	% 33,0
Oreka	% 63,2	% 49,6	% 29,1	% 31,3	% 18,5
Positiboa	% 17,0	% 24,6	% 38,7	% 46,3	% 48,5
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Arloari dagokionez, bariedade handia dago erakundeen emaitza ekonomikoetan. Emaitza ekonomiko positiboa izan da Beste batzuk (% 71,4). Enplegua (% 42,4) eta Osasuna (% 35,7) arloetan. Kontuen oreka da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan (% 49,8), Hezkuntzan eta Aisialdian (% 45,6) eta arlo Sozial-transbertsalean (% 45,4) jarduten duten erakundeen artean aukerarik ohikoena. Emaitza ekonomiko negatiboa izan duten erakundeen ehunekoa % 22,6koa da arlo Sozial-transbertsalean aritzen diren erakundeetan eta % 32,1ekoa Osasunaren arloan.

90. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO EKITALDIKO EMAITZAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Negatiboa	% 32,1	% 27,3	% 31,6	% 23,6	% 27,6	% 22,6	% 28,4
Oreka	% 32,2	% 30,3	% 34,2	% 45,6	% 49,8	% 45,4	% 0,0
Positiboa	% 35,7	% 42,4	% 34,2	% 30,8	% 22,6	% 32,0	% 71,6
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Desberdintasun handiak daude erakundeen emaitza ekonomikoetan, erakunde hornitzaileak diren ala ez aintzat hartuta. Zehazki, erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzen dituzten erakundeak dira aurrekontu-defizita duten erakundeen ehunekorik handiena dutenak, % 45 gutxi gora behera. Gainerako erakundeei dagokienez, 4 erakundetik 1ek aurkako emaitza ekonomikoa izan du.

91. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO EKITALDIKO EMAITZAREN ETA ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ARABERA. (%)

	Bai, erantzukizun publikoko zerbitzuak soilik eskaintzen ditu	Bai, erantzukizun publikoko zerbitzuak eta beste batzuk konbinatzen ditu	Bai, zerbitzuak hornitzen ditu, baina ez erantzukizun publikoko zerbitzurik	Ez, ez ditu zerbitzuak eskaintzen
Negatiboa	% 45,1	% 26,1	% 26,5	% 24,0
Oreka	% 25,9	% 32,4	% 44,0	% 43,1
Positiboa	% 29,0	% 41,5	% 29,5	% 33,0
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100

Diru-sarreraren bolumenaren bilakaera azken hiru urteetan

Erakundeen diru-sarreraren bolumenak azken hiru urteetan izandako bilakaera aztertuta, erakundeen % 48,2ren aurrekontua hazi egin dela ikus daiteke. Erakundeen % 30,6k mantendu egin dute diru-sarreraren bolumena, eta % 21,2ren kasuan murriztu egin da.

84. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN DIRU SARREREN BOLUMENAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ARABERA. (%)



Erakundeen aurrekontuaren bilakaera ezberdina izan da lurralde historikoaren arabera. Bizkaian, erakundeek Euskadin duten pisuaren antzekoa dute. Gipuzkoan, aurrekontua handitu duten erakundeen proportzioa handiagoa da (% 54,2), eta aurrekontua murriztu duten erakundeen proportzioa pixka bat txikiagoa da. Araban, aurrekontua handitu duten erakundeen ehunekoa Euskadikoa baino handiagoa da (% 36,8), aldiz, erakundeen % 30ek murriztu dute aurrekontua.

92. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN DIRU SARREREN BOLUMENAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Igo egin da	% 48,1	% 54,2	% 36,8	% 48,2
Behera egin du	% 20,9	% 17,3	% 30,0	% 21,2
Mantendu egin da	% 31,0	% 28,5	% 33,2	% 30,6
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100

Azken hiru urteetan, batez ere, Beste arlo batzuetako (% 81,5), Enplegu arloko (% 71,6) eta Gizarte Zerbitzuen arloko (% 69,6) erakundeetan hazi da aurrekontua.

Aurrekontua batez ere Hezkuntzan eta Aisialdian (erakundeen % 39,2), arlo Sozial-transbertsanean (erakundeen % 37,8), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan (% 29,9) eta Osasunean (% 27,4) mantendu da.

Kontrara, azken hiru urteetan diru-sarreraren bolumena batezbestekoa baino gehiago murriztu zaien erakunde gehienak Garapenerako Nazioarteko Lankidetzakoak (% 36,7), Osasunekoak (% 28,4), Sozial-transbertsalak (% 22,1) eta Hezkuntza eta Aisialdikoak dira (% 20,4).

93. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN DIRU SARREREN BOLUMENAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Igo egin da	% 44,2	% 71,6	% 69,6	% 40,5	% 33,3	% 40,1	% 81,5
Behera egin du	% 28,4	% 9,4	% 11,1	% 20,4	% 36,7	% 22,1	% 6,8
Mantendu egin da	% 27,4	% 18,9	% 19,3	% 39,2	% 29,9	% 37,8	% 11,7
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Hasierako aurrekontua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da azken hiru urteetan diru-sarreraren bolumena handitu zaien erakundeen ehunekoa. 1.500.00 €-tik gorako aurrekontua duten 10 erakundetik 8ren diru-sarreraren bolumena igo egin da azken hiru urteetan. Aldiz, diru-sarreraren bolumena murriztu zaien erakundeen ehunekorik handiena erakunderik txikiaren artean dago. 12.000 €-tik behera dituzten 3 erakundetik 1en diru-sarrerak murriztu egin dira azken hiru urteetan.

94. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN DIRU SARREREN BOLUMENAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Igo egin da	% 22,1	% 40,1	% 50,0	% 71,8	% 80,0
Behera egin du	% 32,3	% 15,5	% 25,1	% 15,9	% 12,4
Mantendu egin da	% 45,6	% 44,3	% 25,0	% 12,3	% 7,5
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Artatutako kolektiboaren arabera, mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak (% 52,5), bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak (% 52,7) eta desgaitasuna duten pertsonak (% 61,2) artatzen dituzten erakundearen artean batezbestekoa baino handiagoa da diru-sarreraren bolumena handitu zaien erakundearen proportzioa. Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten erakundearen artean, batezbestekoa baino handiagoa da diru-sarreraren bolumena murriztu zaien erakundearen proportzioa (zehazki, % 36,1).

95. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN DIRU SARREREN BOLUMENAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ETA ARTATUTAKO KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)

	Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	Desgaitasuna duten pertsonak	Beste kolektibo zaurgarri batzuk
Igo egin da	% 52,5	% 52,7	% 33,5	% 61,2	% 43,9
Behera egin du	% 17,1	% 16,6	% 36,1	% 14,5	% 23,6
Mantendu egin da	% 30,4	% 30,7	% 30,4	% 24,3	% 32,5
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Erantzukizun publikoko zerbitzuak soilik hornitzen dituzten erakundeak diren arren emaitza ekonomiko negatiboak dituzten erakundearen ehunekorik handiena kontzentratzen dutenak, haien bolumen ekonomikoa ez da inolaz ere kaltetu. Are gehiago, kasuen % 85,6ean,

erakundeek diru-sarreraren bolumena handitu dute azken 3 urtetan. Kontra, diru-sarreraren bolumena gutxien handitu duten erakundeak inolako zerbitzurik eskaintzen ez dutenak dira (zehazki, azken horien % 33,7k soilik handitu ditu diru-sarrerak azken 3 urteetan).


96. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN DIRU SARREREN BOLUMENAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ETA ZERBITZU HORNIKUNTZAREN ARABERA. (%)

	Bai, erantzukizun publikoko zerbitzuak soilik eskaintzen ditu	Bai, erantzukizun publikoko zerbitzuak eta beste batzuk konbinatzen ditu	Bai, zerbitzuak eskaintzen ditu, baina ez erantzukizun publikoko zerbitzurik	Ez, ez ditu zerbitzuak eskaintzen
Igo egin da	% 85,6	% 63,0	% 42,7	% 33,7
Behera egin du	% 0,0	% 10,8	% 25,4	% 27,2
Mantendu egin da	% 14,4	% 26,2	% 31,9	% 39,1
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100

7.2. NONDIK DATOR FINANTZAKETA?

Erakundeek diru-sarreraren % 64,8 finantzaketa-iturri publikoetatik datoz, eta % 35,2 finantzaketa-iturri pribatuetatik. Sektorearen berezko finantzaketa (dohaintzak, zerbitzu-prestazioa eta produktuen salmenta) % 26,6 ingurukoa da. Erakundeek finantzaketa-iturri nagusia dirulaguntza publikoak dira; batez beste, erakundeek diru-sarrera guztien % 29,5 dira. Hurrengo iturri nagusia, hitzarmen publikoak dira; erakundeek diru-sarreraren % 24,1 osatzen dute. Bi finantzaketa-iturri horiek sektorearen diru-sarreraren erdia baino gehiago dira⁵⁵.

85. GRAFIKOA. DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZAREN PISUA, SEKTOREKO FINANTZAKETA OSOAREKIKO.



Oro har, finantzaketa pribatuaren pisua handiagoa da Bizkaian (% 36,3) eta Gipuzkoan (% 35,1), eta apur bat txikiagoa Araban (% 30,9). Bizkaian, finantzaketaren pisu gehiena dirulaguntza publikoek dute (% 32,8). Gipuzkoan, protagonismo handiagoa dute hitzarmenek eta kontratu

⁵⁵ Finantzaketa-iturri bakoitzak sektorearen finantzaketa osoan duen pisua kalkulatzeko, aurreko azterketetan bezala finantzaketa-iturri bakoitzaren batez besteko erreferentzia erabili beharrean, erakunde bakoitzaren bolumen ekonomikotik abiatuta egin da kalkulua, erakunde bakoitzean finantzaketa-iturri bakoitzak duen pisuarekin biderkatuz. Horrek aldaketa metodologikoa dakar adierazle hori kalkulatzeko garaian, eta aintzat hartu beharrekoa da balizko azterketa konparatiboetan.

publikoek (% 26,2 eta 28,3, hurrenez hurren). Azkenik, Araban, hitzarmenak eta dirulaguntza publikoak sektorearen finantzaketaren % 60 inguru dira.

97. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA SEKTOREKO FINANTZAKETA OSOAREKIKO, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
FINANTZAKETA PRIBATUA	Bazkideen/afiliatuen kuotak	% 6,7	% 7,0	% 6,2	% 6,7
	Beste ohiko dohaintza batzuk	% 0,9	% 2,0	% 2,7	% 1,4
	Noizean behingo dohaintzak	% 3,9	% 2,6	% 2,2	% 3,4
	Erabiltzaileen kuotak	% 4,0	% 6,1	% 3,4	% 4,3
	Zerbitzuak ematea	% 9,0	% 8,1	% 9,5	% 8,9
	Produktuen salmenta eta baliabide propioak eskuratzea	% 2,3	% 0,7	% 1,1	% 1,8
	Entitate pribatuen dirulaguntzak	% 7,4	% 4,2	% 2,4	% 6,0
	Beste pribatu batzuk	% 2,0	% 4,2	% 3,4	% 2,7
	GUZTIRA	% 36,3	% 35,1	% 30,9	% 35,2
FINANTZAKETA PUBLIKOA	Kontratu publikoak	% 9,0	% 18,3	% 9,8	% 11,1
	Dirulaguntza publikoak	% 32,8	% 20,2	% 28,1	% 29,5
	Hitzarmen publikoak	% 21,7	% 26,2	% 30,9	% 24,1
	Beste publiko batzuk	% 0,1	% 0,2	% 0,3	% 0,1
	GUZTIRA	% 63,7	% 64,9	% 69,1	% 64,8

Arloka, finantzaketa publikoaren pisua handiagoa da Gizarte Zerbitzuen arloan (% 73,1), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan (% 68,3) eta Beste arlo batzuetan (% 57,1). Bestalde, finantzaketa pribatuaren pisua handiagoa da Hezkuntza eta Aisialdi arloan (% 56), Enplegu arloan (% 53), Osasun arloan (% 52,2) eta arlo Sozial-transbertsalean (% 49,3).

Finantzaketa-iturri bakoitzari dagokionez, dirulaguntza publikoek diru-sarrerren iturri gisa duten pisua handiagoa da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan eta Beste arlo batzuetan. Kontratu publikoek eta hitzarmen publikoek batez ere Gizarte Zerbitzuetan dute pisu handiagoa. Bestetik, bazkideen edo afiliatuen kuoten pisua nabarmen handiagoa da Osasun arloan, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eta arlo Sozial-transbertsalean. Gainera, ohiko dohaintzek eta noizean behingo dohaintzek batez besteko pisua baino handiagoa dute Osasun arloan, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan eta arlo Sozial-transbertsalean.

98. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA SEKTOREKO FINANTZAKETA OSOAREKIKO, ARLOAREN ARABERA. (%)

		Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Aisialdia	Garapenerak o lankidetzaren	Sozial- transbertsala	Beste batzuk
FINANTZAKETA PRIBATUA	Bazkideen/afiliatuen kuotak	% 25,8	% 0,1	% 3,2	% 4,1	% 15,7	% 16,7	% 1,1
	Beste ohiko dohaintza batzuk	% 2,8	% 0,0	% 0,6	% 1,5	% 2,7	% 7,4	% 1,5
	Noizean behingo dohaintzak	% 7,4	% 7,4	% 0,6	% 0,7	% 8,2	% 4,8	% 2,9
	Erabiltzaileen kuotak	% 4,0	% 1,7	% 6,5	% 2,1	% 0,1	% 1,5	% 9,6
	Zerbitzuak ematea	% 2,3	% 22,1	% 6,5	% 41,6	% 0,5	% 2,5	% 19,8
	Produktuen salmenta eta baliabide propioak eskuratzea	% 3,9	% 5,9	% 0,8	% 0,2	% 1,8	% 1,8	% 0,0
	Entitate pribatuen dirulaguntzak	% 3,3	% 12,6	% 5,7	% 5,6	% 2,4	% 5,1	% 8,1
	Beste pribatu batzuk	% 2,7	% 3,1	% 2,9	% 0,3	% 0,2	% 9,4	% 0,0
	GUZTIRA	% 52,2	% 53,0	% 26,9	% 56,0	% 31,7	% 49,3	% 42,9
FINANTZAKETA PUBLIKOA	Kontratu publikoak	% 3,9	% 3,0	% 18,0	% 17,8	% 0,0	% 0,4	% 9,1
	Dirulaguntza publikoak	% 28,4	% 35,3	% 16,6	% 22,7	% 62,8	% 35,8	% 45,2
	Hitzarmen publikoak	% 15,5	% 8,7	% 38,5	% 3,2	% 5,5	% 13,9	% 2,4
	Beste publiko batzuk	% 0,0	% 0,0	% 0,1	% 0,3	% 0,1	% 0,6	% 0,5
	GUZTIRA	% 47,8	% 47,0	% 73,1	% 44,0	% 68,3	% 50,7	% 57,1

Oro har, EHSSk jasotako finantzaketaren ia erdia Gizarte Zerbitzuen arloan lan egiten duten erakundeentzako da (zehazki, finantzaketa publiko zein pribatuaren % 52,8). Hori logikoa da,

sektoreko erakundeek % 22,2 direla kontuan hartuta. Halaber, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak (erakundeek % 13,6 eta funtsen % 16,5) eta Enplegua ere nabarmentzen dira (erakundeek % 3,8 eta baliabideek % 13).

Kontrara, arlo Sozial-transbertsalean (erakundeek % 37,5) lan egiten duten erakundeek finantzaketaren % 5,7 jasotzen dute. Ildo beretik, Osasunak (erakundeek % 9,6) eta Hezkuntzak eta Aisialdiak (% 11,6) funtsen % 4,8 eta % 3,8 soilik jasotzen dute, hurrenez hurren.

99. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA ETA FINANTZAKETAREN PISUA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Aisialdia	Lankidetzak	Sozial-Tranbertsala	Beste batzuk
Erakundeek %	% 9,6	% 3,8	% 22,2	% 11,6	% 13,6	% 37,5	% 1,7
Finantzaketa pribatuaren %	% 4,4	% 13,4	% 53,7	% 3,9	% 15,7	% 5,4%	% 3,5
Finantzaketa publikoaren %	% 4,3	% 13,5	% 53,8	% 3,9	% 15,7	% 5,4	% 3,5

Erakundeek diru-sarrerak bolumenaren arabera, ikus daiteke finantzaketa pribatuaren pisua handiagoa dela 12.000 €-ko aurrekontua edo baxuagoa duten erakundeek artean, eta pisu hori orduan eta txikiagoa dela erakundeek diru-sarrerak bolumen handitu ahala. Ildo beretik, finantzaketa publikoaren pisua txikiagoa da erakunde oso txikiak artean, eta pisu hori orduan eta handiagoa da erakundeek diru-sarrerak bolumen handitzen den heinean. Hala, 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeek artean % 67,7ko pisua du finantzaketa publikoak.

Finantzaketa-iturri bakoitzari erreparaturik, ikus daiteke dirulaguntza publikoak direla erakunderik txikiak finantzaketa-iturri publiko bakarrik, eta bolumen ekonomikoa handitu ahala, kontratuak eta hitzarmen publikoak gero eta protagonismo handiagoa hartzen dutela. Bestetik, bazkideen eta afiliatuak kuoten pisua handiagoa da, batez ere, 12.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituzten erakundeek, eta pixkanaka jaisten da erakunde handiagoetan.

100. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZAREN PISUA ERLATIBOAK SEKTOREKO FINANTZAKETA OSOAREKIKO, DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

		12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
FINANTZAKETA PRIBATUA	Bazkideen/afiliatuen kuotak	% 26,4	% 19,7	% 15,2	% 2,6	% 6,5
	Beste ohiko dohaintza batzuk	% 9,2	% 5,4	% 3,2	% 3,5	% 0,5
	Noizean behingo dohaintzak	% 8,5	% 5,2	% 4,4	% 4,7	% 2,8
	Erabiltzaileen kuotak	% 12,5	% 3,9	% 4,2	% 3,2	% 4,7
	Zerbitzuak ematea	% 0,5	% 3,7	% 4,3	% 11,8	% 8,8
	Produktuen salmenta eta baliabide propioak eskuratzea	% 6,4	% 3,7	% 3,6	% 5,1	% 0,5
	Entitate pribatuen dirulaguntzak	% 0,8	% 6,5	% 7,6	% 3,9	% 6,4
	Beste pribatu batzuk	% 3,3	% 0,8	% 0,8	% 5,6	% 2,1
	GUZTIRA	% 67,6	% 48,9	% 43,2	% 40,2	% 32,3
FINANTZAKETA PUBLIKOA	Kontratu publikoak	% 0,0	% 1,6	% 3,2	% 5,1	% 14,1
	Dirulaguntza publikoak	% 32,3	% 44,0	% 35,2	% 33,9	% 27,1
	Hitzarmen publikoak	% 0,1	% 5,1	% 18,0	% 20,6	% 26,4
	Beste publiko batzuk	% 0,0	% 0,5	% 0,3	% 0,1	% 0,1
	GUZTIRA	% 32,4	% 51,1	% 56,8	% 59,8	% 67,7

Diru-sarrerak bolumenaren arabera finantzaketari dagokionez, finantzaketa pribatuaren % 68,9 eta finantzaketa publikoaren % 69,1 1,5 milioi eurotik gorako aurrekontua duten erakundeek kontzentratzen da. Erakunde guztien % 10,6 soilik dira horiek. Horrek erakusten du baliabideak sektoreko erakunderik handienetan kontzentratzen direla.

Aurkako muturrean daude erakunderik txikienak, 12.000 €-ko diru-sarrerak edo txikiagoak dituztenak. Erakunde guztien % 20,6 dira, baina finantzaketa pribatu eta publikoaren % 0,2 soilik jasotzen dute. Tarteko aurrekontuak dituzten erakundeak, 12.001 € eta 1.500.000 € bitartekoak, erakundeen % 69 dira eta baliabide gutxiago kudeatzen dituzte proportzioan. 300.001 € eta 1.500.000 €-ko tartea nabarmentzen da bereziki, finantzaketa pribatuaren % 20,9 eta publikoaren % 20,8 xurgatzen baitu. Azterketa horrek agerian uzten du lotura zuzena dagoela erakundeen tamaina ekonomikoaren eta finantzaketa-gaitasunaren artean, eta abantaila adierazgarria dagoela erakunderik handienentzat.

101. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA ETA FINANTZAKETAREN PISUA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 € eta 60.000 € artean	60.001 € eta 300.000 € artean	300.001 € eta 1.500.000 € artean	1.500.000 baino gehiago
Erakundeen %	% 20,6	% 27,7	% 27,1	% 14,0	% 10,6
finantzaketa pribatuaren %	% 0,2	% 1,7	% 8,4	% 20,9	% 68,9
finantzaketa publikoaren %	% 0,2	% 1,7	% 8,3	% 20,8	% 69,1

Antzinasunari dagokionez, erakunderik gazteenek (5 urtetik beherakoak) mendekotasun handiagoa dute finantzaketa publikoarekiko, haien baliabideen % 65 hortik etortzen baita, eta kontratu publikoak (% 42,3) dira diru-sarrera iturri nagusia etapa horretan. Arlo pribatuak finantzatzen du erakunde horien % 35, batez ere zerbitzuek (% 13,7) eta aldizkako dohaintzek (% 8,8). Erakundeek geroz eta antzinasun handiagoa izan ahala, finantzaketa pribatua nabarmen handitzen da 5 eta 10 urte bitarteko erakundeetan (% 58,5), erabiltzaileen kuotei (% 25,4) eta erakunde pribatuen dirulaguntzei esker (% 10,1). Hala ere, talde horretan finantzaketa publikoa % 41,5era murrizten da, eta dirulaguntza publikoek pisu nabarmena dute (% 21,1).

Erakunderik egonkortuenetan, 10 urtetik gorakoetan, mendekotasun handiagoa dago finantzaketa publikoarekiko, eta puntu gorena 50 urtetik gorako erakundeetan dago (% 68,4). Hitzarmen publikoak (% 24) eta dirulaguntza publikoak (% 21,1) dira iturri nagusiak. 20 eta 50 urte artean dituzten erakundeek kasuan, finantzaketa publikoa da nagusi (% 61,3) eta hitzarmen publikoak (% 24,9) dira elementurik garrantzitsuenak. Bestalde, finantzaketa pribatua % 31,6ra jaisten da erakunde zaharrago horietan, eta bazkideen edo afiliatuen kuotek (% 6,5) eta erabiltzaileenek (% 7,7) protagonismo handiagoa dute. Hala, diru-sarreraren eredu dibertsifikatuagoa eta finkatuagoa dute.

102. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA SEKTOREKO FINANTZAKETA OSOAREKIKO, ANTZINATASUNAREN ARABERA. (%)

		5 urte edo gutxiago	5 eta 10 urte artean	10 eta 20 urte artean	20 eta 50 urte artean	50 urte baino gehiago
FINANTZAKETA PRIBATUA	Bazkideen/afiliatuen kuotak	% 2,1	% 4,6	% 5,9	% 5,5	% 6,5
	Beste ohiko dohaintza batzuk	% 1,1	% 3,5	% 0,7	% 1,4	% 5,5
	Noizean behingo dohaintzak	% 8,8	% 3,5	% 1,0	% 1,4	% 2,2
	Erabiltzaileen kuotak	% 0,8	% 25,4	% 2,0	% 1,8	% 7,7
	Zerbitzuak ematea	% 13,7	% 7,3	% 16,7	% 5,0	% 6,9
	Produktuen salmenta eta baliabide propioak eskuratzea	% 7,4	% 3,4	% 1,6	% 18,9	% 0,3
	Entitate pribatuen dirulaguntzak	% 1,2	% 10,1	% 11,7	% 3,8	% 0,9
	Beste pribatu batzuk	% 0,0	% 0,8	% 7,8	% 0,9	% 1,5
	GUZTIRA	% 35,0	% 58,5	% 47,4	% 38,7	% 31,6
FINANTZAKETA PUBLIKOA	Kontratu publikoak	% 42,3	% 3,3	% 5,7	% 12,5	% 23,2
	Dirulaguntza publikoak	% 19,9	% 21,1	% 31,5	% 23,2	% 21,1
	Hitzarmen publikoak	% 2,5	% 17,0	% 15,1	% 24,9	% 24,0
	Beste publiko batzuk	% 0,3	% 0,0	% 0,3	% 0,7	% 0,1
	GUZTIRA	% 65,0	% 41,5	% 52,6	% 61,3	% 68,4

Erakundeen antzinatasunaren finantzaketari dagokionez, finantzaketa pribatuaren % 70,9 20 eta 50 urte bitarteko erakundeetan kontzentratzen da, eta erakunde horiek guztien % 34,2 dira. Aldiz, erakunderik gazteenek, hots, 5 urte edo gutxiagoko antzinatasuna dutenek, finantzaketa pribatuaren % 2,8 soilik jasotzen dute, nahiz eta sektorearen % 18,2 izan. Era berean, 5 eta 10 urte bitarteko antzinatasuna duten erakundeek baliabide pribatuaren % 3,2 jasotzen dute, nahiz eta erakunde guztien % 20,6 izan.

Finantzaketa publikoaren terminoetan, 20 eta 50 urte bitarteko erakundeek baliabide publikoaren % 70,5 jasotzen dute, eta erakunderik gazteenek (5 urte edo gutxiago) % 3,2 soilik. 50 urtetik gora dituzten erakundeek jasotzen dute finantzaketa publikoaren % 18,1, nahiz eta erakunde guztien % 2 soilik izan.

Azterketa horrek agerian uzten du erakunderik finkatuenetan kontzentratzen direla baliabide pribatu zein publiko gehien eta erakunderik gazteenek eta antzinatasun txikiagoa dutenek eskuragarri dauden baliabideen proportzio askoz ere txikiagoa jasotzen dutela.


103. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA ETA FINANTZAKETAREN PISUA ANTZINATASUNAREN ARABERA. (%)

	5 urte edo gutxiago	5 eta 10 urte artean	10 eta 20 urte artean	20 eta 50 urte artean	50 urte baino gehiago
Erakundeen %	% 18,2	% 20,6	% 25,0	% 34,2	% 2,0
finantzaketa pribatuaren %	% 2,8	% 3,2	% 9,8	% 70,9	% 13,3
finantzaketa publikoaren %	% 3,2	% 1,4	% 6,8	% 70,5	% 18,1

Finantzaketa-iturrien kopurua

Erakundeen % 64,8 2 eta 4 finantzaketa iturri artean dituzte. % 13k diru-sarreraren iturri bakarra dute, eta % 22,2k 5 edo gehiago.

86. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FINANTZAKETA ITURRIEN KOPURUAREN ARABERA. (%)



Finantzaketa-iturri anitzak izatea ohikoagoa da Osasun arloan eta Gizarte Zerbitzuen arloan; izan ere, arlo horietan handiagoa da 5 finantzaketa-iturri edo gehiago dituzten erakundearen proportzioa. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan eta arlo Sozial-transbertsalean handiagoa da finantzaketa-iturri bakarra duten erakundearen proportzioa.

104. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FINANTZAKETA ITURRIEN KOPURUAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
1 iturri	% 5,8	% 8,0	% 10,6	% 10,4	% 16,7	% 15,9	% 0,0
2 eta 4 iturri artean	% 50,3	% 80,0	% 54,8	% 72,6	% 61,3	% 71,5	% 93,5
5 iturri edo gehiago	% 43,9	% 12,0	% 34,7	% 17,0	% 22,0	% 12,6	% 6,5
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Finantzaketa-iturrien aniztasuna ohikoagoa aurrekontu handia duten erakundearen artean ere, 60.000 € baino gehiagoko aurrekontutik hasita: 300.001 eta 1.500.000 € arteko diru-sarrerak dituzten erakundearen % 53,1ek eta 1.500.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituzten erakundearen % 59,1ek 5 finantzaketa-iturri edo gehiago dituzte.

105. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FINANTZAKETA ITURRIEN KOPURUAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
1 iturri	% 33,3	% 14,4	% 2,2	% 5,8	% 4,8
2 eta 4 iturri artean	% 64,2	% 66,5	% 65,8	% 70,5	% 56,0
5 iturri edo gehiago	% 2,5	% 19,1	% 31,9	% 23,7	% 39,2
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Ordainpeko langileek lantaldeetan duten presentzia kontuan izanda, finantzaketa-iturrien aniztasuna handiagoa da ordainpeko langileak dituzten erakundeen artean (erakunde horien % 29,7k 5 finantzaketa-iturri edo gehiago dituzte). Boluntarioz bakarrik osatutako erakundeen artean, berriz, handiagoa da iturri bakarra (% 28) edo 2-4 iturri (% 62,7) dituzten erakundeen proportzioa.

Finantzaketa-iturri bakoitzaren eskuragarritasuna

Diru-iturri bakoitza duten erakundeen ehunekoari erreparatuta, diru-iturri nagusia dirulaguntza publikoena dela ikus daiteke; izan ere, erakundeen % 70,5ek eskuratzen dituzte. Bigarren iturri hedatuena bazkideen edo afiliatuen kuotek osatzen dute; erakundeen % 57,8k dute finantzaketa-iturri hori. Erakunde gehienek jasotzen duten finantzaketa-iturri pribatua da. Erakunde gehienek jasotzen duten hirugarren finantzaketa-iturria aldi behingo dohaintzak dira (kolaboratzaileenak edo erakundeenak), zehazki, % 29,7.

Ohiko beste finantzaketa-iturri batzuk dira: erakunde pribatuen dirulaguntzak (banku-fundazioetako obra sozialenak, fundazioenak, etab.); beste dohaintza erregular batzuk (kolaboratzaileenak edo erakundeenak); produktuen salmenta eta baliabide propioak eskuratzea (errifak, loteria, etab.); hitzarmen publikoak.



Bazkideen/afiliatuen kuotak dira diru-iturri pribatu hedatuena Osasun arloko (erakundeen % 77,2k jasotzen dituzte), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko (% 75,1) eta arlo Sozial-transbertsaleko (% 72,2) erakundeetan.

Enplegu arloko (% 61) eta Beste arlo batzuetako (% 62,9) erakundeen proportzio handienak zerbitzuak ematen dituzte diru-iturri pribatu gisa. Gizarte Zerbitzuen arloko erakunde gehienek (% 59,5), berriz, entitate pribatuen dirulaguntzak jasotze dituzte.

Iturri publiko hedatuena dirulaguntza publikoena da arlo guztietako erakundeentzat. Gainera, nabarmentzekoa da Enplegu arloko erakundeek % 33,4k eta Gizarte Zerbitzuen arloko erakundeek % 47,6k hitzarmen publikoak dituztela.

106. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZA DUTEN ERAKUNDEAK, ARLOAREN ARABERA. (%)

	Oasuna	Enplegu	Gizarte Zerbitzuak	Aisialdi	Garape nerako lankide	Sozial-transberrtsala	Beste batzuk
FINANTZAKETA PRIBATUA	Bazkideen/afiliatuen kuotak	% 77,2	% 22,4	% 51,5	% 48,5	% 75,1	% 72,2
	Beste ohiko dohaintza batzuk	% 26,6	% 5,6	% 27,5	% 19,6	% 24,4	% 21,5
	Noizean behingo dohaintzak	% 57,4	% 12,0	% 26,5	% 16,8	% 57,4	% 27,8
	Erabiltzaileen kuotak	% 34,0	% 16,4	% 33,5	% 34,4	% 2,5	% 14,1
	Zerbitzuak ematea	% 16,4	% 61,0	% 20,6	% 25,7	% 9,8	% 10,4
	Produktuen salmenta eta baliabide propioak eskuratzea	% 45,7	% 11,8	% 21,3	% 14,7	% 31,4	% 18,1
	Entitate pribatuen dirulaguntzak	% 41,1	% 30,8	% 59,5	% 20,9	% 26,9	% 16,3
	Beste pribatu batzuk	% 16,4	% 23,4	% 12,8	% 8,0	% 8,1	% 7,9
FINANTZAKETA PUBLIKOA	Kontratu publikoak	% 4,7	% 14,2	% 13,4	% 11,4	% 0,0	% 1,4
	Dirulaguntza publikoak	% 76,6	% 81,7	% 75,7	% 80,9	% 77,2	% 73,5
	Hitzarmen publikoak	% 18,3	% 33,4	% 47,6	% 13,9	% 3,3	% 13,9
	Beste publiko batzuk	% 1,6	% 0,0	% 3,2	% 3,6	% 0,9	% 2,4

Erakunde txiki eta ertainen kasuan (300.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituztenak), bazkideen/afiliatuen kuotak dira iturri pribatu hedatuena; erakunde handientzat (300.000 €-tik gorako diru-sarrerak), berriz, entitate pribatuen dirulaguntzak.

Erakunde gehienek eskuratzen dute iturri publikoa dirulaguntza publikoena da, erakunde horien diru-sarreraren bolumena edozein izanik ere. Dena den, 300.001 eta 1.500.000 € arteko diru-sarrerak dituzten erakundeek % 32,2k eta 1.500.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituzten erakundeek % 79,7k hitzarmen publikoak dituztela nabarmentzen da. Azken horien % 22,5ek, gainera, kontratu publikoak dituzte.

107. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZA DUTEN ERAKUNDEAK, DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
ITURRI PRIBATUAK	Bazkideen/afiliatuen kuotak	% 62,8	% 71,7	% 76,1	% 37,3
	Beste ohiko dohaintza batzuk	% 22,6	% 19,9	% 25,6	% 25,2
	Noizean behingo dohaintzak	% 25,7	% 37,8	% 33,9	% 29,8
	Erabiltzaileen kuotak	% 18,6	% 20,4	% 21,0	% 16,1
	Zerbitzuak ematea	% 4,6	% 11,7	% 20,4	% 28,9
	Produktuen salmenta eta baliabide propioak eskuratzea	% 21,2	% 25,3	% 23,4	% 19,6
	Entitate pribatuen dirulaguntzak	% 1,8	% 23,8	% 42,0	% 38,7
	Beste pribatu batzuk	% 6,3	% 7,7	% 11,0	% 17,1
ITURRI PUBLIKOAK	Kontratu publikoak	% 0,0	% 3,2	% 4,6	% 10,6
	Dirulaguntza publikoak	% 51,8	% 80,0	% 85,2	% 82,2
	Hitzarmen publikoak	% 2,9	% 9,5	% 27,4	% 32,2
	Beste publiko batzuk	% 0,0	% 2,0	% 5,2	% 0,3

Finantzaketa publikoaren pisua

Finantzaketa publikoak diru-sarreraren guztizkoaren gainean duen pisua aztertuta, ikus daiteke erakundeen % 48,1ek aurrekontuaren erdia baino gehiago finantzatzeko dutela finantzaketa publikoaren bidez; gainera, % 6,5ek jardura osoa finantzatzeko dute finantzaketa publikoaren bidez. Erakundeen % 49,3k diru-sarrera pribatu gehiago dituzte, publikoak baino; eta erakundeen % 25ek ez dute inolako diru-sarrera publikorik.

88. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FINANTZAKETA PUBLIKOAK GUZTIZKO FINANTZAKETAREN GAINEAN DUEN PISUAREN ARABERA. (%)



Lurralde historikoaren arabera, aldeak daude finantzaketa publikoaren pisuan. Hala, Bizkaian (% 49,2) eta Gipuzkoan (% 46,2) handiagoa da finantzaketa publikoaren erdia baino gehiago publikoak duten erakundeek, Araban baino (% 41,7). Gainera, finantzaketa publikorik ez duten erakundeek handiagoa da Araban beste bi lurralde historikoetan baino: 3 erakundetik 1.

108. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FINANTZAKETA PUBLIKOAK GUZTIZKO FINANTZAKETAREN GAINEAN DUEN PISUAREN ARABERA ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
% 0	% 24,6	% 23,4	% 33,0	% 25,0
% 0-50 artean	% 23,8	% 26,5	% 24,0	% 24,3
% 50	% 2,4	% 3,8	% 1,4	% 2,6
% 50-100 artean	% 44,6	% 37,5	% 35,5	% 41,6
% 100	% 4,6	% 8,7	% 6,2	% 6,5
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100

Finantzaketa publikoaren pisua erdia baino handiagoa da, batez ere, arlo hauetan: Gizarte Zerbitzuak (erakundeek % 61,8), Beste batzuk (erakundeek % 61,4) eta Enplegua (erakundeek % 52,3).

109. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FINANTZAKETA PUBLIKOAK GUZTIZKO FINANTZAKETAREN GAINEAN DUEN PISUAREN ARABERA ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
% 0	% 24,0	% 11,9	% 22,6	% 21,3	% 28,2	% 29,9	% 13,0
% 0-50 artean	% 40,9	% 32,1	% 14,7	% 38,2	% 27,8	% 19,9	% 18,9
% 50	% 2,0	% 3,7	% 0,8	% 3,3	% 1,5	% 3,8	% 6,8
% 50-100 artean	% 28,5	% 50,7	% 55,3	% 27,4	% 35,5	% 41,1	% 61,4
% 100	% 4,6	% 1,6	% 6,6	% 9,7	% 7,0	% 5,3	% 0,0
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Finantzaketa publikoaren pisua % 50ekoa baino handiagoa den erakundeek ehuneko handiagoa da ordainpeko langileak dituzten erakundeek artean (% 60), ordainpeko langilerik ez duten artean baino (% 28,2). Halaber, zenbat eta handiagoa izan bolumen ekonomikoa, orduan eta handiagoa da finantzaketa publikoak erakundeek guztizko finantzaketa duen pisua.


110. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FINANTZAKETA PUBLIKOAK GUZTIZKO FINANTZAKETAREN GAINEAN DUEN PISUAREN ARABERA ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
% 0	% 53,2	% 22,7	% 14,6	% 21,4	% 10,0
% 0-50 artean	% 18,9	% 30,9	% 24,4	% 23,7	% 20,0
% 50	% 3,8	% 3,6	% 2,3	% 1,4	% 0,0
% 50-100 artean	% 17,7	% 37,0	% 54,0	% 45,0	% 63,7
% 100	% 6,4	% 5,8	% 4,6	% 8,5	% 6,3
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Finantzaketa publikoaren jatorria

Finantzaketa publikoaren jatorriari dagokionez, batez beste, % 45,7 foru-aldundietatik dator, % 35,2 Eusko Jaurlaritzatik, eta % 15,1 udaletatik eta udal-taldeetatik. Europako finantzaketa finantzaketa publiko osoaren % 0,6 da.

89. GRAFIKOA. DIRU SARREREN ITURRI PUBLIKO BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, FINANTZAKETA PUBLIKO OSOAREKIKO. (%)



Lurralde historikoari dagokionez, aldundiko finantzaketaren pisua askoz ere handiagoa da Gipuzkoan (% 60,2), Araban (% 47,3) eta Bizkaian baino (% 40,7). Kontrara, Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa handiagoa da Bizkaian (% 40,7), hein batean, erakunde gehiago daudelako han, eta txikiagoa Araban (% 28,7) eta Gipuzkoan (% 20,9). Udal-finantzaketari dagokionez lurralde historikoen artean ez dago desberdintasun handirik.

111. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI PUBLIKO BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA FINANTZAKETA PUBLIKO OSOAREKIKO, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Europar Batasuna	% 0,4	% 0,3	% 0,9	% 0,5
Eusko Jaurlaritza	% 40,7	% 20,9	% 28,7	% 35,2
Foru-aldundiak	% 41,1	% 60,2	% 47,3	% 45,7
Estatuko Administrazio Orokorra	% 0,9	% 1,9	% 3,7	% 1,5
Udalak	% 14,9	% 14,4	% 16,8	% 15,1
Beste batzuk	% 1,8	% 2,4	% 2,7	% 2,1
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100

Arloka, Eusko Jaurlaritzatik datorren finantzaketaren pisua nabarmen handiagoa da Enplegu arloko (% 77,3) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko (% 54,5) erakundeetan. Aldundiko finantzaketaren pisua batezbestekoaren gainetik dago Gizarte Zerbitzuen erakundeetan (% 64,8). Udal-finantzaketari dagokionez, pisu handiagoa du Hezkuntzan eta Aisialdian (% 29,3) eta arlo Sozial-transbertsean (% 20,1).

112. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI PUBLIKO BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA FINANTZAKETA PUBLIKO OSOAREKIKO, ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Europar Batasuna	% 0,2	% 0,9	% 0,4	% 0,8	% 0,0	% 1,1	% 0,9
Eusko Jaurlaritza	% 27,7	% 77,3	% 17,0	% 29,1	% 54,5	% 44,5	% 44,5
Foru-aldundiak	% 46,0	% 9,7	% 64,8	% 39,8	% 21,7	% 30,0	% 47,0
Estatuko Administrazio Orokorra	% 4,7	% 0,7	% 1,3	% 0,4	% 1,9	% 0,0	% 6,2
Udalak	% 20,6	% 10,3	% 14,9	% 29,3	% 16,9	% 20,1	% 1,3
Beste batzuk	% 0,8	% 1,0	% 1,5	% 0,5	% 5,0	% 4,3	% 0,0
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Eusko Jaurlaritzatik datorren finantzaketaren pisuak garrantzi nabarmena du 60.001 €-ko edo gehiagoko diru-sarrerak dituzten erakundeetan. Foru Aldundiko finantzaketaren pisua batezbestekoa baino handiagoa da 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakunde handietan. Gainera, udal-finantzaketaren pisua batezbestekoa baino handiagoa da erakunde txikietan (60.000 €-ko aurrekontua edo baxuagoa dutenak); zenbat eta handiagoa izan erakundearen bolumena, orduan eta txikiagoa da udal-finantzaketaren pisua.


113. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI PUBLIKO BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA FINANTZAKETA PUBLIKO OSOAREKIKO, DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Europar Batasuna	% 0,0	% 2,2	% 0,4	% 0,3	% 0,5
Eusko Jaurlaritza	% 8,0	% 16,1	% 34,5	% 38,2	% 34,8
Foru-aldundiak	% 33,6	% 33,4	% 38,7	% 41,3	% 48,1
Estatuko Administrazio Orokorra	% 0,0	% 0,0	% 0,2	% 0,7	% 2,0
Udalak	% 48,4	% 45,0	% 24,3	% 15,1	% 13,3
Beste batzuk	% 10,0	% 3,2	% 1,9	% 4,4	% 1,4
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Finantzaketa-iturri publiko bakoitzaren eskuragarritasuna

10 erakundetik ia 8k udaletako eta foru-aldundietako finantzaketa jasotzen dute. 3tik 2k aldundiko finantzaketa jasotzen du. Erakundeen % 56,5ek Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa jasotzen du. % 5ek bakarrik jasotzen dute Europako finantzaketa, eta % 3,6k Estatuko Administrazio Orokorren finantzaketa.

90. GRAFIKOA. FINANTZAKETA ITURRI PUBLIKO BAKOITZA ESKURATZEN DUTEN ERAKUNDEAK. (%)



Europako finantzaketa, batez ere, Enplegu arloko (% 16,2) eta Beste arlo batzuetako (% 19,4) erakundeek jasotzen dute. Bai eta Estatuko Administrazio Orokorraren finantzaketa ere. Udal-finantzaketa proportzio handiagoan jasotzen dute Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko (% 91,8), arlo Sozial-transbertsaleko (% 91,3) eta Osasun arloko (% 90,8) erakundeek. Foru-aldundien finantzaketa proportzio handiagoan jasotzen dute Beste arlo batzuetako (% 100), Gizarte Zerbitzuetako (% 82,9) eta Osasun arloko (% 72,8) erakundeek. Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa proportzio handiagoan jasotzen dute Beste arlo batzuetako (% 90,5), Enplegu arloko (% 88,8) eta Osasun arloko (% 75,8) erakundeek.

114. TAULA. FINANTZAKETA ITURRI PUBLIKO BAKOITZA ESKURATZEN DUTEN ERAKUNDEAK, ARLOAREN ARABERA (%).

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Europar Batasuna	% 2,2	% 16,2	% 5,7	% 9,5	% 0,0	% 3,1	% 19,4
Eusko Jaurlaritza	% 75,8	% 88,8	% 71,9	% 52,6	% 47,4	% 42,5	% 90,5
Foru-aldundiak	% 72,8	% 43,0	% 82,6	% 62,3	% 62,4	% 62,9	% 100,0
Estatuko Administrazio Orokorra	% 3,7	% 17,1	% 3,6	% 4,8	% 1,3	% 0,0	% 19,4
Udalak	% 90,8	% 39,6	% 76,4	% 77,8	% 91,8	% 91,3	% 19,4
Beste batzuk	% 9,1	% 20,4	% 15,6	% 9,5	% 12,0	% 16,9	% 0,0

Diru-sarreraren bolumenaren arabera, batez ere, 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakunde handiek jasotzen dute Europako eta Estatuko Administrazio Orokorreko finantzaketa. Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako finantzaketa, bereziki, erakunde ertain eta handien artean dago hedatuta (60.000 €-tik aurrera). Udaletako finantzaketa, berriz, erakunde handien, ertainen eta txikien artean dago zabaldua.

115. TAULA. FINANTZAKETA ITURRI PUBLIKO BAKOITZA ESKURATZEN DUTEN ERAKUNDEAK, DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Europar Batasuna	% 0,0	% 3,2	% 5,1	% 3,3	% 16,1
Eusko Jaurlaritza	% 8,7	% 39,5	% 70,7	% 79,0	% 85,0
Foru-aldundiak	% 34,3	% 56,4	% 77,9	% 80,0	% 86,2
Estatuko Administrazio Orokorra	% 0,0	% 0,0	% 2,5	% 6,8	% 10,4
Udalak	% 83,1	% 82,7	% 84,5	% 77,0	% 83,0
Beste batzuk	% 7,5	% 10,1	% 15,2	% 17,2	% 23,9

Zerbitzuen eta beste funtzio sozial batzuen finantzaketa

Erantzukizun publikoko zorroetan jasotako zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeek jarduerari dagokionez, zerbitzu mota horiek ematen dituzten 3 erakundetatik 2k adierazi dute finantzaketa publikoaren bidez finantzatzen dutela haien jarduera osoa edo gehiena⁵⁶.

⁵⁶ Datu horiek kontuz aztertu behar dira; izan ere, baliteke galdera horri erantzuteko garaian erakundeek modu pribatuan garatu daitezkeen erantzukizun publikoko zerbitzuak hartu izana kontuan.

91. GRAFIKOA. ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZUEN FINANTZAKETAREN ARABERA. (%)



Erantzukizun publikoko zorroetan jasota ez dauden zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeek jardueraren finantzaketari dagokionez, zerbitzu horiek ematen dituzten erakundeek % 36,8k adierazi dute, batez ere, dirulaguntza publikoen, kontratuen edo hitzarmenen bidez finantzatzeko dutela jardura. Beste % 35,7k, batez ere, bazkideen kuoten edo dohaintzen bidez finantzatzeko dute, eta beste % 13,4k erabiltzaileen kuoten bidez, zerbitzuak emanez (kontratu pribatuak) edo produktuak salduz⁵⁷.

92. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZORROETAN JASOTA EZ DAUDEN ZERBITZUEN FINANTZAKETAREN ARABERA (%)



Beste funtzio sozial batzuekin (sentsibilizazioa, salaketa, ikerketa, etab.) lotutako jardura finantzaketa publikoaren eta pribatuaren artean finantzatzeko da, modu orekatuan. Erakundeek % 30 inguruk adierazi du jardura horiek bazkideen kuoten edo dohaintzen bitartez finantzatzeko dituela bereziki⁵⁸.

93. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BESTE FUNTZIO SOZIAL BATZUEN FINANTZAKETAREN ARABERA. (%)



⁵⁷ Datuak tentuz hartu behar dira. Izan ere, erantzukizun publikoko zorroan ez dauden zerbitzuak hornitzen dituzten erakundeak soilik hartu dira kontuan. Gainera, galdera honen erantzunen kopurua bereziki baxua izan da. Hori dela eta, ehunekoa kalkulatzeko erabilitako laginaren errore-marjina +/- % 8,66koa da.


⁵⁸ Datuak tentuz hartu behar dira. Izan ere, zerbitzuak ez diren beste funtzio sozial batzuk garatzen dituzten erakundeak bakarrik hartu ditugu kontuan. Gainera, galdera honen erantzunen kopurua bereziki baxua izan da. Hori dela eta, ehunekoa kalkulatzeko erabilitako laginaren errore-marjina +/- % 7,64koa da.

Erakundeen finantzaketa-iturrien bilakaera

Finantzaketa-iturrien bilakaerak hau erakusten du azken hiru urteetan:

- Finantzaketa publikoa handitu egin da erakundeen % 35,4ren kasuan, murriztu egin da % 25,6ren kasuan eta mantendu egin da % 39ren kasuan.
- Finantzaketa pribatua handitu egin da erakundeen % 32ren kasuan, murriztu egin da % 20,8ren kasuan eta mantendu egin da % 47,3ren kasuan.
- Berezko finantzaketa soilik aztertuz gero⁵⁹ (finantzaketa pribatua, erakunde pribatuen dirulaguntzak kenduta), ikus daiteke igo egin dela erakundeen % 29aren kasuan, eta jaitsi % 19,3rentzat. % 51,7k berdin eutsi dio.

94. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTEETAN HAIEN FINANTZAKETA PUBLIKOAK, FINANTZAKETA PRIBATUAK ETA FINANTZAKETA PROPIOAK IZANDAKO BILAKAERAREN ARABERA. (%)



Lurralde historikoen arabera datuen arabera, Bizkaiko datuak eta Euskadikoak antzekoak dira. Gipuzkoan, finantzaketa publikoa murriztu duten erakundeen ehunekoa batezbestekoa baino txikiagoa da. Araban, erakunde gutxiagotan handitu da finantzaketa propioa.

116. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTEETAN HAIEN FINANTZAKETA PUBLIKOAK, FINANTZAKETA PRIBATUAK ETA FINANTZAKETA PROPIOAK IZANDAKO BILAKAERAREN ARABERA ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. (%)

		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Finantzaketa publikoa	Igo egin da	% 34,5	% 37,4	% 24,0	% 35,4
	Behera egin du	% 24,1	% 26,0	% 34,7	% 25,6
	Mantendu egin da	% 41,4	% 36,6	% 41,2	% 39,0
Finantzaketa pribatua	Igo egin da	% 32,6	% 35,1	% 20,5	% 32,0
	Behera egin du	% 16,6	% 30,7	% 21,0	% 20,8
	Mantendu egin da	% 50,8	% 34,1	% 58,6	% 47,3
Finantzaketa propioa	Igo egin da	% 26,3	% 35,1	% 28,5	% 29,0
	Behera egin du	% 16,4	% 20,1	% 30,2	% 19,3
	Mantendu egin da	% 57,3	% 44,8	% 41,3	% 51,7

Arloaren arabera, ezberdintasunak daude finantzaketa-iturri mota bakoitzaren batez besteko hazkundearen edo murrizketaren goitik edo behetik geratzen diren erakundeen ehunekoan:

- Finantzaketa publikoa gehiago handitu da Gizarte Zerbitzuetako erakundeetan (% 45,6), Enpleguan (% 48,2) eta Beste batzuetan (% 49,9), eta murriztu egin da Osasunean (% 37,6) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan (% 43,3).

⁵⁹ Finantzaketa propiotzat hartzen dira: bazkideen/afiliatuen kuotak, beste ohiko dohaintza batzuk, noizean behingo dohaintzak, erabiltzaileen kuotak, zerbitzuak ematea (kontratu pribatuak), produktuen salmenta eta beste iturri pribatu batzuk.

- Finantzaketa pribatuak nabarmen egin du gora Gizarte Zerbitzuetako (% 40,6) eta Enpleguko (% 33,8) erakundeetan, eta jaitsi egin da Osasuneko (% 26,1) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako (% 23,4) erakundeetan.
- Finantzaketa propioa igo egin da Osasunean (% 48,2) eta Beste batzuetan (% 43,9), eta jaitsi egin da batez ere Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan (% 30,9) eta arlo Sozial-transbertsalean (% 21,8).

117. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTEETAN HAIEN FINANTZAKETA PUBLIKOAK, FINANTZAKETA PRIBATUAK ETA FINANTZAKETA PROPIOAK IZANDAKO BILAKAERAREN ARABERA ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

		Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Finantzaketa publikoa	Igo egin da	% 24,4	% 48,2	% 45,6	% 33,6	% 27,5	% 29,2	% 49,9
	Behera egin du	% 37,6	% 5,6	% 18,6	% 21,5	% 43,3	% 25,7	% 21,7
	Mantendu egin da	% 38,0	% 46,2	% 35,8	% 45,0	% 29,3	% 45,1	% 28,4
Finantzaketa pribatua	Igo egin da	% 28,4	% 33,8	% 40,6	% 27,0	% 31,8	% 28,0	% 22,7
	Behera egin du	% 26,1	% 16,1	% 21,0	% 18,7	% 23,4	% 21,0	% 8,4
	Mantendu egin da	% 45,5	% 50,2	% 38,3	% 54,3	% 44,9	% 51,1	% 68,9
Finantzaketa propioa	Igo egin da	% 48,2	% 29,0	% 30,0	% 26,0	% 24,8	% 24,7	% 43,9
	Behera egin du	% 16,4	% 11,3	% 15,1	% 15,8	% 30,9	% 21,8	% 7,8
	Mantendu egin da	% 35,5	% 59,7	% 54,9	% 58,2	% 44,3	% 53,5	% 48,3

Diru-sarreraren bolumenari dagokionez, finantzaketa publiko handiagoa izan duten erakundeek ehunekoa handitu egiten da haien bolumen ekonomikoa handitu ahala. Gauza bera gertatzen da finantzaketa pribatuarekin, baina kontrakoa da finantzaketa propioaren kasuan, ez baitirudi erakundeek tamainarekin lotura zuzenik duenik.

118. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTEETAN HAIEN FINANTZAKETA PUBLIKOAK, FINANTZAKETA PRIBATUAK ETA FINANTZAKETA PROPIOAK IZANDAKO BILAKAERAREN ARABERA ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

		12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Finantzaketa publikoa	Igo egin da	% 12,4	% 31,2	% 35,4	% 45,1	% 60,8
	Behera egin du	% 33,0	% 27,0	% 26,3	% 17,2	% 23,9
	Mantendu egin da	% 54,7	% 41,7	% 38,4	% 37,7	% 15,2
Finantzaketa pribatua	Igo egin da	% 23,2	% 28,1	% 31,3	% 37,9	% 47,3
	Behera egin du	% 18,7	% 18,3	% 24,8	% 23,0	% 19,0
	Mantendu egin da	% 58,0	% 53,6	% 43,9	% 39,1	% 33,6
Finantzaketa propioa	Igo egin da	% 21,6	% 35,5	% 24,5	% 30,8	% 36,5
	Behera egin du	% 29,9	% 14,3	% 23,4	% 10,4	% 14,6
	Mantendu egin da	% 48,5	% 50,2	% 52,1	% 58,7	% 48,9

7.3. ZERTARA BIDERATZEN DITUZTE BALIABIDE EKONOMIKOAK?

Gastuaren izaera

Erakundeek gastuaren izaerari dagokionez, entitateen gastu-partida nagusiak langileenak eta erosketenak izaten dira. Langileen gastuak, batez beste, gastu osoaren % 37,1 izaten dira. Erosketekin edo helburu sozialera edo hornidurara zuzendutako kontsumoekin lotutako gastua, batez beste, gastu osoaren % 29,2 izaten da.

95. GRAFIKOA. GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, IZAERAREN ARABERA. (%)



Arloaren arabera, langileen gastuak batezbestekoa baino handiagoak dira Gizarte Zerbitzuen arloan (% 59,2), Enplegu arloan (% 54,4) eta Beste arlo batzuetan (% 64,4). Eta erakundearen helburu sozialarekin lotutako erosketetara edo kontsumoetara bideratutako gastuak batezbestekoa baino handiagoak dira Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan (% 47,3) eta Hezkuntza eta Aisialdi arloan (% 37,4).

119. TAULA. GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, IZAERAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegu a	Gizarte Zerbitzu ak	Aisialdia	Garapen erako lankidet za	Sozial- transber tsala	Beste batzuk
Langileak	% 41,3	% 54,4	% 59,2	% 37,2	% 19,4	% 24,9	% 64,4
Helburu sozialerako, horniduretarako zuzendutako erosketak edo kontsumoak	% 20,7	% 16,0	% 17,5	% 37,4	% 47,3	% 32,0	% 8,0
Gastu orokorrak edo hornigaiak	% 8,3	% 10,5	% 10,1	% 12,8	% 6,1	% 13,4	% 11,8
Kanpoko zerbitzuak	% 18,5	% 10,0	% 8,1	% 5,0	% 4,4	% 11,8	% 9,6
Amortizazioak	% 1,3	% 2,4	% 1,2	% 0,8	% 0,2	% 0,6	% 1,1
Beste batzuk	% 10,0	% 6,8	% 3,9	% 6,7	% 22,6	% 17,3	% 5,2
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Logikoa den moduan, zenbat eta handiagoa izan erakundearen diru-sarreraren bolumena, orduan eta handiagoa da langileen gastua. 1.500.00 €-tik gorako bolumen ekonomikoa duten erakundeetan % 60tik gorakoa izatera iristen da. Kontrakoa gertatzen da erakundearen helburu sozialera bideratutako erosketak edo kontsumoekin: orduan eta txikiagoak dira erakundearen aurrekontua hazi ahala.


120. TAULA. GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, IZAERAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 eta 60.000 € artean	60.001 eta 300.000 € artean	300.001 eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Langileak	% 6,6	% 28,4	% 44,3	% 54,0	% 62,5
Helburu sozialerako, horniduretarako zuzendutako erosketak edo kontsumoak	% 52,3	% 34,9	% 21,5	% 20,3	% 13,3
Gastu orokorrak edo hornigaiak	% 13,4	% 13,0	% 9,7	% 8,1	% 8,7
Kanpoko zerbitzuak	% 9,0	% 11,6	% 11,5	% 6,2	% 5,4
Amortizazioak	% 0,0	% 0,3	% 1,1	% 1,5	% 2,0
Beste batzuk	% 18,7	% 11,7	% 11,8	% 10,0	% 8,1
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Gastuaren xedea

Erakundearen gastuaren xedeari dagokionez, erakundeek, batez beste, garatzen duten jarduerara edo ematen dituzten zerbitzuetara bideratzen dute gastuaren % 79,7 inguru. Zeharkako kudeaketa-gastuak, berriz, gastu osoaren % 14 izaten dira, batez beste.

96. GRAFIKOA. GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, XEDEAREN ARABERA. (%)



Arloka, Enplegu arloan (% 86), Gizarte Zerbitzuetan (% 84,2) eta arlo Sozial-transbertsalean batezbestekoa baino handiagoa da zuzenetan jardueretarako edo zerbitzuetarako bideratutako gastua. Zeharkako kudeaketa-gastuak, berriz, batezbestekoa baino handiagoak dira Osasun arloan (% 20), Hezkuntza eta Aisialdiaren arloan (% 18,9) eta Beste arlo batzuetan (% 24).

121. TAULA. GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, XEDEAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Sozial-transbertsala	Beste batzuk
Jarduerak edo zerbitzuak, zuzenean	% 75,4	% 86,0	% 84,2	% 77,2	% 77,0	% 79,2	% 74,5
Kudeaketako zeharkako gastuak	% 20,0	% 13,1	% 13,3	% 18,9	% 13,5	% 11,0	% 24
Beste batzuk	% 4,6	% 0,9	% 2,5	% 4,0	% 9,4	% 9,7	% 1,5
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Zorpetzea eta auditoretzak

Erakundeen egoera-balantzeak kontuan izanda, erakundeen % 17,5ek adierazi dute zorpetuta daudela⁶⁰. Zorpetuta daudela adierazi duten erakundeen batez besteko zorpetzea % 18koa da, baina erakunde horien erdien zorpetze maila ez da % 10 baino handiagoa.

97. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, ZORPETUTA DAUDEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Erakundeen % 33,4k egiten dute kontuen auditoretza. Erakundeen kontabilitatearen ebaluazio-prozesu sistematikoa eta zorrotza da kontuen auditoretza, eta kanpoko langileek egiten dute, iritzi independente bat emate aldera.

98. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KONTUEN AUDITORETZA EGITEN DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Lurraldeen arabera, kontabilitateko kanpo-auditoretza egiten duten erakundeen ehunekoa handiagoa da Bizkaian (% 35,2) eta Araban (% 35,1), Gipuzkoan baino (% 28,8). Arloka, Enplegu arloko (% 76,2) eta Gizarte Zerbitzuen arloko (% 6,4) erakundeek dituzte ehuneko altuenak.

⁶⁰ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 7,14ko errore-marjina baitu.

Ehuneko altuagoak dituzte honakoek ere: Fundazioak (% 79,6) eta Beste figura juridiko batzuk (% 72,7), ordainpeko langileak dituzten erakundeak (% 49,1) eta 300.000 eta 1.500.000 € arteko aurrekontua (% 65,6) edo 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua (% 91,8) duten erakundeak.

7.4. LIKIDEZIA, KREDITUEN ESKURAGARRITASUNA ETA ONDAREA

Likideziarekin eta kredituen eskuragarritasunarekin lotutako arazoak

Erakundeen % 22,5ek likidezia-arazoak edo diruzaintza-zailtasunak izaten al ditu ohikoan⁶¹.


99. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LIKIDEZIA ARAZOAK DITUZTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Erakunde hauek dira likidezia-arazoak edo diruzaintza-zailtasunak proportzio handienera dituztenak: Enplegu arlokoak (% 39,2), Osasun arlokoak (% 34,1), Gizarte Zerbitzuetaoak (% 34,3), ordainpeko langileak dituztenak (% 27,4) eta 12.001 € eta 60.001 € arteko aurrekontua dutenak (% 27,3).

Erakundeek dituzten likidezia-arazoak edo diruzaintzako tentsioak hainbat faktoreekin egon daitezke lotuta. Arrazoirik ohikoenak kobrantzetao atzerapen planifikatuak izaten dira, erakundeen % 49,5i eragiten baitiote, eta, ondoren, kobrantzetao ezusteko atzerapenak, kasuen % 26,8an. Galerek (% 15,2), egindako inbertsioek (% 6,4), aurreikusi gabeko ordainketak (% 20,8), erakundearen hazkunde azkarrak (% 20,8) eta jardueraren urtarokotasunak (urteko une espezifiko batzuetan kontzentratzea, % 27,7) ere eraginda dute erakunde horien arazo finantzarioetan. Zifra horiek erakusten dute zer nolako erronka finantzarioak dituzten erakundeek eguneroko kudeaketan.

100. GRAFIKOA. LIKIDAZIO ARAZOAK EDO DIRUZAINZAKO TENTSIOAK IZAN DITUZTEN ETA FAKTORE HAUEK ERAGINA IZAN DUTELA ADIERAZI DUTEN ERAKUNDEAK. (%)




Zailtasun horien aurrean, hainbat praktikara jotzen dute erakundeek. Likidezia-arazoak edo diruzaintza-zailtasunak izan dituzten erakundeen % 41,7k jarduera atzeratu dute, % 32,5ek

⁶¹ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoak kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 5,63ko errore-marjina baitu.

hornitzaileei egin beharreko ordainketak atzeratu dituzte, % 29,8k ordainpeko langileei egin beharreko ordainketak atzeratu dituzte⁶².

101. GRAFIKOA. LIKIDEZIA ARAZOAK EDO DIRUZAINITZA ZAILTASUNAK IZAN DITUZTEN ETA HONAKO PRAKTIKA HAUETARA JO BEHAR IZAN DUTEN ERAKUNDEAK. (%)



Erakundeek % 16,3k adierazi dute zailtasunak dituztela kreditua lortzeko. Bereziki, Enplegu (% 26,1) eta Osasun arlokoek (% 21); 12.001 eta 60.000 € arteko aurrekontua dutenek (% 27,3) edo 12.000 €-tik beherakoek (% 15,9). Aitzitik, haien egoitza nagusiaren jabetza duten erakundeek % 3,8k baino ez dute esan zailtasun horiek dituztenik.

102. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KREDITUAK ESKURATZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Jabetzako higiezinak/higiezinaren ondarea

Erakundeek % 12,1ek haien egoitza nagusiaren jabetza dute, eta % 24,2k alokairuan dute. % 36,5ek lagapen publikoa dute, eta % 16,1ek lagapen pribatua.

103. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ENTITATEAREN EGOITZA NAGUSIAREN TITULARTASUNAREN ARABERA. (%)



Honako erakundeek artean da handiena egoitza nagusia jabetzan duten erakundeek proportzioa: Fundazioak (% 39,9) edo Beste figura juridiko batzuk (% 37,1); Enplegu arloko (% 34,4), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko (% 22,8) eta Gizarte Zerbitzuak (% 19) erakundeak; eta 300.001 eta 1.500.000 € arteko aurrekontua (% 23,1) edo 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua (% 35,5) dutenak.

Gainera, erakundeek % 8,4k beste lokal batzuk ere badituzte jabetzan. Orokorrean, erakundeek % 16,7k dute lokalen bat jabetzan: egoitza nagusia eta/edo beste lokalen bat.

⁶² Datuak tentuz hartu behar dira. Izan ere, likidezia-arazoak edo diruzaintza-zailtasunak dituztela esan duten erakundeak bakarrik hartu ditugu kontuan, eta, gainera, galdera honi emandako erantzun kopurua oso baxua izan da. Hori dela eta, ehunekoa kalkulatzeko erabilitako laginaren errore-marjina +/- % 11,96koa da.

104. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LOKALEN BAT JABETZAN DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Honako erakundeen artean da handiena lokalak jabetzan dituzten erakundeen proportzioa: Enplegu arloko (% 26,1) eta Osasun arloko (% 21) erakundeak; 300.001 eta 1.500.000 € arteko diru-sarrerak (% 33,4) eta 1.500.000 €-tik gorako diru-sarrerak (% 64,5) dituztenak.

7.5. 2019-2023 ALDIKO AZTERKETA KONPARATIBOA

Sektoreko baliabide ekonomikoen azterketatik eratorritako ondorioek adierazten dute dibertsitatea sektorearen berariazko ezaugarria dela eta etengabekoa izan dela azken lau urteetan.

2019 eta 2023 arteko aldian, apur bat igo da erakunde oso handien ehunekoa, hau da, 1.500.000 €-tik gorakoena. Kontrara, erakunde oso txikiak, 12.000 € edo gutxiagoko aurrekontua dutenak, ehuneko 10 puntu murriztu dira gutxi gorabehera, eta, orain, sektorearen bosten bat dira. Dinamika horrek erakusten du hainbat diru-sarrera maila eta tamaina finantzario dituzten erakundeak daudela.

Datuen alderdi adierazgarrietako bat da azken urteetan diru-sarreretan gorakada izan duten erakundeen ehunekoa, erakunde guztietatik ia erdien kasua izan baita. Halaber, erakundeen % 20k diru-sarrera baxuagoak izan ditu azken 3 urtetan, duela 4 urteko kopuru antzekoa.

122. TAULA. BALIABIDE EKONOMIKOEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (I)

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdintasuna 2023-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
1 milioi eta erdi euro baino gehiago kudeatzen dituzten erakundeen %	9,0	7,6	10,6	3,0
12.000 euro edo gutxiago kudeatzen dituzten erakundeen %	32,0	31,7	20,6	-11.1
Azken 3 urteetan diru-sarreraren bolumena murriztu zaien erakundeen %	38,0 (5 urte)	18,6	21,2	2,6
Azken 3 urteetan diru-sarreraren bolumena handitu zaien erakundeen %	57,0 (5 urte)	43,6	48,2	4,6

Azken lau urteetan, apur bat igo da finantzaketa pribatuaren ehunekoa sektorean, finantzaketa publikoaren bizkar, % 5 inguru murriztu baita. Ondorioz, nabarmen murriztu dira kontratuak eta hitzarmen publikoak sektorearen finantzaketan, ez ordea dirulaguntza publikoak, nabarmen igo baitira, eta sektorearen finantzaketa osoaren % 30 inguru baitira dagoeneko.

Hitzarmen publikoak eskuratzen dituzten erakundeen ehunekoa ez da apenas aldatu, baina asko hazi da jardueraren zati bat, behintzat, ohiko dohaintzen bidez finantzatzen duten erakundeen ehunekoa: % 14,9koa zen 2019an, eta % 21,1koa 2023an.

2019tik ia ehuneko 5 puntu murriztu diren arren, bost finantzaketa-iturri edo gehiago dituzten erakundeak kopuruak erakusten du dibertsifikatu nahian dabilazala etengabe. Erronka hori hauteman zen dagoeneko 2019ko Liburu Zurian. Halaber, txosten horrek aipatzen zuen finantzaketa pribatua eta propioa handitu beharra zegoela, eta hori lehentasuna da oraindik ere erakundeentzat. Agerian geratu da hori soilik finantzaketa publikoaren bidez finantzatzen diren erakundeen ehunekoaren beherakadarekin.

Egun, gero eta erakunde gutxiago daude soilik finantzaketa publikoaren menpe. Izatez, EHSSko erakundeek ia erdiak diru-sarrera gehiago lortzen ditu dagoeneko iturri pribatuetatik publikoetatik baino, eta 4 erakundetik 1ek finantzaketa-iturri pribatuaren bidez soilik finantzatzen du bere jarduerak.

123. TAULA. BALIABIDE EKONOMIKOEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (II)

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdintasuna 2023-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Sektoreko finantzaketa publikoaren batez besteko %	69,8	70,3	64,8	-5.5
Hitzarmen eta kontratu publiko bidezko finantzaketa publikoaren %, sektorearen finantzaketa osoarekiko	50,6	48,1	35,2	-12.9
Sektoreko finantzaketa propioaren (dohaintzak, zerbitzuak ematea, salmentak) %	22,1	22,1	26,6	4,4
Dirulaguntza publikoaren bidezko finantzaketaren %, finantzaketa osoarekiko	19,0	22,0	29,5	7,5
Hitzarmen publikoak eskuratzen dituzten erakundeek %	24,0	24,3	19,5	-4.8
Ohiko dohaintzen bidez finantzatzen diren (gutxienez, zati bat) erakundeek %	-	14,9	21,1	6,2
Finantzaketa-iturri bakarra duten erakundeek %	13,4	13,6	13,0	-0.6
Bost finantzaketa-iturri desberdin edo gehiago dituzten erakundeek %	21,3	25,2	20,5	-4.7
Diru-iturri bakarra finantzaketa publikoa duten erakundeek %	9,8	7,2	6,5	-0.7
Diru-sarrera publiko baino pribatu gehiago dituzten erakundeek %	42,0	40,4	49,3	8,9
Batere finantzaketa publikorik ez duten erakundeek %	11,9	12,9	25,0	12,1

Finantzaketa publikoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrera publikoaren batez besteko ehunekoa igo egin da 2019 eta 2023 artean. Aldiz, Foru Aldundietako finantzaketak pisua erlatiboa galdu du EHSSren finantzaketan. Halaber, udaletako dirulaguntza publikoaren batez besteko ehunekoa egonkor mantendu da azken 4 urteetan.

Azken urteetan finantzaketa publikoaren hazkundeari edo beherakadari dagokionez dagoen egoerak askotariko errealitatea erakusten du. Azken hiru urteetan erakundeek finantzaketa % 7,5 gehiago handitu den arren 2019rekin alderatuta, erakundeek antzeko ehuneko batek murriztu du finantzaketa hori. Finantzaketa pribatuari dagokionez, ez dirudi errealitatea asko aldatu denik 2019tik, azken urteetan finantzaketa pribatua handitu edo txikitu duten erakundeek ehunekoaren kasuan behintzat.

124. TAULA. BALIABIDE EKONOMIKOEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (III)

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdintasuna 2023-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Europako finantzaketa jasotzen duten erakundeek %	5,0	4,6	5,0	0,4
Autonomia-erkidegoko gobernutik jasotako diru-sarrera publikoaren %	19,6	29,9	35,2	5,3
Aldundietatik jasotako diru-sarrera publikoaren %	47,9	53,4	45,7	-7.7
Udaletatik jasotako diru-sarrera publikoaren %	29,7	14,7	15,1	0,4
Azken 3 urteetan finantzaketa publikoa handitu zaien erakundeek %	19,4	27,9	35,4	7,5
Azken 3 urteetan finantzaketa publikoa murriztu zaien erakundeek %	36,9	31,8	25,6	-6.2
Azken 3 urteetan finantzaketa pribatua handitu zaien erakundeek %	22,2	30,5	32,0	1,5
Azken 3 urteetan finantzaketa pribatua murriztu zaien erakundeek %	36,9	22,4	20,8	-1.6

Jardueren eta zerbitzuen gastua apur bat murriztu da 2019 eta 2023 artean. Aldiz, barne-kudeaketara bideratutako gastua ia ehuneko 2 puntu handitu da. Joera hori mantendu egin da 2014tik bildutako datuetatik.

Oro har, badirudi erakundeen egoera finantzarioa puntu egonkor batean dagoela, kreditua eskuratzeko arazoak eta/edo likidezia-arazoak dituzten erakundeen ehunekoa mantendu egin baita. Halaber, %10,6 baino gehiago murriztu da arazoak izan arren, langileei ordainketak atzeratu behar dizkieten erakundeen kopurua.

Gainera, handitu egin da kanpo-auditoretzak egiten dituzten erakundeen kopurua. Erakunde horien % 33k hartzen du erabaki hori egun.

125. TAULA. BALIABIDE EKONOMIKOEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (IV)

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdint asuna 2023-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Zuzenean jardueretara eta zerbitzuetara bideratutako erakundeen gastuaren %	85,4	82,6	79,7	-2.9
Kanpoko kontu-auditoretzaren bat egin duten erakundeen %	26,0	28,0	33,4	5,4
Barne-kudeaketako eta administrazioko gastuaren batez besteko %	11,7	12,1	14,0	1,9
Kredituak eskuratzeko zailtasunak dituzten erakundeen %	25,0	16,4	16,3	-0.1
Likidezia-arazoak dituzten erakundeen %	26,0	23,6	22,5	-1.1
Langileei egin beharreko ordainketak atzeratu dituzten erakundeen %, arazoak dituzten erakundeen guztizkoarekiko	52,0	40,4	29,8	-10.6
Lokalak jabetzan dituzten erakundeen %	17,7	16,7	15,9	-0.8

8. KUDEAKETA- ETA KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK

8.1. ZER KUDEAKETA TRESNA ERABILTZEN DITUZTE?

Erakundeek askotariko kudeaketa-tresnak dituzte (ebaluazio-sistemak, berdintasun-planak, kode etikoak eta abar) entitateek ongi funtziona dezaten. Batzuetan, nahiz eta ohikoena ez izan, tresna formalizatuak dira. Beste batzuetan, aldiz, aldian behingo ekintzak izaten dira.

Proiektu edo jardueretako emaitzak ebaluatzeko sistemak, laneko arriskuen prebentzio-planak, plan estrategikoak edo gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-planak dira estandarizatuena batzuk. Beste tresna batzuk askoz gutxiago erabiltzen dira, hala nola Ingurumeneko Kudeaketa Planak, estrategia digitalaren gaineko planak edo Arrisku Penalak betetzeko Planak.

Orokorrean, datuek erakusten dutenez, zenbat eta handiagoak izan diru-sarreraren bolumena eta ordainpeko langileek lantaldeetan duten pisua, orduan eta kudeaketa-tresna gehiago erabiltzen dira erakundeetan.

105. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KUDEAKETA TRESNAK ZENBATERAINO BARNERATUTA DITUZTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Emaitzak ebaluatzen sistema

10 erakundeetatik ia 4k proiektuen edo jardueren emaitzak edo inpaktua ebaluatzen sistema formalizatua dute (idatziz), eta beste % 35,8k horrekin lotutako ekintzak garatzen ditu.

106. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, EMAITZAK EBALUATZEN SISTEMA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Batez ere, erakunde hauek dituzte emaitzak ebaluatzen sistemak: Gizarte Zerbitzuetaoak (% 53,6), Enplegu arlokoak (% 51,2), eta Hezkuntza eta Aisialdikoak (% 49,1); ordainpeko langileak dituztenak (% 49,1); eta 1.500.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituztenak (% 73). Hain zuzen ere, zenbat eta handiagoa izan erakundearen diru-sarreraren bolumena, orduan eta handiagoa da emaitzak ebaluatzen sistema duten erakundearen ehunekoa.

Laneko arriskuen prebentzio-plana

Erakundearen % 40k dute laneko arriskuen prebentzio-plan bat formalki ezarrita, eta erakundearen % 9,4k baino ez dituzte egiten lotutako ekintzak, idatziz jasotako plan bat ez izan arren.

Erakundearen erdiek ez dute laneko arriskuen prebentzio-planik eta ez dute lotutako ekintzarik egiten.

107. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Enplegu arloko (% 77,7), Gizarte Zerbitzuetao (% 69,7) eta Beste arlo batzuetako (% 61,4) erakundeak dira laneko arriskuen prebentzio-plan formalizatua proportzio handiaren dutenak.

Halaber, 60.000 €-tik gorako diru-sarreraren bolumena duten erakundearen (1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundearen % 83,5) eta haien lantaldeetan ordainpeko langileak dituzten erakundearen artean (batez ere, ordainpeko 3 langile baino gehiago dituztenen artean) handiagoa da laneko arriskuen prebentzio-plana duten erakundearen proportzioa.

Plan formalizatua duten erakundearen % 61,2k dio bere langileen osasuna aztertzen duela. Gainera, % 47,3k adierazi du bere planak arrisku psikosozialen atal espezifiko bat duela.

108. GRAFIKOA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO PLANA DUTEN ETA HARTAN ARRISKU PSIKOSOZIALEN ETA OSASUNAREN ZAINTZAREN GAINEN ATAL ESPEZIFIKOAK JASOTZEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA. (%)



Plan estrategikoa

Erakundeek % 36,2k plan estrategikoa formalizatu bat dute (erakundearen epe luzeko zerbitzuei eta jardute-lerroei buruzkoa), eta % 29,8k ez dute idatziz jasoa, baina lotutako ekintzak garatzen dituzte.

109. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, PLAN ESTRATEGIKOA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Enplegua (% 61,9), Beste batzuk (% 49,9), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak (% 49,9) eta Gizarte Zerbitzuak (% 43,4) arloak dira Plan Estrategikoa gehien egin dituztenak. Bestalde, nabarmentzekoa da arlo Sozial-transbertsaleko erakundeek erdiek baino gehiagok ez dutela plan estrategikorik, eta ez dutela lotutako ekintzarik egiten.

Bestetik, zenbat eta handiagoa izan bolumen ekonomikoa, orduan eta ohikoagoa da plan estrategikoa formalizatu bat izatea; 1.500.000 €-tik gorako bolumen ekonomikoa duten erakundeek % 67,8k dute.

Era berean, argia da ordainpeko langileen presentziarekin eta kopuruarekin duen harremana ere. Ordainpeko langileak dituzten erakundeek % 50,2k dute plan estrategikoa, eta ehuneko hori % 72,8koa da ordainpeko 100 langile baino gehiago dituzten erakundeetan.

Berdintasun-plana

10 erakundetik 7k inguruk gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin lotutako ekintzak garatzen dituzte, eta % 32,2k berdintasun-plana dute.

110. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BERDINTASUN PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Gehienbat, erakunde hauek dituzte berdintasun-plan formalizatuak: Gizarte Zerbitzuen arloko (% 46,3) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko (% 29,6) erakundeek; ordainpeko langileak dituztenek (bereziki, ordainpeko 11 langile baino gehiago dituztenek); eta 300.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituztenek. Ikus daitekeenez, zenbat eta handiagoa izan diru-sarrerak

bolumena eta erakundeko ordainpeko langileen kopurua, orduan eta handiagoa da berdintasun-plana duten erakundeen ehunekoa.

Kode etikoa

Erakundeen % 30ek baino gehiagok etikoa dute, eta entitateen beste % 37,7k kode horrekin zerikusia duten ekintzak garatzen dituzte, idatziz jasotako koderik izan ez arren.

111. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KODE ETIKOA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Enplegu arloko (% 52,8) eta Hezkuntza eta Aisialdiaren arloko (% 42,1) erakundeen artean da handiena kode etiko formalizatua duten erakundeen ehunekoa.

Zenbat eta handiagoa izan erakundeen diru-sarreraren bolumena, orduan eta handiagoa da kode etikoa duten erakundeen ehunekoa; baina bereziki handia da 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeen artean (% 63,1ek dute). Ordainpeko langileak dituzten erakundeen artean ere handiagoa da kode etikoa duten erakundeen ehunekoa. Gainera, zenbat eta ordainpeko langile gehiago izan, orduan eta handiagoa da kode etikoa duten erakundeen ehunekoa ere; ordainpeko 100 langile baino gehiago dituzten erakundeen % 78,7k dute.

Laneko jazarpenaren eta jazarpen sexualaren aurkako protokoloa

Erakundeen % 29,1ek dute laneko jazarpenaren eta jazarpen sexualaren aurkako protokoloa, eta % 22,7k horrekin lotutako ekintzak egiten dituzte, idatziz jasotako protokolorik ez izan arren.

112. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANEKO JAZARPENAREN ETA JAZARPEN SEXUALAREN AURKAKO PROTOKOLOA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Batez ere, erakunde hauek dira plan mota hauek dituztenak: Enplegu arlokoak (% 54,3), Gizarte Zerbitzuen arlokoak (% 39,7) eta Beste arlo batzuetakoak (% 24,4); lantaldeetan ordainpeko 11 langile edo gehiago dituztenak; eta 300.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituztenak. Ikus daitekeenez, zenbat eta handiagoa izan diru-sarreraren bolumena eta erakundeko ordainpeko langileen kopurua, orduan eta handiagoa da laneko jazarpenaren eta jazarpen sexualaren aurkako protokoloa duten erakundeen ehunekoa. Nabarmentzekoa da laneko jazarpenaren eta jazarpen sexualaren aurkako protokoloa duten erakundeen % 77k gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-plana dutela.

Boluntarioak kudeatzeko plana

4 erakundetik 1ek garatu du boluntarioak kudeatzeko plana, eta % 27,5ek horrekin lotutako ekintzak egiten dituzte, idatziz jasota izan ez arren.

113. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIOAK KUDEATZEKO PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Gizarte Zerbitzuen arloko (% 42) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko (% 35,5) erakundeen artean da handiena boluntarioak kudeatzeko plana duten erakundeen proportzioa. 300.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeen eta lantaldeetan ordainpeko langileak dituzten erakundeen artean ere altuagoak dira ehunekoak.

Ikus daitekeenez, zenbat eta handiagoa izan diru-sarreraren bolumena eta erakundeko ordainpeko langileen eta boluntarioen kopurua, orduan eta handiagoa da boluntarioak kudeatzeko plana duten erakundeen ehunekoak.

Prestakuntza-plana

10 erakundetik 3k egiten dituzte prestakuntza-plan batekin lotutako ekintzak, eta % 25,4k idatziz jasota dute plana.

114. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, PRESTAKUNTZA PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Enplegu arloko (% 51,8) eta Gizarte Zerbitzuen arloko (% 41,8) erakundeen artean handiagoa da prestakuntza-plan formalizatua duten erakundeen proportzioa, baita 300.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituzten erakundeen artean ere. Ordainpeko langileak dituzten erakundeen artean ere handiagoa da prestakuntza-plana dutenen proportzioa; hain zuzen ere, ordainpeko 50 langile baino gehiago dituzten 10 erakundetik 7k, gutxienez, prestakuntza-plana dute.

Kudeaketa-plana

4 erakundetik 1ek baino gehiagok dute kudeaketa-plan (operatiboa) formalizatua, eta beste hainbestek lotutako ekintzak garatzen dituzte.

115. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KUDEAKETA PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Enplegu arloko erakundeek % 63,2k, Beste arlo batzuetakoek % 49,6k eta Gizarte Zerbitzuen arlokoek % 38,3k dute kudeaketa-plan formalizatua.

300.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituzten erakundeak eta ordainpeko langileak dituzten erakundeak ere batezbestekotik gora daude. Hala, aldagai horien eta kudeaketa-plan bat izatearen artean lotura argia dagoela ikus daiteke, plan estrategikoekin gertatzen den moduan.

Komunikazio-plana

% 20k dute komunikazio-plana, eta % 34k horrekin lotutako ekintzak egiten dituzte.

116. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, KOMUNIKAZIO PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Batez ere, hauek dute komunikazio-plana: Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko erakundeek (% 29,4) Enplegu arlokoek (% 27,1) eta Gizarte Zerbitzuen arlokoek (% 23,7); 1.500.000 €-ko diru-sarreraren bolumena baino handiagoa dutenek; eta ordainpeko 50 langile edo gehiago dituztenek. Zenbat eta handiagoa izan diru-sarreraren bolumena eta ordainpeko langileen kopurua, orduan eta handiagoa da komunikazio-plana duten erakundeen ehunekoa.

Diskriminaziorik ezerako protokoloa

Erakundeek % 17,7k dute diskriminaziorik ezerako protokoloa edo antzekoa; 3 erakundetik 1ek baino gehiagok ez dute idatziz jaso, baina horrekin lotutako ekintzak garatzen dituzte.

117. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, DISKRIMINAZIOARIK EZERAKO PROTOKOLOA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Beste arlo batzuetako erakundeek (% 31,4), Enplegu arlokoek (% 27,4) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arlokoek (% 26,7) dute, batez ere, diskriminaziorik ezerako protokoloa. 300.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituzten erakundeek eta haien lantaldeetan ordainpeko 11 langile edo gehiago dituzten erakundeek ere neurri handiagotan dituzte diskriminaziorik ezerako protokoloak. Ikus daitekeenez, zenbat eta handiagoa izan diru-sarreraren bolumena eta erakundeko ordainpeko langileen kopurua, orduan eta handiagoa da protokolo hori duten erakundeen ehunekoa.

Auditorietza edo balantze soziala

Erakundeek % 17,7k dute Auditoria edo balantze soziala, eta % 7,5ek horrekin lotutako ekintzak garatzen dituzte. Kontrara, 4 erakundetik 3k ez dute horrekin lotutako ekintzarik egiten.

118. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AUDITORIA EDO BALANTZE SOZIALA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Auditoria edo balantze soziala Enpleguaren arloan (% 54,1) egiten da batik bat, eta gainera, 1.500.000 €-tik gorako diru-sarreraren bolumena duten erakundeetan (% 50,1) eta lantaldean soldatapeko 51 langile edo gehiago dituztenetan (% 49,8).

Erasoen aurkako protokoloa

Erakundeek % 16,5ek dute erasoen aurkako protokoloa, eta % 21,1ek horrekin lotutako ekintzak garatzen dituzte. 10 erakundetik 6k ez dute horrelako protokolorik, eta ez dute horrekin lotutako ekintzarik garatzen.

119. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ERASOEN AURKAKO PROTOKOLOA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Enplegu arloan (% 31), Gizarte Zerbitzuen arloan (% 31,7) eta Beste arlo batzuetan (% 24,7) dago erasoen aurkako protokoloa duten erakundeek proportzio handiena. 300.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituzten erakundeek eta haien lantaldeetan ordainpeko 11 langile edo gehiago dituzten erakundeek ere neurri handiagoan dituzte erasoen aurkako protokoloak.

Kalitate-sistemak

Kalitate-sistemek presentzia txikiagoa dute erakundeetan: % 13,9k dute formalizatutako kalitate-sistema bat, eta % 18,5ek lotutako ekintzak egiten dituzte. 3 erakundetik ia 2k ez dute kalitate-sistemekin lotutako ezer egiten.

120. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KALITATE SISTEMA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Enplegu arloko (% 52,5) eta Gizarte Zerbitzuetako (% 35,5) erakundeek artean, 300.001 €-ko diru-sarreraren bolumena edo handiagoa dutenen artean eta 11 ordainpeko langile edo gehiago dituztenen artean da handiena kalitate-sistema formalizatua duten erakundeek proportzioa.

Kalitate-sistemarik ez duten eta lotutako ekintzarik garatzen ez duten erakundeek proportzioa, berriz, hauen artean da handiena: erakunde txiki eta ertainak, eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arlokoak (% 80,6) eta arlo Sozial-transbertsalekoak (% 78,6) eta Osasun arlokoak (% 73).

Gardentasun-plana

Erakundeek % 31k garatzen dituzte gardentasunarekin lotutako ekintzak, eta % 11,7k dute plana.

121. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, GARDENTASUN PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Ehunekoak handiagoak dira Enplegu arloan (% 30,3) eta Beste arlo batzuetan (% 19,5), 300.001 €-tik gorako diru-sarrerak dituzten erakundeetan eta ordainpeko langileak dituztenetan.

Euskara Plana

4 erakundetik 1ek baino gehiagok egiten dituzte euskararekin lotutako ekintzak, eta % 10,2k dute euskara-plan formalizatua.

122. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, EUSKARA PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Euskara-planek presentzia handiagoa dute Gipuzkoako erakundeetan (% 17,9), Enplegu arloko (% 30,7), Hezkuntza eta Aisialdi arloko (% 19,1) eta Beste arlo batzuetako (% 18,2) erakundeetan, baita 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua eta ordainpeko 51 langile edo gehiago dituzten erakundeetan ere. Aldiz, plan horiek presentzia txikiagoa dute Arabako eta Bizkaiko erakundeetan (% 2,9 eta % 8,4, hurrenez hurren) Zenbat eta gehiago izan ordainpeko langileak, orduan eta handiagoa da euskara-plana duten erakundeen ehunekoak.

Ingurumen arloko kudeaketa-plana

Erakundeen % 8,2k bakarrik dute plan formalizatua, baina % 20,7k egiten dituzte horrekin lotutako ekintzak.

123. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, INGURUMEN ARLOKO KUDEAKETA PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Gehienbat, Garapenerako Nazioarteko lankidetzako eta Enplegu arloko erakundeek (% 14,2) dituzte ingurumen arloko kudeaketa-planak. Era berean, 300.000 €-tik gorako aurrekontua eta ordainpeko 11 langile edo gehiago dituzten erakundeen artean handiagoa da ingurumen arloko kudeaketa-plana duten erakundeen proportzioa.

Arrisku penalak betetzeko planak

% 5,9k bakarrik dute plan hori, baina beste % 11,3k egiten dituzte horrekin lotutako ekintzak.

124. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, ARRISU PENALAK BETETZEKO PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Gizarte Zerbitzuen arloan (% 15,1) handiagoa da arrisku penalak betetzeko plana duten erakundearen proportzioa, baita 1.500.000 €-ko diru-sarreraren bolumena baino handiagoa duten erakundearen eta ordainpeko 51 langile edo gehiago dituzten erakundearen artean ere.

Estrategia digitalaren gaineko planak

Oso erakunde gutxi ezartzen dituzte estrategia digitalaren gaineko planak modu formalean (% 5,3k), eta 5 erakundetik 1ek (% 20,8) baino ez ditu garatzen horrekin lotutako ekintzak.

125. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ESTRATEGIA DIGITALAREN GAINEKO PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Ehunekoa handiagoa da batez ere Beste batzuk arloan (% 19,5) eta bolumen ekonomikoari, zein soldatapeko langileen kopuruari dagokionez handienak diren erakundeetan.

8.2. ZER BESTE KUDEAKETA PRAKTIKA BARNERATU DITUZTE? KUDEAKETA PRAKTIKA HORIEK BAT DATOZ HAIEN MISIOAREKIN ETA BALIOEKIN?

Kalitate-ziurtagiria

Erakundearen % 14,4k kalitate-ziurtagiriren bat dute. Ehuneko hori % 34,6koa da 300.000 € eta 1.500.000 € arteko diru-sarrerak dituzten erakundearen artean, eta % 67,1ekoa 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua dutenen artean. Halaber, kalitate-ziurtagiriak hedatuago daude Enplegu arloan (% 50,1) eta Gizarte Zerbitzuen arloan (% 34,6).

126. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KALITATE ZIURTAGIRIRIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Soldatarik altuenaren eta baxuenaren arteko aldea

Erakundearen % 46,2an, soldatarik baxuenaren eta altuenaren arteko aldea, gehienez, heren batekoa izaten da; hau da, erakundearen soldata txikiena duenak soldata handiena duenak baino % 33 gutxiago kobratzen du⁶³.

⁶³ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 12,5eko errore-marjina baitu.

127. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, SOLDATARIK BAXUENAREN ETA ALTUENAREN ARTEKO ALDEAREN ARABERA. (%)



Distantzia hori gehienez ere heren batekoa da arlo Sozial-transbertsaleko erakundeen % 78tan eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako erakundeen % 50,6tan.

Erakunderik txikien kasuan, hau da, 60.000 €-tik beherako aurrekontua dutenen kasuan, distantzia hori gehienez ere heren batekoa den erakundeen proportzioa 10 erakundetik ia 9koa da, eta behera egiten du pixkanaka erakundeen diru-sarreraren bolumenak gora egin ahala (urtean 1.500.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituzten erakundeen % 29,9).

Euskararen erabilera

Erakundeen % 58,3tan, entitateko pertsonen erdiek baino gutxiagok erabiltzen dute euskara normalean⁶⁴. Erakundeen gainerako % 41,7an erdiak baino gehiagok erabiltzen dute euskara normalean. Nabarmentzekoa da erakundeen % 14,5ek adierazi dutela entitateko pertsona bakar batek ere ez duela euskara erabiltzen normalean, eta erakundeen % 5,8tan pertsona guztiek erabiltzen dutela euskara normalean.

128. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, NORMALEAN EUSKARA ERABILTZEN DUTEN ERAKUNDEKO PERTSONEN EHUNekoAREN ARABERA. (%)



Euskararen ohiko erabilera handiagoa da Gipuzkoako erakundeetan: horietako % 69an, erakundeko pertsonen erdiek baino gehiagok erabiltzen dute euskara normalean. Ehuneko hori % 30ekoa da Bizkaian, eta % 31,7koa Araban.

Halaber, Hezkuntza eta Aisialdiko erakundeen % 59,7an eta Beste arlo batzuetako erakundeen % 60,9an, lantaldeko pertsonen erdiek baino gehiagok hitz egiten dute normalean euskaraz. Gainera, Euskara Plana duten erakundeen artean handiagoa da euskararen erabilera ez dutenen artean baino. Zehazki, Euskara Plana duten erakundeetan, 4 pertsonatik 3k normalean erabiltzen du euskara.

⁶⁴ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoak kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 6,98ko errore-marjina baitu.

Interes-taldeek parte-hartzea jardueren plangintzan eta/edo ebaluazioan

Sektorearen berezko ezaugarrietako bat da boluntarioek, ordainpeko langileak, erabiltzaileak, etab. erakundearen bizitzan eta jardueran parte hartzea, eta lotuta dago sektorearen nortasunaren bereizgarri batekin: sozialki proposatutakoa barruan bizitzea.

Horrekin lotuta, erakundeek % 95,5ek ordainpeko langileak inplikatzeko dituzte jardueren plangintzan eta/edo ebaluazioan, % 86,9k gobernu-organoetako kideak inplikatzeko dituzte, eta % 70,4k boluntarioak.

Erabiltzaileak (% 68) eta bazkideak eta/edo dohaintza-emaileak (% 56,6) inplikatzeko dituzten erakundeek ehunekoa baxuagoa da, baina % 50etik gorakoa. Erabiltzaileen familiartekoa inplikatzeko dituztenak, berriz, % 39,6 dira⁶⁵.

129. GRAFIKOA. JARDUERAK PLANIFIKATZEKO ETA/EDO EBALUATZEKO INTERES TALDEAK AINTZAT HARTZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%)



Datuak modu sakonagoan aztertuta, honakoak ikus daitezke:

- Boluntarioek jardueren plangintzan edo ebaluazioan parte hartzen duten erakundeek ehunekoa % 86,5koa da Hezkuntzan eta Aisialdian, % 80,1koa Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan eta % 77,7koa erakunde Sozial-transbertsalean. Halaber, hala da boluntarioak hiru laurden baino gehiago diren erakundeek % 80,2an. Era berean, 60.000 €-tik beherako aurrekontua duten erakundeetan ere batezbestekoa baino altuagoa da boluntarioen parte-hartzea.
- Ordainpeko langileak dituzten erakundeetan, langile horiek jardueren plangintzan edo ebaluazioan parte hartzen dute Enplegu arloko, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko eta Beste arlo batzuetako erakundeek % 100ean, eta Gizarte Zerbitzuetako erakundeek % 99an. Halaber, ordainpeko langileen parte-hartzea % 100 ingurukoa da 60.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeetan.
- Erabiltzaileen parte-hartzea nabarmen handiagoa da Gizarte Zerbitzuetan (% 67,6), Hezkuntza eta Aisialdi arloan (% 65,6) eta Osasun arloan (% 68,8), baita 60.000 € baino gehiagoko aurrekontua duten erakundeetan eta lantaldeko kide gehienak ordainpekoak diren erakundeetan ere.

⁶⁵ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 5,51ko errore-marjina baitu.


- Erabiltzaileen familiartekoek jardueren plangintzan eta ebaluazioan parte hartzen duten erakundeen ehunekoa % 55ekoa da Osasun arloan, % 46,8koa Aisialdiaren arloan eta % 40ekoa Gizarte Zerbitzuetan.
- Bazkideek eta/edo emailek jardueren plangintzan edo ebaluazioan parte hartzen dute Osasun arloko erakundeen % 63an eta arlo sozial-transbertsalekoen % 61,5ean.
- Gobernu-organoetako kideek plangintzan hartzen dute parte Enpleguaren eta Gizarte Zerbitzuen arloetako erakundeen % 85ean baino gehiagotan.

Interes-taldeek asebetetze mailaren ebaluazioa

Parte hartzeko aukera emateaz gain, ohikoa da erakundek interes-taldeek asebetetze maila ebaluatzeko sistemak izatea.

Ordainpeko langileak dituzten erakundeen % 56,2k dute interes-taldeek asebetetze maila ebaluatzeko sistemaren bat. % 58,6k dute boluntarioen asebetetze maila ebaluatzeko sistema bat, % 43,8k gobernu-organoetako kideek asebetetze maila ebaluatzekoa eta % 74,8k erabiltzaileena. Bazkideen eta/edo dohaintza-emaileen eta erabiltzaileen familien asebetetze maila ebaluatzen duten erakundeen proportzioa zertxobait txikiagoa da (10etik 4k inguruk)⁶⁶.

130. GRAFIKOA. INTERES TALDE BAKOITZAREN ASEBETETZE MAILA EBALUATZEKO SISTEMA BAT DUTEN ERAKUNDEAK. (%)



Datuak modu sakonagoan aztertuta, honakoak nabarmen daitezke:

- Boluntarioen asebetetze maila ebaluatzen duten erakundeen ehunekoa % 69,6koa da Gizarte Zerbitzuen arloan eta % 58,6koa Hezkuntza eta Aisialdi arloan.
- Ordainpeko langileak dituzten erakundeen artean, haien asebetetze maila ebaluatzen dute Enplegu arloko erakundeen % 76,2k, Hezkuntza eta Aisialdi arloko % 70,7k eta Gizarte Zerbitzuen arloko % 63,5ek.
- Erabiltzaileen familien asebetetze maila ebaluatzen duten erakundeen ehunekoa % 77,5ekoa da Hezkuntza eta Aisialdi arloan; % 67,4koa Gizarte Zerbitzuen arloan, % 62,7koa Osasun arloan.
- Erabiltzaileen asebetetze mailaren ebaluazioa nabarmen handiagoa da Aisialdiaren arloan (% 53,8) Gizarte Zerbitzuen arloan (% 49,8) eta Osasun arloan (% 48).

⁶⁶ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 5,77ko errore-marjina baitu.

- Bazkideen eta/edo emaileen asebetetze mailaren ebaluazioa egiten dute arlo Sozial-transbertsaleko erakundeek % 53,9k eta Gizarte Zerbitzuetako erakundeek % 34,5ek.
- Gobernu-organoetako kideek plangintzan duten asebetetze maila ebaluatzen duten erakundeek ehunekoa handiagoa da Beste arlo batzuetan (% 66,7), Hezkuntza eta Aisialdi arloan (% 46,9), eta Gizarte Zerbitzuetan (% 42).

Boluntarioek eta ordainpeko langileek erabakiak hartzen diren espazioetan duten parte-hartzea

Erakundeek erabakiak hartzen diren espazioetan boluntarioek duten parte-hartzeari dagokionez, erakundeek % 85,2an boluntarioek parte hartzen dute erabakiak hartzen diren erakundeko organo edo batzorderen batean.

Zehazki, erakundeek % 44,9an boluntarioen erdiek baino gutxiagok parte hartzen dute organo edo batzorde horietan, % 16,3an boluntarioen erdiek edo gehiagok parte hartzen dute (baina ez guztiek) eta, % 23,9an, guztiek⁶⁷.

Organo edo batzordeetan boluntario guztiek parte hartzen duten erakundeek ehunekoa % 37,2koa da Hezkuntza eta Aisialdi arloan; % 34koa arlo Sozial-transbertsanean eta 12.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituzten erakundeek artean, berriz, % 36,7koa.

131. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ERABAKIAK HARTZEN DITUZTEN ERAKUNDEKO ORGANOETAN EDO BATZORDEETAN BOLUNTARIOEK ETA SOLDATAPEKO LANGILEEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



Erabakiak hartzen diren espazioetan ordainpeko langileek duten parte-hartzeari dagokionez, ordainpeko langileak dituzten erakundeek % 28,3an ordainpeko langileen erdiek edo gehiagok parte hartzen dute erabakiak hartzen dituen organo edo batzorderen batean.

Erakundeek % 26,6an ordainpeko langileen erdiek baino gutxiagok parte hartzen dute organo edo batzorde horietan. Erakundeek % 10,5ean langileen erdiek edo gehiagok (baina ez ordainpeko langile guztiek), eta kasuen % 27,8an, langile guztiek⁶⁸.

⁶⁷ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 7,16ko errore-marjina baitu.

⁶⁸ Datuak tentuz hartu behar dira. Izan ere, lantaldeetan ordainpeko langileak dituzten erakundeak bakarrik hartu ditugu kontuan, eta, gainera, galdera honi emandako erantzun kopurua oso baxua izan da. Hori dela eta, ehunekoa kalkulatzeko erabilitako laginaren errore-marjina +/- % 8,27koa da.

Ehuneko hori % 60,9koa da arlo Sozial-transbertsalean, % 62,4koa Beste arlo batzuetan; % 65,9koa ordainpeko 3 langile baino gutxiago dituzten erakundeetan, eta % 70ekoa da 12.001 € eta 60.000 € arteko diru-sarrerak dituzten erakundeetan.

Sentsibilizazio-kanpainak

EHSSko erakundeen koherentziari eta nortasunari dagokienez, nabarmentzekoa da erakundeen % 63,8k sentsibilizatzeko, baliabideak eskuratzeko, salatzeko, sinadurak biltzeko edo antzeko helbururen baterako kanpainaren bat egin dutela eta horietakoren batean parte hartu dutela azken urtean.

Horietatik % 81,5ek beste entitate batzuekin elkarlanean egin dute. Horrek, gainera, agerian uzten du erakundeek haien artean duten harremana eta elkarlana.

132. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN URTEAN KANPAINAREN BAT EGIN DUTEN EDO EZ ETA, HALA BADA, ELKARLANEAN EGIN DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Gehienbat, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko erakundeek egin dute edo parte hartu dute kanpainaren batean azken urtean (% 80,9), eta, jarraian, Osasun arloko erakundeek (% 79,3) eta Gizarte Zerbitzuetaoek (% 68,6).

Desgaitasuna duten pertsonak artatzen dituzten erakundeak (% 77,3) ere nabarmentzen dira, gainerako kontingentziak artatzen dituztenen aurretik. Era berean, ikus daitekeenez, azken urtean kanpaina bat egin duten edo kanpaina batean parte hartu duten erakundeen ehunekoa % 81,1ekoa da sare baten barruan dauden erakundeen artean. Aldiz, soilik erantzukizun publikoko zerbitzuen zorroan dauden zerbitzuak hornitzen dituzten erakundeek gainerako erakundeek baino parte-hartze indize askoz ere txikiagoa dute (% 37,1).

Bestetik, kanpaina beste entitate batzuekin elkarlanean egin duten erakundeen ehunekoa handiagoa da Hezkuntza eta Aisialdi arloan (% 92,7), arlo Sozial-transbertsalean (% 87,9) eta Beste arlo batzuetan (% 89,4), baita sare baten barruan dauden erakundeen artean ere (% 86,9).

Misioaren betetze mailaren ebaluazioa

Azkenik, nabarmentzekoa da erakundeen % 82,5ek periodikoki ebaluatzen dutela haien misioaren betetze maila⁶⁹. Ariketa horrek aukera ematen die erakundeei haien burua "aztertze", eta misioarekiko duten koherentzia egiaztatze.

133. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, MISIOAREN BETETZE MAILA EBALUATZEN DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



⁶⁹ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 6,16ko errore-marjina baitu.

Misioaren betetze maila periodikoki ebaluatzen duten erakundeek ehunekoa batezbestekoa baino apur bat baxuagoa da arlo Sozial-transbertsalean (% 78,8) eta Osasun arloan (% 80,2), baita 12.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituzten erakundeetan ere (% 72,8).

2030 Agendaren ezarpen-maila

Azkenik, 10 erakundetik ia 6 behintzat hasi dira dagoeneko beren jardueretan eta erakundeetan 2030 Agenda ezartzeari buruzko gogoeta egiten. Erakundeek % 14,9k gogoeta-prozesu bat hasi du, beste % 21,2k 2030 Agendarekin lotutako ekintzak eta jarduerak egin ditu eta beste % 21,9k bere jardura eta estrategia Garapen Jasangarriko Helburuekin eta 2030 Agendarekin lerrokatu du dagoeneko.

134. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, ERAKUNDEAN 2030 AGENDA TXERTATU DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



EHSS osoan erakundeek % 42,1 oraindik ez da hasi 2030 Agenda txertatzeko gogoeta egiten, baina ohikoagoa da erakunde hauetan:

- Osasunaren arloan (% 58,3) eta arlo Sozial-transbertsalean (% 53) lan egiten dutenen kasuan;
- Baliabide ekonomiko gutxiago dituztenen kasuan (12.000 €-tik beherako aurrekontua duten erakundeek % 68,7);
- Gipuzkoan (% 53,7).
- Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan (% 63,5) dauden pertsonak eta desgaitasuna duten pertsonak (% 57,3) artatzen dituzten erakundeetan.
- Eta bigarren mailako erakunde edo egitasmoren bateko kide ez diren erakundeetan (% 60,5).

8.3. ZER KOMUNIKAZIO MEKANISMO ERABILTZEN DITUZTE? ZER INFORMAZIO HELARAZTEN DIETE INTERES TALDEEI?

8.3.1. Komunikazio-tresnak

Komunikaziorako mekanismo ugari erabiltzen dituzte erakundeek. Horien artean, nabarmentzekoa da tresna teknologiko/digitalen presentzia.

Posta elektronikoa, sare sozialak eta webgunea dira gehien erabiltzen direnak. Beste aukera klasikoago batzuk askoz gutxiago erabiltzen dira, hala nola irratia, prentsa edo telebista.

Komunikazio-tresna digitalak

Erakundeek gehien erabiltzen duten komunikazio-tresna **posta elektronikoa** da: % 78k esan dute maiz erabiltzen dutela, eta, % 17,9k, nahiko maiz. Nahiko edo oso maiz erabiltzen duten erakundeen ehunekoa oso zabala da arlo guztietan, eta % 100ekoa Enplegu arloan, Hezkuntza eta Aisialdiaren arloan eta Beste arlo batzuetan. Dena den, erakundeek % 1 inguruk ez dute posta elektronikorik.

135. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, POSTA ELEKTRONIKOAREN ERABILERAREN MAIZTASUNAREN ARABERA. (%)

Posta elektronikoa



Gehien erabiltzen den bigarren tresna **sare sozialak** dira, hala nola Twitter, Facebook edo Youtube: % 43,2k oso maiz erabiltzen dituzte eta % 30,3k nahiko maiz. Hortaz, 10etik 7k baino gehiagok maiz erabiltzen dituzte sare sozialak. % 11,9k ez dute profilik sare sozialetan.

Sare sozialak nahiko edo oso maiz erabiltzen dituzten erakundeek ehunekoa arlo hauetan da handiena: Beste batzuk (% 100), Enplegua (% 85,7), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak (% 83,2) eta Hezkuntza eta Aisialdia (% 78,4). Nabarmentzekoa da arlo Sozial-transbertsaleko erakundeek % 19k ez dutela sare sozialik.

60.001 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeek maiztasun handiagoz erabiltzen dituzte sare sozialak. Halaber, estrategia digitalaren gaineko plan formalizatua duten erakundeek % 92,9k nahiko edo oso maiz erabiltzen dituzte sare sozialak.

136. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, SARE SOZIALEN ERABILERAREN MAIZTASUNAREN ARABERA. (%)

Sare sozialak: facebook, twitter, youtube, blogak



Erakundeek % 35,3k oso maiz erabiltzen dute haien **webgune** korporatiboa, eta % 24,3k nahiko maiz. Dena den, erakundeek % 19,7k oraindik ere ez dute webgunerik.

Webgunea nahiko edo oso maiz erabiltzen duten erakundeek kopurua batezbestekoa baino askoz handiagoa da arlo hauetan: Beste batzuk (% 86,7), Enplegua (% 72,4) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak (% 70,7).

Aitzitik, nabarmentzekoa da arlo Sozial-transbertsaleko erakundeek % 34,7k ez dutela webgunerik, eta Hezkuntza eta Aisialdi arlokoen % 23,1ek ere ez.


60.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeek eta estrategia digitalaren gaineko plan formalizatua dutenek maizago erabiltzen dute haien webgunea.

137. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, WEBGUNEAREN ERABILERAREN MAIZTASUNAREN ARABERA. (%)



Gutxien erabiltzen den tresnetako bat **intraneta** da. Erakundeen erdiek baino gehiagok ez dute intranetik, eta 5etik 1ek baino ez du erabiltzen oso edo nahiko maiz. Intraneta gehiago erabiltzen dute Gizarte Zerbitzuetan (% 35,6), Enpleguan (% 32,6) eta Besteetan (% 32,2).

138. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, INTRANETAREN ERABILERAREN MAIZTASUNAREN ARABERA. (%)



Erakundeen % 37,8k oso edo nahiko maiz erabiltzen dituzten **beste mekanismo batzuen** artean, berehalako mezularitza-tresnak (Whatsapp eta Telegram), beste aplikazio batzuk eta hodeiko biltegitratzea (Dropbox) nabarmentzen dira.

Orokorrean, badirudi ordainpeko langileen presentzia eta diru-sarreraren bolumena lotuta daudela komunikazio-mekanismo digitalak nahiko edo oso maiz erabiltzearekin. Tresna guztiak nahiko edo oso maiz erabiltzen dituzten erakundeen ehunekoa handiagoa da ordainpeko langileak dituzten erakundeen artean, boluntarioak baino ez dituzten erakundeen artean baino.

Diru-sarreraren bolumenari dagokionez, zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da komunikazio-mekanismo digitalak nahiko edo oso maiz erabiltzen dituzten erakundeen ehunekoa. Sare sozialak, ordea, ez datoz bat eskema horrekin. Badirudi sare sozialak nahiko edo oso maiz erabiltzeko orduan diru-sarreraren bolumena ez dela hain erabakigarria.

126. TAULA. KOMUNIKAZIO TRESNA DIGITALAK NAHIKO EDO OSO MAIZ ERABILTZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK, ORDAINPEKO LANGILEEN PRESENTZIAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)


	Soldatapeko langileak ditu	Ez du soldatapeko langilerik	12.000 € edo gutxiago	12.001-60.000 €	60.001-300.000 €	300.001-1.500.000 €	1.500.000 € baino gehiago	GUZTIRA
Posta elektronikoa	% 99,4	% 88,6	% 84,6	% 96,9	% 99,4	% 100,0	% 100,0	% 95,8
Sare sozialak	% 81,1	% 61,6	% 64,8	% 65,8	% 78,5	% 82,5	% 82,2	% 73,5
Webgunea	% 74,3	% 32,5	% 26,9	% 49,4	% 66,7	% 78,2	% 92,6	% 59,6
Intraneta	% 36,1	% 6,9	% 16,3	% 15,4	% 24,4	% 36,9	% 55,9	% 26,7

Beste komunikazio-tresna batzuk

Komunikazio-tresna klasikoak gutxiago erabiltzen dira digitalak baino.

Hala, erakundeen % 35,6k nahiko edo oso maiz erabiltzen dituzte **buletinak edo aldizkariak**. Erabileraren ehunekoa apur bat handiagoa da Aisialdiaren arloan (% 21,9) eta erakunderik txikienetan.

139. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BULETINEN EDO ALDIZKARIEN ERABILERAREN MAIZTASUNAREN ARABERA. (%)



Erakundeek % 24,3k nahiko edo oso maiz erabiltzen dituzte **komunikabide tradizionalak (irratia, prentsa edo telebista)**. Arloka, arlo Sozial-transbertsalean (% 31,6) eta Osasun arloan (% 28,6) batezbestekoa baino handiagoa da nahiko edo oso maiz erabiltzen dutenen ehunekoa.

140. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KOMUNIKABIDE TRADIZIONALEN ERABILERAREN MAIZTASUNAREN ARABERA.



Nabarmentzekoa da nahiko edo oso maiz erabiltzen diren **beste** mekanismo batzuen artean telefono finkoa eta posta arrunta aipatu dituztela.

Orokorrean, komunikazio-tresna digitalen kasuan bezala, badirudi ordainpeko langileen presentzia eta diru-sarreraren bolumena lotuta daudela komunikazio-mekanismo ezberdinak nahiko edo oso maiz erabiltzearekin.

Buletinak, irratia, prentsa eta telebista nahiko edo oso maiz erabiltzen dituzten erakundeek ehunekoa handiagoa da ordainpeko langileak dituzten erakundeek artean, boluntarioak baino ez dituzten erakundeek artean baino. Diru-sarreraren bolumenari dagokionez, zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da tresna horiek nahiko edo oso maiz erabiltzen dituzten erakundeek ehunekoa.

127. TAULA. KOMUNIKAZIO MEKANISMO EZBERDINAK NAHIKO EDO OSO MAIZ ERABILTZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK, ORDAINPEKO LANGILEEN PRESENTZIAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	Soldatapeko langileak ditu	Ez du soldatapeko langilerik	12.000 € edo gutxiago	12.001-60.000 €	60.001-300.000 €	300.001-1.500.000 €	1.500.000 € baino gehiago	GUZTIRA
Buletinak	% 42,3	% 19,5	% 15,2	% 27,9	% 47,9	% 37,0	% 51,4	% 35,6
Komunikabide tradizionalak (irratia, prentsa, telebista)	% 27,4	% 17,3	% 11,5	% 24,4	% 33,7	% 17,7	% 30,8	% 24,3


8.3.2. Intereseko taldeentzako informazioa

Erakundeek normalean edo modu erregularrean interes-taldee (barneko langileak, bazkideak, emailak...) bidaltzen dieten informazioari dagokionez, 10 erakundetatik 9k inguruk entitatearen jardueren urteko memoria eta kontuen gaineko informazioa bidaltzen dizkiete normalean edo modu erregularrean.

Bestetik, 10etik 8k, gutxi gorabehera, entitatearen misioari eta balioei buruzko informazioa eta gobernu-organoen osaerari buruzko informazioa bidaltzen diete haien interes-taldee. Era berean, erakundeek ehuneko esanguratsu batek jakinarazten die interes-taldee helburuak

zenbateraino bete dituzten eta jarduerak zer inpaktu izan duten (% 66,9k eta % 61,2k, hurrenez hurren). Ez da hain ohikoa entitateko pertsonen buruzko informazioa helaraztea (% 45,3).

141. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, INTERES TALDEEI ASKOTARIKO INFORMAZIOA HELARAZI OHI DIETEN KONTUAN HARTUTA. (%)



Enplegu, Gizarte Zerbitzu eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko erakundeek, batezbestekoak baino neurri handiagoan bidaltzen diete askotariko informazioa haien interes taldeei. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko erakundeek entitateko pertsonen buruzko adierazleak bidaltzen dizkiete.

128. TAULA. INTERES TALDEEI NORMALEAN ASKOTARIKO INFORMAZIOA BIDALTZEN DIETEN ERAKUNDEAK, ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren	Sozial-transbertsala	Beste batzuk ⁷⁰
Jardueren urteko memoria	% 95,2	% 100,0	% 96,8	% 76,7	% 91,3	% 95,1	% 92,6
Kontuen egoera	% 94,0	% 94,6	% 92,2	% 73,6	% 84,9	% 93,1	% 100,0
Entitatearen misioa eta balioak	% 84,4	% 91,9	% 83,7	% 91,0	% 80,0	% 74,8	% 92,6
Gobernu-organoen osaera	% 89,4	% 62,3	% 83,0	% 75,5	% 81,2	% 79,4	% 85,2
Entitateko pertsonen adierazleak	% 40,4	% 57,7	% 49,3	% 40,5	% 31,9	% 52,3	% 41,4
Helburuen betetze maila	% 67,3	% 87,7	% 66,9	% 53,5	% 77,5	% 66,7	% 100,0
Jardueren inpaktua	% 67,7	% 77,8	% 65,5	% 44,2	% 81,8	% 54,3	% 92,3

300.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituzten erakundeak (handiak eta oso handiak) artean handiagoa normalean edo modu erregularrean haien interes-taldeei askotariko informazioa bidaltzen dieten erakundeak proportzioa.

60.001 eta 300.000 € arteko bolumena duten erakunde ertainek ere batezbestekotik gorako emaitzak eskuratzen dituzte, entitateko pertsonen buruzko adierazleak normalean edo modu erregularrean bidaltzearen kasuan izan ezik.

⁷⁰ "Beste batzuk" arloko erakundeak erantzun kopurua bereziki baxua izan da galdera honetan, hortaz, tentuz hartu behar dira datuak.

12.001 € eta 60.000 € arteko bolumena duten erakundeek ehunekoa batezbestekoa baino handiagoa da honakoak normalean edo modu erregularrean bidaltzeari dagokionez: jardueren urteko memoria, kontuen egoera eta gobernu-organoen osaera.

129. TAULA. INTERES TALDEEI NORMALEAN ASKOTARIKO INFORMAZIOA BIDALTZEN DIETEN ERAKUNDEAK, DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001-60.000 €	60.001-300.000 €	300.001-1.500.000 €	1.500.000 € baino gehiago
Jardueren urteko memoria	% 83,2	% 93,8	% 98,6	% 89,1	% 98,1
Kontuen egoera	% 76,4	% 87,8	% 94,9	% 95,5	% 96,0
Entitatearen misioa eta balioak	% 69,4	% 70,9	% 86,9	% 91,5	% 97,8
Gobernu-organoen osaera	% 67,3	% 81,3	% 87,9	% 78,7	% 83,5
Entitateko pertsonen adierazleak	% 34,0	% 40,1	% 53,0	% 44,9	% 65,7
Helburuen betetze maila	% 53,0	% 53,3	% 82,0	% 77,8	% 81,6
Jardueraren inpaktua	% 56,0	% 45,4	% 70,4	% 74,1	% 78,6

8.4. ERALDAKETA DIGITALEKO ZER PRAKTIKA ARI DIRA TXERTATZEN?

Eraldaketa digitala da EHSSko erakundeek aurrean duten erronketako bat.


Erronka horri aurre egiteko, tresna digitalen erabilera zehatzaz harago joan behar da, eta teknologia digitalarekin lotutako praktikak txertatu behar dira erakundeek barneko bizitzan eta jardueran.

8.4.1. Teknologia digitalen erabilera

Praktika batzuk haien eguneroko jardunean txertatzen joan dira erakundeak, batzuk oso modu hedatuan.⁷¹ Barneko (bazkideak, boluntarioak, ordainpeko langileak) eta/edo kanpoko (erabiltzaileak eta hartzaileak, administrazioak...) interes-taldeak informatzeko eta haiekin komunikatzeko teknologia digitala erabiltzea da gehien zabaldutako praktika (% 92,9k egiten dute).

Gainera, 10 erakundetik 6k adierazi dute barneko bizitza dinamizatzeko erabiltzen dutela teknologia digitala, komunikazioa eta parte-hartzea sustatzuz; eta zerbitzuen, jardueren, pertsonen, baliabideen eta abarren datuak kudeatzeko ere erabiltzen dute, baita askotariko baliabideak eskuratzeko ere. Erakundeek erdiak baino apur bat gehiagok teknologia digitala erabiltzen du esku-hartze prozesuak eta/edo kudeaketakoak kudeatzeko, eta intzidentzia-jarduerak, sentsibilizazioak eta abar egiteko. Hein txikiagoan, erakundeek % 5,8k teknologia digitala erabiltzen du hartzaileei produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko.

142. GRAFIKOA. HAINBAT HELBURUTARAKO TEKNOLOGIA DIGITALA ERABILTZEN DUTEN ERAKUNDEAK. (%)



Kanpoko eta/edo barneko interes-taldeak informatzeko eta haiekin komunikatzeko kasuan izan ezik, lotura dago teknologia digitalaren erabilaren eta erakundeen diru-sarreraren bolumenaren artean. Zenbat eta diru-sarrera handiagoak izan, orduan eta erakunde gehiagok erabiltzen dute teknologia digitala helburu horietarako.

8.4.2. Hartzaileengan zentratutako praktikak

Erakundeen hartzaileengan zentratutako praktikak ez daude aurrez azaldu ditugunak bezain zabaldua⁷².

Erakundeen % 40,7k egiten dituzte informazio- eta orientazio-ekintzak, alfabetatze-ekintzak edo hezkuntza digitala. Eta % 37,9k informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu librean eta dohainik erabiltzeko espazioak eskaintzen dizkiete hartzaileei.

10 erakundetik 3 inguruk erabilera soziala duten gailu mugikorretarako aplikazioak sustatzen ditu, gizartean eta politikan eragiteko ekintzak egiten ditu (aktibismo digitala), oinarri teknologikoko arreta garatzen du Interneten eta gailu mugikorretako aplikazioen bidez, eta ingurune digitaletako irisgarritasun unibertsala bermatzeko ekintzak egiten ditu.

Praktika hauen erabilera, berriz, ez dago hain hedatuta: domotikaren erabilera (erakundeen % 6,9k) eta *Big Data*ren, adimen artifizialaren edo *machine learning*aren arloko egitasmoak (% 4,6).

143. GRAFIKOA. HARTZAILEENGAN ZENTRATUTAKO PRAKTIKAK EGITEN DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%)



Hainbat helburutarako teknologia digitalak erabiltzearekin gertatzen den moduan, hartzaileengan zentratutako praktikek ere lotura dute diru-sarreraren bolumenarekin. Oro har, diru-sarreraren bolumena zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da praktika horietakoren batean parte hartzen duten erakundeen ehunekoa.

8.5. 2019-2023 ALDIKO AZTERKETA KONPARATIBOA

Oro har, aurrerapauso adierazgarria izan da 2019 eta 2023 artean erakundeen kudeaketa-tresnen garapenean.

⁷² Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 6,96ko errore-marjina baitu.

2023an erakundeen proportzio handiagoak ezarri ditu modu formalean emaitzak ebaluatzeko sistema bat edo laneko arriskuen plana, eta horrek agerian uzten du tresna horiek progresiboki txertatzen eta formalizatzen ari direla. Goranzko joera hori mantendu egin da azken 9 urtetan, erregistroak hasi zirenetik.

Halaber, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planak egin dituzten erakundeen kopurua ere handitu egin da apur bat. Gainera, berdintasunarekin lotutako ekintzak egiten dituzten erakundeen ehunekoa, plan formalizatua izan edo ez. Hala, misioarekin bat datorren elementu honen aldeko apustua agerian geratu da. Beste tresna formalizatu batzuek ere apur bat gora egin dute erakundeetan, hala nola plan estrategikoei edo kode etikoek.

Aitzitik, beste kudeaketa-tresna batzuek ez dute horrenbesteko garapenik izan, adibidez, kalitate-sistemak. Euskara-planarekin eta prestakuntza-planekin lotutako ekintzak egiten dituzten (formalizatuak izan ala ez) erakundeen ehunekoa ere apur bat murriztu da.

130. TAULA. KUDEAKETA ETA KOMUNIKAZIO ESTRATEGIEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (I)

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdintas una 2023- 2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Emaitzak ebaluatzeko sistema (formalizatua) ezarri duten erakundeen %	35,0	38,3	41,9	3,6
Laneko arriskuen plana (formalizatua) duten erakundeen %	32,8	35,8	40,0	4,2
Prestakuntza-plana (formalizatua) duten erakundeen %	26,2	33,7	25,4	-8,3
Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-planarekin (formalizatua) lotutako ekintzak egiten dituzten erakundeen %	21,8	28,9	32,2	3,3
Plan estrategikoa (formalizatua) duten erakundeen %	34,7	36,3	36,2	-0,1
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planarekin (formalizatua izan edo ez) lotutako ekintzak egiten dituzten erakundeen %	67,3	69,6	72,8	3,2
Kalitatea-sistema batekin (formalizatua izan edo ez) lotutako ekintzak egiten dituzten erakundeen %	38,0	31,2	32,4	1,2
Kode etikoa (formalizatua) duten erakundeen %	24,1	25,0	31,2	6,2
Euskara-planarekin (formalizatua izan edo ez) lotutako ekintzak egiten dituzten erakundeen %	40,0	42,5	39,2	-3,3

Funtzioen orekari dagokionez, oraindik ere oso handia da azken urtean sentsibilizazio-kanpaina batean, funtsak eskuratzeko kanpaina batean edo antzeko batean parte hartu duten erakundeen ehunekoa, nahiz eta ehunekoa nabarmen jaitsi, zehazki, 3 puntu.

Misioarekiko koherentziari dagokionez, erakundeek gizartean proposatzen dituzten apustuak barnean ere bultzatzeko ahaleginak agerian uzten dituzten beste elementu batzuk ere nabarmendu behar dira. Zentzu horretan, erakundeek haien interes-taldeak informatuta izateko eta plangintzan edo ebaluazioan inplikatzeko ahalegina egin dutela ikusten da. Hain zuzen ere, gora egin du jardueren inpaktuaren, kontuen egoeraren eta misioaren eta balioen gaineko informazioa bidali ohi duten erakundeen ehunekoak, baita erakundeen kontuen egoerari eta jardueren memoriari buruzko informazioa bidaltzen duten erakundeen ehunekoak ere.

Halaber, oso esanguratsua da boluntarioak edo ordainpeko langileak plangintzan eta ebaluazioan inplikatzeko dituzten erakundeen ehunekoa; azken urteetan egonkor mantendu da. Aldiz, erabiltzaileak inplikatzeko dituzten erakundeen datua ehuneko 12 puntu inguru igo da.

Erakundeek beren interes-taldeen asebetetzea ebaluatzeko ahalegin nabarmenak egin dituzte, batez ere, erakundeetan parte hartzen duten boluntarioei dagokienean. Adibidez, boluntarioen asebetetzea ebaluatzen duten erakundeen kopurua handitu egin da 10 erakundetik 6ra, eta agerian utzi du kolektibo horren kezka eta asebetetzea neurtzeko beharra.

131. TAULA. KUDEAKETA ETA KOMUNIKAZIO ESTRATEGIEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (II)

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdintasuna 2023-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Azken urtean sentsibilizazio-kanpaina batean, funtsak eskuratzeko kanpaina batean edo antzekoren batean parte hartu duten erakundeen %	70,8	71,1	68,3	-2,8
Interes-taldeei jardueren memoriari buruzko informazioa bidali ohi dieten erakundeen %	86,5	83,4	91,2	7,8
Interes-taldeei jardueren inpaktuari buruzko informazioa bidali ohi dieten erakundeen %	52,0	61,0	61,2	0,2
Kontuen egoerari buruzko informazioa bidali ohi duten erakundeen %	80,8	83,5	88,0	4,5
Entitatearen misioari eta balioei buruzko informazioa bidali ohi duten erakundeen %	70,1	74,9	79,7	4,8
Erabiltzaileak plangintzan edo ebaluazioan inplikatzeko dituzten erakundeen %	57,9	56,4	68,0	11,6
Boluntarioak plangintzan edo ebaluazioan inplikatzeko dituzten erakundeen %	69,1	72,6	70,4	-2,2
Ordainpeko langileak plangintzan edo ebaluazioan inplikatzeko dituzten erakundeen %	91,0	94,5	95,5	1,0
Boluntarioen asebetetze maila ebaluatzen duten erakundeen %	46,2	48,6	58,6	10,0
Ordainpeko langileen asebetetze maila ebaluatzen duten erakundeen %	50,7	59,6	56,2	-3,4

Komunikazioaren arloan, agerikoa da erakundeek geroz eta tresna digital gehiago aplikatzen eta erabiltzen jarraitzen dutela etengabe. Posta elektronikoa nahiko edo oso maiz erabiltzen duten erakundeen ehunekoa igo egin da. Gainera, bereziki adierazgarria da sare sozialak komunikatzeko plataforma gisa erabiltzeko joeran izandako hazkundera.

Fenomeno horrek erakusten du erakundeak aldaketa teknologikoetara egokitu direla eta tresna digitalei gero eta garrantzi handiagoa ematen zaiela. Teknologia horien erabilera dagoen goranzko joerak erakusten du komunikazio digitaleko estrategia horiek gehiago integratzen direla EHSSko erakundeen eguneroko jardueran, eta, hala, gehiago indartzen dela informazioa zabaltzeko, interes-taldeekin interakzioa izateko eta haien jardueren eta balioen ikusgarritasuna sustatzeko duten gaitasuna.

132. TAULA. KUDEAKETA ETA KOMUNIKAZIO ESTRATEGIEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (III)

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdintasuna 2023-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Emaila nahiko edo oso maiz erabiltzen duten erakundeen %	89,7	92,1	95,8	3,7
Webgunerik ez duten edo erabiltzen ez duten erakundeen %	31,51	20,2	23,5	3,3
Sare sozialak nahiko edo oso maiz erabiltzen dituzten erakundeen %	54,29	67,2	73,5	6,3

9. KANPO HARREMANAK

9.1. NOLAKOA DA BESTE ERAGILE SOZIAL BATZUEKIKO HARREMANA?


Egungo testuinguru sozialean, oro har, pentsaezina da EHSSko erakundeek jardueran pentsatzea, beste eragile sozial batzuk aintzat hartu gabe. Egungo gizarte interkonektatu honetan, eragileen arteko komunikazioa, elkarriketa eta elkarlana ohikoak dira, eta EHSS ez dago interkonexio horretatik kanpo.

EHSSko erakundeek eragile sozial anitzekin dute harremana edo elkarlana, hainbat helburutarako. Administrazio publikoko maila guztien artean, erakundeek, batez ere, udalekin dute harreman estua. Erakundeek % 79,1en esanetan, harreman dezente edo harreman handia dute udal mailako administrazioarekin; % 61,1ek, foru-aldundiekin; eta % 48,3k, Eusko Jaurlaritzarekin.

Halaber, gizarte-mugimenduekin ere nolabaiteko loturak dituzte (kontsultatutako entitateen % 65,5ek haiekin harreman dezente edo harreman handia dutela diote) eta unibertsitateekin (% 38,8) ere bai.

Beste eragile batzuekiko harremana nabarmen txikiagoa da. Zehazki, erakundeek % 30,5ek esan dute enprekin harreman edo lankidetzak nahiko estua dutela; % 28,9k banku-fundazioekin; % 23,8k Elizarekin; % 17,5ek alderdi politikoekin; % 14k enpresa-elkarteekin; eta % 12,4k sindikatuarekin.

144. GRAFIKOA. ASKOTARIKO ERAGILE SOZIALEKIN HARREMAN EDO ELKARLAN DEZENTE EDO HANDIA DUTEN ERAKUNDEEN BANAKETA. (%)



Datuak arretaz aztertuz gero, ikus daiteke beste eragile sozialekiko harremana orduan eta handiagoa dela erakundeen diru-sarreraren bolumena handitzen den heinean. Bereziki, Arabako erakundeek, Gizarte Zerbitzuen arlokoek eta bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituztenek dute harreman-sare zabala beste eragile sozial batzuekin.

133. TAULA. BATEZ BESTEKO HARREMANA BAINO HANDIAGO DUTEN ERAKUNDEAK, ARLOAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN, TAMAINAREN ETA KONTINGENTZIAREN ARABERA


ERAGILE SOZIALAK	ARLOA	LURRALDE HISTORIKOA	TAMAINA	KONTINGENTZIA
Udalak <i>Harreman dezente edo handia % 79,1</i>	Sozial-transbertsala (% 86,4) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza (% 82,8) Enplegua (% 80,4)	Bizkaia (% 80,5)	300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 84,6) >1.500.000 € (% 92,6)	Beste batzuk (% 92,5) Bazterkeria (% 80,6)
Foru-aldundiak <i>Harreman dezente edo handia % 61,1</i>	Gizarte Zerbitzuak (% 74,4) Enplegua (% 71,6)	Araba (% 68,3)	300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 77,8) >1.500.000 € (% 96,7)	Desgaitasuna (% 75)
Eusko Jaurlaritza <i>Harreman dezente edo handia % 48,3</i>	Enplegua (% 84) Beste batzuk (% 56,5) Osasuna (% 53,8)	Araba (% 56,7)	300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 84,1) >1.500.000 € (% 76,8)	Bazterkeria (% 59,3)
Estatuko Administrazio Orokorra <i>Harreman dezente edo handia % 5,5</i>	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza (% 13,2) Enplegua (% 8,4)	Bizkaia (% 7,1)	300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 7,4) >1.500.000 € (% 14,6)	Mendekotasuna (% 15,6) Babesgabetasuna (% 13)
Enpresak <i>Harreman dezente edo handia % 30,5</i>	Beste batzuk (% 70,1) Enplegua (% 65,9) Osasuna (% 40,3)	Gipuzkoa (% 35,7) Araba (% 32,5)	>1.500.000 € (% 50,8)	Mendekotasuna (% 46,8) Bazterkeria (% 44,3) Desgaitasuna (% 37,9)
Eliza <i>Harreman dezente edo handia % 23,8</i>	Aisialdia (% 50,4) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza (% 43,4)	Bizkaia (% 25,9)	<12.000 € (% 29,5) 300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 30,8) >1.500.000 € (% 28,9)	Bazterkeria (% 33,9) Mendekotasuna (% 30,3)
Banku-fundazioak <i>Harreman dezente edo handia % 28,9</i>	Enplegua (% 47,7) Gizarte Zerbitzuak (% 40,5)	Araba (% 34,6) Gipuzkoa (% 29,6)	60.001 € eta 300.000 € artean (% 39,6) 300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 31,5) >1.500.000 € (% 41,5)	Desgaitasuna (% 47,5) Mendekotasuna (% 36,5) Bazterkeria (% 33,6)
Alderdi politikoak <i>Harreman dezente edo handia % 17,5</i>	Enplegua (% 29,5) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza (% 25,1) Sozial-transbertsala (% 20,7)	Araba (% 26,1) Bizkaia (% 19)	60.001 € eta 300.000 € artean (% 27,1) >1.500.000 € (% 24,2)	Mendekotasuna (% 29,4) Beste kolektibo zaurgarri batzuk (% 19,3)
Sindikatuak <i>Harreman dezente edo handia % 12,4</i>	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza (% 23,2) Enplegua (% 20,8)	Araba (% 17,8)	300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 17,3) >1.500.000 € (% 31,3)	Mendekotasuna (% 27,2) Babesgabetasuna (% 14,9)
Enpresa-elkarteak <i>Harreman dezente edo handia % 14</i>	Enplegua (% 22,4) Beste batzuk (% 22,4)	Araba (% 18,7)	60.001 € eta 300.000 € artean (% 18) >1.500.000 € (% 30,8)	Bazterkeria (% 15,5)
Unibertsitateak <i>Harreman dezente edo handia % 38,8</i>	Gizarte Zerbitzuak (% 56,8) Enplegua (% 53,9)	Bizkaia (% 42,8)	300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 59,3) >1.500.000 € (% 72,1)	Desgaitasuna (% 52,5) Bazterkeria (% 52,2)
Mugimendu sozialak <i>Harreman dezente edo handia % 65,5</i>	Aisialdia (% 74,2) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza (% 71,3)	Bizkaia (% 73,4)	60.001 € eta 300.000 € artean (% 72,5) 300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 77) >1.500.000 € (% 72,2)	Bazterkeria (% 72)

9.2. NOLA JASOTZEN DA BESTE ERAGILE SOZIAL BATZUEN LAGUNTZA?

Hainbat eragile sozialen aldetik jasotzen duten laguntzari buruzko balorazioari dagokionez, erakundeek adierazi dute laguntza dezente edo handia jasotzen dutela mugimendu sozialen (% 64,4), foru-aldundien (% 64,2), udalen (% 62,4) eta Eusko Jaurlaritzaren (% 54,8) aldetik.

Halaber, % 36,8k esan dute laguntza dezente edo handia jasotzen dutela Elizaren aldetik, % 29k banku-fundazioen aldetik eta % 28,3k unibertsitateen aldetik. % 10etik gora nabarmentzen da enpresen (% 12,6) eta Estatuko Administrazio Orokorraren balorazioa (% 10,3). Azkenik, % 10etik behera daude sindikatuak (% 9), enpresa-elkarteak (% 8,8) eta alderdi politikoak (% 7,8).

145. GRAFIKOA. ERAGILE SOZIAL ANITZETATIK LAGUNTZA DEZENTE EDO HANDIA JASOTZEN DUTEN ERAKUNDEEN BANAKETA. (%)



Datu hauek bat datoz eragile sozial horiekiko harreman edo elkarlan mailarekin.

134. TAULA. BATEZ BESTEKO LAGUNTZA BAINO HANDIAGOA JASOTZEN DUTEN ERAKUNDEAK, ARLOAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA TAMAINAREN ARABERA

ERAGILE SOZIALAK	ARLOA	LURRALDE HISTORIKOA	TAMAINA
Udalak <i>Laguntza dezente edo handia % 62,4</i>	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaz (% 77,5) Beste batzuk (% 71,9) Sozial-transbertsala (% 66,6)	Gipuzkoa (% 64,6) Bizkaia (% 62,8)	12.001 € eta 60.001 € artean (% 67) 60.001 € eta 300.000 € artean (% 63,8) 300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 72,3)
Foru-aldundiak <i>Laguntza dezente edo handia % 64,2</i>	Beste batzuk (% 77,5) Gizarte Zerbitzuak (% 74,8) Enplegua (% 72,5) Aisialdia (% 69,6)	Gipuzkoa (% 69,6) Araba (% 65)	60.001 € eta 300.000 € artean (% 68,4) 300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 79,7) >1.500.000 € (% 82,2)
Eusko Jaurlaritza <i>Laguntza dezente edo handia % 54,8</i>	Enplegua (% 74,1) Beste batzuk (% 64,2) Gizarte Zerbitzuak (% 62,8)	Araba (% 62,2)	60.001 € eta 300.000 € artean (% 55,1) 300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 74,5) >1.500.000 € (% 76,1)
Estatuko Administrazio Orokorra <i>Laguntza dezente edo handia % 10,3</i>	Beste batzuk (% 16,3) Enplegua (% 15,5) Aisialdia (% 15) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaz (% 12,6)	Bizkaia (% 11,8)	<12.000 € (% 11,9) 300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 14,7) >1.500.000 € (% 11,3)
Enpresak	Osasuna (% 25,3)	Gipuzkoa (% 21,4)	60.001 € eta 300.000 € artean (% 19,3)

<i>Laguntza dezente edo handia % 12,6</i>	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaz (% 14,3) Beste batzuk (% 13,6)		300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 14,8)
Eliza <i>Laguntza dezente edo handia % 36,8</i>	Beste batzuk (% 56,5) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaz (% 55,5) Hezkuntza eta Aisialdia (% 52,7) Enplegua (% 46,6)	Bizkaia (% 44)	<12.000 € (% 37) 300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 51,1)
Banku-fundazioak <i>Laguntza dezente edo handia % 29</i>	Beste batzuk (% 43,5) Gizarte Zerbitzuak (% 40,1) Osasuna (% 31,1)	Gipuzkoa (% 32,6) Araba (% 32,4)	60.001 € eta 300.000 € artean (% 30,9) 300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 39,4) >1.500.000 € (% 29,6)
Alderdi politikoak <i>Laguntza dezente edo handia % 7,8</i>	Sozial-transbertsala (% 12,9) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaz (% 8,5) Hezkuntza eta Aisialdia (% 8,1)	Bizkaia (% 8,9)	60.001 € eta 300.000 € artean (% 11,9) 300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 8,8)
Sindikatuak <i>Laguntza dezente edo handia % 9</i>	Beste batzuk (% 14,4) Sozial-transbertsala (% 12,8) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaz (% 10,3)	Bizkaia (% 10,8)	12.001 € eta 60.001 € artean (% 11,8) 60.001 € eta 300.000 € artean (% 12,8)
Enpresa-elkarteak <i>Laguntza dezente edo handia % 8,8</i>	Osasuna (% 11,4) Sozial-transbertsala (% 11,1) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaz (% 9,2)	Gipuzkoa (% 10,3) Araba (% 10,5)	<12.000 € (% 9,5) 60.001 € eta 300.000 € artean (% 10,8) 300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 9,1)
Unibertsitateak <i>Laguntza dezente edo handia % 28,3</i>	Beste batzuk (% 53,4) Gizarte Zerbitzuak (% 36,3) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaz (% 32,4)	Bizkaia (% 33,2)	60.001 € eta 300.000 € artean (% 33,4) 300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 37,8) >1.500.000 € (% 45,1)
Mugimendu sozialak <i>Laguntza dezente edo handia % 64,4</i>	Beste batzuk (% 86,7) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaz (% 73,3) Gizarte Zerbitzuak (% 66,5)	Bizkaia (% 69,1)	12.001 € eta 60.001 € artean (% 68) 300.001 € eta 1.500.000 € artean (% 71) >1.500.000 € (% 74,2)

9.3. 2019-2023 ALDIKO AZTERKETA KONPARATIBOA

2019-2023 aldiko datu konparatiboek egoera benetan egonkorra erakusten dute EHSSko erakundeek eta beste eragile sozial batzuen arteko harremanetan. Esaterako, enpresekin eta alderdi politikoeekin, besteak beste, harreman dezentea edo handia duten erakundeek ehunekoak egonkor mantendu da azken urteetan.

Hala ere, erakundeek laguntza txikiagoa jasotzen dute beste eragile sozial batzuen aldetik, berezki administrazio publikoari dagokionez; hala erakusten dute sektoreak Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien aldetik laguntza dezente edo handia jasotzen duela uste duten erakundeek ehunekoak. Hala, 2019ko datuekiko ehunekoak jaitsi egin dira pixka bat.

135. TAULA. KANPO HARREMANEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdinta suna 2023- 2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Enpresekin harreman dezente edo handia duten erakundeen %	19,8	30,1	30,5	0,4
Alderdi politikoeekin harreman dezente edo handia duten erakundeen %	14,5	18	17,5	-0.5
Enpresekin batere harremanik ez duten edo harreman txikia duten erakundeen %	80,17	69,9	69,5	-0.4
Sektoreak autonomia-erkidegoko gobernuaren aldetik laguntza dezente edo handia jasotzen duela uste duten erakundeen %	49,43	64	54,8	-9.2
Sektoreak Foru Aldundien aldetik laguntza dezente edo handia jasotzen duela uste duten erakundeen %	61,33	68,4	64,2	-4.2

10. HARREMANAK ETA SEKTOREAREN EGOERA

10.1. NOLAKOAK DIRA EHSS-KO HARREMANAK?

EHSSren testuinguruan, erakundeen arteko interakzioa ezinbestekoa da haien jarduerak ulertzeko eta gauzatzeko moduan. Aliantzak sortzea eta sarean lankidetzan aritzea dira EHSSren barruan elkar konektatutako ingurunea garatze laguntzen duten alderdiak. Lankidetzak eta sareko koordinazio hori sortzeak erakundeen arteko interakzioa indartzeaz gain, sektore osoa hobeto egituratzen eta antolatzen laguntzen du.

10.1.1. Beste erakunde batzuekiko eta sareekiko harremanaren balorazioa

Erakundeen % 68,8k esan dute gaur egun harreman edo elkarlan dezente edo handia dutela beste erakunde batzuekin. % 23,1ek adierazi dute harreman gutxi dutela, eta % 5,4k batere harremanik edo elkarlanik ez dutela.

Sareei dagokionez (bigarren edo hirugarren mailako entitateak), erakundeen % 55,6k adierazi dute harreman dezente edo handia dutela horiek. % 23,6k esan dute harreman gutxi dutela sareekin, eta % 14,1ek batere harremanik ez dutela.

146. GRAFIKOA. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN ETA SAREEKIN HARREMAN DEZENTE EDO HANDIA DUTELA DIOTEN ERAKUNDEEN BANAKETA. (%).



EHSSko beste erakunde batzuekin harreman edo elkarlan dezente edo handia dutela adierazi duten erakundeen ehunekoak handiagoak dira honakoen artean: sareak (% 90); Bizkaiko (% 72,6) eta Arabako (% 67,4) erakundeak; Beste arlo batzuetako (% 86,1), Enplegu arloko (% 82,5) eta Gizarte Zerbitzuen arloko (% 78,7) erakundeak eta 300.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituztenak.

EHSSko sareekiko harremanari edo elkarlanari dagokionez, ehunekoak handiagoak dira honakoetan: sareak (% 68,6); Bizkaiko erakundeak (% 59,4); Beste arlo batzuetako (% 91,6), Gizarte Zerbitzuen arloko (% 67,7) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloko (% 65,4) erakundeak eta 300.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituztenak.

10.1.2. Sareen parte izatea

3 erakundetik 2 inguru bigarren mailako erakunde baten edo ekimen baten parte dira (sareak, federazioak, taldeak, plataformak...), eta horrek adierazten du antzeko erakundeen artean harremana dagoela, eta hausnartzeko, informazioa partekatzeko, eragiteko... espazioak partekatzen dituztela. Batez beste, erakunde bakoitza mota horretako 3 sareen parte da.

147. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, SAREREN BATEN PARTE DIREN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Bigarren mailako sare edo ekimenen baten parte izateari dagokionez, batezbestekotik gora kokatzen dira Bizkaiko erakundeak (% 69,5) eta arlo hauetakoak: Enplegua (% 82,7), Gizarte Zerbitzuak (% 79,1), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak (% 69,5) eta Aisialdia (% 68,6). Halaber, sareetako kide direnen ehunekoa handiagoa da bolumen ekonomikoak gora egin ahala, bereziki erakunde hauen artean: 60.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituztenak (1.500.000 €-tik gorakoaren artean, % 90,8), 20 urtetik gorako ibilbidea dutenak eta ordainpeko langileak dituztenak (% 79,6).

10.2. NOLA BALORATZEN DA BIGARREN MAILAKO EDO GORAGOKO ERAKUNDEEN ROLA?

Sareen rolen barruan, erakundeei nahiko edo oso garrantzitsuak iruditzen zaizkie sentsibilizazioa (% 92,6), elkarriketa sektore publikoarekin eta beste eragile batzuekin (% 87,7), elkartutako erakundeen arteko harremana (% 86,3), eskubideen ordezkaritza eta defentsa (%83,3) eta ezagutza sortzea (ikerketa, sistematizazioa, etab., % 81,6).

Tarte pixka batekin, erakundeen % 72,6rentzat nahiko edo oso garrantzitsua da kideak diren erakundeetan jardunbideak baliozkotzea eta/edo sustatzea hainbat tresnaren bidez, hala nola kode etikoak, jardunbide egokien jarraibideak, etab. Baliabideak eskuratzea nahiko edo oso garrantzitsua da % 65entzat. Eta taldeko erakundeei zerbitzuak eskaintzea, % 62,3rentzat. Balorazio baxuena, % 60tik beherakoa, jaso duen rola baliabideak birbanatzea (nahiko edo oso garrantzitsua % 59,7rentzat) eta hartzaileei zuzeneko zerbitzuak eskaintzea (% 56,8) dira.

148. GRAFIKOA. SAREEN HAINBAT ROL NAHIKO EDO OSO GARRANTZITSUTZAT JOTZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK (%)



Sareek eta oinarriko erakundeek rol horiei buruz egindako balorazioa alderatuta, rolak nahiko edo oso garrantzitsuak direla uste duten sareen ehunekoa handiagoa dela ikus daiteke, uste hori duten oinarriko erakundearen ehunekoa baino; sentsibilizazioa da salbuespena: rol horri balorazio altuagoa eman diote oinarriko erakundeek.

Orokorrean ikus daitekeenez, sareen rolak nahiko edo oso garrantzitsuak direla uste duten Gipuzkoako erakundearen ehunekoa uste hori duten Euskadiko erakundearen batezbestekoaren antzekoa edo handiagoa da, baliabideak eskuratzeari dagokionez izan ezik.

Arabian, nabarmentzekoa da ezagutza sortzeari dagokion rola (ikerketa, sistematizazioa...) baloratu dutela garrantzitsuentzat sareek (% 83,2). Gipuzkoan eta Bizkaian, sareen ustez, sentsibilizazioaren rola da garrantzitsuena (% 92,7). Bizkaiko erakundearen balorazioak Euskadiko batezbestekoaren azpitik daude sareen rolen garrantziari dagokionean, sektore publikoarekiko eta beste eragile batzuekiko elkarriketaren eta erakundearen arteko harremanaren kasuan izan ezik.

136. TAULA. SAREEN HAINBAT ROL NAHIKO EDO OSO GARRANTZITSUTZAT JOTZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Sentsibilizazioa	% 92,7	% 92,7	% 91,6	% 92,6
Sektore publikoarekiko eta beste eragile batzuekiko elkarriketa	% 90,1	% 85,9	% 81,6	% 87,7
Taldeko erakundearen arteko harremana	% 88,0	% 86,9	% 78,9	% 86,3
Eskubideen ordezkartza eta defentsa	% 85,1	% 85,9	% 71,0	% 83,3
Ezagutza sortzea	% 81,5	% 80,8	% 83,2	% 81,6
Jardunbideak baliozkotzea eta/edo sustatzea erakunde bazkideetan	% 73,0	% 71,5	% 73,6	% 72,6
Baliabideak eskuratzea	% 60,2	% 73,1	% 67,7	% 65,0
Taldeko erakundeei zerbitzuak eskaintzea	% 57,6	% 70,8	% 62,7	% 62,3
Baliabideak birbanatzea	% 53,1	% 69,9	% 64,0	% 59,7
Beste funtzio batzuk	% 55,6	% 69,1	% 39,6	% 58,4

Sareen rol ezberdinak nahiko edo oso garrantzitsutzat jotzen dituzten erakundearen ehunekoak Osasun arloan eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan dira altuenak. Hala ere, ez dago alde handirik horri dagokionean. Beste arlo batzuetako erakundeak dira salbuespena; izan

ere, sareen rolaren garrantziari dagokionez balorazio-ehuneko baxuagoak lortu dituzte gainerako arloetan baino.

137. TAULA. SAREEN HAINBAT ROL NAHIKO EDO OSO GARRANTZITSUTZAT JOTZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK, ARLOAREN ARABERA.
(%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerak o lankidetzak	Sozial- transbertsala	Beste batzuk
Sentsibilizazioa	% 92,6	% 85,7	% 91,5	% 93,2	% 89,6	% 94,7	% 100,0
Sektore publikoarekiko eta beste eragile batzuekiko elkarriketa	% 88,1	% 93,7	% 89,5	% 76,5	% 95,3	% 86,2	% 88,6
Taldeko erakundearen arteko harremana	% 84,2	% 84,2	% 89,7	% 84,1	% 91,8	% 84,5	% 64,7
Eskubideen ordezkartzea eta defentsa	% 87,6	% 88,1	% 93,8	% 78,9	% 81,7	% 75,7	% 88,6
Ezagutza sortzea	% 80,6	% 79,5	% 80,8	% 76,1	% 87,1	% 83,3	% 70,5
Jardunbideak baliozkotzea eta/edo sustatzea erakunde bazkideetan	% 66,2	% 58,8	% 70,4	% 75,0	% 79,9	% 74,5	% 86,5
Baliabideak eskuratzea	% 67,3	% 74,6	% 61,9	% 66,3	% 55,8	% 69,3	% 44,5
Taldeko erakundeei zerbitzuak eskaintzea	% 74,1	% 67,1	% 60,5	% 71,1	% 67,5	% 56,0	% 23,8
Baliabideak birbanatzea	% 64,3	% 63,8	% 57,1	% 56,0	% 68,3	% 60,5	% 11,9
Beste funtzio batzuk	% 55,1	% 45,4	% 62,8	% 60,0	% 35,1	% 63,6	% 0,0

10.3. ZER KEZKA DITUZTE EHSS-KO ERAKUNDEEK?

EHSSk datozen urteetarako dituen ziurgabetasun nagusietan eragina dute aldaketa sozialek, ekonomikoek eta politikoek. Atzera begira aztertuz gero, azken urteetako ziurgabetasun eta kezka dira.

Jasangarritasunak EHSSko erakundearen kezka-arrazoi izaten jarraitzen du, bai ikuspegi ekonomikotik, bai ikuspegi sozialetik. Egiaz, erakundearen % 30en ustez, datozen urteetan landu beharreko erronka nagusietako bat da jasagarritasuna.

Datozen urteetan gizarte zibilaren sentsibilizazioari eta aitortzari heltzeko beharraren inguruko nolabaiteko kezka adierazi du EHSSko 5 erakundetik 1ek. Erakundeek gizarteko erronkei eta arazoei erantzuteko egiten duten lanaren gaineko sentsibilizazioa eta kontzientzia sozialaren sustapena funtsezko zutabeak dira.

Era berean, barneko eta kanpoko harremanak indartzen jarraitu behar dela nabarmendu du 5 erakundetik 1ek. Lehenengoei dagokienez, EHSS egituratzeko prozesuekin aurrera jarraitzea funtsezko mugarria da, alde batetik, sareen posizioa finkatzeko eta sare horietan geroz eta erakunde gehiago egituratzeko. Halaber, erakundearen arteko lankidetzarako eta kooperaziorako espazioak sortzeko apustua egin da, ikaskuntzak partekatzeak, aliantzak sortzeko eta are lankidetzak proiektuak ekiteko ere.


Kanpoko harremanei dagokienez, aliantzak sortzeko beste eragile sozial batzuekin dituzten harreman-ereduetan aurrerapausoak ematea kezka garrantzitsua da oraindik ere. Horretarako, badirudi funtsezkoa dela EHSSren posizio soziala finkatzea, eragile sozial eta funtsezko solaskide gisa, bai administrazio publikoarekin, bai beste eragile batzuekin.

Etengabe aldatzen ari den ingurune batean, hirugarren sektore sozialeko erakundeek prest egon behar dute arazo berriei eta gizartearen beharren aldaketei aurre egiteko. Hori dela eta, funtsezkoa dirudi sortzen ari diren behar sozial berriei emateko erantzunen bilaketan aurrera egiten jarraitzeak.

Ebidentzian geratu da eraldaketa digitala eta berrikuntza soziala erakundeak kezkatzen dituen ardatz garrantzitsuak direla. Alde horretatik, eraldaketa digitalaren esparruan berrikuntzarako sareak eta digitalizazio-prozesuak sortzea erronka garrantzitsuak dira.

Halaber, erakundearen beste alderdi batzuk (lanpostuak, egonkortasuna, etab.) eta EHSSren ezaugarriak eta jardueraren balio berdingabea bermatzeko garrantzia identifikatu dugu, bai zerbitzuen hornikuntzaren arloan, bai intzidentzia sozialaren, bai parte-hartzearen eta ezagutzaren sustapenaren, bai eskubideen gauzatze eraginkorraren arloetan.

149. GRAFIKOA. HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAK DATOZEN URTEETAN AURRE EGIN BEHARREKO ERRONKAK. (%)



Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako EHSSren erakundearen ziurgabetasunak eta kezkek partekatzen dituzte hein handi batean. Bizkaian, jasangarritasun ekonomikoa da kezka-arlo nagusia, % 31,8ekin, eta, atzetik, jasangarritasun soziala, % 20,5ekin. Gizarte zibilaren sentsibilizazioa eta parte-hartzea ere leku nabarmena du, % 12,5koa. Sareak eta lankidetzak sortzea % 11,6an dago, eta eragile gisa duten kokapen garrantzitsua % 10,3ra iristen da.

Gipuzkoan, jasangarritasun ekonomikoa da kezka-arlo nagusia, % 18,4ekin, eta gertutik jarraitzen dio jasangarritasun sozialak, % 20,4ekin. Gizarte zibilaren sentsibilizazioa eta parte-hartzea % 20,8ekin nabarmentzen dira, eta, aldiz, sareak eta lankidetzak sortzea % 13,1era iristen da. Azkenik, talentua erakartzea eta zaintzak % 4,0ko garrantzia du, langileekiko eta talentuaren kudeaketarekiko kezka erakutsiz.

Arabian, gizarte zibilaren sentsibilizazioa eta parte-hartzea dira erakundearen kezka nagusia (% 27,7), jasangarritasun ekonomikoaren gainetik (% 23,2); eta jasangarritasun sozialaren gaineko kezka % 9,7koa da. Sareak eta lankidetzak eraikitzea eta eragile garrantzitsu gisa kokatzea % 5,2 eta % 16,2ra iristen dira, hurrenez hurren. Talentua erakartzea eta zaintzak ere rol garrantzitsua du % 6,9ekin.

138. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LEHEN KEZKAREN, ENTITATEAREN OSASUN ELEMENTUEN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EUSKADI
Jasangarritasun ekonomikoa	% 31,8	% 18,4	% 23,2	% 27,1
Gizarte zibilaren sentsibilizazioa, aitortza eta parte-hartzea	% 20,5	% 20,4	% 27,7	% 21,6
Erakundeen parte-hartzea sustatzen jarraitzea	% 12,5	% 20,8	% 14,1	% 14,8
Eragile garrantzitsu gisa kokatzea	% 11,6	% 13,1	% 16,2	% 12,7
Jasangarritasun soziala	% 10,3	% 8,5	% 9,7	% 9,8
Eskari berriei erantzutea eta ingurune aldakorrera egokitzea	% 10,1	% 5,4	% 1,8	% 7,7
Harreman eta lankidetzarako sarea	% 7,4	% 6,7	% 5,2	% 6,9
Transformazio digitala	% 5,6	% 5,6	% 5,0	% 5,5
Sektorearen logikak mantentzea	% 4,0	% 3,0	% 13,8	% 5,3
Talentua zaintzea eta erakartzea	% 2,8	% 4,0	% 6,9	% 3,7
Sektorearen dibertsitatea	% 3,7	% 0,0	% 5,5	% 3,1
Eraldaketa bideratzea eta funtzioen oreka	% 1,7	% 1,2	% 5,8	% 2,2
Parte izatearen sentimendua	% 2,2	% 0,0	% 3,1	% 1,8
Jardueraren koherentzia eta neurtzeko edo ebaluatzeko tresnak	% 0,7	% 2,1	% 0,0	% 0,9

EHSSren erakundeek ageriko desberdintasunak dituzte kezkei dagokienez jarduketa-arloaren arabera. Jasangarritasun ekonomikoa zeharkako ziurgabetasuna da eta garrantzi handiagoa du Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren (% 39,6), Enpleguaren (% 36,3) eta Osasunaren (% 35,4) arloetan. Kontrara, Hezkuntzaren eta Aisialdiaren arloan kezka askoz ere txikiagoa dago alderdi horrekiko (% 12,1).

Gizarte zibilaren sentsibilizazioa, aitortza eta parte-hartzea bereziki adierazgarria da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan (% 46,5) eta Hezkuntza eta Aisialdiaren arloan (% 35,9). Aldiz, Enpleguaren arloko erakundeek ez dute horren gaineko kezkarik (% 0,0). Bestalde, erakundeen parte-hartzeak interes handiagoa sortzen du Gizarte Zerbitzuetan (% 19,1) eta Hezkuntzan eta Aisialdian (% 16,0), eta Enpleguaren arloak kezka neurritsua du horrekiko (% 12,9).

Eragile garrantzitsu gisa kokatzea nabarmen aldatzen da arlo batetik bestera. Enpleguan da adierazgarriena % 28,3rekin eta Osasunean eta arlo Sozial-transbertsalean indize txikiagoak ditu (% 7,0 eta % 8,6, hurrenez hurren). Jasangarritasun sozialaren kasuan, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren (% 25,2) eta Osasuna (% 16,0) dira nagusi kezka horretan, arlo Sozial-transbertsalekoarekin (% 5,4) eta Hezkuntza eta Aisialdiarekin (% 4,7) alderatuta.

Talentua zaintzeari eta erakartzeari dagokionez, Enplegua gailentzen da % 13,8rekin, eta ia ez dago kezkarik arlo Sozial-transbertsalean (% 0,2). Azkenik, eraldaketa digitala garrantzitsuagoa da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren (% 12,2) eta ia ez da existitzen Hezkuntzan eta Aisialdian (% 0,0).

139. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LEHEN KEZKAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)⁷³

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerako Lankidetzaren	Sozial-transbertsala
Jasangarritasun ekonomikoa	% 35,4	% 36,3	% 30,9	% 12,1	% 39,6	% 21,6
Gizarte zibilaren sentsibilizazioa, aitortza eta parte-hartzea	% 22,3	% 0,0	% 17,4	% 35,9	% 46,5	% 15,7
Erakundeen parte-hartzea sustatzen jarraitzea	% 4,5	% 12,9	% 19,1	% 16,0	% 5,9	% 16,5
Eragile garrantzitsu gisa kokatzea	% 7,0	% 28,3	% 16,0	% 15,7	% 14,2	% 8,6
Jasangarritasun soziala	% 16,0	% 9,8	% 9,2	% 4,7	% 25,2	% 5,4
Eskari berriei erantzutea eta ingurune aldakorrera egokitzea	% 13,2	% 7,1	% 5,7	% 8,8	% 1,5	% 9,5

⁷³ Ez ditugu gehitu Beste batzuk arloko datuak, oso erantzun gutxi jaso genituelako arlo horretako erakundeen aldetik.

Harreman eta lankidetzarako sarea	% 5,6	% 4,9	% 7,4	% 14,0	% 10,8	% 4,1
Transformazio digitala	% 1,7	% 4,9	% 5,1	% 0,0	% 12,2	% 6,5
Sektorearen logikak mantentzea	% 8,4	% 2,1	% 8,3	% 0,0	% 0,0	% 5,5
Talentua zaintzea eta erakartzea	% 4,0	% 13,8	% 6,6	% 2,8	% 4,4	% 0,2
Sektorearen dibertsitatea	% 0,0	% 2,1	% 4,9	% 4,7	% 2,9	% 2,4
Eraldaketa bideratzea eta funtzioen oreka	% 2,5	% 8,0	% 3,2	% 0,0	% 2,9	% 1,6
Parte izatearen sentimendua	% 0,0	% 0,0	% 4,9	% 4,7	% 0,0	% 0,0
Jardueraren koherentzia eta neurtzeko edo ebaluatzeko tresnak	% 0,0	% 0,0	% 1,7	% 4,3	% 0,0	% 0,0

10.4. NOLA BALORATZEN DITUZTE EHSS-REN EGOERA ETA ETORKIZUNA?

EHSSren egoerari buruzko hainbat gai baloratu dituzte erakundeek: haien rola, aitortza eta etorkizunerako ikuspegia, beste batzuen artean. Sektorearen egungo errealitatea eta etorkizuneko erronkak marrazteko aukera eman du horrek⁷⁴.

Erakundeek % 80 inguruk uste du *Euskadiko hirugarren sektore sozialak posizionamendu tinkoa izan behar duela, betiere, eragin politiko handiagoa ahalbidetzen duen diskurtso kolektiboa bilatuz*, eta, aldi berean, *lidergo rola izan behar duela gizarte-eredu berriak eraikitzeko eta politika publiko berriak sortzeko*. Erakundeek % 76,1 nahiko edo oso ados dago honekin: *beste gizarte-eragile batzuk garrantzitsuak izango dira gizarte-erronkei erantzuteko*.

Gertutik, erakundeek % 45 inguru nahiko edo oso ados dago baieztapen hauekin: *azken urteetan euskal gizartea solidarioagoa izan da eta EHSSreko konpromisoa handitu egin da; euskal gizarteak EHSS egiten duen lana behar beste aitortzen du; eta, azkenik, lankidetzak publiko-sozialaren eredu mistoa sendotzen ari da erantzukizun publikoko zerbitzuetan*.

140. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LEHEN KEZKAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Gutiz edo nahiko ados	Ez ados, ez desados	Gutiz edo nahiko desados
Euskadiko hirugarren sektore sozialak posizionamendu tinkoa izan behar du, betiere, eragin politiko handiagoa ahalbidetzen duen diskurtso kolektiboa bilatuz.	% 79,1	% 12,1	% 8,8
Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak lidergo rola bete behar du gizarteko eredu berrien eraikuntzan eta politika publiko berrien sorreran.	% 78,0	% 12,1	% 9,9
Beste gizarte-eragile batzuk garrantzitsuak izango dira gizarte-erronkei erantzuteko	% 76,1	% 14,8	% 9,2
Azken urteetan, euskal gizartea solidarioago agertu da eta Hirugarren Sektore Sozialarekiko konpromisoa handitu du	% 45,8	% 31,4	% 22,8
Euskal gizarteak behar beste aitortzen du Hirugarren Sektore Sozialaren lana.	% 45,2	% 24,8	% 30,0
Lankidetzak publiko-sozialaren eredu mistoa sendotzen ari da erantzukizun publikoko zerbitzuetan	% 45,2	% 42,0	% 12,8
Hirugarren Sektore Soziala arretako jardueretan dago zentratuta, eta bigarren mailan uzten ditu prebentzio-ekintzak eta erakundeek beste funtzio batzuk	% 38,8	% 42,0	% 19,2

EHSSren erakundeek ageriko desberdintasunak dituzte pertzepzioei dagokienez haien jarduketarako arloaren arabera. Osasunaren arloan, erakundeek % 83,4 nahiko edo oso ados dago sektoreak posizionamendu argia izan behar duela politikoki eragiteko. Enpleguan kezka hori handia den arren (% 71,7), adostasun-maila handiagoa dago erantzukizun publikoko zerbitzuetan lankidetzak publiko-sozialaren eredu mistoa finkatzeari dagokionez (% 51,8).

⁷⁴ Sektorearen balorazioari buruzko gai-bloke honetan, jarduera arloaren arabera banakapena egitean, ez ditugu gehitu Beste batzuk arloko datuak, oso erantzun gutxi jaso genituelako arlo horretako erakundeek aldetik.

Gizarte Zerbitzuen arloan, adostasun handia dago honekin (% 82,2): EHSSk posizionamendu irmoa izan behar du eta diskurtso kolektiboa izan behar du eragin politiko hobea izateko. Erakundeek % 83,6 nahiko edo oso ados dago beste eragile batzuk erronka horiek jorratzeko garrantzitsuak diren ustearekin. Halaber, Hezkuntza eta Aisialdia arloan eragin txikiagoa du politikoki eragiteko diskurtso kolektibo baten beharrak (% 66,8) eta % 34,9k uste du arlo hori ahalegin txikiagoak egiten ari dela laguntza-jardueretan beste batzuekin alderatuta.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak berezitasunak ditu; % 77,9k sektorearen posizionamendu irmoa babesten du eta soilik % 24,6k uste du euskal gizarteak haien lana behar beste aitortzen duela. Hala ere, % 78,1 ados dago beste eragile sozial batzuekin lankidetzan aritzeak duen garrantziarekin eta % 35,2k aurrerapausoak aitortu ditu eredu mistoa finkatzeko garaian.

Gizarteak egiten duen aitortzaren kasuan alde txikiak daude. Adibidez, Osasunean, % 44,3k uste du gizarteak behar beste aitortzen duela hirugarren sektore sozialaren lana eta Enpleguaren arloan ehuneko hori % 37,4ra jaisten da. Gizarte Zerbitzuetako erakundeek % 44,8k aitortza nahikoa hautematen du eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren kasuan, ehuneko hori % 40,1ekoa da.

141. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LEHEN KEZKAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	Osasuna	Enplegua	Gizarte Zerbitzuak	Hezkuntza eta Aisialdia	Garapenerak o lankidetzak	Sozial- transbertsala
Euskadiko hirugarren sektore sozialak posizionamendu tinkoa izan behar du, betiere, eragin politiko handiagoa ahalbidetzen duen diskurtso kolektiboa bilatuz.	% 83,4	% 71,7	% 82,2	% 66,8	% 77,9	% 81,4
Beste gizarte-eragile batzuk garrantzitsuak izango dira gizarte-erronkei erantzuteko.	% 78,1	% 86,4	% 83,6	% 59,1	% 78,1	% 78,9
Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak lidergo rola bete behar du gizarteko eredu berrien eraikuntzan eta politika publiko berrien sorreran.	% 78,1	% 86,4	% 83,6	% 59,1	% 78,1	% 78,9
Azken urteetan, euskal gizartea solidarioago agertu da eta Hirugarren Sektore Sozialarekiko konpromisoa handitu du	% 45,2	% 46,4	% 43,1	% 36,4	% 24,6	% 57,9
Euskal gizarteak behar beste aitortzen du Hirugarren Sektore Sozialaren lana.	% 44,3	% 37,4	% 44,8	% 45,9	% 40,1	% 48,0
Lankidetzak publiko-sozialaren eredu mistoa sendotzen ari da erantzukizun publikoko zerbitzuetan	% 45,6	% 51,8	% 44,4	% 37,6	% 35,2	% 50,8
Hirugarren Sektore Soziala arretako jardueretan dago zentratuta, eta bigarren mailan uzten ditu prebentzio-ekintzak eta erakundeek beste funtzio batzuk	% 44,9	% 47,5	% 42,4	% 34,9	% 34,5	% 35,1

EHSSko erakundeek desadostasun nabarmenak dituzte beren pertzepzioetan bolumen ekonomikoaren arabera. Erakunderik txikieneek kezka desberdinak dituzte baliabide gehien dituztenekin alderatuta. 12.000 €-ko aurrekontua edo txikiagoa dutenen kasuan, posizionamendu irmoa izateko behar handiagoa (% 66,1) eta beste eragile batzuen garrantzia aitortzea (% 65,6) nabarmentzen dira. 12.001 € eta 60.000 €-ko tartean, bereziki babesten dituzte lankidetzak-eredu mistoa (% 77,3) eta euskal gizartearen gero eta aitortza handiagoa (% 45,7).

60.001 € eta 300.000 € arteko aurrekontua duten erakundeek kasuan, Hirugarren Sektore Sozialak posizionamendu irmoa izatea (% 87,9) eta beste eragile sozial batzuek erronkei

erantzuteko duten rola (% 84,7) nabarmentzen dira. 300.001 € eta 1.500.000 € euro arteko aurrekontuak dituzten erakundeen artean pertzepzio hau da nagusi: sektoreak lidergo rola hartu behar du gizarte-eredu eta politika publiko berriak sortzeko (% 92,0).

Bestalde, 1.500.000 €-tik gorako aurrekontua duten erakundeetan, sektorearen lidergoa babesten dute (% 82,7) eta euskal gizarteak aitortza handia egiten duela berresten dute (% 45,2). Gainera, % 52,5ek aurrerapenak hauteman ditu lankidetzaren eredu publiko-sozial mistoa finkatzeko garaian.

142. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LEHEN KEZKAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)

	12.000 € edo gutxiago	12.001 € eta 60.000 € artean	60.001 € eta 300.000 € artean	300.001 € eta 1.500.000 € artean	1.500.000 € baino gehiago
Euskal gizarteak behar beste aitortzen du Hirugarren Sektore Sozialaren lana.	% 31,9	% 45,7	% 58,3	% 37,2	% 45,2
Azken urteetan, euskal gizarteak solidarioago agertu da eta Hirugarren Sektore Sozialarekiko konpromisoa handitu du	% 38,4	% 42,6	% 61,9	% 36,1	% 38,4
Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak posizionamendu tinkoa izan behar du, betiere, eragin politiko handiagoa ahalbidetzen duen diskurtso kolektiboa bilatuz.	% 66,1	% 77,3	% 87,9	% 80,8	% 82,7
Lankidetzaren eredu publiko-sozialaren eredu mistoa sendotzen ari da erantzukizun publikoko zerbitzuetan	% 28,6	% 42,4	% 57,0	% 42,9	% 52,5
Beste gizarte-eragile batzuk garrantzitsuak izango dira gizarte-erronkei erantzuteko	% 65,6	% 71,7	% 84,7	% 92,0	% 81,2
Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak lidergo rola bete behar du gizarteko eredu berrien eraikuntzan eta politika publiko berrien sorreran	% 65,6	% 71,7	% 84,7	% 92,0	% 81,2
Hirugarren Sektore Soziala arretako jardueretan dago zentratuta, eta bigarren mailan uzten ditu prebentzio-ekintzak eta erakundeen beste funtzio batzuk	% 37,3	% 34,5	% 45,7	% 42,4	% 29,5

10.5. 2019-2023 ALDIKO AZTERKETA KONPARATIBOA

EHSSren barruko harremanei dagokionez, beste erakunde batzuekin harreman dezente edo handia duten erakundeek ehunekoa pixka bat igo dela ikus daiteke; aldiz, bigarren edo hirugarren mailako entitateen baten parte diren erakundeek ehunekoaren egonkor mantendu da azken urteetan. 3 erakundetik ia 2 dira sare baten parte.

EHSSren aitortza eta babes sozialari dagokionez, datuek ez dute aldaketa handirik islatzen erakundeek pertzepzioan aurreko urteekin alderatuta. Alde batetik, aitortza sozial nahikoa dagoela uste duten erakundeek ehunekoa % 45 inguruan mantendu da. Bestalde, badirudi 2019 eta 2023 artean ez dela asko hazi babes sozialaren gaineko pertzepzioa. Azken urtetan babes sozialak gora egin duela uste duten erakundeek ehunekoa % 2 inguru hazi da.

Azkenik, sektoreak haren eragin politikoa areagotzeko diskurtsoak batu behar dituela uste duten erakundeek ehunekoa, pixka bat jaitsi den arren, oso esanguratsua da oraindik ere.

143. TAULA. SEKTOREKO HARREMANEN ETA EGOERAREN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK

Txostena	EHSS Liburu Zuria 2015	EHSS Liburu Zuria 2020	EHSS Liburu Zuria 2024	Desberdintasuna 2023-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2023	
Sektoreko beste erakunde batzuekin harreman dezente edo handia duten erakundeen %	67,0	66,1	68,8	2,7
Bigarren edo hirugarren mailako entitatereen bateko kide diren erakundeen %	58,7	66,4	65,8	-0.6
Behar besteko aitortza soziala dagoela uste duten erakundeen % (ados edo guztiz ados)	41,9	45,7	45,2	-0.5
Azken urtetan babes sozialak gora egin duela uste duten erakundeen % (ados edo guztiz ados)	50,3	44,1	45,8	1,7
Hirugarren Sektoreak haren eragin politikoa areagotzeko diskurtsoak batu behar dituela uste duten erakundeen % (ados edo guztiz ados)	89,7	81,8	79,1	-2.7

11. SEKTOREAREN HAUSNARKETAK ETA ERRONKAK

EHSSren liburu zuriaren 2024ko edizio hau aurrenekoz 2015ean kaleratutako txosten baten hirugarren edizioa da. Garai horretan, EHSSko erakundeek ezaugarri nagusien funtsezko azterketa bat izan zen, eta EHSSk aurrean zituen erronkei heltzeko galdera eta orientabide nagusiei buruzko gogoeta bat.

Orduz geroztik, EHSSk oso mugarri garrantzitsuak bizi izan ditu hura sendotu eta egituratzeko bidean; esate baterako, EHSSren legea, EHSS sustatzeko estrategia, bi legealdi-planak eta lankidetzaren publiko-sozialaren eredu mistoaren hedapena esku-hartze sozialaren eremuan. Horrezaz gain, pandemia bat ere izan da tartean, erakundeetan sekulako eragina eduki zuena. Liburu Zuri honetako datuak 2023an bildu ziren, eta EHSS pandemia osteko une batean dagoela erakusten digute, eta aitortutako rola duela eraldaketa sozialerako eragile sozial gisa. Sektorearen jardueren irismena, harremanak eta ekarpena handitu egin dira, hain zuzen ere rol hori finkatu egin delako.

Txostenaren azken atal honetan, aurreko ataletan aztertutako datuetatik eratorritako ideien gaineko gogoeta nagusiak berrikusiko dira. Gogoeta horiek EHSSko erakundeekin eta sareekin partekatu dira eta sektorearen egungo eta etorkizuneko erronkak irudikatzeko aukera ematen dute.

Erronka horietako batzuk ez dira berriak: indarrean daude duela hainbat urtetatik. Beste erronka batzuk makrora jotzen duen maila batean gertatzen dira, eta EHSSn islatzen dira, orobat. Elementu batzuk EHSSren identitatearekin, jarduerarekin eta jarrerarekin lotuta daude zuzenean. Beste batzuk, berriz, beste eragile sozial batzuekin lotuta daude, EHSS sustatzen dutenekin bereziki.

Ez da ariketa introspektibo soilak: EHSSren etorkizuneko erronkei zabaltasunez begiratu behar zaie, eta sektorearen lana gertatzen den dinamika sozialak eta harreman-testuinguruak bildu behar dira. Halarik ere, euskal gizarte inklusiboagoa, solidarioagoa eta kohesionatuagoa bultzatzeko ibilbidean EHSSk hartu ditzakeen ildo batzuk adierazi nahi dira.

Laburpen gisa, identifikatu diren EHSSren 12 erronkak jasoko dira jarraian. Kapituluaren multzokatu dira, eta ideia nagusiak izenburu gisa nabarmendu dira, erronkak multzo batean eta batera bistaratzeko. Erronka horiek guztiak banaka jorratzen joango gara datozen orrialdeetan, txostenaren aurreko kapituluetan baliatu den dimentsioen azterketa-egitura berari jarraituz, azterketa- eta gogoeta-elementuekin osaturik.

Kapitulu honen amaieran, erronka bakoitza EHSS sustatzeko estrategiaren arloekin lotzen dituen laburpen-taula bat dago.

EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN ERRONKAK

NORTASUNA	Sektorearen eredu komunitarioa eta identitate kolektiboa sendotzea Sektorearen balioak, espazioa eta logikak gordetzen dituen identitate kolektiboa sendotzea.	1. ERRONKA
	Ongizateari egiten dion ekarpena ikusgai egitea eta ekarpen sozial eta ekonomikoa aitortzea Ekarpen sozial eta ekonomikoari balioa ematea eta EHSSk ongizate kolektiboari egindako ekarpen bereizgarria ikusgai egitea. Hartara, errekonozimendu instituzionala eta soziala sustatzea.	2. ERRONKA
JARDUERA	Gero eta konplexuagoak diren errealitate berrietara egokitzeko gaitasuna babestea Hartzaileen profilen aniztasunari eta konplexutasunari erreparatzea. Horretarako, sortzen ari diren behar eta egoeretara irekita egon beharra dago, eta pertsonak erdigunean jartzen dituzten arreta-ereduen alde egin.	3. ERRONKA
	EHSSren gaitasun kritikoa eta eragin soziala sustatzea Erakundeen gaitasun kritikoa eta eragin sozialerako gaitasuna indartzeko formulak bilatzea, eta sektorearen identitate-elementu irmotzat identifikatzea.	4. ERRONKA
PERTSONAK	Boluntariotza komunitatearen oinarri gisa indartzea Entitateetan borondatez parte hartzeko modu berriak ulertu eta eskaintzea, boluntariotza bideratzeko hainbat estrategia eta formula baliatuz eta espazio espezifikoak eskainiz.	5. ERRONKA
	Talentua gorde eta erakartzea belaunaldi-erleboari heltzeko eta emakumeen lidergoa bultzatu Talentua erakartzea belaunaldi-erleboari heltzeko, eta oso feminizatuta dauden lantaldeak zaintzea. Horretarako, arreta berezia jarriko da lan-erritmoen eraginetan eta arrisku psikosozialetan.	6. ERRONKA
BALIABIDE EKONOMIKOAK	Jasangarritasunaren eta finantzazioaren bidean aurrera egitea Erakundeen jasangarritasun ekonomikoaren bidean aurrera egiten jarraitzea. Ildo horretan, sektorearen espezifikotasuna aitortzen duten eta programa, zerbitzu, baliabide eta taldeen egonkortasuna bermatzen dituzten finantzazio-esparruak sustatu behar dira.	7. ERRONKA
KOMUNIKAZIOA ETA KUDEAKETA	Ekarpen sozialarekin bat datozen (alegia, misioarekin koherenteak diren) kudeaketa- eta antolaketa-ereduak sustatzea Berrikuntzaren, gardentasunaren, koherentziaren eta ekarpen sozialaren alde egiten jarraitzea, eta jasangarritasunarekin eta orekarekin uztartzea erakundeen kudeaketan.	8. ERRONKA
	Jarrera proaktiboa eta ekintzailea bultzatzea Ekintzailetzari begirako jarrera proaktiboa sustatzea EHSSko erakundeetan, eragin sozial handiagoko erantzun berritzaileak eta jasangarriak sortzeko.	9. ERRONKA
KANPO HARREMANAK	Harreman- eta lan-esparru mistoak sendotzea eragile guztiekin (lurraldeko elkarlana sendotzea) Konexioak hedatzen jarraitzea beste eragile sozial batzuekin, eta EHSS eragile sozial gisa aitortzen den harreman-esparruak finkatzea.	10. ERRONKA
HARREMANAK ETA SEKTOREAREN EGOERA	Barneko lankidetzan aurrera egitea eta sektorearen legitimazio soziala indartzea Erakundeek beren artean elkarlanean aritzeko eta sareetan parte hartzeko egiten duten apustua zaindu eta sustatzea. Hala, inplikazioa eta EHSS egituratzeko prozesuan egindako ahalegina aitortu behar dira.	11. ERRONKA
	Ongizatearen agendan ekarpena egitea EHSSren agenda propioarekin Ibilbide-orri edo agenda bat finkatzea EHSSren lehentasunekin. Hartan, sareek ordezkartitza- eta elkarriketa-zeregin giltzarria izango dute, eta EHSSren jarrera eta errekonozimendu zabala bilatuko da.	12. ERRONKA

Nortasuna

1.ERRONKA

Sektorearen balioak, espazioa eta logikak gordetzen dituen identitate kolektiboa sendotzea.

2.ERRONKA

Ekarpen sozial eta ekonomikoari balioa ematea eta EHSSk ongizate kolektiboari egindako ekarpen bereizgarria ikusgai egitea. Hartara, errekonozimendu instituzionala eta soziala sustatzea.

Datuak ikusirik, erakundeek kopurua etengabe ari da handitzen: azken bost urteotan, 700 erakunde baino gehiago sortu dira, eta, orain, erakunde gazteak guztizkoaren % 18,2 dira. Erakunde berriak sortzeko erritmoa kontuan izanik, badirudi **EHSS irekia eta dinamikoa** dela eta **zabaltze bidean** dagoela. Halaber, behar berriei erantzuten eta egoera zein testuinguruetara egokitzen jarraitzen du; aldaketa sozialekin eta zaurgarrien errealitatearekin konektatzen du, eta sormenezko erantzun egokituak sortzen ditu pertsonen hurbileko errealitateko egoera eta arazoen aurrean. Erantzun horiek gero eta espezifikoagoak dira, gainera. Bestalde, estatuan⁷⁵ eta Katalunian⁷⁶ egindako azterlanetan nabarmentzen da sektorea eraldatzeko gauza dela, sortzen doazen behar sozialei erantzun ahal izateko unean-unean.

Aldi berean, **eraberritze** horren baitan, erakunderik gazteenak sektoreko espazio eta dinamiketan mailaz maila sartzeko erronka ere badago, antolaketa eta elkarlanerako egiturak bermatzeko. Besteak beste, zer ekarpen egiten duten, zer barne- eta kanpo-logika dituzten eta nola antolatzen diren ulertuz gero, dinamismoa bideratu ahalko da, eta, era horretan, sektorea indartzen duten dinamika sortu, identitate partekatua eta kolektiboa eraikitzen jarraitzeko aukera ematen dutenak. Identitate hori ez da zertan estatikoa izan, baizik eta porotsua eta dinamikoa, errealitate sozialaren aldaketetara egokitzeko gaitasunarekin eta ezaugarri partekatuei eutsiz.

Horrez gain, datuen arabera, EHSSk **askotarikoa** izaten jarraitzen du jarduera-eremuari, artatzen diren kolektiboari edota erakundeek tamainari dagokienez. Aniztasun hori estatu-mailako azken azterlanean ere aipatzen da⁷⁷. Atomizazioa EHSSren ezaugarri bereizgarria izan da beti, eta sektorearen aberastasuna eta pluraltasuna erakusten du horrek. Alabaina, kezkarria ere bada entitateentzat, identitate partekatua orokortzea zaildu eta errealitate sozialari buruzko ezagutza sakabanatu dezakeelako. Orobat, sektore gisa egiten den lan kolektiboa, beste eragile sozial batzuekiko elkarriketa edota finantzazioa lortzea konplexuago bihur dezake.

Era berean, EHSSko erakundeek atomizazioa eta aniztasuna dinamika sozial zabalagoekin lotzen da; esate baterako, espezializazioarekin, hau da, banakako erantzun espezifikoagoak bilatzearekin egoera edo arazoen aurrean. Horiek horrela, atomizazioa baliatzea da erronka, zatikatzeko ez, baizik eta identitate kolektibo baten eraikuntzan bat egiteko eta, beraz, aniztasuna islatzen duten eta ahaleginak batzen dituzten aliantzak sortzeko.

⁷⁵ GIZARTE EKINTZAKO GKE-EN PLATAFORMA (2023). 2022ko Espainiako Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorearen Barometroa. Hemendik berreskuratua: https://www.plataformaong.org/ARCHIVO/documentos/biblioteca/1676295113_resumenejecutivo-barometro-3-sector.pdf

⁷⁶ L'OBSERVATORI DEL TERCER SECTOR (2018). *El Panoramic 2018. Base social i participació a les entitats no lucratives de Catalunya*. Hemendik hartua: <http://www.elpanoramic.org/wp-content/uploads/2015/07/PANORAMIC-2018.pdf>

⁷⁷ GIZARTE EKINTZAKO GKE-EN PLATAFORMA (2023). 2022ko Espainiako Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorearen Barometroa. Hemendik berreskuratua: https://www.plataformaong.org/ARCHIVO/documentos/biblioteca/1676295113_resumenejecutivo-barometro-3-sector.pdf

Horretarako, erakunde gazteen edo erakunde txiki edo ertainen ezaugarriak aintzakotzat hartu behar ditugu: jasangarritasun ekonomikoko zailtasun gehiago dituzte, kudeaketa-egitura ahulagoak dituzte, lantaldeetan boluntarioak soilik daude edo gehienak boluntarioak dira... Ibilbide luzeagoko erakundeen edo erakunde handiagoen aldea, zaurgarriagoak dira, eta gauza bera gertatzen da biziraupena bermatzeko ahaleginekin.

Zifra handien datuei jarraituz, nolabaiteko hurbilpena ikusten da lurralde historikoen artean. Antza denez, lurralde historiko bakoitzeko hirugarren sektore sozialaren ibilbideen arteko aldea murrizteko joera dago. Hurrengo diagnostikoetan ikusi beharko da nola doazen ibilbide horiek eta zer eragin duten EHSSren nortasunari, egiturari eta, oro har, **konfigurazioari** dagokionez.

Horri gehitu behar zaio boluntarioen eta ordainpeko langileen zifra handiek erakusten dutela EHSSko erakundeetan eta lantaldeetan dihardutenen kopurua nabariki handitu dela. Haatik, azken urteotako joerak agerian ipini du ordainpeko langileak boluntarioak baino gehiago izaten ari direla sektore osoan eta, hortaz, profesionalizatzeko joera dago. Badirudi faktore hori erabakigarria izaten ari dela lantaldeen identitatean, jardueran eta konfigurazioan, aurrerago ikusiko den moduan. Baliteke erakundeen arteko nolabaiteko polarizazioa islatzea: lantaldeetan ordainpeko langileak izan ditzaketen erakundeek erritmo eta egitura jakin batzuk dituzte, boluntarioz soilik osatutako erakundeekin konparatuta.

Testuinguru horretan, bistan da EHSS anitza dela tamainari, jarduera-eremuari edota artatzen duen kolektiboari dagokionez. Baina horrelakoa da sektorearen **identitate kolektiboak** ezaugarri partekatuak eta nuklearrak izanik. Hain zuzen ere, EHSSren legeak ezaugarri horiek azpimarratzen ditu definizioan. Adibidez, borondatezko ekintza, irabazi-asmorik eza eta partaidetza EHSSko erakundeei soilik dagozkien ezaugarriak dira, eta legeak ere jaso egiten ditu.

Ezaugarri horiei eustea funtsezkoa da, baina baita aurrera egitea ere, **EHSSk berezkoa** duen guztia gordeko duen eta beste eragile sozial batzuekiko harreman-esparruetan argi adieraz daitekeen identitate kolektibo bat indartu ahala. Erakundeen misioaren muinean dauden balioak: elkartasuna, berdintasuna eta kohesio soziala. Esku-hartze sozialaren espazioa, pertsona zaurgarriei bidean laguntzen, eta horretarako ereduak, pertsonak erdigunean jarri eta dimentsio komunitarioa bultzatzen dituzten eskubideak izanik. Eraginerako espazioa, garapen komunitarioarako espazioa, sentsibilizaziorako espazioa, salaketa jartzekoa, guztiontzako eskubideak defendatu eta sustatzekoa. Han, gizarte inklusiboa erdiesteko bidea egiteko dagoen guztian jartzen da arreta. Zerbitzu-horniduraren logika propioak, identitatearen ezaugarrietatik eratortzen den balio erantsia ematen dutenak. Komunitatearekin konektatu eta partaidetza soziala bultzatzeko logika propioa. Beste eragile batzuekiko harremanak berezkoa duen logika, elkarriketatik eta elkarlanean aritzeko borondaketik, kohesio sozialean sakontzeko aukera ematen duten esparruen eraikuntzan, hain zuzen.

Balio, espazio eta logika horiek sektorearen ezaugarriak dira, eta oinarritzko eragina dute ehun sozialean eta haren egitura eta harremanetan, baita pertsona guztien eskubideetan ere. Eta eragin hori bereizgarria eta berdingabea da. Aldaketa sozialetan laguntzeko lan horretan, EHSS eragile garrantzitsua da komunitatearen ongizatea bideratu eta ziurtatzen, berdintasunaren eta elkartasunaren balioetatik abiatuta.

Halaber, sektorearen identitate kolektibo horrek dakarren **ekarpen soziala** agerian uzteko bidean ere aurrera egin behar da, erakundeen ekarpen bereizgarri eta osoari balioa emateko eta horrekin lan egiteko, sektorearen errekonozimendu sozial zabala lortze aldera. Elementu horiek sendotuz eta partekatuz, erakundeak identitate kolektiboarekin lerrokaturik mantentzeko, eta estimatuak izan beren balio sozialagatik eta sortu zein frogatzen duten itzulkin sozialagatik.

Hori bereziki garrantzitsua da egungoa bezalako testuinguru batean: erakunde askok nolabaiteko eskua sartzea hautematen dute sektoreari dagozkion figura juridikoetan eta harenak izan ohi diren esku hartzeko espazioetan. Izan ere, horrelakoetan lanean jardun izan du eta balio erantsia eman du bere identitate-ezaugarrietatik abiatuta. Gainera, EHSSko erakundeak oso kezkatuta daude erantzukizun publikoko zerbitzuetan enpresak sartzeagatik. Hala, irabazi-asmorik ezarekin, borondatezko partaidetzarekin edo ekimen zibilarekin bat ez datozen logikak sar daitezke esku-hartze sozialean.

Identitate hori dela-eta errekonozimendu soziala lortu ez ezik, errekonozimendu hori batik bat erakunde publikoekiko harreman-esparruetan agerian geratu eta argi adieraztea nahi du EHSSk, eta gauza bera beste eragile sozial batzuekiko eta herritarrekiko harreman-esparruetan. EHSS eraldaketa sozialeko oinarritzko eragile bat bada eta desparekotasun sozialak arintzeko egiten duen lanak kohesio soziala eta eskubide sozialak sendotzea eragiten badu, entitateek eskatzen duten errekonozimenduak ekarpen sozial osoari balio ematea dakar.

EHSSk funtsezko zeregina du gizarte bidezkoagoa, inklusiboagoa eta kohesionatuagoa eraikitzeke lanean. Nolanahi ere, nahiz eta benetako eragina duen pertsonen ongizatea hobetzeko, eskubideak sendotzeko eta kohesio sozialerako, EHSSren lanak ez du beti dagokion errekonozimendu instituzional, sozial eta politikoa jasotzen. Hartara, erronketako bat da EHSSk ongizate sozialari egiten dion ekarpena argi eta modu jarraituan ikusgai jartzea eta haren balio sozial eta ekonomiaren errekonozimendua indartzea arlo guztietan: administrazioak, herritarrak, eragile ekonomiko eta sozialak...

Ikusgai egiteko behar hori [Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen](#) 22. artikuluan xedatutakoarekin zuzenean lotuta dago. Artikulu horretan, EHSS bera eta haren ekarpena aitortzeko neurriak datoz. Orobat, erronka hori EHSSSerekin lerrokatuta dago, eta haren “oinarria ekarpen –historiko, eguneko eta etorkizuneko– hori onartzean datza” (5. or.). Ildo horretan doazen hainbat jarduera biltzen dira EHSSSEn; adibidez, 29.a: EHSS eta haren errealitatea eta ekarpena ezagutzera emateko ekimen bat sustatzea.

EHSSren lana ezagutzera emateko erronkaren baitan, hainbat jarduera-ardatz hedatzea ezinbestekoa da. Horietako bat EHSSren ekarpena **kuantifikatu eta bereiztea da, beste eragile batzuen aldean**, merkatu-logiken pean diharduten eragileen aldean bereziki. Azken horiek ez bezala, EHSSk irabazi-asmorik gabe egiten du lan, boluntarioen oinarri sendo batekin eta herritarren partaidetzarekin, eta guztien ongira bideratutako konpromiso etiko batetik. Espezifikotasun hori agerian uztea behar-beharrezkoa da sektorearen identitatea indartu eta eraldaketa sozialeko eragile gisa aitortzea sendotzeko, haren berezitasuna eta legitimitatea neurri handiagoan ulertzeko balio baitu.

Ildo berean, sektorearen **eragin sozioekonomikoa** nabarmentzea lehentasun bat da. EHSSk eraldaketa sozialeko lan garrantzitsua egiten du, baina aberastasuna eta enplegua ere sortzen ditu. 2022an, sektoreak 2.044 milioi euro kudeatu zituen, hau da, EAEko BPGaren % 2,4, eta ordainpeko lana eman zion 45.000 pertsonari baino gehiagori. Datu horiek agerian ipintzen dute dimentsio ekonomikoa oharkabea pasatzen dela maiz, eta EHSSren zereginari buruzko kontakizun publikoari gehitu behar zaiola. Aldi berean, informazio hori jasangarritasun ekonomikoaren erronkarekin ere lotzen da, babes sozial eta instituzionala errazten duelako eta finantza- eta elkarlan-aukera berriak sortu daitezkeelako ondorioz.

Baina kontua ez da ikuspegi kuantitatibo soiletik begiratzea. Ohiko adierazle ekonomikoez harago, EHSSk pertsonen, kolektiboen eta komunitateen bizitzan duen **eragin kualitatiboa ere neurtzen** duten tresnak garatzea ezinbestekoa da, eta, era horretan, EHSSren jardueraren balio soziala eta sortzen duen itzulkina dimentsionatu. Adierazle espezifikoak eta metodologia

egokituak behar dira ongizatea sortzeko, eskubideak defendatzeko, ehun komunitarioa indartzeko edota inklusio soziala sustatzeko. Sektorean dagoen kezkarekin zuzenean lotuta dago hori, eragin soziala neurtzeko tresnak sartu direlako eta emaitzei begirako kudeaketa onartzeko beharra dagoelako. Bi aldagai horiek giltzarri dira gardentasuna eta etengabeko hobekuntza indartzeko.

Lanaren ikuspegi kualitatiboa txertatzeko ahalegin horretan, EHSS ez da hutsetik hasten ari. EHSSEn, 28. jarduera hau da: “EHSSren eta erakundeen guztizko balioa eta balio erantsia identifikatu, onartu eta sustatzea”. Jarduera horren ondorioz, Sareen Sareak txosten hau argitaratu zuen 2021ean, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Sailarekin elkarlanean: *Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen balio osoari eta balio erantsiari buruzko txostena. Erakundeetan sistema ezartzen laguntzea. Erakundeetan sistema ezartzen laguntzea*⁷⁸. Txostena adierazle-sistema batetik abiatu bideratu zen, eta sektorearen ekarpen soziala modu sistematiko eta objektiboan neurtzeko aukera eman zuen alde kualitatibotik, zerbitzu estandarizatuak emateaz harago. Besteak beste, honako elementu hauek darabiltza: eskubideak sustatzea, berrikuntza, beharrak detektatzea eta herritarren partaidetza solidarioa egituratzea.

Adierazle kualitatiboak eta kuantitatiboak egituratzen dituzten eta datu zein ebidentziak edukitzeko aukera ematen duten tresnak baleude, sektorearen legitimitatea indartzeko lagungarria izango litzateke. Horren eraginez, eragina izateko gaitasuna eta partaidetza instituzionala hobeak izango lirateke, eta kontuak ematea ere errazagoa izango litzateke, finantzatzaile, administrazio publiko eta gizartearen aurrean.

Bestalde, **errekonozimendu instituzionala eta soziala** erronka horren ardatz nagusietako beste bat izan behar da. EHSS identifikatua eta aintzat hartua izatea da helburua, zer den kontuan izanik: erakundeen askotariko multzo bat da, eta, beren autonomiaz baliaturik, modu erabakigarrian laguntzen dute desparekotasunak arintzen, eskubideak defendatzen, zaugarritasun-egoeran daudenak zaintzen eta bidean laguntzen, baita kohesio soziala indartzen ere. Errekonozimendu hori ahalik eta esparru gehienetan gertatu behar da: politikoak, instituzionalak, sozialak, mediatikoak eta komunitarioak.

Norabide horretan aurrera egiteko asmoz, **komunikazio- eta ikusgaitasun-estrategiak** garatu behar dira ezinbestean; horiek sektorearen balioekin koherenteak izan beharko dute eta hainbat hartzailerekin konektatzea lortzen dute. Ondorioz, bere kontakizunak sortzeko sektoreak duen gaitasuna hobetu behar da, batetik, eta horiek aniztasuna, berrikuntza eta ekintzaren eragina erakutsi behar dute. Eta bestetik, akordioak ezarri behar dira beste eragile sozial batzuekin, kontakizun horiek anplifikatzeko. Horixe xedatzen da EHSSren legearen 22. artikuluan, eta EHSSeko 29. jardueran hedatzen da: hedabideak, unibertsitateak, erakunde publikoak eta beste eragile batzuk.

Datuekin bat etorritik, erakundeek bere ideia hori azpimarratzen dute. Zehazki, sektorearen kezken artean, bigarren ageri dira sentsibilizazioa, errekonozimendua eta gizarte zibilaren partaidetza. Gainera, erakundeen ia % 80k uste du EHSSk jarrera irmoa eduki behar duela, eta, hala, eragin politiko handiagorako aukera ematen duen diskurtso kolektiboa bilatu. Alde horretatik, partaidetza instituzionaleko espazioak indartu egin behar dira: horrelakoetan, EHSSk bere ahotsa entzuna izatea lortu eta, bere esperientziatik, politika publikoen garapenean lagundu dezake, elkarriketa zibila abiapuntutzat hartuta, bai eta sektore publikoarekiko beste elkarriketa-tresna eta -espazio batzuk ere, EHSSren legean azpimarratzen den moduan

⁷⁸ Hemen eskuragarri: <https://sareensarea.eus/wp-content/uploads/2022/03/Balio-Osoa-Balio-Erantsia-Txostena-sareen-sarea-1.pdf>

(II. kapitulua). Horretarako, solaskide sozial gisa benetan errekonozitzeko lanean aurrera egin behar da derrigor, zerbitzuak emate hutsean oinarritutako logikak gaindituz eta hein handiagoan inklusiboa eta erantzukidea den gobernantza-eredu baten alde eginez.

Halarik ere, errekonozimendu sozialak eragin politikoaren arloa gainditu behar du eta bestelako ikuspegi bat txertatu, gizarte osoaren zein gizartea osatzen duten eragile-moten errekonozimendua dakarrena. Horregatik, errekonozimendua indartzeari dagokionez, EHSSren eta ekosistema sozial eta ekonomikoko beste eragile batzuen arteko elkarlan-esparruak sortu edo eguneratu behar dira; adibidez, mugimendu sozialekin, unibertsitateekin, enpresekin eta abarrekin daudenak. Enpresei begira, EHSSren legean bertan sektorearen eta enpresen arteko lankidetzak sustatzea jorratzen da 24. kapituluan, eta EHSSEn islaturik dago 20. jardueraren bitartez, zeinean euskal enpresa-sektorearen eta EHSSren arteko lankidetzako programa pilotu bat sustatzen den. Dena dela, errekonozimendua elkarrekikoa izan behar da eta sektorearen balioekin bat datozen lankidetzak-jardunbide eraginkorretan islatu behar da.

Bestalde, sektoreak sortutako balio sozialaren komunikazio- eta ikusgaitasun-estrategia bat tresna garrantzitsua izan daiteke emaila gehiago lortzeko, boluntario-profil berriak erakartzeko eta oinarri soziala areagotzeko. Estrategia horretan, diskurtso partekatuak eraikitzea giltzarri izango litzateke, eta diskurtso horiek EHSSren misio eraldatzailearekin bat etorri behar dira eta ingurune- eta hartzaile-mota bakoitzera egokitu behar dira.

Azken batean, EHSSk ongizateari egiten dion ekarpena ikusgai jartzea eta haren ekarpen sozial eta ekonomikoa aitortzea sektorea indartzeko behar estrategikoa da. Horretarako, ezinbestekoa da datuak, ebidentziak eta kontakizunak sortzeko lanean aurrera egitea, eragina indartzen duten aliantzak sendotzea eta, azkenik, euskal ekosistema sozialean duen funtsezko zeregina benetan errekonozitzen duten esparruak garatzea. Hori da legimititate handiagoa, oinarri sozial sendoagoa eta egitura instituzionala lortzeko bide bakarra, kontuan izanik egitura horrek eskubideetan, ongizatean eta partaidetzan arreta jartzen duen eredu sozial baten eraikuntzan jarraitzeko aukera eman behar duela.

Jarduera

3.ERRONKA

Hartzaileen profilen aniztasunari eta konplexutasunari erreparatzea. Horretarako, sortzen ari diren behar eta egoeretara irekita egon beharra dago, eta pertsonak erdigunean jartzen dituzten arreta-ereduen alde egin.

4.ERRONKA

Erakundeen gaitasun kritikoa eta eragin sozialerako gaitasuna indartzeko formulak bilatzea, eta sektorearen identitate-elementu irmotzat identifikatzea.

Sektorearen aniztasuna jardueran ere ikusten da: jarduera-eremu desberdinetan diharduten, kolektibo desberdinak artatzen dituzten eta jarduera-arlo desberdinetan arreta jartzen duten erakundeak baitaude sektorearen barruan. Aniztasuna nahiko egonkorra izan da denboran zehar. Nolanahi ere, irakurketa denbora luze samarrean eginez gero, aldaketa txikiak gertatu dira azken 10 urteotan; esate baterako, eremu sozial-zeharkakoa osatzen duten erakundeek pisu handiagoa dute orain sektorean. Eremu horretan, erakunde zibikoek dihardute, batik bat eremu komunitarioan aritzen direnak kolektibo zaurgarrien eskubideak sustatzen eta defendatzen: emakumeak, migratzaileak, adinekoak, LGTBIQ+ kolektiboa, etab.

EHSSko erakundeek jarduerak eragin handia jasan zuen pandemiaren ondorioz. Horren ostean, aurrez aurre ari dira berriz ere erakundeak beren jarduera eta zerbitzuetan. Hala eta guztiz ere, pandemian zehar itxialdiari eta murrizketei aurre egiteko elementuetako batzuk geratu egin dira. Arreta-ereduei dagokienez, ikusi da **aurrez aurrekotasuna** funtsezkoa dela hartzaileei bidean laguntzeko. Are gehiago, zenbait kasutan, esku hartzeko prozesuaz gain eta horren esparruan egiten diren jardueraz gain, hartzailearekin egon, hari entzun eta harekin hitz egite hutsa funtsezkoa da arretan.

Bestalde, pandemia dela eta, **tresna digitalak** txertatu behar izan ziren erakundeek barne-funtzionamendurako, baina baita mugikortasun-murrizketek eragindako arreta bermatzeko ere. Modu horretan, hartzaileekin harremanetan egoteko aukera berriak aurkitu ziren: onlineko jarduerak eskaini, gailuak erabili jardueretarako edo estimulaziorako... Denbora igaro ahala gelditu egin dira, eta entitateek txertatu egin dituzte beren zerbitzuetan.

Halaber, askotariko elementu konplexuak utzi zituen agerian pandemiak, besteak beste, egitura soziodemografikoan gertaturiko mutazioak, ekonomiaren eraldaketa digitala eta gizartean izandako eraginak, zentzu zabalean. Adibidez, honako fenomeno hauei buruz ari gara: biztanleriaren zahartzea, nahi ez diren bakardade-egoerak areagotzea, arintzen ez den arrakala digitala eta buru-osasuneko arazoak dituztenen ehunekoa handitzea. Eta aipatu fenomenoek buruz jarduten dugunean, izaera berdingabeari zein intersektionalari begiratzen diogu, elementu horietako bi edo gehiago pertsona edo kolektibo baten baitan batzen direnean, eta, ondorioz, zaurgarritasuna, desabantaila edo diskriminazioa ugaritzen direnean. Fenomeno horiek, berez, erronka sozial berriak dira eta erantzun berritzaileak behar dituzte. Ez alferrik, EHSS ekarpen nabaria egiten ari da ildo horretan.

Nahiz eta pandemia aurretik ere bazeuden fenomeno horiek, ondorioak nabariki indartu eta ugaritu ziren COVID-19aren ondoriozko krisiaren unerik gogorrenetan. Jarraian, EHSSko erakundeek pandemian aurkitu zituzten egoeren berri emango dugu, bai eta erantzunen berri ere. Azkenean, erantzun horiek arretaren barruan gelditu dira, aipatu diren arazoei heltzen zaienean.

Pandemiak hainbat gai, arazo edo behar azaleratzea eragin du, eta erakundeek beren arretan txertatu behar izan dituzte. Horietako bat **arrakala digitala** izan da, hartzaileetako askoren egoera zeharkatu duena. Erakundeek *geruza digitala* txertatu nahi izan dute beren arretan, hau da, hartzaileek oso modu desberdinetan (eskuratzeak arrakalak, erabili edo alfabetatzeko arrakalak, dokumentuen urraketa, etab.) pairatzen dituzten arrakala digitalei aurre egiteko bide-laguntza digital gehigarria. Hartara, **ekitate digitala** lortzeko bidea lautu nahi da.

Entitateek zeharkakotzat jotzen duten beste arazo bat **buru-osasuna** da, pandemiaren eraginez bereziki. Arlo desberdinetan eta kolektibo desberdinak artatzen dituzten erakundeek buru-osasuneko egoerak edo arazoak dituzten pertsonen intzidentzia handiagoa identifikatu dute horren ondorioz, bai eta pertsona zaurgarrien profil konplexuagoak ere.

Nahi ez den bakardadea zeharkako beste arazo bat da, eta pandemiak agerian utzi zuen bat-batean: adinekoen artean ez ezik, beste profil batzuetan ere bai, gazte eta nerabeen artean kasurako. Horrekin lotuta, lan komunitarioa egituratu eta gauzatzeko ahalegina azpimarratzen dute entitateek, bakardade-egoerak detektatu eta artatu ahal izateko. Izan ere, pandemiaren ostean erakundeek jardueran sendotu den beste zerbait **komunitatearekiko** harremana eta sare komunitarioak ehuntzeko ahaleginak dira, nahi ez den bakardadearekin eta beste arazo batzuekin lotuta. Sare horiek detekzio goiztiarra egin, erreferentziazko espazioak sortu eta komunitatean bertan zaintzeko aukera eman dezakete.

Biztanleriaren **zahartzea** eta horren ondorioak ere kezkarriak dira. Erakundeek hartzaileen artean agerian geratzen ari da azkenean, eta erronka handia da epe laburrera, bai mendekotasun-egoeran edo -arriskuan daudenak artatzen dituzten entitateentzat, bai hartzaileen beste kolektibo askorentzat, zahartze hori bizitzen ari baitira edo biziko baitute, eta bizi-ziklora egokitutako arreta beharko baitute. Alde horretatik, funtsezkoa izango da osasuna gordetzea azpimarratzen duen prebentziozko arreta-ikuspegia erabiltzea eta, narriadura dagoenean, osasunari begiratzen dioten ikuspegiak, bizitza zaintzeko aukerak sortzen dituztenak. Horiez gain, zerbitzuak eta baliabideak egituratu beharko dira, eta sistemen arteko koordinazioa indartu.

Migrazio-mugimenduak eta pasadizoan dauden mugimenduak ere pertsona gehiago artatzea eragin dute, eta, halaber, erakundeek haien arretan aurre egiten eta txertatzen saiatu diren aldaketak ere ekarri ditu. Hala, askotariko profilak artatzen saiatu dira (gazteak, emakumeak, familia-unitateak...), hizkuntza-oztopoei eta kultur aldeei heldu diete, eskaera berriak edo desberdinak bideratu dituzte, etab.

Erakundeek **pertsona gehiago** artatzen dituztela identifikatu dute, larriagotu diren beharrek edo egoerek bultzatuta, zeinak metatu diren edo sortu berri diren, baina sektorearen zereginak gero eta errekonozimendu handiagoa ere badu. Kasu askotan, pertsonak entitateetara joaten dira zuzenean, eta han informazioa eta orientabideak ematen zaizkie baliabide eta zerbitzuei buruz. EHSSko beste erakunde batzuen jardura hein handiagoan ezagutzea eta elkarlanean neurri handian aritzea ere lagungarri izan daiteke zentzu horretan, beharbada, beste entitate batzuen aukerak ezagutzera ematen dituzten heinean. Hartzaileengandik eta, oro har, herritarrengandik gertu daude. Horregatik, gerturatu eta informazioa eskatzeko beldurra galtzen ari dira, eta, horrekin batera, EHSSko erakunde batera gerturatzen direnen estigma soziala ere lausotzen ari da.

Nolanahi ere, erakundeek artatzen dituztenen profila aldatzen ari da, zeharkako elementu horiek gainjartzen direlako, hain zuzen ere, adibidez, arrakala digitalak eta buru-osasuneko arazoak. Ondorioz, artatzen diren **egoerak eta errealtateak gero eta konplexuagoak** dira. Konplexutasun horri hauskortasuna, kronikotasuna edota diagnostikoetara berandu iristea batzen zaizkio.

Aldi berean, baliteke artatzen zailagoak diren profilak sortzea horregatik, gainjartzen diren geruza edo egoerak direla bide. Eta, hala, agerian jartzen da elementu horiek guztiek bat egiten duten abordatze edo ikuspegi **intersektional** bat txertatzeko beharra dagoela. EHSSko erakundeek arretan gero eta ikuspegi espezializatuagoa osatzen ari da, askotariko egoerei begiratu behar zaielako ikuspegi global batetik, begirada pertsonalizatuarekin, pertsona erdigunean jarritik eta egoera bakoitza konfiguratzeko duten faktoreen aniztasuna aztertuz eta aintzakotzat hartuz. Horretan guztian eragiten jarraitu behar da, berdintasun, ekitate eta kohesio sozial handiagoak eta eraginkorrak lortzeko xedez.

Genero-ikuspegia ere funtsezkoa da hartzaileak artatzeko garaian. Datuei jarraikiz, emakumeak artatzen dituzten erakundeek ehuneko handiagoa da orain, eta entitateek emakumeentzako programa eta ibilbide espezifikoak garatzeko gero eta gaitasun handiagoa dute. Bide horretan, bestelakoak diren egoera horiek aztertzen dituzte, genero-ikuspegiak horretarako aukera ematen baitu hartzaileen egoera aztertzen denean. Hori gertatzen denean, gora egiten du baliabide eta zerbitzuetara jotzen duten emakumeen kopuruak, eta baliabide eta zerbitzuekiko atxikimendua ere bai. Beraz, bistan da eskaera areagotu egiten dela emakumeentzako aukerak modu espezifikoan eskaintzen direnean.

Horiek horrela, erakundeek ikuspegiak, metodologiak eta tresnak **berritzeko** bidean aurrera egin behar dute ezinbestean, gero eta askotarikoagoa eta konplexuagoa den errealitateari eta sortzen diren behar berriei erreparatzeko. Lan horretan, pertsonen zaintzak erdigunean egon behar du. Ikuspegi, metodologia eta tresna horiek baliozkotzea eta ezagutza sortzea ere garrantzitsua izango da. Erakundeek etengabe landu dituzte beharrak detektatzeko gaitasuna, identifikatzen dituzten egoeren azterketa eta erantzun egokiak sortzeko gaitasuna eta, konplexutasuna handitu ahala, hori dena indartzea nahitaezkoa da. Eta eraldaketa soziala sortzen jarraitzeko apustu giltzarriak sormena, irekitasuna eta gertutasuna dira.

Zerbitzuz hornitzeaz gain, **eragina** EHSSko erakundeek ezinbesteko jarduera-eremu bat da: haien balioekin eta misioarekin lotuta dago eta eragin erabakigarria du eraldaketa sozialean. Gainera, herritarrekin loturak ezartzeko aukera ematen dio sektoreari. Datuak ikusirik, zerbitzu-hornidura eta eraginarekin lotutako beste funtzio sozial batzuk uztartzen dituzten erakundeek ehunekoak oso handia izaten jarraitzen du. Halaber, azken urtean sentsibilizazio-kanpainaren batean parte hartu duten erakundeek ehunekoak ere aipatzeko modukoa da oso. Halarik ere, **funtzioen oreka** esaten zaion horrek ibilbide desberdinak eduki ditzake erakundeetan, nondik nora doazen, tamaina edo zerbitzu-hornidurak jardueran duen pisua kontuan hartuta.

Oro har, kezka zabala da EHSSn gaitasun kritikoa galtzeko aukera dela eta. Alabaina, entitateen txikienez oso behar espezifikoak dituzte eta horrelako errealitateak artatzen dituzte. Horrelakoetan, eragina izateko gaitasun handia behar da egoera horiek ikusgai egin eta hartzaileen eskubideak sustatzeko, hartzaileek berek edo haien senitartekoei sortutako erakundeetan bereziki. Horrelako erakundeetan, eragina jardueraren funtsezko elementu bat izan daiteke. Erakunde handiagoetan, aldiz, zerbitzu-hornidurak pisu handiagoa du jardueran, erantzukizun publikoko zerbitzuak ematen dituztenetan batez ere. Erakunde horiek lotura dute administrazio publikoekin, eta solaskide izateko gaitasuna dute, gainera. Hortaz, eragina elkarriketa horren bidez gerta daiteke batik bat, eraldaketa soziala erakunde publikoekiko elkarlan- edo elkarriketa-espazioetara bideratuz, ez hainbeste salaketaren edo sentsibilizazioaren bitartez. Egiaz, elkarriketa zibila oinarritzko elkarriketa-espazio gisa sendotzen aritu da EHSSren eta erakunde publikoen artean, sektore publikoarekiko elkarlanetik eragin politikoa lortzeko beste eremu batzuen artean.

Baliteke beste faktore batzuek ere eragina izatea entitateen pertzepzio horretan, hots, gaitasun kritikoa galtzeko aukeraren pertzepzioan. Hona hemen zer faktore diren, besteak beste: profesionalizazioa, hartzaileentzako arretaren areagotzea, kudeaketa-lanak eta jardueraren erritmo bizia. Oro har, horiek guztiek agerian uzten dute entitateek eraginerako denbora gutxi dutela. Erakundeek oro har uste dute erritmoak azeleratu egin direla gizartean, eta horrek bere isla du haien jardueran ere. Horrez gain, sektorea gero eta neurri handiagoan ari da profesionalizatzen. Ondorioz, dokumentazio-kudeaketak gora egiten du eta planak, elementuak eta kudeaketa-tresnak pilatu egiten dira gero eta hein handiagoan. Denbora luzea behar da horri heldu eta garatzeko. Halarik ere, erakundeentzat, eraginerako denbora aurkitzea da zaila, azken lana baita egitekoen zerrenda luzean.

Finantzazio publikoarekiko mendekotasuna ere beldur-iturri da erakundeentzat, eta gaitasun kritikoan eragina du. Egoera horretan, entitateak formulak bilatzen ari dira sentsibilizazio- eta aldarrikapen-jarduera mantendu eta, aldi berean, erakunde bakoitzaren jasangarritasun ekonomikoa bermatzearekin uztartzeko.

Pertsonak

5.ERRONKA

Entitateetan borondatez parte hartzeko modu berriak ulertu eta eskaintzea, boluntariotza bideratzeko hainbat estrategia eta formula baliatuz eta espazio espezifikoak eskainiz.

6.ERRONKA

Talentua erakartzea belaunaldi-erreleboari heltzeko, eta oso feminizatuta dauden lantaldeak zaintzea. Horretarako, arreta berezia jarriko da lan-erritmoen eraginetan eta arrisku psikosozialetan.

Nola 2015eko hala 2020ko liburu zurian, erakundeak osatzen dituzten pertsonen zein erakundeekin loturak dituztenei dagozkien erronkak aipatu ziren, eta indarrean jarraitzen dute 2024an ere, erakundeen jasagarritasun sozialera jotzen dutelako. Herritarrekiko konexioa eta erakundeen oinarri sozialaren aktibazioa funtsezko lan-ildoak dira oraindik. Izan ere, konplizitatea bilatzeko eta partaidetza soziala mobilizatu eta kanalizatzeko aukera ematen die erakundeei eta, hala, pertsonekin harremanak egin eta haien eraldaketa-prozesuan txertatzeko aukera dute.

Lotura eta partaidetza horiek hainbat mailatan gerta daitezke: ordainpeko langileak, boluntarioak, emailak, bazkideak eta herritarrak, oro har. Maila guztiak zainduz eta, hartara, erakundeak osatzen dituzten pertsonen profilekin eta gizarte zibilarekin konexioa sorturik, erakundeen **oinarri soziala** eta legitimitate soziala indartzen dira. Erakunde bakoitzak nola gauzatzen duen aldakorra da, zer tamaina, osaera edo jarduera duten. EHSSk hainbat alderdi kontuan hartu, landu eta txertatu behar ditu; esate baterako, gizartearen parte hartzeko moduak izandako aldaketak, erakundeetako eta haien oinarri sozialeko belaunaldien arteko aldaketa edo erreleboa eta herritarrek erakundeekin harremana izateko dituzten modu berriak edo ezberdinak. Modu horretan, gizartearekin konektaturik jarraituko du, partaidetza erraztuko du eta, beraz, legitimazio soziala lortuko du.

Datuekin bat, **emailak** dituzten erakundeen ehunekoa handiagoa da orain, eta hainbat irakurketa dakartza horrek. Dena den, lotura baten adierazpena da, eta EHSSko erakundeekiko konfiantza eta errekonozimendua daudela esan nahi du. Batetik, entitateek adierazten dute nolako ahaleginak egin dituzten dohaintzak finantzazio-bide izan daitezen. Askotariko ekintzak egin dituzte horretarako, *crowdfunding*-kanpaina espezifikoak, Bizum bidezko dohaintzak kausa zehatzetarako... Lan horren bitartez, dohaintza batekin une jakin batean konpromisoa hartu nahi dutenen profila bilatzen dute, ez entitate batetiko konpromiso egonkor eta erregularra, baizik eta espezifiko eta noizean behingoa, proiektu edo kausa jakinetan. Bestetik, komunikazio-tresna digitalak baliatuz, bide berri horiek arakatzeko eta herritarrekiko konexioak sortzeko aukera dago. Ondorioz, ekintza-radioa zabalagoa da orain.

Bazkideen harira, elkarteek entitateetan ikusten ari diren joera bati buruz hausnartu dute. Zehazki, bazkideak nolabait urruntzen ari direla ikusi dute, eta kezkarri suertatzen zaie, lotura hori nola berreskuratu, zaindu edo zabaldu ez baitakite. Antza, proiektu partekatuen parte izateko sentimendua dago, baita konfiantza ere, baina entitateek espero duten inplikaziorik gabe. Gauzak horrela, komunikazioak ahaleginak egitea planteatzen dute, hau da, bazkideen eskura dituzten baliabide, zerbitzu eta jardueren buruzko informazio gehiago helarazten dute, harremana sendotzeko eta, abiapuntu horretatik, lotura zabaldu eta bazkideen aktibazioa sustatzen joateko.

EHSSko boluntarioen eta ordainpeko langileen zifra handiak ikusita, **sektorearen konfigurazioa** aldatu dela dirudi. Ordainpeko langileen kopurua boluntarioena baino neurri handiagoan ari da areagotzen sektore osoan, eta profesionalizatzeko joera dago, beraz. Zehazki, 2019tik 2023ra bitarte, EHSSko boluntarioen hazkunde-tasa % 6,1 izan zen, eta ordainpeko langileena, berriz, % 18,4. Halaber, datuek erakusten dute gero eta erakunde gehiagotan daudela ordainpeko langileak, eta 10 erakundetik 6tan daude gaur egun. Bistan denez, profesionalizazioa erakunde ertain eta handietan gertatzen da batik bat, baina eragina du sektore osoaren datuetan. Horrek erronkak dakartza, eta jarraian zehaztuko ditugu.

Boluntarioei dagokienez, erronka bikoitza da. Alde batetik, boluntarioak erakundeekin lotzen diren modu berriak ulertu behar dira, eta, oro har, **partaidetza sozialeko ereduak**. Ezagutza horrekin, erakundeek ekintza boluntariorako ibilbide bereziak egituratu ditzakete. Datuekin bat etorritik, boluntarioen kopurua handitu da, eta boluntarioen kopurua handitu zaiela dioten erakundeek ehunekoa ere bai. Haatik, boluntarioen hazkunde hori noizean behingo boluntariotzan kontzentratu dela ematen du: % 18 zen 2015ean, eta orain, % 50,6, ordea. Ildo beretik, astean 10 ordu baino gehiago ematen dituzten boluntario egonkorren kopurua zertxobait jaitsi da azken lau urteotan.

Datu horietan ikusten da boluntarioen partaidetza-eredua aldatu egin dela, eta sektoreko **boluntarioen eredua bera ere aldatu** dela uste da. Hartara, ekintza boluntariorako hainbat profil edo jokatzeko modu daude, dedikazioa edo lotura zein den. Epe luzerako konpromisoetarako denbora gutxiago dago, eta teknologia digitalek askotariko harreman-aukerak eskaintzen dituzte orain. Hori guztia aipatu ereduak ikusten da. Pertsona askorentzat, boluntariotza iraupen jakin bateko proiektu edo ekintza zehatzekin lotzea da, edo kausekin dute konpromisoa, ez entitateekin. Egoera horretan, sektoreak berriz pentsatu behar du zer aukera eskain ditzakeen ekintza boluntario hori kanalizatzeko, eta EHSSren sareek zer zeregin eduki dezaketen katalizatzaile gisa. Bestalde, entitateek identifikatu dute ezen, boluntarioen profil batean, boluntariotza entitateetan ordainpeko lanpostuak lortzeko sarbide direla, batez ere arlo sozialeko ikasketak dituzten gazteen artean. Era horretan, esperientzia profesionala hartzen doaz, curriculumak hobetzen dute eta sektorea ezagut dezakete.

Dena dela, EHSSrentzako erronka zera da, **partaidetza sozialeko adierazpen eta jardunbide berriak** ulertu eta erakundeetan txertatzea. Lan horretan, boluntarioek parte hartzen duten edo parte hartu dezaketen moduak bereizirik ikusi behar dira: zer interes dituzten, zenbat denbora ematen duten, zenbat denboran zehar parte hartzen duten, bizi-zikloaren zer unetan dauden, nola parte hartzen duten, zer rol dituzten eta erabakiak hartzeko zer espaziotan egon nahi duten, besteak beste. Eta, horrekin batera, ibilbide egokituak eta pertsonalizatuak diseinatzea, entitateen beharrak eta boluntarioen interesak konektatzeko.

Horri guztiari buruz berriz pentsatzea nahitaezkoa da, COVID-19aren ondoriozko pandemiak boluntarioen partaidetzan izandako eragina ikusita, batez ere. Ez alferrik, eragina oso handia izan zen, eta zenbait eremutan (nazioarteko lankidetzan kasurako) edo adineko boluntarioen profilean ez dira berreskuratu aurreko maila eta dinamismoa. Bereziki kezagarria da erakunde txiki eta ertainetan, boluntarioek pisu handia dute-eta lantaldeetan. Halatan, proiektuak garatzeko zailtasun larriak dituzte.

Bestalde, sektorea gero eta neurri handiagoan profesionalizatzen ari denez, boluntarioek erakundeetan duten **espazio soziala eta sinbolikoa diseinatzeko** erronka dago. Helburua ez da boluntario-profilenak ez bezalako balio-proposamenak eskaintzea soilik, aldi baterako direnentzat edo aldakorrenentzat bereziki, baizik eta sakonki gogoeta egitea zer espazio duten boluntarioek gero eta profesionalizazio handiagoko eta hartzaileentzako arreta espezializatuagoko esparru batean. Dirudienez, boluntarioen eta ordainpeko langileen

espazioak eta jarduera gero eta bereiziago egotea da joera. Hala izanik, galdera zera izan daiteke, ea zuzeneko arretan oso espezializatuta dauden erakundeetan eragin soziala edo kudeaketa eta komunikazioa diren boluntarioek ekarpenak egiteko edo partaidetza-ibilbide gehiago izateko jarduera-espazioa den. Dena dela, antza, bistan da EHSS osoak eta erakunde bakoitzak boluntarioen espazioa definitu eta gorde behar dutela, eta proiektu partekatuaren eraikuntzan duten garrantzia aitortu.

Hala ere, erakundeen aburuz, aldaketa horietara egokitzeak malguak izatea, irekita egotea eta partaidetza soziala modu arin eta anitzagoan errazteko modu berriak bilatzea dakar. Hala, partaidetza zerbait jarraitua dela ulertu behar da, eta lotura-maila aldatu egiten dela egoeren, bizitzako etapen, konpromisoen eta abarren arabera.

Ordainpeko langileak direla eta, lehenago aipatu den moduan, EHSSk **profesionalizatzeko** joera duela ikusten da datuetan. Zehazki, lantaldeetan ordainpeko langileak dauden erakundeen ehunekoa handitu egin da, eta, zenbatetsitako zifra handien arabera, azken lau urteotan ordainpeko 7.000 langile gehiago daude sektorean. Datuak ikusita, profesional-kopuruak erakunderik handienetan egin du gora bereziki. Halarik ere, entitate ertainak eta txikiak ere kudeaketa-egitura profesionala izaten ahalegindu direla antzeman da, nahiz eta aurrekontuak mugatuagoak izan.

Erakundeen jarduera espezializatzen ari da, eta, itxura batean, sektorearen profesionalizazioa horrekin lotuta dago. Hainbat faktorek bultzatu dute **espezializazio** hori. Neurri batean, entitateek berek sustatu dute zerbitzuak espezializatzea: gero eta arreta espezializatuagoa eta osoagoa eskaini nahi diete hartzaileei, eta haiek, beren aldetik, espezializazioa eskatzen dute arretan. Ez alferrik, eskaerak eta beharrak gero eta espezifikagoak dira, intersektionalitateak bultzatuta, eskubideak erdiesteko lanean lortutako aurrerapausoek eraginda, etab. Eta, gainera, administrazio publikoek ere espezializazio hori eskatzen dute, erantzukizun publikoko zerbitzuetan batik bat, proiektuak garatu eta zerbitzuak emateko orduan kaudimen teknikoa bermatu nahian.

Profesionalizazioaz eta espezializazioaz gain, erakundeetako lantaldeek jarduera azeleratu dela ikusten dute. Pandemiak bultzatu zuen nagusiki, baina lehenagotik sortu zen seguru asko. Eguneroko jardueraren erritmo bizian, zereginak, bilerak, kudeaketak, prozedurak eta abar gainjarri eta gehitzen dira etengabe, eta erakundeek kezkaturik sentitzen dute erritmo horrek eragina duela ordainpeko langileen artean. Nahiz eta orokorra izan, sektoreko entitateak kezkatuta daude lantaldeen absentismo-tasengatik eta ordainpeko langileen buru-osasunagatik. Hala da 2022az geroztik, baina kezka 2023an areagotu zen bereziki. Entitateek ez dakite zergatik gertatzen ari den: erritmo azeleratuak dakarren higadura, zuzeneko arreta eta kudeaketa-eskakizunak zein -prozedurak uztartzeak eragiten duen gainkarga, pandemiaren unerik gogorrenetan egindako gehiegizko ahalegina (zerbitzuei eusteko), arreta ematea gero eta gogorragoak eta konplexuagoak diren errealitate sozialetan... Besteak beste, baliteke faktore horiek gurutzatzea.

Horiek horrela, **lantaldeak zaintzeko** begirada txertatu eta sistematizatzea da erronka, profesionalak izan ditzaketen arrisku psikosozialak aintzakotzat hartuta. Egin beharreko bide horri buruz hausnartzea eta zaintza-jardunbideak sortzea izan daiteke, eta, dinamika informalez harago, ongizatea sustatzen duten eredu formalak eta egituratuak izatea komeni da. Formulak askotarikoak izan daitezke: zaintzarako profil profesional espezifikoko txertatzea, lan-espazioak, taldeko ikuskapena... Eta aldaketa sakonagoak ere egin daitezke erakundeen kulturen edota pertsonak kudeatzeko politiketan.

Erakundeek ordainpeko langileen artean, proiektu eta zerbitzuen egonkortasunak ere eragina du, eta, horrekin lotuta, ordainpeko langileei eskaintzen zaizkien aukerei ere erreparatu behar zaie: garapen profesionala, enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea... EHSSko erakundeek jakin nahi dute nola uztartu lantaldeen egonkortasuna eta finantzazioari begira bizi duten ziurgabetasuna. Izan ere, helburua ordainsari egokiak ziurtatzea da, eta ibilbide profesionalak eta bizi-ibilbideak segurtasun handiagoko esparruetan garatu ahal izatea.

Galdera hori bereziki garrantzitsua da EHSSko erakundeek beste erronka honi heldu behar diotenean: **belaunaldi-erleboia eta talentua erakarri eta gordetzea**. Datuei jarraikiz, ordainpeko langileak pixka bat gazteagoak dira, eta, beraz, gai horri jada heldu zaiola ematen du. Haatik, entitateen erronka gazteei kalitate oneko lan-aukera egonkorra eskaintzea da, talentua erakarri eta gordetzeko gaur egun egon daitezkeen zailtasunak arinduko dituztenak. Oraindik ere garrantzitsua da lan-baldintzak bermatzen dituzten lan-esparruak bilatzea, egonkortasunari, ordainsariei eta abarri begira. Beharbada, beste jarduera-sektore batzuk — publikoa edo pribatua kasurako — erakargarriago zaizkie gazteei, batik bat egonkortasuna eta ordainsariak kontuan hartuta.

Erakundeek sorreran aritu ziren profesionalen eta boluntarioen belaunaldi bat irteteko zorian dagoen honetan, beste belaunaldi batzuek bete beharko duten hutsunea geratuko da, eta berehalako erronka horixe izango da, boluntarioak zein ordainpeko langileak erakarri, lortu eta gordetzea. Erakundeek errelebo horri heltzeko zailtasunak dituzte, zuzendaritza- eta kudeaketa-rolak dituzten pertsonen kasuan batez ere. Bada denbora nekatuta daudela, baina hor jarraitzen dute ordezkorik ez dagoelako. Belaunaldi-errelebo hori landu eta bideratze aldera, zer mailatan gerta daitezkeen ulertzea garrantzitsua izango da.

Belaunaldi-erreleboaren erronkari beste dimentsio bat gehitu behar zaio, zeina erakundeek kulturarekin lotuta dagoen. Halaber, ordainpeko langileei zein boluntarioei eragiten die. Errelebo horri buruz berriz hausnartzeko orduan, belaunaldi berriak beren logika eta metodokoekin sartuko direla aintzat hartu behar da derrigor. Orobat, **gogoeta** egin beharra dago gai askoren gainean: kohesio-prozesuak, erakundeek parte izatea, erakundeetan parte hartzea eta erantzukizunak banatzea, eta sektore osoaren egitura. Horrek esan nahi du sartzen direnei erakundeek kultura transmititzeko apustua egin behar dela, baina baita erakundearen misioa, ikuspegia eta balioak elkarrekin eguneratzeko apustua ere.

Sektorearen **feminizazioari** dagokionez, emakumeen presentzia handiagoa ez da boluntarioen artean sendotu, eta, datuen arabera, gizonen ehunekoa apur bat handitu da erakundeetako boluntarioen artean. Alabaina, feminizazioa areagotu egin da ordainpeko langileen artean (% 3,5 gehiago 2019tik hona) eta gobernu-organismoetan (% 4,2 gehiago 2019az geroztik), emakumeen pisua handitu dela adierazten duten datuei jarraituz. Joera hori ez da ezohikoa: estatuan ere sektorearen feminizaziozko joera bistan da. Alegia, gero eta emakume gehiago daude erakundeetako zuzendaritza-mailan eta ordainpeko langileen artean⁷⁹. Horren aurrean, gogoeta egin beharra dago sektore gisa, eta erakundeetan pertsona zaurgarriak zaindu eta artatzeko lanaren garrantzia azpimarratu behar da. Erakundeetan, gehiengo emakumeak dira.

Alde horretatik, bada kezkarria den beste zerbait. Datuek erakusten dute emakumeak neurri txikiagoan iristen direla oraindik erantzukizuna dakarten lanpostuetara: gizonen tasa % 13,6 da, eta emakumeena, aldiz, % 11,6. Norabide horretan lan egiteak erabakigarria izaten jarraitzen

⁷⁹ GIZARTE EKINTZAKO GKE-EN PLATAFORMA (2023). 2022ko Espainiako Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorearen Barometroa. Hemendik berreskuratua: https://www.plataformaong.org/ARCHIVO/documentos/biblioteca/1676295113_resumenejecutivo-barometro-3-sector.pdf

du, emakumeek rol horietan duten presentzia hein handiagoan etor dadin bat ordainpeko langileen artean duten ordezkaritzaekin. Halaber, koherentzia-elementu garrantzitsua da erakundeetan. Gizartean berdintasuna gauzatu, sustatu eta bultzatu ahal izateko eta, orobat, hartzaileentzako arreta berdintasunetik eskaintzeko —berdintasuna sustatzeko asmoz—, erakundeek konpromisoa hartu behar dute berdintasunarekin, beren misio, balio eta egituretan.

Baliabide ekonomikoak

7.ERRONKA

Erakundeen jasangarritasun ekonomikoaren bidean aurrera egiten jarraitzea. Ildo horretan, sektorearen espezifikotasuna aitortzen duten eta programa, zerbitzu, baliabide eta taldeen egonkortasuna bermatzen dituzten finantzazio-esparruak sustatu behar dira.

Datuei erreparatuz, EHSSko erakundeetan aniztasun handia dago tamainari eta baliabide ekonomikoei begiratzen zaienean. Nahiz eta aldeak handiak ez izan, **erakunde txiki edo ertainen** ehunekoa txikiagoa dela ematen du, batez ere 12.000 €-tik beherako aurrekontua dutenena. **Erakunde handien edo oso handien** ehunekoa areagotu da, ordea.

Tartean hainbat faktore egon daitezke. Alde batetik, entitateek adierazten dute ezen, ondasun eta zerbitzuen kostua igotzen den bezala, erakundeen aurrekontuak ere zertxobait handitzen direla urterik urte, gutxi-asko ekonomiarekin bat oro har. Beste aldetik, erakundeek handitzeko aukera gehiago dituzte, baliabideak eta zerbitzuak txertatzeko gaitasun handiagoa dutelako. Hain zuzen, pandemian geratu zen hori agerian. Premiazko neurriak jarri ziren martxan, egitura eta esperientzia direla-eta gauza ziren entitateek inplementatutako proiektuen bitartez. Ez zituzten entitate horiek soilik inplementatu, baina neurri handian bai behintzat.

Jasangarritasun ekonomikoaren erronka 2015eko zein 2020ko liburu zurietan identifikatu zen, eta indarrean jarraitzen du. Ondorioz, kezka handia pizten du EHSSko erakundeetan. Izan ere, urteak igaro ahala giltzarri izaten jarraitzen du kontu horrek sektoreko erakundeen garapenerako eta biziraupenerako, eta ez dakite zergatik gertatzen ari den. Gainera, kezka handiagoa da erakunde txiki eta ertainetan, zaurgarritasun ekonomikoa handiagoa delako eta zailtasunei aurre egiteko indarra, berriz, txikiagoa.

Horren harira, EHSSko erakundeen kezka nagusietako bat **aurrekontuekin lotutako ziurgabetasuna** da. Antza denez, bi faktore dira erabakigarri. Batetik, finantzazioaren aldakortasuna. Horren eraginez, erakundeek ziurgabetasun handiko agertokiak planteatu behar dituzte urtez urte. Badirudi finantzazio-iturri jakin batzuk direla ezegonkortasunaren jatorri nagusia, urte batetik bestera nabarmen alda baitaitezke: dirulaguntzak (publiko edo pribatuak), dohaintzak (noizean behingoak batez ere) eta produktuen salmenta, adibidez. Eta bestetik, finantzazio-bide batzuk atzeratu egiten direnez gero, erakundeek tentsioak dituzte diruzaintzan ezinbestean. Ordainketak arintzeko hartu daitezkeen erabakiak oso garrantzitsuak izan daitezke, batez ere erakunde txiki eta ertainentzat, zaurgarrienak diren aldetik.

Zifra ekonomikoei erreparatuta, EHSSko erakundeen ia erdiaren diru-sarrerak igo egin dira, eta badirudi finantzazio-iturri propioetatik edo pribatuetatik datorrela igoera, ez finantzaketa-iturri publikoetatik. Esate baterako, emailak dituzten erakundeei buruzko datuen arabera, % 5,7 egin dute gora azken urteotan. Horrek esan nahi du aurrerapausoak eman direla **finantzaketa-iturrien dibertsifikazioan**, eta erakundeek jakin nahi dute zer gehiago egin dezaketen eta zer norabide hartu behar duten finantzazio-iturriak dibertsifikatzen saiatzeko. Zeregin horretan, argi identifikatzen dute sustapen-eragileek ekosisteman dibertsifikazioa bultzatzen duten neurriak

sustatu behar direla. Hari horretatik, hainbat proposamen zetozen EHSS sustatzeko neurrien lehen txostenean⁸⁰. Esate baterako, sustapen-eragileen arteko lankidetzaren areagotzea proposatu zen, agenda eta helburu partekatutako esparru horretan antolatzeke. Beste proposamen bat sustapen-eragileen lankidetzako rolak eta ereduak argitzea zen. Hori guztia mesedegarria izango litzateke eragile horiek hobetu eta dibertsifikatzeko.

Finantzazio publikoarekiko mendekotasuna beti da kezkarri EHSSko erakundeentzat. Era berean, erakundeak ados daude elementu ugari aztertu eta berrikusi behar direla horren atzean, eta ez dagozkiola EHSSri soilik. Datuei jarraikiz, finantzaketa publikoarekiko mendekotasuna handia da oraindik EHSSn. Nolanahi ere, agerian jarri dute ezen, erakundeen barruan, finantzaketa publikoaren pisua murriztu egin dela denborarekin (2019tik hona, % 5,5), eta mendekotasuna txikiagoa da, hortaz. Egiaz, erakundeek ia erdiak diru-sarrera gehiago lortzen ditu jada finantzaketa-iturri pribatuetatik, publikoetatik baino. Gainera, EHSS sustatzeko gastu publikoa egonkorra izan dela uste dute oro har, baina EHSS etengabe berriro da, erakunde berriak sartu baitira sektorean.

Horrezaz gain, datuekin bat etorriz, finantzaketa publikoaren % 70,5 erakunderik sendoenetan —20 urtetik gorakoak— kontzentratzen da. Aitzitik, erakunderik berrienek bost urte baino gutxiago dituzte, sektorearen % 18,2 dira eta baliabide publikoen % 3,2 jasotzen dute. Bestalde, 10 erakunde gaztetatik seik lortzen dute finantzaketa publikoa. Erakunde berriak sartzeak inbertsio publikoa lortzeko lehia biziagotzen duelako ideia indartzen du datu horrek, eta baliteke lagungarria izatea EHSSko entitateen arteko banaketa gero eta atomizatuagoa izateko. Hala eta guztiz ere, erakundeek zenbat eta urte gehiago iraun, sendotu eta handitu egiten dira, eta, hala, finantzazio publikoa neurri nabariki handiagoan lortzen dute.

Gogoetarako hainbat elementu daude finantzaketa publikoarekin lotuta. Lehenik, finantzaketa publikoarekiko mendekotasunak eragin handia eta zuzenekoa du erakundeek jasangarritasun ekonomikoan, eta finantzazio hori bideratzeko formulek, zenbatekoak, ebazpenak, aldizkakotasunak eta baldintzek eragina dute proiektu, zerbitzu eta lantaldeak mantentzeko. Eragin horren ondorioz, erakundeek soberakinak edo likidezia izan behar dituzte diruzaintzan, jarduera aurrera eramateko. Erakunde askoren iritziz, *Espainiako ekonomiaren desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legeak* zailtasun handiak eragin ditu ildo horretan. Kontratu publikoen prezioen berrikuspena mugatzen duenez, erantzukizun publikoko zerbitzuak ematen dituzten sektoreko erakundeek bidegurutze batean buka dezakete: kontratatutako zerbitzuak kudeatu, galerak egongo direla onartuta; ala zerbitzu berrien lizitazioetara aurkezteari uko egin, exekuzioan kalitate oneko gutxieneko baldintzak ziurtatu ezin dituztelako. Erakundeek finantzazioan segurtasun eta egonkortasun handiagoak lortzeko, finantzaketa publikoko esparru dinamikoagoak beharko lirateke, baldin eta eguneratzeak edo berrikuspenak ekartzen badituzte batik bat zenbatekoetan. Aldi berean, esparru horiek dinamismoa bideratu behar dute, errealitate zehatzagoi arin erantzuteko, pandemian Inor atzean utzi gabe funtseko programekin gertatu zen bezala. Halaber, kontuan hartu behar da erakunde txikiek edo ertainek ezin dutela beren gain hartu finantzaketa publikoko bide jakin batzuk eskuratzeak dakarren kudeaketa, nahikoa egitura ez dutelako.

Erantzukizun publikoko zerbitzuak finantzazio-esparru egonkor suertatu dira EHSSko erakundeek espektro baterako eta, gainera, lankidetzaren publiko-soziala sendotu dute administrazio publikoen eta EHSSko erakundeek artean. Oro har, aurrekontu eta lantalde handiak dituzten erakundeak dira. Lankidetzaren publiko-soziala formalizatzeko tresnek ondorio

⁸⁰ HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EUSKAL BEHATOKIA (2021). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko neurrien gaineko txostena* (2019) Hemendik berreskuratua: https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/IMPTSSE-2019_eu.pdf

jakin batzuk dituzte, eta, zenbait kasutan, dinamismo handiagoa eta elkarrikeria eragiten dituzte. Beste batzuetan, ordea, zurruntasun handiagoa eragiten dute. Esparru horretan, dekretu bidez onartu berri den itunaren formula ahalmen handiko aukeratzat jo da, finantzazio-esparru egonkorragoak ez ezik, harreman arinak eta malguak ere finkatzeko.

Erantzukizun publikoko zerbitzuen harira, nolabaiteko beldurra antzematen da EHSSn, administrazio publikoak hornitzaileak dibertsifikatzeko estrategiak aztertzen ari direlako agian. Hala balitz, irabazi-asmoa duten entitateak sartuko lirateke, eta eragina izango lukete orain arte erantzukizun publikoko zerbitzuak gutxi-asko etengabe eman dituzten erakundeek jasagarritasun ekonomikoan. Beldur hori agerian da, eta, urtez urte eraikitako harremanagatik eta konfiantzagatik bada ere, erakundeek planteatzen dute egokia ote litzatekeen administrazio publikoei eskatzea EHSSrekiko jarrera argitzeko eta, orobat, EHSSko erakundeek dakarten balio osoa eta erantsia aztertzeko.

Alde horretatik, hirugarren sektore sozialaren aldeko apustua dago EAEko araudian: Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legea... Ildo beretik, egungo jardunbideak ez du beldur hori sustatzen, eta irabazizko sektoreak oso presentzia txikia du erantzukizun publikoko zerbitzuak emateko orduan, mendekotasun-egoeran daudenentzako arretan izan ezik. Dena den, bai sektore publikoak, bai EHSSk helburu hau izan behar dute lankidetzara publiko-sozialetik: EHSSko erakundeek erantzukizun publikoko zerbitzuei emandako balio osoa eta erantsia gordetzea. Balio horren oinarrian dauden jardunbideak ez daude figura juridiko hutsarekin lotuta zuzenean, baizik eta izaera bereziko jardueraren bat duten entitateekin, zeinak erakundeek eta sektore publikoak denboran zehar sustatu, akreditatu eta sostengatu behar dituzten.

Finantziario publikoarekiko mendekotasunaren esparruan bada berrikusi behar den beste elementu bat: mendekotasun hori benetan arindu dezaketen neurriak hartzea eta finantzaketa-iturriak dibertsifikatzeko lanean aurrera egiteko ildoak irekitzea. Sektoreko entitateen iritziz, zerga-neurri batzuk, erregulazioak edota erakundeentzat finantzario-sustatzaile izan daitezkeen beste eragile sozial batzuentzako pizgarriak oso onuragarriak izan litezke sektorearen jasagarritasunari begira. Zehatz-mehatz, 2015eko eta 2020ko liburu zurietan adierazi bezala, funtsezkotzat jotzen da sektoreari eragiten dion **zerga-araudia** berrikusi eta hobetzen jarraitzea, ekarpen ekonomikoa eta soziala espezifikoki aitortuko lukeen ariketa gisa, gainera.

Era berean, 2015eko eta 2020ko liburu zurian nabarmendu zen zer oztopo dituzten enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzen dituzten erakundeek, bai erakunde txiki eta ertainen laguntza-programetan sartzeko, bai jarduera ekonomikoarekin lotutako kudeaketa-sistemak, aliantzak eta kalitateari zein berrikuntzari begirako estrategiak bultzatzeko. Sektoreko entitateek eskuratu ezin dituzten egungo finantzario-ildoak berrikusteko eskatzen du EHSSk, eta ez da eskaera berria. Horrelako ildoak dira azpiegiturretako inbertsioekin, digitalizazio-prozesuekin edo trantsizio berdearekin lotuta daudenak. EHSSk sentitzen du ezin dela finantzaketa publikoko ildoetatik kanpo gelditu, erakundeek egitura indartzeko eta berrikuntzak egin zein proiektuak garatzeko gaitasuna sendotzeko giltzarri direnean. EHSSrako ildo espezifikoak ere eska litezke. Hala, espezifikotasuna aitortu eta sektorearen legitimazioa agerian utziko litzateke, baita finantzario-baliabideak emanez ere.

Erakundeek diote kezkatuta daudela zailtasunak dituztelako berrikuntzarekin, pilotatzeekin edo behar berriei erantzutearekin lotutako proiektuak **finantzatzeko**; adibidez, buru-osasunarekin edo arrakala digitalarekin lotutakoak, erakundeak zabalki identifikatzen ari direnak hartzaileentzako arretan. Horrelako kasuetan, hainbat entitatek aditzera eman dute beren funtsekin finantzatu dituztela izaera hori duten proiektuak, programak edo jarduerak. Antzeko

zerbait gertatzen da instalazio edo azpiegituren mantentze- eta berritze-lanekin: eskuarki, funts propioekin finantzatzen dira.

Eragin sozialaren finantzazioa ere kezka eragiten duen elementu bat da. EHSSko erakundeek — handiek edo oso handiek batez ere— beren jarrera zalantzan jarri dute. Ez alferrik, zerbitzu-hornidurak hein handian baldintzatzen du, finantzazio-iturri garrantzitsua eta, beraz, jasangarritasun ekonomikoaren bermea delako. Modu kritikoan identifikatu dute eragina duela salaketa edo sentsibilizazioa bultzatzeko aukeran.

2020ko Liburu Zurian identifikatu eta bere horretan diharduen beste kontu bat da erakundeek Europako finantzazioa lortu ahal izatea. EHSSri buruzko datuetan ikusten da aukera hori baliatzen duten erakundeek kopurua txikia dela, harrigarriki (% 5,5ek soilik lortzen du Europako finantzazioa). Horrek eragina du 1,5 milioi eurotik beherako bolumen ekonomikoa duten erakundeetan batik bat. Europako baliabideak eskuratzen dituzten erakundeak % 3 dira txiki eta ertainen artean, eta % 5, 300.000 eurotik 1,5 milioi eurora bitarte kudeatzen dituzten erakundeetan. Erakunderik handien kasuan errealitatea desberdina da, % 16,1 dira eta. Hala eta guztiz ere, Europako finantzazioaren pisua oso txikia da oraindik erakundeek ia tamaina guztietan. Zehazki, finantzaketa publiko osoaren % 0,5 da, gutxi gorabehera.

2020an adierazi bezala, Europako funtsak lortzeak ez dakartza abantaila ekonomikoak soilik. Horrez gain, beste eragile batzuekin elkarlanean aritzeko aukerak sortu daitezke, I+G+b-ren eremuan, zehazki. Hartara, aukera garrantzitsuak suerta daitezke lankidetzan aritzeko, ikertzeko eta ezagutza sortzeko. Erakundeek bideragarritasun ekonomikoan ez ezik, Europako funtsak eskuratzeak bestelako eraginak ere izango lituzke: nazioarteko testuinguruan berrikuntza- eta elkarlan-jardunbideetan parte hartzeko gaitasuna indartuko luke.

Kudeaketarako eta komunikaziorako tresnak

8.ERRONKA

Berrikuntzaren, gardentasunaren, koherentziaren eta ekarpen sozialaren alde egiten jarraitzea, eta jasangarritasunarekin eta orekarekin uztartzea erakundeek kudeaketan.

9.ERRONKA

Ekintzailetzari begirako jarrera proaktiboa sustatzea EHSSko erakundeetan, eragin sozial handiagoko erantzun berritzaileak eta jasangarriak sortzeko.

Zentzu zabalean, erakundeek eskura duten tresna gisa uler daiteke kudeaketa, beren jarduera teknifikatzeko eta, orobat, erakundeek kultura eraikitze eta eraldaketa sozialak behar dituen oinarriko baldintzak sendotzeko. Datuetan ikusten da erakundeek aurrerapauso adierazgarriak eman dituztela azken lau urteotan, **kudeaketa-tresnen garapenean**. Emaizak ebaluatze sistemak eta laneko arriskuei buruzko planak gorantz ari dira erregistroak daudenetik aurrera. Era berean, erakundeek berdintasunarekin zerikusia duten ekintzak abiarazi dituzte. Bestalde, kalitate-sistemak, euskara planak eta trebakuntza-planak ez dira nabarmen garatu. Kudeaketa-tresnak eta -estrategiak mailaz maila txertatu dira EHSSko erakundeetan, eta barneko lana antolatu egin dute. Aldi berean, gogoeta eragin dute erakundeek baitan, garapen bakoitzean. Horri guztiari legegintza-garapenek eta arauzko eskaerek (datuak babestea, berdintasuna, haurrak babestea...) erakundeetan eragindako funtzioa gehitu behar zaio, bai eta erreferentziatzeko esparruek eragindakoak ere —2030 Agendak kasurako—. Gogoeta egin, kontzientzia hartu eta/edo jarrera hartzeko prozesuak sustatzea izan da emaitza.

Haatik, tresnak, esparruak edo eskaerak txertatzeak eta egunerokoan mantentzeak kostu eta dedikazio handiak dakartza EHSSko erakundeetan. Tresna horien kudeaketak giza baliabideak eta denborazkoak kontsumitzen ditu, eta nolabaiteko antolaketa-egitura behar da gauzatu ahal izateko. Kudeaketaren eskakizunek eragin handiagoa dute erakunde txiki eta ertainetan; hala, kudeaketa-tresnak txertatzeko aukera ez dago haien esku. Gainera, finantzazio-iturri batzuk eskuratzeko eskakizuna kudeaketa-tresna eta -egitura jakin batzuk edukitzea da, eta, beraz, ezin dituzte lortu.

Horrek guztiak eragina du erakunderik handienetan ere; funtsean, kudeaketa espezifikoa eta bat-batekoa behar izaten delako legegintza-garapen eta arauzko eskakizun batzuei erantzuteko; alegia, ezin da denbora luzearekin aurreikusi, egunerokoan sartu behar da eta zaila da erantzuna tarte zabalarekin programatu eta/edo egituratzea. Zailtasunak zailtasun, entitateak kudeaketa txertatzen saiatzen dira, horrelako kontuekin konpromisoa dutelako.

Gainera, kudeaketaren finantzazioari buruzko kezka dago erakundeetan. Alde batetik, kudeaketa-tresnen araberako aurrekontu-zuzkidura doia eta errealista egitea zaila da, kudeaketa horren zati handi bat nekez aurreikus edo programatu daitekeelako aldeztu aurretik, hain zuzen. Eta beste aldetik, ez dago entitateen kudeaketari aurre egiteko finantzazio espezifikoa.

Hala, **erakunde txiki eta handietan kudeaketa-egiturak** indartzea funtsezkoa da, tresnak eta mekanismoak txertatu eta, horrenbestez, administrazio-lan eraginkorra egiteko, proiektuak kudeatzeko, kalitatea bermatzeko eta kontrol ekonomikoa bideratzeko. Erakundeei kudeaketan behar diren gaitasunak ematen bazaizkie, barneko funtzionamendua hobetuko da, eta, horrez gain, helburuak eraginkortasun handiagoz erdietsi ahalko dituzte eta beren inguruan modu esanguratsuan lagundu. Nolanahi ere, kudeaketa indartzeko lan horrek errealista izan behar du eta jarduerarekin orekatuta egon behar da, jasagarria izan dadin eta gainkargarik ez sortzeko. Bestalde, EHSSko erakundeak **eskakizun burokratikoekin** kezkatuta daude, gero eta konplexuagoak iruditzen baitaizkie. Burokrazia beharrezkoa dela eta zerbitzuen kalitatea hobetu duela jakitun dira, baina erakundeak kezkatuta daude administrazio publikoen eskakizun- eta kontrol-mailagatik. Horrek behar duen denbora ez da jarduera arrunt gisa jasotzen, eta entitate ugari jarduerari emandako denbora urritzea dakarrela sentitzen dute, dela zuzeneko arretari dela eraginari emandakoa. Alde horretatik, prozesu burokratikoak bateratzeak kudeaketa arinduko lukeela identifikatu da.

Gero eta eskakizun gehiago daude, arauzkoak eta burokratikoak, eta gogoeta hau eginarazi die horrek EHSSko erakundeei: baliteke jarduera erregulatzeako mailaz mailako joerak erakundeen gaitasunean eragina izatea, alegia, jarduerari eta, zehazki, zerbitzuei balio erantsia emateko gaitasunean. Hartara, erakundeen erronka sektoreko identitate-elementu sendoei inplikaturik geratzea da, balio erantsi hori emateko eta ekarpen sozial bereizgarria sortzeko aukera eskaintzen dutelako, kalitatea eta araudira egokitzea bermatzen duten mekanismoak kontuan izateari utzi gabe.

Nahiz eta 2020ko Liburu Zurian azpimarratu zen, EHSSko erakundeetan orain nabaritzen da neurri handian **neurketa-tresna** propioei buruzko gogoeta eta **eragin sozialari** buruzko interesa. Eragina eta jarduera neurtzeko tresnek oso zeregin garrantzitsua dute, zer egiten den, norentzat egiten den eta zer helburu erdiesten diren ebaluatzeak aukera ematen dutelako. Erakundeek ekarpen edo eragin soziala frogatzea legitimazioa dakarren funtsezko erronka bat da, batik bat izaera sozialak besterik gabe ezin duenean hori sortu. Aldiz, kalitate oneko kudeaketa eraginkorra frogatu behar da, hori da-eta EHSSko erakundeek lanak sortzen duen balio erreala eta zehatza: benetako aldaketa sozialekin frogatu daitekeen itzulkina.

Eragina eta jarduera neurtzeko tresna horiek oso garrantzitsuak dira EHSSren jarduera kokatzeko, erakundeek ekarpen soziala eta ekonomikoa ardatz hartuta. Arreta alderdi ekonomikoetan jartzen duten metrikez harago (ekarpena BPGari, biztanleria landuna...), bistakoa da sektorearen elementu eta balio bereizgarriak barne hartzen dituzten neurketa-tresna kualitatiboagoak garatzeko beharra dagoela. Erakundeek, beren jarduera gauzatzean, epe labur eta ertainera sortzen dituzten itzulkina eta eragin soziala oinarri sozialaren eta herritarren aurrean erakusteko gai izan beharko lukete tresna horiek. Hari horretatik, nahitaezko suertatzen da sektorearen esentzia eta garrantzia erakusten duten tresna horietan lan egitea, sektoreak gizartean duen posizioa eta errekonozimendua indartzeko. EHSSren itzulkina eta eragin soziala zeharo erakutsiko lukete elkartasunarekin, prebentzioarekin, bizi-kalitatearekin, garapen komunitarioarekin edota elkarrekiko laguntzarekin lotutako adierazleek.

Egindako jarduerak misioarekin duen **koherentziari** dagokionez, agerian geratzen da erakundeek gizartean proposatzen dituzten apustuak sustatzeko egiten duten ahalegina. Zentzu horretan, erakundeek beren interes-taldeak informatuta izateko eta plangintzan edo ebaluazioan inplikatzeak ahalegina egin dutela ikusten da datuetan, partaidetza-bideak sortu eta **gardentasunaren** aldeko apustua agerian jarri baita. Gainera, EHSSko erakundeetan kudeaketa-tresna jakin batzuk hedatu eta bultzatzeak —berdintasunerako planak, diskriminaziorik ez gertatzeko planak, auditorietza, balantze soziala...— erakusten du barruko eta kanpoko koherentziaren alde egiten dutela. Hala izanagatik ere, erakundeek badakite ezin diotela hori guztia sendotzeari utzi, eta eraldaketa- zein kritika-espirtura jotzen dute gizartean proposatzen dutena barruan ere bizitzeko gaitasuna indartzeko xedearekin.

Komunikazioaren arloan, agerikoa da erakundeek gero eta **tresna digital** gehiago txertatzen eta erabiltzen jarraitzen dutela etengabe. Bereiziki adierazgarria da sare sozialak komunikatzeko plataforma gisa modu aktiboan erabiltzeko joeran hazi izana. Datuetan ikusten da nolako ahaleginak egiten dituzten erakundeek beren identitatea, jarduera eta gainerako alderdiak komunikatzeko. Gardentasun-ariketa gisa jokatzeko dute horrela, eta konexio ugari sortzen ditu oinarri sozialarekin eta herritarrekin. Alabaina, oso komunikazio-emari handia sortzen dutela ohartzen dira, eta ez dakite eraginkorra den edo nekatzea eragingo duen.

Eraldaketa digitalaren erronka aurreko liburu zurian ere aipatu zen. Oso aldaketa handia antzeman da pandemiaren eraginez eta pandemiaren ostean, erakundeetan tresnak txertatu eta gehiago erabiltzeagatik eta, halaber, digitalari buruzko gogoeta piztu delako EHSSren baitan. EHSSko erakundeek barruan eta egunerokoan bizi dituzten aldaketak nabariak dira; esate baterako, telelana, lana malgutzeko neurriak eta onlineko bilerak. Baina aldaketak agerikoak dira beste arlo batzuetan ere: adibidez, eraginean eta ematen diren zerbitzuetan. Ildo horretan, erakundeetan etengabe hausnartzen ari dira hartzaileentzako bide-laguntzan *geruza digitala* txertatzearen eta ekitate digitalaren gainean, arrakala digitalei aurre egiteko asmoz. Hala, EHSSren aburuz, eraldaketa digitala erakundeek misioaren zerbitzura egon behar da, eraldaketa soziala eragiteko. *Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren egoera, eraldaketa digitalaren erronkaren aurrean*⁸¹ azterlanean ere aditzera ematen da EHSSn eraldaketa digitala ez dela helburua: eraldaketa digitala EHSSren identitateak eta jarduerak berezkoak dituzten eraldaketa eta aldaketa sozialarekin lotuta dago, aldiz. Ondorioz, EHSSren eraldaketa digitalean ezin dira balioak alde batera utzi. Horrela ulertuta, sozialki berritzeko aukera ematen diezaieke eraldaketa digitalak erakundeei, teknologia digitalen laguntzarekin.

⁸¹ EDE FUNDAZIOA (2021). Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren egoera, eraldaketa digitalaren erronkaren aurrean. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila. Hemen eskuragarri: https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/Informe_transformaciondigital_DEF_eu.pdf

EHSSko erakundeetan gertatu den eraldaketa digitalarekin lotuta, lan-erritmoak azeleratu egin dira. Tresna digitalak erabiliz, eguneroko zereginak eraginkortasun handiz egin daitezke: telelana egin daiteke, onlineko bilerak egin daitezke lekualdatu gabe, zereginak, bilerak edo trebakuntza-saioak kateatzen dira, etab. Aitzitik, erritmo azeleratuen aurrean, nolabaiteko kolapsoa gertatu da lantaldeetan, eta horrek azterketa kritikoa eta ikasitakoa sistematizatzea oztopatzen du. Denbora kudeatzeari buruzko kezka partekatua da, eta erronka hauxe izan daiteke: erakundeek eta EHSS osoak tarte geldiagoak eta gogoeta egin ditzakete, zein ikaskuntza sortzeko espazioak gorde ahal izatea, ahal den neurrian.

Eraldaketa digitala bezalaxe, **berrikuntza soziala** oinarritzko funtzio, interes-arlo eta ardatz garrantzitsu bilakatu da erakundeak indartzeko zereginen. Gainera, erakundeek beharrak detektatzeko duten ahalmena, ahalmen kritikoa eta sormenezkoa erakusteko aukera ematen du, eta beste eragile sozial batzuekin harremanetan egon daitezke, proiektuak edota elkarlansareak bideratzeko. Entitateen iritziz, jardunbide edo ikuspegietan berrikuntzak egitea oso hedatuta dago EHSSko erakundeetan, haien identitateagatik eta haien jarduera errealtate sozialetik hurbil egoteagatik. Gainera, funtsezko zeregina du erakundeetan: aldatuz doazen eta hutsetik sortzen diren errealtate eta arazoen aurrean, erantzunak garatzen jarraitu dezakete. Hobekuntzak egin daitezke kudeaketan, edo sentsibilizaziorako zein salaketarako bide burutsuak garatu.

Gaur egungo testuinguruan, errealtate sozialak eraldatzen doaz eta gero eta konplexuagoak dira; baliabideak mugatuak dira, ordea. Horiek horrela, EHSSk erantzuteko gaitasuna eta jasangarritasuna indartzeko erronka du aurrean, jarduera-modu proaktiboagoen eta ekintzaileagoen bitartez. Horretarako, baina, paradigma aldatu beharra dago. Lehen, beharrei erantzutea zuen xede bakarra lanaren logikak, asistentziazko ikuspegi batetik. Orain, berriz, ekintzailetzari begirako logikara pasatu beharra dago, zeinak aukerak sortzea, barruko eta kanpoko gaitasunak indartzea eta erantzun jasangarri eta eraldatzaileen sustapena dituen oinarritzat.

Erronka hori kokatzen den arauzko esparru estrategikoa ekintzailetza sozialari zaio mesedegarri. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legean ez da *ekintzailetza* hitza berariaz erabiltzen. Halarik ere, sektorearen oinarritzko printzipiotzat jotzen ditu ekimen soziala, berrikuntza eta partaidetza, ekintzailetzari begirako norabidearekin lerrokatuta daudenak. Bestalde, ekintzailearen sustapena argi adierazten da EHSSEn eta XII. legegintzaldiko planean, batez ere gazteen artean, sektorea berritu eta indartzeko bide gisa⁸². Arauzko egitura estrategiko hori funtsezko oinarria da jarrera ekintzailea bultzatzeko, EHSSk eraginkortasun handiagoarekin, jasangarritasunarekin eta eraginari begirako orientazioarekin duen konpromiso solidarioa osatuko duena.

Erronka horrek ez du esan nahi EHSSren jarduna historikoki bideratu duten printzipioak eta balioak baztertzea, baizik eta antolaketa- eta jarduera-modu berrietarantz aurrera egitea, egungo erronkei eraginkortasun handiagoz heltzeko. Sektorearen misio eraldatzailea sendotzea da helburua, balio soziala sortzea, eskura dauden baliabideak estrategikoki baliatzea eta aukerak sortzea bultzatzeko ikuspegitik.

⁸² EHSSEn eta legegintzaldiko planean, I+G+b sozialaren atalean, hainbat ekimen bultzatzeko interesa ageri da; adibidez, gazteen ekintzailetza esku-hartze sozialaren eremuan. Izan ere, “ekintzailetzaren sustapena eta sektorean gazteak sartzeko sektorearen berrikuntzarekin eta erakundearen jardueraren indartzearekin (intraekintzailetza) lotuta daude”. Estrategiako jardueretako bat hau zen: “31. EHSSko erakundearen jardueraren ekonomikoa *silver economy*ren esparruan sustatzeko aukerak ebaluatzea eta gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan gazteen ekintzailetza sustatzea eta potentzialki bideragarriak diren ideiei laguntza ematea”. Azkenean ez zen legegintzaldiko planean sartu. 30. jardueran, ordea, sartu egin zen: “Gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan I+G+b eta gizarte-inbertsioko ekimen bat sustatzea”. Zehazki, esku-hartze sozialaren eremuan I+G+b indartzeko programa bat diseinatu, martxan jarri eta jarraipena zein ebaluazioa egitea du xede. Jarduera horretan argi adierazten da ezen, programaren baitan, gazteen ekintzailetza soziala bultzatuko zela berrikuntza-arloetan (intraekintzailetza eta erakunde berriak sortzea), bestek bestek.

EHSSk ekintzailtza-gaitasun handia erakutsi du dagoeneko: erakunde berrien sorreran ikusten da hori, bai eta jada bazeuden entitateen barruan egindako ekimenetan ere (intraekintzailtza). Gaitasun hori aitortu eta indartu behar da. Sustatzen den erakunde-kulturak ekintzailtzarako onuragarri izan behar du, bai entitate berriak sortzeko, bai intraekintzailtza prozesuak bultzatzeko, batez ere berrikuntza sozialaren tankerako arloetan.

Esparru horretan, eremu guztiak biltzen dituen ikuspegi bat garatzea giltzarri izango da, ekintzailtza-ikuspegi bat osatzeko. Lehenik, berrikuntza erakundeen barruan sustatzea nahitaezkoa da. Ardatz hau beste erronka batzuetan ere ageri da, zeinetan sortu berriak diren beharretarako erantzunak garatzeko palankatzat jotzen den berrikuntza soziala. Erakundeen barnean berrikuntzak egiteko, lan-prozesuak, antolaketa-egiturak eta kudeaketa-moduak berrikusi behar dira, arinagoak eta eraginkorragoak izateko, eta, orobat, ingurune aldakorrera egokitzeko, entitate bakoitzaren misioa eta balioak alde batera utzi gabe.

Halaber, finantzazio-ereduak berriz pentsatu behar dira, eta funts publikoen bide osagarriak miatu, jasangarritasun ekonomikoa ziurtatzeko misio soziala arriskuan jarri gabe. Ikuspegi horren baitan, diru-sarreraren bestelako iturriak identifikatu behar dira (finantziario-iturriak dibertsifikatu), eta autonomiara bideratutako finantza-estrategiak garatu (finantzazio publikoaren mende ez egoteko).

Elkarlan-ereduak beste arlo garrantzitsu bat dira. Inguruko beste eragile batzuekin (administrazioak, enpresak, unibertsitateak, etab.) sare-lana eta lankidetzak sustatuz, eragina zabaltzeko, sinergiak sortu eta ezagutzak parteka daitezke. Alderdi hori bat dator EHSSEn sustatzen den sektorea egituratzeko logikarekin.

Era berean, teknologia erabiltzea oso garrantzitsua da sektoreko ekintzailtzan. Tresna digitalak baliatuz, eraginkortasun operatiboak hobera egiten du, eta, gainera, esku-hartze sozialerako, komunikaziorako eta eragina neurtzeko beste aukera batzuk zabaltzen dira.

Ilido beretik, emaitza ebaluatzeko ereduak sustatu behar dira, jardueren eragina eta errentagarritasun soziala frogatzeko aukera ematen dutenak. Bereziki, eragin sozialaren ebaluazioa ezinbesteko tresna da finantzazioa justifikatzeko, erakundeen legimitatea indartzeko gizartearen aurrean eta etengabe hobetzen laguntzeko, batik bat finantzatzaile pribatuak sartzan diren testuinguruetan eta inbertsio zein eraginaren esparruetan. Sortzen den balioa neurtzeko ikuspegi hori gardentasunaren eta kontu-ematearen erronkarekin ere egituratzen da, eta azpimarratu behar da adierazle argiak, metodologia partekatutakoak eta ekintza sozialaren konplexutasunera egokitutako ebaluazio-sistemak edukitzeko beharra.

Amaitzeko, ekintzailtza-ikuspegi horretatik berrikusi behar da komunikazio-eredua. Helburua narratiba argiak eraikitzea da, erakundeek sortutako balioa eraginkortasunez ezagutzera emateko, interes-taldeekin konektatzeko eta sektorearen ikusgaitasuna sendotzeko.

Erronka horretan aurrera egite aldera, sektorearen esparrua kolektiboan eraiki behar da, eta antolaketa-modu ekintzaileagoetara igarotzeko bidea erraztu behar du. Ekintzailtza soziala eraginari begira dagoen jarrera aktibo baten modura uler daiteke, eta gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta kohesionatuagoa eraikitzeko lanean EHSS eragile garrantzitsua izateko gakoetako bat izan daiteke. Bide horretan, estrategia partekatua, trebakuntza- eta gogoeta-espazioak, bide-laguntzako mekanismoak eta politika publikoetan errekonozimendu argia behar dira.

Azken batean, beharrei erantzuteko logika atzera utzi nahi da, eta sektorearen gaitasunak, berrikuntza eta ekimena sustatzen dituen logikara batera pasatu. Oraingo eta etorkizuneko

erronka sozialei heltzeko prest egon ez ezik, errekonozimendu politiko eta sozial handiagoa bideratu ere egin behar du logika horrek, eraldaketa sozialaren motor eta guztion ongian nabarmen laguntzen duen eragile den aldetik.

Kanpo-harremanak

10.ERRONKA

Konexioak hedatzen jarraitzea beste eragile sozial batzuekin, eta EHSS eragile sozial gisa aitortzen den harreman-esparruak finkatzea.

Gure gizartean interkonektatuta dago oso eta, testuinguru horretan, beste eragile sozial batzuekiko harremanak zeharo garrantzitsuak dira. Gero eta bistakoagoa da behar eta arazo sozialak jorratzeak askotariko eragileekin konektatzea dakarrela, eta elkarlanean jardutea ezinbestekoa da, beraz. Hori da, hain zuzen, 2030 Agendak sustatzen duen esparrua. Zehazki, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) erdiesteko eskatzen die gobernuei, gizarte zibilei, arlo akademikoari eta sektore pribatuari. Horrek erakusten du zeinen garrantzitsua den gizarteko sektore guztiek neurri eraginkorretan parte hartzea, pobrezia desagerrarazi, planeta babestu, herritarrek beren eskubideak eraginkortasunez gauzatu ditzaketela bermatu eta, oro har, planetak aurrez aurre dituen egungo erronkei erantzuteko. Bestalde, GJHek erronka horien inguruko hizkuntza partekatua bideratu dute, askotariko jarduerak egiten dituzten askotariko eragileek elkar ulertu eta elkarlanean jardun ahal izateko.

Datuen arabera, EHSSko erakundeek beste eragile sozial batzuekin dituzten **harremanak egonkor samarrak** dira. Esate baterako, enpresekin eta alderdi politikoekin, besteak beste, harreman dezentea edo handia duten erakundeek ehunekoa egonkor mantendu da azken lau urteetan. Haatik, egonkortasun horrek ez du oztopatu behar eragile horietako batzuekiko harremana zabaltzeko aukera, eta **enpresekin** loturak esploratzeak bereziki posible dirudi, hainbat esferatan zeregin interesgarria izan lezakete eta (partaidetza, laguntza, etab.). EHSS sustatzeko neurrien II. txostenean⁸³ bertan aipatu zen elkarlana bizkortzen duen estrategia bat edukitzea —askotariko sentsibilitate eta gaitasunetara egokiturik— edo bi sektoreetako eragileen artean topaketak eta bisitak erraztea —elkar ezagutzea eta elkarrekiko errekonozimendua sustatzeko— irizpide garrantzitsuak izan daitezkeela enpresen eta EHSSren arteko elkarlana bultzatzeko.

2020ko Liburu Zurian nabarmendu bezala, erakundeek askotariko eragileekin dituzten harremanak zabaltzeko aukera paregabea da EHSSk eragin handiagoa izateko hainbat arlotan. Beste eragile batzuekin (administrazio publikoekin eta enpresekin kasurako) balio partekatua sortu ez ezik, eraldaketa sozialaren motor gisa eta legitimitate soziala duen solaskide gisa duen zeregina irmotu ere egiten du.

EHSSk **erakunde publikoekin** duen harremanaren adibide paradigmaticoa dira lankidetzak publiko-soziala, elkarriketa zibileko mahaiak eta EHSS presentzia izaten eta irabazten joan den baterako gobernantzako espazioak. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean⁸⁴ bertan HHSrekiko elkarlana eta elkarriketa indartzeko beharra aitortzen da.

⁸³ HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EUSKAL BEHATOKIA (2022). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko neurrien II. txostena. Euskadiko enpresa-sektoreak bultzatutako sustapen-ekintza* Hemendik berreskuratua: <https://3seuskadi.eus/zer-egiten-dugu/la-accion-de-promocion-del-tercer-sector-social-impulsada-por-el-sector-empresarial-en-euskadi-en-2020/?lang=eu>

⁸⁴ 12/2008 LEGEA, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 246. zk., 2008ko abenduaren 24koa. Hemendik hartua: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/12/0807143a.pdf>

Elkarlana eta elkarriketa gauzatzen joan ziren sektorea bera egituratzeko prozesuaren ondorioz (sareak ugaritzea, Sareen Sarea eratzea) eta Elkarriketa Zibilerako Euskadiko Mahaia 2012ren amaieran sortu izanagatik (eta lurraldez lurraldeko erreplikak). Hartan, garrantzi estrategikoko eragile sozial gisa aitortzen eta agertzen da EHSS, Elkarriketa Zibilerako Euskadiko Mahaia eratzeke dekratuaren esaten den bezala⁸⁵. EHSSren legean aitortzen da elkarriketa zibila erakundeen hartzaileen eskubide jakin baten oinarritzko printzipioa dela; izan ere, hartzaileek erantzukizun publikoko politika eta sistemetan parte hartzeke eskubidea dute erakunde horien bitartez, esku-hartze sozialaren eremuan eta politika zein sistemen fase guztietan, diseinutik ebaluazioraino.

Alde horretatik, entitate publikoen gobernu-ekintzan gardentasuna eskatzeko esparru batean ez ezik, gobernantzaren kontzeptuan oinarritutako kudeaketa publikoko eredu baten europar hedapenean ere ulertu behar da elkarriketa zibila, hots, hainbat eragile sozialen partaidetza gisa gai publikoetan. EHSSren errekonozimendua botere publikoekiko elkarriketa-espazioak eratuz gertatzen eta areagotzen ari da dagoeneko, gero eta neurri handiagoan parte hartzen baitu erakunde publikoen foro, batzorde eta abarretan. Gainera, estatuaren gainerako egoera bestelakoa da. Hirugarren sektorearen plataformaren elkarriketa zibilerako batzordea 2017an eratu zen, baina atzerapena antzeman da administrazio publikoarekiko elkarriketa-mailan⁸⁶.

Elkarriketa zibila eta horren emaitzak sektore publikoak eta ekimen sozialak lankidetzan jarduteko borondatearen eta gaitasunaren ondorio dira, baita lankidetzaren esperientziatik bertatik abiatzen den ikaskuntza partekatuarena ere. EHSSko erakundeentzat, neurriak eta politika publikoak sektore publikoekin lankidetzan bultzatzeko espazio giltzarria izan da hori. Ekarpinak egin dituzte sektorearen funtsezko balioetatik abiatuta, eta eraldaketa soziala ere eragin dute esfera horretatik. Erakunde publikoekin elkarriketa-espazio horietan parte hartzen duten erakundeek profila zabaltzea izan daiteke erronka, EHSSko erakunde gehiagok eta desberdinek, batez ere txikiak, presentzia hori irabaz dezaten.

Dena den, administrazio publikoekin baterako gobernantzako espazio horietan gertatzen den elkarriketa formalizatuagoak nolabaiteko kezka sortzen du, nahiz eta beharrezkoa den eragina izateko gaitasuna duelako sektorearentzat. Egiaz, horrelako espazioek denbora luzea eta baliabide asko inbertitzeko eska dezakete, eta beste jarduera batzuetatik atera behar dira. Aldi berean, erakunde publikoetatik kanpoko eragin sozialaren beste forma batzuk (salaketa-ekintzak, kanpainak, etab.) oztoka ditzakete edo bateraezinak izan daitezke, administrazio publikoarekiko elkarriketa eta lankidetzarekin zerikusirik ez dutenak.

Halaber, erakunde publikoekiko harreman-esparru horiek sektoreko erakundeentzat bereziki interesgarriak diren beste espazio batzuetara zabalduz sendotu litezke, eta entitate dezentek beren jarduera egiten duten sistemen arteko (osasungintza, hezkuntza, etxebizitza...) interakzio-espazioetako eragile instituzionalekin harremanak irmotu eta indartu.

Enprekin eta administrazio publikoekin duen harremanaz gain, EHSS harremana sendotzen joan da oinarritzko bi eragile sozialekin: unibertsitateekin eta mugimendu sozialekin, hain zuzen. Harreman horiek garapen-ahalmen handia dute EHSSrentzat, bi norabidetan. **Unibertsitateekin** harremana izanda, erakundeek lotura estuagoak izan ditzakete ezagutza- eta ikerketa-zentroekin, ikaskuntzak sustatu eta proiektuak ehuntzeko elkarrekin. Hartara, ezagutza sortzeko

⁸⁵ Elkarriketa Zibilerako mahaia eratzeke eta arautzeke 2012ko abenduaren 11ko 283/2012 DEKRATUA. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 248. zk., 2012ko abenduaren 24koa. Hemendik hartua: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2012/12/1205791e.pdf>

⁸⁶ GIZARTE EKINTZAKO GKE-EN PLATAFORMA (2023). *Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen IV. Plan Estrategikoa 2022-2026*. Hemendik berreskuratua: https://www.plataformaong.org/ARCHIVO/documentos/biblioteca/1705507921_ivpetsas.vf.pdf

lana irmotu egin daiteke erakundeetan, errealtatearekin zuzeneko harremana izanik eta ikerketa aplikatuko espazioei ekarpenak eginik. Eta, **mugimendu sozialekin** harremana izanda, dinamika horrek balioak (berdintasuna, jasagarritasuna...) indartu ditzake eta mesedegarria izan daiteke sektoreko erakundeek administrazio publikotik kanpoko eragin-formak sendotzeko; adibidez, salaketa-jarduerak eta sentsibilizazio-kanpainak.

Nahiz eta harremanak sendoagoak diren, erakundeek **babes txikiagoa** antzematen dute beste eragile sozial batzuegandik, batik bat administrazio publikoei dagokionez. Babesa txikiagotzen joan da 2019az geroztik: Eusko Jaurlaritzaren aldetik, % 9,2, eta foru-aldundien aldetik, % 4,2. Alde horretatik, erakundeek aditzera eman dute garrantzitsua dela nolako apustua egiten duten erakunde publikoek, EHSS haien partaidetza-ereduen barruan egon dadin. Horrek eragin erabakigarria baitu jarrreran eta errekonozimenduan. Horri dagokionez, ontzat eman dira harremanetan entzute-maila eta ikuspegia handitu nahi izan duten ekimenak, hurbilagotik, irekitasun handiagoz, konfiantza handiagoz eta elkarlaneko ikuspuntutik.

Harremanak eta sektorearen egoera

11.ERRONKA

Erakundeek beren artean elkarlanean aritzeko eta sareetan parte hartzeko egiten duten apustua zaindu eta sustatzea. Hala, inplikazioa eta EHSS egituratzeko prozesuan egindako ahalegina aitortu behar dira.

12.ERRONKA

Ibilbide-orri edo agenda bat finkatzea EHSSren lehentasunekin. Hartan, sareek ordezkaritza- eta elkarriketa-zeregin giltzarria izango dute, eta EHSSren jarrera eta errekonozimendu zabala bilatuko da.

EHSSren **errekonozimendua eta babes soziala** direla eta, datuek ez dute aldaketa handirik erakutsi azken lau urteotan, erakundeen pertzepzioari dagokionez. Erakundeen % 45 baino gehiago ados dago edo guztiz ados dago esaldi honekin: babes soziala areagotu egin da azken urteotan, edo errekonozimendu soziala nahikoa da. Pandemia eta gero irakurrita, datu horiek dezepzioa sortzen dute erakundeetan, EHSSk ahalegin guztia egin baitzuen egokitzeko eta pandemiaren une gogorrenetan erantzuteko. Haatik, badirudi horren errekonozimendua ahaztu dela edo ikusezin bihurtu dela agian.

Bestalde, entitateek errekonozimendu handia jasotzen dute hartzaileengandik eta eremu sozial mikroagotik, eta horrek ase egiten ditu eta lanaren garrantzia berresten du. Jendea informazioa edo laguntza eskertzeko gerturatzen da, entitatearen berri izan dutelako belarritik belarrira eta baliabideak ezagutu nahi dituzte, etab. Hori guztia oso garrantzitsua da erakundeentzat.

Hurbileko espazioak eta espazio komunitarioak *hartzen* dituzte EHSSko erakundeek, jarduera esanguratsua sortu eta benetako inpaktua eragiteko bakoitzak bere komunitatean. Elkarlanean aritu nahi dute, harremanak sortu, elkartasun- eta kohesio-espirtua bultzatu, eta, hala, erantzun aproposak, egokituak eta hurbilekoak eman, garrantzi soziala dutenak. Horrela jokatzuz, EHSSko entitateek sentitzen dute kokatzen diren eta parte diren komunitateak esker ona, babesa eta errekonozimendua itzultzen dizkiela, eta horrek jardueraren onura soziala berreste die.

Datuen arabera, aurrerapausoak eman dira EHSSren **konexioetan** eta **egituratze-prozesuan**. Beste erakunde batzuekin harreman dezentea edo handi samarra dutenen ehunekoak zertxobait gora egin du, eta bigarren edo hirugarren mailako entitaterekin batekoa direnenak

egonkor jarraitu du azken lau urteetan: EHSSko hiru erakundeetatik bi dira dagoeneko. Datu horiek EHSSren bizitasun handiko testuinguru batean ulertu behar dira. Erakunde gehiago sartu dira, ibilbidea dela-eta konexio edo sare gutxiago izan ditzaketenak beste entitate batzuekin, baina, hala ere, egonkortasuna edo hazkundea ikusten da datuetan. Nolabaiteko aurrerapausoak eman dira, hortaz. Erakundeek diotenez, pandemia oso garai garrantzitsua izan zen, erakunde ugari laguntza eta elkarlana bilatu baitzituzten beste erakunde batzuetan eta sareetan, egoeraren konplexutasunak bultzatuta. Lotura horiek ez dira noizean behingoak izan, ordea: beren horretan jarraitzen dute eta sektorearen elkarlan-maila orokorra indartu dute. Era berean, hartzailentzako arretan intersektionalitatea jorratu denez gero, entitateek begirada zabaltzen dute eta konexioak bideratu dituzte beste entitate batzuekin, arazo konplexuagoei erantzuteko.

Ez dirudi EHSSren **aniztasuna** egituratzeko oztopo denik. Egituratze-prozesuan bertan aniztasuna txertatzeak haren garapena sustatzeko eta eskari eta errealtate ezberdinei erantzuteko aukera ematen du. Horregatik, askotariko erakundeen arteko konexioan lan egiten jarraitzea giltzarri izan daiteke, kontuan izanik erakundeak desberdinak izan daitezkeela hainbat zentzutan: jarduera, diru-sarreraren bolumena, ibilbidea eta boluntarioen garrantzia, esate baterako. Ikusirik lurralde historiko bakoitzaren errealtate bereizgarria, sektorearen konfigurazioan duen isla eta EHSSn nagusi den aniztasuna (tamaina, jarduera-eremua, etab.), begirada zabaleko harreman-eredu bat garatzea izan daiteke erronka, zeinean, konfrontazioa sortu beharrean, aldeek **elkarlana** sustatzen duten EHSSko erakundeen artean.

Bestalde, 2020ko liburu zurian adierazi bezala, lurraldea funtsezko elementua izan daiteke erakundeen arteko egiturarako. Lurralde-egiturak aliantza esanguratsuak ezartzeko aukera paregabea ematen du, erakundeak askotariko jarduerekin lotzen dituzten eskualdeko sare gisa, baina jarduera-eremu geografiko partekatuarekin. Eta tamaina bera ere egituratzeko elementu izan daiteke elkarrekiko babesean eta sareko lanean indartzeko bidea bilatzen duten erakunde txiki eta ertainentzat.

Entitate bakoitzaren jarduera-eremutik harago zeharkako arazo edo erronka sozialak identifikaturik, batik bat askotariko erakunde ertainek edo txikiek —baita handiek ere— ahaleginak batu eta sarean ehundu ditzakete eragin-lanean irismen handiagoa edo jardueran inpaktu handiagoa lortzeko.

Eskema horretan, eta EHSS atomizatuta dagoela ikusirik, sareen zeregina funtsezkoa da edo izan liteke hainbat tamainatako erakundeen interesak eta beharrak biltzeko, denak daude-eta sektorearen baitan. Egituratze-lanean aurrera egitea garrantzitsua izango da, atomizazioa ez dadin arazo izan EHSSren egiturari, eta erakunde txikiek eta ertainek dinamika horietan parte hartu ahal izateko.

EHSSren **mailaz mailako egituratzeak** askotariko zereginak ditu. Aipatzekoa da nolako indarra dakarren eragile sozial gisa, edo gero eta identitate kolektibo definituagoa eraikitzea. Beste alderdi batzuk ere badaude, baina, errekonozimendu sozial handiagoari bidea ematearekin, konfiantza-esparruak sortzearekin edota errealtatearen azterketa handiagoa eta hobe partekatzearekin zerikusia dutenak. Erakundeek zeregin horiek aitortzen dituzte, eta, horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaie elkarlanean aritu eta sareetan parte hartzeko ahalegina egiten jarraitzea.

Sareetan parte hartu ahal izateko, oinarritzko entitateek denbora eskaini behar dute, eta batzuetan zaila da hori, egunerokoaren erritmoagatik. Halaber, horretarako hartzen duten rola entitatearen ordezkarietatik harago doa, diskurtso eta ekintza kolektiboen bidetik pentsatu beharra baitago. Gainera, sareen funtzionamendua konplexua ere izan daiteke, eta zehaztasuna

eta ageriko emaitzak eskatzen dira sareetako partaidetza eraginkorra sendotzen jarraitu ahal izateko.

Egituratze-prozesu horretan, **sareak** —bigarren eta hirugarren mailako erakunde gisa— EHSSren bilakaerako nahitaezkoa den jarrera irabazten joan dira, eta oso eragile aktibo eta estimatuak dira orain. Oinarrizko erakundeei entzun, informazioa eta baliabide partekatuak eskaini, eskaerak eta interesak bideratu... Zeregin horrekin dihardute erakunde publikoekiko eta beste eragile sozial batzuekiko elkarriketan. Hartara, gogoeta- eta ikaskuntza-espazioak sortu dituzte, besteak beste, eta, azken batean, sektorearen identitate kolektiboa sustatu dute, EHSS osoa bultzatzeko ezinbesteko motor gisa. Sareak indartzea ezinbestekoa izango da zeregin horrekin jarraitu dezaten. Berriz ere, pandemia inflexio-puntua izan zen, zeren, unerik zailenetan, sareen zeregina oso garrantzitsua izan zen, elkarriketan, informazio-mailan eta elkarlana sustatuz batez ere, eta horrek konfiantza eta balioespena ekarri ditu. Sareen zeregina ezagutzea —zeina bereziki giltzarri den ordezkari-tza-lanean— ezinbestekoa da oinarrizko erakundeei berek lan hori balioetsi eta indartzeko.

Administrazio publikoekin elkarriketa- eta elkarlan-espazioa izan ez ezik, EHSSrentzat erabakigarria da espazio propio bereizi bat ere lantzea, **identitate kolektibo propioa**. Eta sareen lana funtsezkoa da espazio horretan. Oso garrantzitsua da autonomia handiagoa eta ikuspegi kritikoa bultzatzeko sektorearen barruan. Hori guztia lagungarria izango da sektoreak urteetan zehar lortu dituen errekonozimendua eta legitimazio soziala sendotzeko. Identifikazio-espazio propio bat edukita, sektoreko erakundeei identitate kolektiboa sendotu dezakete, eta arreta oinarrizko balio eta printzipioetan jarri. Era horretan, gizartean duten zereginaren ikuspegi kritikoa garatu dezakete, eta aldaketa esanguratsuak sustatu barrutik. Aldi berean, administrazio publikoekin elkarlan eraikitzailea edukitzeak sektoreak ordezkari-tza ona duela ziurtatzen du, eta politika publikoetan eragina izan dezakeela autonomia eta ekintzarako gaitasuna arriskuan jarri gabe.

Alde horretatik, EHSSren **ibilbide-orria edo agenda propioa** finkatzea izan daiteke erronka, sareek lidergoa hartuta eta erakunde guztiek babestuta eta eraikita. EHSSSEK⁸⁷ estrategia bat bideratzeko aukera eman du, zeinak EHSSren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko sustapenean eta lankidetzan jartzen baitu arreta. Bestalde, EHSSren barneko apustuak Sareen Sarearen plan estrategikoetan identifikatu dira⁸⁸.

EHSSren agenda ez da EHSSSEkiko paraleloa den ibilbide-orri bat. Aitzitik, helburua tresna osagarria izatea da. Erakunde publikoekin (EHSSSEn datorren moduan) eta EHSSren barne-erronkekin (Sareen Sarearen II. Plan Estrategikoan jasota dagoen bezala) zerikusia duten gaiak jaso behar ditu, baina harago ere joan behar da, eta EHSSk eragina izan nahi duen aldaketa sozialak eta jorratu nahi dituen erronka sozialak identifikatu behar ditu.

Sareen Sarearen dokumentu hau abiapuntu ona izan daiteke: *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala 2030 Agendaren eta GJHen aurrean*⁸⁹. Hortik abiatuta, gogoeta sozial sakona egin daiteke, sektoreak partekatua, sortzen ari diren arazo eta egoerei buruz: arrisku sozial berriak,

⁸⁷ EUSKO JAURLARITZA (2018). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia*. Hemendik berreskuratua: https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/xiileg_planes_departamentales/eu_def/EUSKADIKO-HIRUGARREN-SEKTORE-SOZIALA-SUSTATZEKO-ESTRATEGIA.pdf

EUSKO JAURLARITZA (2021). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia. 2021-2024 Legegintzaldiko Plana*. Hemendik hartua: <https://3euskadi.eus/wp-content/uploads/EPTSSE-plan-de-la-XII-Legislativa.pdf>

⁸⁸ SAREEN SAREA (2020). Sareen Sarearen II Plan Estrategikoa 2020-2023. Hemendik berreskuratua: <https://sareensarea.eus/wp-content/uploads/2021/06/II.-Plan-Estrategikoa-webgunerako-bertsioa.pdf>

⁸⁹ SAREEN SAREA (2022). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala 2030 Agendaren eta GJHen aurrean*. Hemendik berreskuratua: <https://sareensarea.eus/wp-content/uploads/2022/06/Tercer-Sector-Social-de-Euskadi-ante-la-Agenda-2030-y-los-ODS.pdf>

eraldaketa ongizate-sistemetan, etab. Halaber, eraldaketa sozialeko agertokiei buruz ere hausnartu beharra dago, EHSSk bere zeregina eduki behar du-eta horietan ere.

Horiek horrela, agenda eraikitzeko orduan jarrera argia edukitzea da erronka, batik bat EHSSk bere borrokan (pertsona zaurgarrienentzako aukera gehiago, pertsona guztien eskubideak bermatzea eta berdintasun- zein elkartasun-balioak sustatzea) funtsezkotzat jotzen dituen gaietan. Eraldaketarako eragile sozial gisa indartzea eta gainerako eragileek eta gizarteak halakotzat errekonozitu eta legitimatzea mesedegarri izango zaio EHSSri bere lanarekin aurrera egiteko.

2024ko Liburu Zuriko erronken eta EHSSren Sustapen Estrategiako arloen arteko harremana

AZTERTUTAKO ALDERDIAK	2024KO LIBURU ZURIKO ERRONKAK	EHSSSE-KO ARLOAK
NORTASUNA	1. ERRONKA: Sektorearen balioak, espazioa eta logikak gordetzen dituen identitate kolektiboa sendotzea.	9.NORTASUNA 3. EHSS EGITURATZEA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA
	2. ERRONKA: Ekarpen sozial eta ekonomikoari balioa ematea eta EHSSk ongizate kolektiboari egindako ekarpen bereizgarria ikusgai egitea. Hartara, errekonozimendu instituzionala eta soziala sustatzea.	9. NORTASUNA 8. EHSS-REN SUSTAPENA, FISKALITATEA ETA AITORTZA
JARDUERA	3. ERRONKA: Hartzaileen profilen aniztasunari eta konplexutasunari erreparatzea. Horretarako, sortzen ari diren behar eta egoeretara irekita egon beharra dago, eta pertsonak erdigunean jartzen dituzten arreta-ereduen alde egin.	9. NORTASUNA 2. ERAKUNDEA ETA KUDEAKETA INDARTZEA
	4. ERRONKA: Erakundearen gaitasun kritikoa eta eragin sozialerako gaitasuna indartzeko formulak bilatzea, eta sektorearen identitate-elementu irmotzat identifikatzea.	9. NORTASUNA
PERTSONAK	5. ERRONKA: Entitateetan borondatez parte hartzeko modu berriak ulertu eta eskaintzea, boluntariotza bideratzeko hainbat estrategia eta formula baliatuz eta espazio espezifikoak eskainiz.	1. ERAKUNDEETAKO OINARRI SOZIALA ETA PARTE HARTZEA GARATZEA
	6. ERRONKA: Talentua erakartzea belaunaldi-erleleboari heltzeko, eta oso feminizatuta dauden lantaldeak zaintzea. Horretarako, arreta berezia jarriko da lan-erritmoen eraginetan eta arrisku psikosozialetan.	4. JASANGARRITASUNA, AUTONOMIA, GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA 1. ERAKUNDEETAKO OINARRI SOZIALA ETA PARTE HARTZEA GARATZEA
BALIABIDE EKONOMIKOAK	7. ERRONKA: Erakundearen jasangarritasun ekonomikoaren bidean aurrera egiten jarraitzea. Ildo horretan, sektorearen espezifikotasuna aitortzen duten eta programa, zerbitzu, baliabide eta taldeen egonkortasuna bermatzen dituzten finantzazio-esparruak sustatu behar dira.	4. JASANGARRITASUNA, AUTONOMIA, GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA 5. INBERTSIOAK ETA AZPIEGITURAK
KUDEAKETARAKO ETA KOMUNIKAZIOARAKO TRESNAK	8. ERRONKA: Berrikuntzaren, gardentasunaren, koherentziaren eta ekarpen sozialaren alde egiten jarraitzea, eta jasangarritasunarekin eta orekarekin uztartzea erakundearen kudeaketan.	2. ERAKUNDEA ETA KUDEAKETA INDARTZEA 4. JASANGARRITASUNA, AUTONOMIA, GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA
	9. ERRONKA: Ekintzailetzari begirako jarrera proaktiboa sustatzea EHSSko erakundeetan, eragin sozial handiagoko erantzun berritzaileak eta jasangarriak sortzeko.	2. ERAKUNDEA ETA KUDEAKETA INDARTZEA 9. NORTASUNA
KANPO HARREMANAK	10. ERRONKA: Konexioak hedatzen jarraitzea beste eragile sozial batzuekin, eta EHSS eragile sozial gisa aitortzen den harreman-esparruak finkatzea.	6. ELKARLANA SEKTORE PUBLIKOAREKIN 7. ELKARLANA ENPRESEKIN 8. EHSS-REN SUSTAPENA, FISKALITATEA ETA AITORTZA
HARREMANAK ETA SEKTOREAREN EGOERA	11. ERRONKA: Erakundeek beren artean elkarlanean aritzeko eta sareetan parte hartzeko egiten duten apustua zaindu eta sustatzea. Hala, inplikazioa eta EHSS egituratzeko prozesuan egindako ahalegina aitortu behar dira.	3. EHSS EGITURATZEA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA.
	12. ERRONKA: Ibilbide-orri edo agenda bat finkatzea EHSSren lehentasunekin. Hartan, sareek ordezkaritza- eta elkarriketa-zeregin giltzarria izango dute, eta EHSSren jarrera eta errekonozimendu zabala bilatuko da.	8. EHSS-REN SUSTAPENA, FISKALITATEA ETA AITORTZA 3. EHSS EGITURATZEA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA. 9. NORTASUNA

Aurrekoaren osagarri den ariketa bat eginez, EHSSren Sustapen Estrategiako arloak Liburu Zurian identifikatutako erronkekin lotzen ditu koadro honek.

EHSSeko arloak		EHSSren 2024ko liburu zurian identifikatutako ERRONKAK	
1.	OINARRI SOZIALA GARATzea ETA PARTE HARTzea	5. ERRONKA:	Entitateetan borondatez parte hartzeko modu berriak ulertu eta eskaintzea, boluntariatza bideratzeko hainbat estrategia eta formula baliatuz eta espazio espezifikoa eskainiz.
		6. ERRONKA:	Talentua erakartzea belaunaldi-erreleboari heltzeko, eta oso feminizatuta dauden lantaldeak zaintzea. Horretarako, arreta berezia jarriko da lan-eritmoen eraginetan eta arrisku psikosozialetan.
2.	ERAKUNDEA ETA KUDEAKETA INDARTzea	3. ERRONKA:	Hartzaileen profilen aniztasunari eta konplexutasunari erreparatzea. Horretarako, sortzen ari diren behar eta egoeretara irekita egon beharra dago, eta pertsonak erdigunean jartzen dituzten arreta-ereduen alde egin.
		8. ERRONKA:	Berrikuntzaren, gardentasunaren, koherentziaren eta ekarpen sozialaren alde egiten jarraitzea, eta jasangarritasunarekin eta orekarekin uztartzea erakundeen kudeaketan.
		9. ERRONKA:	Ekintzailetzari begirako jarrera proaktiboa sustatzea EHSSko erakundeetan, eragin sozial handiagoko erantzun berritzaileak eta jasangarriak sortzeko.
3.	EHSS-REN EGITURAKETA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA	1. ERRONKA:	Sektorearen balioak, espazioa eta logikak gordetzen dituen identitate kolektiboa sendotzea.
		11. ERRONKA:	Erakundeek beren artean elkarlanean aritzeko eta sareetan parte hartzeko egiten duten apustua zaindu eta sustatzea. Hala, inplikazioa eta EHSS egituratzeko prozesuan egindako ahalegina aitortu behar dira.
		12. ERRONKA:	Ibilbide-orri edo agenda bat finkatzea EHSSren lehentasunekin. Hartan, sareek ordezkaritza- eta elkarriketa-zeregin giltzarria izango dute, eta EHSSren jarrera eta errekonozimendu zabala bilatuko da.
4.	JASANGARRITASUNA, AUTONOMIA, GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA	6. ERRONKA:	Talentua erakartzea belaunaldi-erreleboari heltzeko, eta oso feminizatuta dauden lantaldeak zaintzea. Horretarako, arreta berezia jarriko da lan-eritmoen eraginetan eta arrisku psikosozialetan.
		7. ERRONKA:	Erakundeen jasangarritasun ekonomikoaren bidean aurrera egiten jarraitzea. Ildo horretan, sektorearen espezifikotasuna aitortzen duten eta programa, zerbitzu, baliabide eta taldeen egonkortasuna bermatzen dituzten finantzazio-esparruak sustatu behar dira.
		8. ERRONKA:	Berrikuntzaren, gardentasunaren, koherentziaren eta ekarpen sozialaren alde egiten jarraitzea, eta jasangarritasunarekin eta orekarekin uztartzea erakundeen kudeaketan.
5.	INBERTSIOAK ETA AZPIEGITURAK	7. ERRONKA:	Erakundeen jasangarritasun ekonomikoaren bidean aurrera egiten jarraitzea. Ildo horretan, sektorearen espezifikotasuna aitortzen duten eta programa, zerbitzu, baliabide eta taldeen egonkortasuna bermatzen dituzten finantzazio-esparruak sustatu behar dira.
6.	LANKIDETZA PUBLIKOAREKIN SEKTORE	10. ERRONKA:	Konexioak hedatzen jarraitzea beste eragile sozial batzuekin, eta EHSS eragile sozial gisa aitortzen den harreman-esparruak finkatzea.
7.	ELKARLANA ENPRESEKIN	10. ERRONKA:	Konexioak hedatzen jarraitzea beste eragile sozial batzuekin, eta EHSS eragile sozial gisa aitortzen den harreman-esparruak finkatzea.
8.	EHSS-REN SUSTAPENA, FISKALITATEA ETA AITORTZA	2. ERRONKA:	Ekarpen sozial eta ekonomikoari balioa ematea eta EHSSk ongizate kolektiboari egindako ekarpen bereizgarria ikusgai egitea. Hartara, errekonozimendu instituzionala eta soziala sustatzea.
		10. ERRONKA:	Konexioak hedatzen jarraitzea beste eragile sozial batzuekin, eta EHSS eragile sozial gisa aitortzen den harreman-esparruak finkatzea.
		12. ERRONKA:	Ibilbide-orri edo agenda bat finkatzea EHSSren lehentasunekin. Hartan, sareek ordezkaritza- eta elkarriketa-zeregin giltzarria izango dute, eta EHSSren jarrera eta errekonozimendu zabala bilatuko da.
9.	NORTASUNA	1. ERRONKA:	Sektorearen balioak, espazioa eta logikak gordetzen dituen identitate kolektiboa sendotzea.
		2. ERRONKA:	Ekarpen sozial eta ekonomikoari balioa ematea eta EHSSk ongizate kolektiboari egindako ekarpen bereizgarria ikusgai egitea. Hartara, errekonozimendu instituzionala eta soziala sustatzea.

	4. ERRONKA: Hartzaileen profilen aniztasunari eta konplexutasunari erreparatzea. Horretarako, sortzen ari diren behar eta egoeretara irekita egon beharra dago, eta pertsonak erdigunean jartzen dituzten arreta-ereduen alde egin.
	5. ERRONKA: Erakundeen gaitasun kritikoa eta eragin sozialerako gaitasuna indartzeko formulak bilatzea, eta sektorearen identitate-elementu irmotzat identifikatzea.
	9. ERRONKA: Ekintzailtzari begirako jarrera proaktiboa sustatzea EHSSko erakundeetan, eragin sozial handiagoko erantzun berritzaileak eta jasagarriak sortzeko.
	12. ERRONKA: Ibilbide-orri edo agenda bat finkatzea EHSSren lehentasunekin. Hartan, sareek ordezkaritza- eta elkarrizketa-zeregin giltzarria izango dute, eta EHSSren jarrera eta errekonozimendu zabala bilatuko da.

12. BIBLIOGRAFIA

CANTO A., LOPEZ-AROSTEGUI, R.; ROMEO, Z. (2015). *Euskadiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuria*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia. Hemendik hartua: http://www.3sbizkaia.org/wp-content/uploads/1823_1_LibroBlancoTSSeuskadi2015.pdf

EUSKADI. 12/2008 LEGEA, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 246. zk., 2008ko abenduaren 24koa. Hemendik hartua: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/12/0807143a.pdf>

EUSKADI. Elkarriketa Zibilerako mahaia eratzeko eta arautzeko 2012ko abenduaren 11ko 283/2012 DEKRETUA. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 248. zk., 2012ko abenduaren 24koa. Hemendik hartua: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2012/12/1205791a.pdf>

EUSKADI. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 94. zk., 2016ko maiatzaren 19koa. Hemendik hartua: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096a.pdf>

EDE FUNDAZIOA (2021). Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren egoera, eraldaketa digitalaren erronkaren aurrean. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila. Hemen eskuragarri: https://3euskadi.eus/wp-content/uploads/Informe_transformaciondigital_DEF.pdf

EDE FUNDAZIOA (2023). *Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk EAEn*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila. (Argitaratzeko)

EUSKO JAURLARITZA (2018). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia*. Hemendik hartua: https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/xiileg_planes_departamentales/es_def/ESTRATEGIA-DE-PROMOCION-DEL-TERCER-SECTOR-SOCIAL-DE-EUSKADI.pdf

EUSKO JAURLARITZA (2021). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia. 2021-2024 Legegintzaldiko Plana*. Hemendik hartua: <https://3euskadi.eus/wp-content/uploads/EPTSSE-plan-de-la-XII-Legislatura.pdf>

L'OBSERVATORI DEL TERCER SECTOR (2018). *El Panoramic 2018. Base social i participació a les entitats no lucratives de Catalunya*. Hemendik hartua: <http://www.elpanoramic.org/wp-content/uploads/2015/07/PANORAMIC-2018.pdf>

HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EUSKAL BEHATOKIA (2020). *Covid-19aren eragina Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan*. Hemendik hartua: https://3euskadi.eus/wp-content/uploads/Informe_COVID_19.pdf

HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EUSKAL BEHATOKIA (2021). *Euskadiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuria 2020*. Hemendik berreskuratua: https://3euskadi.eus/wp-content/uploads/LibroBlanco_DEF_2019-2020_es-comp.pdf

HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EUSKAL BEHATOKIA (2021). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko neurrien gaineko txostena (2019)*. Hemendik berreskuratua: https://3euskadi.eus/wp-content/uploads/IMPTSSE-2019_es.pdf

HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EUSKAL BEHATOKIA (2022). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko neurrien II. txostena. Euskadiko enpresa-sektoreak bultzatutako sustapen-ekintza* Hemendik berreskuratua: https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/Informe_IMP_2021.pdf

HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EUSKAL BEHATOKIA (2022). *Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2021eko Barometroa*. Hemendik berreskuratua: https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/Informe_BAROMETRO2021_DEF.pdf

GIZARTE EKINTZAKO GKE-REN PLATAFORMA (2020). *El Tercer Sector de Acción Social en España 2019*. Hemendik hartua: <http://www.plataformatercersector.es/sites/default/files/IV%20Estudio%20Tercer%20Sector%20resumen%20ejecutivo.pdf>

GIZARTE EKINTZAKO GKE-REN PLATAFORMA (2023). *2022ko Espainiako Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorearen Barometroa*. Hemendik berreskuratua: https://www.plataformaong.org/ARCHIVO/documentos/biblioteca/1676295113_resumenejecutivo-barometro-3-sector.pdf

GIZARTE EKINTZAKO GKE-REN PLATAFORMA (2023). *Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen IV. Plan Estrategikoa 2022-2026*. Hemendik berreskuratua: https://www.plataformaong.org/ARCHIVO/documentos/biblioteca/1705507921_ivpetsas.vf.pdf

SAREEN SAREA (2020). *Sareen Sarearen II Plan Estrategikoa 2020-2023*. Hemendik berreskuratua: <https://sareensarea.eus/wp-content/uploads/2021/06/II-Plan-Estrategico-Sareen-Sarea-web.pdf>

SAREEN SAREA (2022). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala 2030 Agendaren eta GJHen aurrean* Hemendik berreskuratua: <https://sareensarea.eus/wp-content/uploads/2022/06/Tercer-Sector-Social-de-Euskadi-ante-la-Agenda-2030-y-los-ODS.pdf>

13. GRAFIKOEN ETA TAULEN AURKIBIDEA

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. GRAFIKOA. EHSS-REN ZIFRA NAGUSIAK.	13
2. GRAFIKOA. EHSS-REN ZIFRA NAGUSIAK LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA.	14
3. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FIGURA JURIDIKOAREN ARABERA (%)	15
4. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEAN BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%).....	16
5. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ARABERA. (%).....	17
6. GRAFIKOA.	17
7. GRAFIKOA.	18
8. GRAFIKOA	18
9. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERA. (%)	19
10. GRAFIKOA HIRIBURUAN KOKATUTAKO ERAKUNDEEN PROPORZIOA, LURRALDE BAKOITZEKO ERAKUNDEEN GUZTIZKOAREKIKO. %	20
11. GRAFIKOA. JARDUERA ARLOEN DEFINIZIOA ETA ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA ARLO NAGUSIAREN ARABERA. (%).....	23
12. GRAFIKOA. JARDUERA ARLO BAKOITZEAN LAN EGITEN DUTEN ERAKUNDEAK (%)	25
13. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, ERAKETA URTEAREN ARABERA. (%)	26
14. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, ARTATZEN DUTEN KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%).....	28
15. GRAFIKOA KOLEKTIBO BAKOITZA JOMUGA DUTEN ERAKUNDEAK. (%)	30
16. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, HAIEN JARDUERA ZUZENDUTA DAGOEN KOLEKTIBO NAGUSIAREN ARABERA. (%).....	30
17. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, ARLOAREN ARABERA ETA HAIEN JARDUERA ZUZENTZEN DIETEN HIRU KOLEKTIBO NAGUSIEN ARABERA. (%)	31
18. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKO BEREAN HAIEN KOLEKTIBO NAGUSIAREKIN LANEAN DARAMATZEN URTEEN ARABERA. (%)	32
19. GRAFIKOA Erakundeen banaketa hautemandakoaren arabera eta erabiltzaileen aldaketei emandako erantzuna. (%).....	33
20. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ARABERA (%).....	33
21. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUAK HORNITZEN DITUZTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)	35
22. grafikoa. ERAKUNDEEN BANAKETA, ERABILTZAILEEN ERREGISTRO NOMINALA IZATEAREN EDO EZ IZATEAREN ARABERA. (%).....	36
23. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ERABILTZAILEEN BILAKAERAREN ARABERA. (%)	36
24. GRAFIKOA. ZERBITZUAK HORNITZEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZUAK HORNITZEKO GARAIA DUTEN PARTE HARTZEAREN ARABERA. (%).....	36
25. GRAFIKOA ERAKUNDEAK, BEREZKO EZAUGARRI BATZUEN ARABERA (%)	38
26. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, EMATEN DUTEN ZERBITZU NAGUSIAREN ARABERA. (%)	39
27. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ARLOAREN ARABERA ETA ESKAINTZEN DITUZTEN HIRU ZERBITZU NAGUSIEN ARABERA. (%).....	40
28. GRAFIKOA. ZERBITZUETAKO BAKOITZA EMATEN DUTEN ERAKUNDEAK (%)	41
29. GRAFIKOA. HARTZAILEEI ZUZENETAKO ZERBITZUAK EMATEN DIZKIETEN ETA ARRETA EREDU KOMUNITARIOKO ELEMENTU GUZTIAK DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%)	42
30. GRAFIKOA. BESTE FUNTZIO SOZIALETAKO BAKOITZA EGITEN DUTEN ERAKUNDEAK. (%).....	44
31. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, EGITEN DUTEN BESTE FUNTZIO SOZIALAREN ARABERA. (%)	44
32. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ARLOAREN ARABERA ETA EGITEN DITUZTEN BESTE FUNTZIO SOZIAL BATZUEKIN LOTUTAKO HIRU JARDUERA NAGUSIEN ARABERA. (%)	45
33. GRAFIKOA. FUNTZIOETAKO BAKOITZA EGITEN DUTEN BIGARREN EDO HIRUGARREN MAILAKO ERAKUNDEAK. (%)	46
34. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEAN BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%).....	49
35. GRAFIKOA. LANTALDEETAN ORDAINPEKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%)	49
36. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEETAN SOLDATAPEKO LANGILEEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)	49
37. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIO KOPURUAREN ARABERA. (%).....	52
38. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIOEN BILAKAERAREN ARABERA. (%).....	53
39. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUAREN ARABERA. (%)	54
40. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN BILAKAERAREN ARABERA. (%)	56
41. GRAFIKOA. BOLUNTARIOEN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. (%).....	57
42. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, EMAKUMEEK BOLUNTARIOEN ARTEAN DUTEN PISUAREN ARABERA. (%) 58	

43. GRAFIKOA. BOLUNTARIOEN OSAERA, ADINAREN ARABERA. (%).....	58
44. GRAFIKOA. BIZTANLERIAREN ETA BOLUNTARIOEN OSAERA, ADINAREN ARABERA. (%)	59
45. GRAFIKOA. BOLUNTARIOEN OSAERA, IKASKETA MAILAREN ARABERA. (%)	59
46. GRAFIKOA. BOLUNTARIOEN OSAERA, ANTZINATASUNAREN ARABERA.	60
47. GRAFIKOA. BOLUNTARIOEN OSAERA, ASTEAN ESKAINTZEN DUTEN DENBORAREN ARABERA. (%)	60
48. GRAFIKOA. BOLUNTARIOEN OSAERA, ZEREGIN MOTAREN ARABERA. (%)	60
49. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AURREZ ERABILTZAILEAK IZANDAKO BOLUNTARIOEN PISUAREN ARABERA. (%).....	61
50. GRAFIKOA. DESGAITASUN ZIURTAGIRIA DUTEN BOLUNTARIOAK DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%)	61
51. GRAFIKOA. ESPAINIARRA EZ DEN NAZIONALITATEKO BOLUNTARIOAK DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%).....	62
52. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA SEXUAREN ARABERA. (%)	62
53. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, EMAKUMEEK ORDAINPEKO LANGILEEN ARTEAN DUTEN PISUAREN ARABERA. (%).....	62
54. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA ADINAREN ARABERA. (%)	63
55. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA, IKASKETA MAILAREN ARABERA. (%).....	64
56. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA ANTZINATASUNAREN ARABERA. (%).....	65
57. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA, ZEREGIN MOTAREN ARABERA. (%).....	65
58. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, LANALDI MOTAREN ARABERA (%)	66
59. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, LANALDI MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. (%)	66
60. GRAFIKOA. SOLDATAPEKO LANGILEEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ARABERA. (%)	67
61. GRAFIKOA. KONTRATU MUGAGABEA EDO FINKOA DUTEN ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. (%).....	68
62. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. (%)	68
63. GRAFIKOA. ARDURA POSTU BAT DUTEN SOLDATAPEKO LANGILEAK, SEXUAREN ARABERA. (%)	69
64. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZUZENDARIAREN EDO GERENTEAREN SEXUAREN ARABERA. (%)	69
65. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AURREZ BOLUNTARIOAK IZANDAKO ORDAINPEKO LANGILEEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%).....	70
66. GRAFIKOA. ORDAINPEKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, BEKADUNAK EDO PRAKTIKETAKO PERTSONAK IZATEAREN ARABERA	70
67. GRAFIKOA. DESGAITASUN ZIURTAGIRIA DUTEN SOLDATAPEKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%)	71
68. GRAFIKOA. ESPAINIARRA EZ DEN NAZIONALITATEKO SOLDATAPEKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEAK (%) ..	71
69. GRAFIKOA. LAN MUNDURATZEKO PROZESUAN DAUDEN PERTSONEN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. (%).....	71
70. GRAFIKOA. ENPLEGU BABESTUA DUTEN PERTSONEN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. (%).....	72
71. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LAN HITZARMENAREN ARABERA. (%)	72
72. GRAFIKOA. GOBERNU ORGANOEN OSAERA SEXUAREN ARABERA. (%)	73
73. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KIDE BERRIEK GOBERNU ORGANOETAN DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)	73
74. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, HIRUGARREN SEKTOREKOAK EZ DIREN ENTITATEETAKO ORDEZKARIEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)	74
75. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ERAKUNDEAREN BARRUAN ORDAINDUTAKO BESTE JARDUERA BAT EGITEN DUTEN KIDEEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)	74
76. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, GOBERNU ORGANOAREN BILERA MAIZTASUNAREN ARABERA. (%).....	75
77. GRAFIKOA. ELKARTEEN BANAKETA, BATZARREN MAIZTASUNAREN ARABERA. (%)	75
78. GRAFIKOA. BAZKIDEEN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. % ETA BATEZBESTEKOA	76
79. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN BAZKIDE KOPURUAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ARABERA. (%).....	76
80. GRAFIKOA. DOHAINTZA-EMAILEEN OSAERA, MOTAREN ARABERA. % ETA BATEZBESTEKOA	77
81. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN DOHAINTZA EMAILE KOPURUAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ARABERA. (%).....	77
82. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ARABERA. (%).....	81
83. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO EKITALDIKO EMAITZAREN ARABERA. (%)	84
84. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN DIRU SARREREN BOLUMENAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ARABERA. (%).....	85
85. GRAFIKOA. DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZAREN PISUA, SEKTOREKO FINANTZAKETA OSOAREKIKO.....	87
86. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FINANTZAKETA ITURRIEN KOPURUAREN ARABERA. (%).....	91
87. GRAFIKOA. DIRU-SARREREN ITURRI BAKOITZA DUTEN ERAKUNDEAK. (%)	92
88. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FINANTZAKETA PUBLIKOAK GUZTIZKO FINANTZAKETAREN GAINEN DUEN PISUAREN ARABERA. (%).....	94

89. GRAFIKOA. DIRU SARREREN ITURRI PUBLIKO BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, FINANTZAKETA PUBLIKO OSOAREKIKO. (%)	95
90. GRAFIKOA. FINANTZAKETA ITURRI PUBLIKO BAKOITZA ESKURATZEN DUTEN ERAKUNDEAK.....	96
91. GRAFIKOA. ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZUEN FINANTZAKETAREN ARABERA. (%).....	98
92. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZORROETAN JASOTA EZ DAUDEN ZERBITZUEN FINANTZAKETAREN ARABERA (%).....	98
93. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BESTE FUNTZIO SOZIAL BATZUEN FINANTZAKETAREN ARABERA. (%)	98
94. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTEETAN HAIEN FINANTZAKETA PUBLIKOAK, FINANTZAKETA PRIBATUAK ETA FINANTZAKETA PROPIOAK IZANDAKO BILAKAERAREN ARABERA. (%)	99
95. GRAFIKOA. GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, IZAERAREN ARABERA. (%).....	101
96. GRAFIKOA. GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, XEDEAREN ARABERA. (%).....	102
97. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, ZORPETUTA DAUDEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)	102
98. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KONTUEN AUDITORETZA EGITEN DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)	102
99. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LIKIDEZIA ARAZOAK DITUZTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)	103
100. GRAFIKOA. LIKIDAZIO ARAZOAK EDO DIRUZAINZAKO TENTSIOAK IZAN DITUZTEN ETA FAKTORE HAUEK ERAGINA IZAN DUTELA ADIERAZI DUTEN ERAKUNDEAK	103
101. GRAFIKOA. LIKIDEZIA ARAZOAK EDO DIRUZAINZAKO ZAILTASUNAK IZAN DITUZTEN ETA HONAKO PRAKTIKA HAUETARA JO BEHAR IZAN DUTEN ERAKUNDEAK. (%).....	104
102. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KREDITUAK ESKURATZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%).....	104
103. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ENTITATEAREN EGOITZA NAGUSIAREN TITULARTASUNAREN ARABERA. (%).....	104
104. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LOKALEN BAT JABETZAN DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)	105
105. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KUDEAKETA TRESNAK ZENBATERAINO BARNERATUTA DITUZTEN KONTUAN HARTUTA. (%)	108
106. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, EMAITZAK EBALUATZEKO SISTEMA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	109
107. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	109
108. GRAFIKOA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO PLANA DUTEN ETA HARTAN ARRISKU PSIKOSOZIALEN ETA OSASUNAREN ZAINTZAREN GAINEKO ATAL ESPEZIFIKOAK JASOTZEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA. (%).....	110
109. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, PLAN ESTRATEGIKOA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	110
110. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BERDINTASUN PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	110
111. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KODE ETIKOA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	111
112. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANEKO JAZARPENAREN ETA JAZARPEN SEXUALAREN AURKAKO PROTOKOLOA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)	111
113. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIOAK KUDEATZEKO PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	112
114. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, PRESTAKUNTZA PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%)	112
115. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KUDEAKETA PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	112
116. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, KOMUNIKAZIO PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	113
117. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, DISKRIMINAZIOK EZERAKO PROTOKOLOA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	113
118. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AUDITORIA EDO BALANTZE SOZIALA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	113
119. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ERASOEN AURKAKO PROTOKOLOA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	114
120. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KALITATE SISTEMA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	114
121. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, GARDENTASUN PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	114

122. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, EUSKARA PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	115
123. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, INGURUMEN ARLOKO KUDEAKETA PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	115
124. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, ARRISU PENALAK BETETZEKO PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	115
125. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ESTRATEGIA DIGITALAREN GAINEKO PLANA ZENBATERAINO BARNERATUTA DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	116
126. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KALITATE ZIURTAGIRIRIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%).....	116
127. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, SOLDATARIK BAXUENAREN ETA ALTUENAREN ARTEKO ALDEAREN ARABERA. (%).....	117
128. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, NORMALEAN EUSKARA ERABILTZEN DUTEN ERAKUNDEKO PERTSONEN EHUNEKOAREN ARABERA. (%).....	117
129. GRAFIKOA. JARDUERAK PLANIFIKATZEKO ETA/EDO EBALUATZEKO INTERES TALDEAK AINTZAT HARTZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%).....	118
130. GRAFIKOA. INTERES TALDE BAKOITZAREN ASEBETETZE MAILA EBALUATZEKO SISTEMA BAT DUTEN ERAKUNDEAK. (%).....	119
131. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ERABAKIAK HARTZEN DITUZTEN ERAKUNDEKO ORGANOETAN EDO BATZORDEETAN BOLUNTARIOEK ETA SOLDATAPEKO LANGILEEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%).....	120
132. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN URTEAN KANPAINAREN BAT EGIN DUTEN EDO EZ ETA, HALA BADA, ELKARLANEAN EGIN DUTEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	121
133. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, MISIOAREN BETETZE MAILA EBALUATZEN DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%).....	121
134. GRAFIKOA ERAKUNDEEN BANAKETA, ERAKUNDEAN 2030 AGENDA TXERTATU DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%).....	122
135. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, POSTA ELEKTRONIKOAREN ERABILERAREN MAIZTASUNAREN ARABERA. (%).....	123
136. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, SARE SOZIALEN ERABILERAREN MAIZTASUNAREN ARABERA. (%).....	123
137. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, WEBGUNEAREN ERABILERAREN MAIZTASUNAREN ARABERA. (%).....	124
138. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, INTRANETAREN ERABILERAREN MAIZTASUNAREN ARABERA. (%).....	124
139. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BULETINEN EDO ALDIZKARIEN ERABILERAREN MAIZTASUNAREN ARABERA. (%).....	125
140. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, KOMUNIKABIDE TRADIZIONALEN ERABILERAREN MAIZTASUNAREN ARABERA.....	125
141. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, INTERES TALDEEI ASKOTARIKO INFORMAZIOA HELARAZI OHI DIETEN KONTUAN HARTUTA. (%).....	126
142. GRAFIKOA. HAINBAT HELBURUTARAKO TEKNOLOGIA DIGITALA ERABILTZEN DUTEN ERAKUNDEAK. (%).....	127
143. GRAFIKOA. HARTZAILEENGAN ZENTRATUTAKO PRAKTIKAK EGITEN DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%).....	128
144. GRAFIKOA. ASKOTARIKO ERAGILE SOZIALEKIN HARREMAN EDO ELKARLAN DEZENTE EDO HANDIA DUTEN ERAKUNDEEN BANAKETA. (%).....	131
145. GRAFIKOA. ERAGILE SOZIAL ANITZETATIK LAGUNTZA DEZENTE EDO HANDIA JASOTZEN DUTEN ERAKUNDEEN BANAKETA. (%).....	133
146. GRAFIKOA. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN ETA SAREKIN HARREMAN DEZENTE EDO HANDIA DUTELA DIOTEN ERAKUNDEEN BANAKETA. (%).....	136
147. GRAFIKOA. ERAKUNDEEN BANAKETA, SAREREN BATEN PARTE DIREN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%).....	137
148. GRAFIKOA. SAREEN HAINBAT ROL NAHIKO EDO OSO GARRANTZITSUTZAT JOTZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK (%).....	138
149. GRAFIKOA. HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAK DATOZEN URTEETAN AURRE EGIN BEHARREKO ERRONKAK. (%).....	140

TAULEN AURKIBIDEA

1. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FIGURA JURIDIKOAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%).....	16
2. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEETAN BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%).....	16

3. TAULA. SAREEN BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. GUZTIZKOA ETA LURRALDE HISTORIKOA. (%)	18
4. TAULA. SAREEN BANAKETA, JARDUERA ARLOAREN ARABERA. GUZTIRA ETA JARDUKETA ARLOA (%)	19
5. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA EREMU GEOGRAFIKOAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)	19
6. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA EREMU GEOGRAFIKOAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	20
7. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA EREMU GEOGRAFIKOAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	20
8. TAULA. EHSS-REN 2019-2023 ALDIKO ZIFRA NAGUSIEN DATU KONPARATIBOAK	21
9. TAULA. NORTASUN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK	22
10. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA ARLOAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)	24
11. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA ARLOAREN ETA BOLUMEN EKONOMIKOAREN ARABERA. (%)	24
12. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA ARLOAREN ARABERA ETA LANTALDEETAN ORDAINPEKO LANGILEEK DUTEN PRESENTZIAREN ETA BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)	25
13. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ANTZINATASUNAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)	26
14. TAULA. ERAKUNDEEN ANTZINATASUNA ARLOAREN ARABERA. BATEZBESTEKOAK (URTEAK)	26
15. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ANTZINATASUNAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	27
16. TAULA. ERAKUNDE GAZTEEN BANAKETA, ANTZINATASUNAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)	27
17. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ANTZINATASUNAREN ETA ARLOAREN ARABERA	27
18. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ANTZINATASUNAREN ETA BOLUMEN EKONOMIKOAREN ARABERA	27
19. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ANTZINATASUNAREN ETA ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUAREN ARABERA.	27
20. TAULA. ERAKUNDE GAZTEEN BANAKETA ARLOAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)	28
21. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ARTATZEN DUTEN KONTINGENTZIAREN ETA ARLOAREN ARABERA (%)	29
22. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ARTATZEN DUTEN KONTINGENTZIAREN ETA BOLUMEN EKONOMIKOAREN ARABERA (%)	29
23. TAULA. ERAKUNDEAK, EREMU GEOGRAFIKO BEREAN HAIEN KOLEKTIBO NAGUSIAREKIN LANEAN DARAMATZEN URTEEN ARABERA. OINARRIZKO ESTATISTIKAK	32
24. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKO BEREAN HAIEN KOLEKTIBO NAGUSIAREKIN LANEAN DARAMATZEN URTEEN ARABERA ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	32
25. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)	34
26. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	34
27. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ETA ARTATUTAKO KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)	34
28. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	35
29. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ETA OINARRIZKO ERAKUNDE EDO SAREEN ARABERA. (%)	35
30. TAULA. ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZURIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)	37
31. TAULA. ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZURIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA, ARLOAREN ARABERA. (%)	37
32. TAULA. ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZURIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA, DIRU-SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	38
33. TAULA. ERAKUNDEETAN GEHIEN IDENTIFIKATUTAKO ARRETA EREDU KOMUNITARIOKO ELEMENTUAK, ARLOAREN, KONTINGENTZIAREN ETA ANTZINATASUNAREN ARABERA	42
34. TAULA. JARDUERA ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (I)	47
35. TAULA. JARDUERA ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (II)	47
36. TAULA. LANTALDEETAKO PERTSONA KOPURUA. OINARRIZKO ESTATISTIKAK. GUZTIRA ETA ARLOKA	48
37. TAULA. LANTALDEETAKO PERTSONA KOPURUA. OINARRIZKO ESTATISTIKAK. GUZTIRA ETA BALIABIDE EKONOMIKOEN ARABERA	49
38. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEETAN ORDAINPEKO LANGILEEK DUTEN PRESENTZIAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN, ARLOAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	50
39. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEETAN BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN, ARLOAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	51
40. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIO KOPURUAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	52
41. TAULA. BOLUNTARIO KOPURUA OINARRIZKO ESTATISTIKAK. GUZTIRA ETA ARLOKA	52

42. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIOEN BILAKAERAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)	53
43. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIOEN BILAKAERAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	53
44. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIOEN BILAKAERAREN ETA KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%).....	53
45. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUA OINARRIZKO ESTATISTIKAK. GUZTIRA ETA ARLOKA	54
46. TAULA. SOLDATAPEKO PERTSONEN KOPURUA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. OINARRIZKO ESTATISTIKAK.	54
47. TAULA. SOLDATAPEKO PERTSONEN KOPURUA ERAKUNDEAREN ANTZINATASUNAREN ARABERA. OINARRIZKO ESTATISTIKAK.	54
48. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUAREN ETA FIGURA JURIDIKOAREN ARABERA. (%).....	55
49. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	55
50. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUAREN ETA ARTATUTAKO KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%).....	55
51. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%).....	56
52. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN KOPURUAREN ETA ANTZINATASUNAREN ARABERA. (%).....	56
53. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN BILAKAERAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%).....	57
54. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN BILAKAERAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%).....	57
55. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINPEKO LANGILEEN BILAKAERAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	57
56. TAULA. BOLUNTARIOEN OSAERA, SEXUAREN ETA ARLOAREN ARABERA (%)	58
57. TAULA. BOLUNTARIOEN OSAERA, SEXUAREN ETA ARTATUTAKO KONTINGENTZIAREN ARABERA (%)	58
58. TAULA. BOLUNTARIOEK EGITEN DUTEN ZEREGIN MOTA, LANTALDEETAN SOLDATAPEKO PERTSONAK DAUDEN KONTUAN HARTUTA. (%)	61
59. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA SEXUAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%).....	62
60. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA SEXUAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	63
61. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA SEXUAREN ETA ARTATUTAKO KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)...	63
62. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA SEXUAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	63
63. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA ADINAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	64
64. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA ADINAREN ETA ARTATUTAKO KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)...	64
65. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA, IKASKETA MAILAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	65
66. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA ANTZINATASUNAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	65
67. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA, ZEREGIN MOTAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	66
68. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN OSAERA, ZEREGIN MOTAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%).....	66
69. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, LANALDI MOTAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%).....	67
70. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, LANALDI MOTAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%).....	67
71. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	68
72. TAULA. ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%).....	68
73. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZUZENDARIAREN EDO GERENTEAREN SEXUAREN ARABERA ETA ARLOAREN ARABERA. (%).....	69
74. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, ZUZENDARIAREN EDO GERENTEAREN SEXUAREN ARABERA ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	70
75. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AURREZ BOLUNTARIOAK IZANDAKO ORDAINPEKO LANGILEEK DUTEN PISUAREN ARABERA ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	70
76. TAULA. GOBERNU ORGANOETAKO PERTSONA KOPURUA. OINARRIZKO ESTATISTIKAK. GUZTIRA ETA ARLOKA...	73
77. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, DOHAINTZA EMAILE KOPURUAREN BILAKAERAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%).....	77
78. TAULA. PERTSONEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (I)	78
79. TAULA. PERTSONEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (II)	78
80. TAULA. PERTSONEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (III)	79
81. TAULA. PERTSONEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (IV)	80
82. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ETA LURRALDEAREN ARABERA. (%).....	81
83. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ETA FIGURA JURIDIKOAREN ARABERA. (%)	82

84. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	82
85. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ARABERA, ETA LANTALDEETAN ORDAINPEKO LANGILEEK DUTEN PRESENTZIAREN ETA BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)	83
86. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ETA ANTZINATASUNAREN ARABERA. (%)	83
87. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO DIRU SARREREN ETA KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)	83
88. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO EKITALDIKO EMAITZAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)	84
89. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO EKITALDIKO EMAITZAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	84
90. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO EKITALDIKO EMAITZAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	85
91. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, 2022KO EKITALDIKO EMAITZAREN ETA ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ARABERA. (%)	85
92. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN DIRU SARREREN BOLUMENAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ARABERA. (%)	85
93. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN DIRU SARREREN BOLUMENAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	86
94. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN DIRU SARREREN BOLUMENAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	86
95. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN DIRU SARREREN BOLUMENAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ETA ARTATUTAKO KONTINGENTZIAREN ARABERA. (%)	86
96. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTETAN DIRU SARREREN BOLUMENAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ETA ZERBITZU HORNIKUNTZAREN ARABERA. (%)	87
97. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA SEKTOREKO FINANTZAKETA OSOAREKIKO, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)	88
98. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA SEKTOREKO FINANTZAKETA OSOAREKIKO, ARLOAREN ARABERA. (%)	88
99. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA ETA FINANTZAKETAREN PISUA ARLOAREN ARABERA. (%)	89
100. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA SEKTOREKO FINANTZAKETA OSOAREKIKO, DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	89
101. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA ETA FINANTZAKETAREN PISUA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	90
102. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA SEKTOREKO FINANTZAKETA OSOAREKIKO, ANTZINATASUNAREN ARABERA. (%)	90
103. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA ETA FINANTZAKETAREN PISUA ANTZINATASUNAREN ARABERA. (%)	91
104. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FINANTZAKETA ITURRIEN KOPURUAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	91
105. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FINANTZAKETA ITURRIEN KOPURUAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	92
106. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZA DUTEN ERAKUNDEAK, ARLOAREN ARABERA. (%)	93
107. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZA DUTEN ERAKUNDEAK, DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	93
108. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FINANTZAKETA PUBLIKOAK GUZTIZKO FINANTZAKETAREN GAINEAN DUEN PISUAREN ARABERA ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)	94
109. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FINANTZAKETA PUBLIKOAK GUZTIZKO FINANTZAKETAREN GAINEAN DUEN PISUAREN ARABERA ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	94
110. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, FINANTZAKETA PUBLIKOAK GUZTIZKO FINANTZAKETAREN GAINEAN DUEN PISUAREN ARABERA ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN. (%)	95
111. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI PUBLIKO BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA FINANTZAKETA PUBLIKO OSOAREKIKO, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)	95
112. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI PUBLIKO BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA FINANTZAKETA PUBLIKO OSOAREKIKO, ARLOAREN ARABERA. (%)	96
113. TAULA. DIRU SARREREN ITURRI PUBLIKO BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA FINANTZAKETA PUBLIKO OSOAREKIKO, DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	96
114. TAULA. FINANTZAKETA ITURRI PUBLIKO BAKOITZA ESKURATZEN DUTEN ERAKUNDEAK, ARLOAREN ARABERA (%)	97
115. TAULA. FINANTZAKETA ITURRI PUBLIKO BAKOITZA ESKURATZEN DUTEN ERAKUNDEAK, DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA (%)	97
116. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTEETAN HAIEN FINANTZAKETA PUBLIKOAK, FINANTZAKETA PRIBATUAK ETA FINANTZAKETA PROPIOAK IZANDAKO BILAKAERAREN ARABERA ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. (%)	99

117. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTEETAN HAIEN FINANTZAKETA PUBLIKOAK, FINANTZAKETA PRIBATUAK ETA FINANTZAKETA PROPIOAK IZANDAKO BILAKAERAREN ARABERA ETA ARLOAREN ARABERA. (%) ...	100
118. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, AZKEN HIRU URTEETAN HAIEN FINANTZAKETA PUBLIKOAK, FINANTZAKETA PRIBATUAK ETA FINANTZAKETA PROPIOAK IZANDAKO BILAKAERAREN ARABERA ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	100
119. TAULA. GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, IZAERAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	101
120. TAULA. GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, IZAERAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	101
121. TAULA. GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, XEDEAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	102
122. TAULA. BALIABIDE EKONOMIKOEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (I).....	105
123. TAULA. BALIABIDE EKONOMIKOEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (II).....	106
124. TAULA. BALIABIDE EKONOMIKOEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (III).....	106
125. TAULA. BALIABIDE EKONOMIKOEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (IV)	107
126. TAULA. KOMUNIKAZIO TRESNA DIGITALAK NAHIKO EDO OSO MAIZ ERABILTZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK, ORDAINPEKO LANGILEEN PRESENTZIAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	124
127. TAULA. KOMUNIKAZIO MEKANISMO EZBERDINAK NAHIKO EDO OSO MAIZ ERABILTZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK, ORDAINPEKO LANGILEEN PRESENTZIAREN ETA DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	125
128. TAULA. INTERES TALDEEI NORMALEAN ASKOTARIKO INFORMAZIOA BIDALTZEN DIETEN ERAKUNDEAK, ARLOAREN ARABERA. (%)	126
129. TAULA. INTERES TALDEEI NORMALEAN ASKOTARIKO INFORMAZIOA BIDALTZEN DIETEN ERAKUNDEAK, DIRU SARREREN BOLUMENAREN ARABERA. (%)	127
130. TAULA. KUDEAKETA ETA KOMUNIKAZIO ESTRATEGIEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (I)	129
131. TAULA. KUDEAKETA ETA KOMUNIKAZIO ESTRATEGIEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (II)	130
132. TAULA. KUDEAKETA ETA KOMUNIKAZIO ESTRATEGIEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK (III).....	130
133. TAULA. BATEZ BESTEKO HARREMANA BAINO HANDIAGOA DUTEN ERAKUNDEAK, ARLOAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN, TAMAINAREN ETA KONTINGENTZIAREN ARABERA	132
134. TAULA. BATEZ BESTEKO LAGUNTZA BAINO HANDIAGOA JASOTZEN DUTEN ERAKUNDEAK, ARLOAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA TAMAINAREN ARABERA.....	133
135. TAULA. KANPO HARREMANEN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK.....	135
136. TAULA. SAREEN HAINBAT ROL NAHIKO EDO OSO GARRANTZITSUTZAT JOTZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%).....	138
137. TAULA. SAREEN HAINBAT ROL NAHIKO EDO OSO GARRANTZITSUTZAT JOTZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK, ARLOAREN ARABERA. (%)	139
138. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LEHEN KEZKAREN, ENTITATEAREN OSASUN ELEMENTUEN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (%)	141
139. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LEHEN KEZKAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	141
140. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LEHEN KEZKAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	142
141. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LEHEN KEZKAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	143
142. TAULA. ERAKUNDEEN BANAKETA, LEHEN KEZKAREN ETA ARLOAREN ARABERA. (%)	144
143. TAULA. SEKTOREKO HARREMANEN ETA EGOERAREN ADIERAZLEEN 2019-2023 ALDIKO DATU KONPARATIBOAK	145